



Bizkaiko Foru  
Aldundia

Ogasun eta Finantza  
Saila

Diputación Foral  
de Bizkaia

Departamento de Hacienda  
y Finanzas

**1997**

**PFEZri buruzko  
ARAUTEGIA**

7/91 Foru Araua

20/92 Foru Dekretua

**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA**

## **HITZAURREA**

Zerga arautegian egondako aldaketa ugariengatik, esliburu honek bildu egin nahi ditu PFEZri buruzko 7/91 Foru Arauari eta aipatu zergaren Araudia onesten duen 20/92 Foru Dekretuari daragieten arau-aldaketak.

Errenta eta Ondarearen Behin-behineko Likidazioen Ataleko eta Errenta Ataleko likidatzaileek gertatu dute, eta 1997ko ekitaldiari dagokion Errentaren Kanpaina dela eta egingo den ikastaroan arau-gidabidea izatea du helburu. Ez du, hertsiki, arau izatearen baliorik eta egileek ez dute interpretazio, idazketa eta inprimaketan gertatu izan daitezkeen okerren erantzukizunik hartzen.

Eskuliburu honetan, gai berari buruz ari diren Zergari buruzko Arauaren artikulua (beltzez) eta Araudiarenak (urdinez eta kurtsibaz) ematen dira bata bestearen ondoan. 1997rako aldaketa nagusiak gorritz daude (kolorezko inprimaketan).

Bilbon, 1997ko abendua

PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA

Azaroaren 27ko 7/91 FORU ARAUA (1991ko abenduaren 16ko BAOren eranskina)

AURKIBIDEA

I. TITULUA

ZERGAREN JITEA, XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA

1. artikulua. Jitea  
2. artikulua. Xedea  
3. artikulua. Lurralde aplikazio-eremua  
4. artikulua. Itunben eta Hitzarmenak

II. TITULUA

ZERGA EGITATEA

5. artikulua. Zerga egitatea  
6. artikulua. Ondare elementu lotuak  
7. artikulua. Etekinen zenbatespena  
8. artikulua. Eragiketa loteraziak  
9. artikulua. Errenta salbuetsiak  
10. artikulua. Errenten iratxikipena

III. TITULUA

SUBJEKTU PASIBOA

I. KAPITULUA

ARAU OROKORRAK

11. artikulua. Subjektu pasiboak  
12. artikulua. Ohizko egoitza

II. KAPITULUA

ZERGA ORDAINTZEKO BETEBEHAR PERTSONALA

13. artikulua. Zerga ordaintzeko betebeharrak pertsonala  
14. artikulua. Zerga ordaindu beharraren balizko bereziak  
15. artikulua. Betebeharrak pertsonalaren salbuespenak

III. KAPITULUA

ZERGA ORDAINTZEKO ONDASUN-BETEBEHARRA

16. artikulua. Zerga ordaintzeko ondasun-betebeharrak  
17. artikulua. Salbuesteko balizko bereziak: Euskal Herrian lortzen ez diren errentak  
18. artikulua. Zerga oinarria  
19. artikulua. Tributu zorra  
20. artikulua. Kenkariak  
21. artikulua. Eraren aldetiko betebeharrak eta eginbeharrak  
22. artikulua. Ez-egoiliarren ordezkariak eta egoitza fiskala

IV. TITULUA

ZERGA OINARRIA

23. artikulua. Zerga oinarria. Arau orokorra

V. TITULUA

ERRENTAREN ZEHAZTAPENA

I. KAPITULUA

ARAU OROKORRAK

1go. SAILA. Lan etekinak

24. artikulua. Lan etekin osoak  
25. artikulua. Kontraprestazio edo onurak  
26. artikulua. Gauzazko ordainketak  
27. artikulua. Gauzazko ordainketen balioztapena  
28. artikulua. Gastu kengarriak  
29. artikulua. Lan etekin garbia  
30. artikulua. Lan etekinen bakoiztapena

2gn. SAILA. Kapitalaren etekinak

1go. AZPISAILA. Arau orokorrak

31. artikulua. Kapitalaren etekin osoak  
32. artikulua. Kapitalaren etekin garbia  
33. artikulua. Kapitalaren etekinen bakoiztapena

2gn. AZPISAILA. Higiezinaren kapitalaren etekinak

34. artikulua. Higiezinaren kapitalaren etekin osoak  
35. artikulua. Gastu kengarriak  
36. artikulua. Etekina senidetasuna dagoenean

3gn. AZPISAILA. Higigarrien kapitalaren etekinak

37. artikulua. Higigarrien kapitalaren etekin osoak.  
38. artikulua. Higigarrien kapitalaren etekintzat hartzen ez diren balizkoak  
39. artikulua. Gastu kengarriak eta beste txikipen batzu

3gn. SAILA. Enpresa nahiz lanbide ihardueren etekinak

40. artikulua. Enpresa nahiz lanbide ihardueren etekin osoak  
41. artikulua. Etekin garbia  
42. artikulua. Etekin garbia zehazteko arauak  
43. artikulua. Enpresa nahiz lanbide ihardueren etekinen bakoiztapena

4gn. SAILA. Ondare-gehikuntza eta urripenak

44. artikulua. Kontzeptua  
45. artikulua. Gehikuntza nahiz urripenen zenbatekoak. Arau orokorra.  
46. artikulua. Eskuraketako eta eskualdaketako balioak  
47. artikulua. Dohainezko eskuraketa nahiz eskualdaketa  
48. artikulua. Arau bereziak  
49. artikulua. Gehikuntza frogatugabeak

50. artikulua.	Berrinbertsioaren ziozko salbuespena		70. artikulua.	Oinarri likidagarri erregularra
51. artikulua.	Ondare-gehikuntza eta urripenen bakoiztapena		71. artikulua.	Txikipenak zerga oinarri erregularrean
	5gn. SAILA. Errenten egozketa		72. artikulua.	Oinarri likidagarri irregularra
				II. KAPITULUA
52. artikulua.	Gardentasun araubidea			OINARRI LIKIDAGARRI ERREGULAR
53. artikulua.	Beste kontzeptu batzuren egozketa			NEGATIBOEN KONPENTSAZIOA
54. artikulua.	Partaideen identifikazioa		73. artikulua.	Konpentsazioa
55. artikulua.	Errenten bakoiztapena			III. KAPITULUA
	II. KAPITULUA			KUOTA OSOA
	SARRERA ETA GASTUEN ALDIBATERAKO EGOZKETA			1go. SAILA. Oinarri likidagarri erregularraren karga
56. artikulua.	Aldibaterako egozketa		74. artikulua.	Zergako eskala
	III. KAPITULUA			2gn. SAILA. Oinarri likidagarri irregularraren karga
	ERRENTA MOTAK		75. artikulua.	Karga tasa
57. artikulua.	Errenta motak			3gn. SAILA. Kuota osoa
58. artikulua.	Errenta erregularra		76. artikulua.	Kuota osoa
59. artikulua.	Errenta irregularra			IV. KAPITULUA
	IV. KAPITULUA			KUOTA LIKIDOA
	OSAKETA ETA KONPENTSAZIOA		77. artikulua.	Kuota likidoa
	1go. SAILA. Orokorra		78. artikulua.	Kenkariak
60. artikulua.	Osaketa eta konpentsazioa		79. artikulua.	Frogagiriak
	2gn. SAILA. Errenta erregularren osaketa eta konpentsazioa		80. artikulua.	Zenbait kenkariren mugak
61. artikulua.	Etekin erregularrak		81. artikulua.	Ondare egoeraren egiaztapena
62. artikulua.	Ondare-gehikuntza eta urripen erregularrak			V. KAPITULUA
63. artikulua.	Errenta erregularra			DIFERENTZIAZKO KUOTA
	3gn. SAILA. Errenta irregularren osaketa eta konpentsazioa		82. artikulua.	Nazioarteko ezarpen bikoitzaren ziozko kenkaria
64. artikulua.	Etekin irregularrak. Arau orokorra		83. artikulua.	Diferentziazko kuota
65. artikulua.	Etekin irregularrak. Osaketa eta konpentsazioa			VI. KAPITULUA
66. artikulua.	Ondare-gehikuntza eta urripen irregularrak			TRIBUTU ZORRA
67. artikulua.	Errenta irregularra		84. artikulua.	Tributu zorra
	VI. TITULUA		85. artikulua.	Subjektu pasiboaren ondare erantzunkizuna
	ZERGA OINARRIAREN ZEHAZTAPENA			VIII. TITULUA
68. artikulua.	Zerga oinarria zehazteko erregimenak			BATERAKO ZERGA ORDAINKETA
69. artikulua.	Zenbatespen objektiboa		86. artikulua.	Zerga batera ordaintzea aukera daiteke
	VII. TITULUA		87. artikulua.	Famili unitatea
	TRIBUTU ZORRA		88. artikulua.	Aukeraren erabilera
	I. KAPITULUA		89. artikulua.	Baterako zerga ordaintetaren elementuak
	OINARRI LIKIDAGARRIA		90. artikulua.	Partida negatiboen konpentsazioa
			91. artikulua.	Zergako eskala
			92. artikulua.	Erregela bereziak zerga batera ordaintzekotan
				IX. TITULUA

## ZERGALDIA ETA ZERGAREN SORTZAPENA

93. artikulua. Zergaldia eta zergaren sortzapena  
 95. artikulua. Familiaren egoeraren zehaztapena

## X. TITULUA

## ZERGAREN KUDEAKETA

96. artikulua. Aitortu beharra  
 97. artikulua. Autolikidazioa  
 98. artikulua. Atxekipenak eta kontura egiten diren beste ordainketak  
 99. artikulua. Behin-behineko likidazioa  
 100. artikulua. Ofiziozko itzulketa  
 101. artikulua. Subjektu pasiboen erazko betebeharrak  
 102. artikulua. Atxekitzaileren erazko betebeharrak  
 103. artikulua. Sozietate Gardenen betebeharrak  
 104. artikulua. Urratze eta zehapenak

## XI. TITULUA

## JURISDIKZIO ORDENA

105. artikulua. Jurisdikzio ordena

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

- 1gn. Harpidetza eskubideen eskualdaketa Burtsara sartueran  
 2gn. Instituto de Relaciones Europeo-Latinoamericanas-eko pertsonala (IRELA)  
 3gn. Foru Tributu Arau Orokorraren aldarazpena  
 4gn. Egoitza Espainian ez duten entitateen ondasun higiezinaren gaineko Zerga Berezia  
 5gn. Zenbait Finantz Aktiboren Erregimen Fiskalari buruzko urriaren 24eko 7/1985 Foru Araueko lehen artikulua aldarazpena  
 7gn. Ekainaren 29ko 4/1990 Legeko Xedapen Gehigarrietan hamazortzigarrenean aurrikusten diren kalteordainen erregimena  
 8gn. Teknologia edota ekonomiaren karien ziozko amaiera  
 9gn. Urriaren 26ko 4/1988 Foru Dekretu Arauemaileko lehen artikulua aldarazpena  
 10gn. Ez-egoiliarrentzako kupoi korritudun baloreen eskualdaketa

- 11gn. Gauzazko ordainketak  
 12gn. Establezimendu iraunkorra  
 13gn. Ekonomi Ihardueren gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 6/1989 Foru Arauaren aldarazpena  
 14gn. Kontzertu Ekonomikoaren aldarazpena  
 15gn. Bizkaiko Jatorrizko Lurraldeko Guztizko Diruegitamuei buruzko Foru-Arauek ondorengok aldatu litzake, Konstituzioaren 134. atalaren 7. azpiatalak dioanaren arabera eta Ekonomia-Ituneak ezarritako aginpide-eremuaren barruan:  
 16gn. Izakunde ez-egoiliarrek lortutako zenbait errenta positibo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga oinarrian sartzea.  
 17gn. Elkarteko Nekazal Politikaren dirulaguntzak.  
 19gn. Aktibo finko ezmaterialen eskualdaketa jakin batzuen etekina.  
 18gn. Zerga-paradisuetan egoitza duten pertsona edo izakundeekin egindako eragiketen balioztapena.  
 19gn. Aktibo finko ezmaterialen eskualdaketa jakin batzuen etekina.

## XEDAPEN IRAGANKORRAK

- 1go. Subjektu pasibo ez-egoiliarrek euren ordezkaria izendatu  
 2gn. Konpentsazioa errenten zain  
 3gn. 1990 baino lehen eskuratutako etxebizitzaren ziozko kuotatikako kenkariak  
 4gn. Gardentasun fiskalean galerak egozteko erregimen iragankorra  
 5gn. Ondare-gehikuntza edo urripen batzuen araubide iragankorra.  
 6gn. Prezioa geroratuta duten ondare-gehikuntzen erregimen iragankorra  
 7gn. 1996ko ekainaren 9az aurretik eskuratutako ondare-elementuetatik etorritako ondare-gehikuntza eta urripenen zenbatekoaren zehaztapena.  
 8gn. Errenta irregularren karga-tasa 1996an.

## AZKEN XEDAPENAK

- 1go. Noiz jartzen den indarrean eta indargabetzeko duen eraginkortasuna

**PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA**

**Azaroaren 27ko 7/91 FORU ARAUA (1991ko abenduaren 16ko BAOren eranskina)**

**I. TITULUA**

**ZERGAREN JITEA, XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA**

**1. artikulua. Jitea**

Bat. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga zuzeneko izaera eta jite pertsonal eta subjektiboa duen tributua da, zeinek pertsona fisikoen errenta zergapetzen duen, Foru Arau honetan aurrikusten den bezala.

Bi. Aurreko atalean xedatutakoa gorabehera, egoiliarak ez diren subjektu pasiboek dagokien Zerga Foru Arau honetako III. Tituluko III. Kapituluari, ondasun-betebeharraren ziozko zerga-ordainketari buruz, dauden arauen arabera ordain eraziko da.

**2. artikulua. Xedea**

Pertsona fisikoen errenta euren etekin garbi eta ondare gehikuntza guztiek osatzen dute, Foru Arau honetan aurrikusitakoaren arabera zehaztuta.

**3. artikulua. Lurralde aplikazio-eremua**

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga Bizkaiko Herrialde Historiko osoan aplikatuko da.

**4. artikulua. Itunben eta Hitzarmenak**

Aurreko artikuluan aurrikusitakoaz landa, Bizkaiko Herrialde Historikoaren Tributu Sistema espainiar estatuak sinatu eta berronetsi edota atxeki nahi dituen nazioarteko Itunben eta Hitzarmenen menpean dago.

**II. TITULUA**

**ZERGA EGITATEA**

**5. artikulua. Zerga egitatea**

Bat. Zerga egitatea subjektu pasiboak errenta lortzea izango da.

Bi. Errenta subjektu pasiboek haren jatorri edo iturriaren arabera lortutakotzat hartuko da, ezkontzaren erregimen ekonomikoa edozein dela ere.

Hiru. Gardentasun fiskaleko erregimenean, errenta lorpen?tzat, erregimen honen menpean dauden sozietateen zerga oinarri positiboetatik subjektu pasiboari egiten zaion egozketa hartuko da.

Lau. Subjektu pasiboaren errentaren osagaiak honakook izango dira:

- a) Lan etekinak.

b) Hurrengo letran adieraziko diren iharduerari bakarrik loturik ez dagoen edozein ondare elementutatik eratoritzen diren etekinak.

c) Egiten dituen enpresa edota lanbide ihardueren etekinak.

d) Foru Arau honetan aurrikusitakoaren arabera zehazten diren ondare gehikuntzak.

e) Gardentasun fiskaleko erregimeneko sozietateen zerga oinarri positiboaren egozketa.

Bost. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren menpean dauden ondare gehikuntzak ez dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren menpean egongo.

**6. artikulua. Ondare elementu lotuak**

Bat. Enpresa edo lanbide ihardueraren bati loturiko ondare elementutzat, honakook hartuko dira:

a) Subjektu pasiboaren iharduera egiteko erabiltzen diren ondasun higiezinak.

b) Ihardueraren zerbitzupeko pertsonalaren ekonomia eta gizarte-kultur zerbitzuetarako xedemanik dauden ondasunak, baina enpresa edo lanbide ihardueraren titularraren aisia eta jolas edota, orohar, beraren bakarreko erabilerarako ondasunak ez dira lotutzat hartzen.

c) Etekinak lortzeko beharrezkoak diren gainerako ondare elementuak.

Enpresa edo lanbide ihardueraren xedepean, zati batez bakarrik dauden ondare elementuak direnean, lotura harako ihardueran benetan erabiltzen den zatiari mugatzen zaiola ulertzen da. Ondare elementu zatietan ezin dira zati batez lotu.

Aurreko lerroaldean eta 5. artikuluko laugarren ataleko b) letran xedaturikoaz landa, arau bidez zehaztu ahal izango da zein baldintzatan har daitezkeen zenbait ondare elementu enpresa edo lanbide ihardueraren bati lotutzat, bakarreko beharizanetarako eta beren beregiko garrantzirik gabe erabili ahal badira ere.

Bi. Loturiko ondare elementutzat hartu ahal izango dira, ezkontza egotekotan, beraien titulartasuna ezkontide biena izanik edo izan gabe.

**1. artikulua. Iharduerari loturiko ondare elementuak.**

**Bat.** Subjektu pasiboak egiten duen enpresa edo lanbide iharduerari loturiko ondare elementutzat, ezkontza egotekotan, beraien titulartasuna ezkontide biena denentz kontutan hartu gabe, honakook hartuko dira:

a) Iharduera egiteko erabiltzen diren ondasun higiezinak.

b) Ihardueraren zerbitzupeko pertsonalaren ekonomia eta gizarte-kultur zerbitzuetarako xedemanik dauden ondasunak.

c) Etekinak lortzeko beharrezkoak diren gainerako ondare elementuak.

Ihardueraren titularraren bakarreko erabilerarako ondasunak edota, aisia eta jolaserakoak ez dira inoiz enpresa edo lanbide iharduerari loturiko ondare elementutzat hartuko.

**Bi.** Subjektu pasiboak egiten duen enpresa edo lanbide iharduerari loturiko ondare elementutzat, subjektu pasiboak haren xedeetarako bakar-bakarrik erabiltzen dituenak hartuko dira.

*Ez dira bakar-bakarrik lotutzat hartuko:*

1go. Aldi berean enpresa edo lanbide ihardueretarako eta norbere beharizanetarako erabiltzen direnak, beharizanetarako erabilera eranskin gisa eta beren beregiko garrantzirik gabekoa denean izan ezik, artikuluko honetako laugarren atalean aurrikusitakoaren arabera.

2gn. Subjektu pasiboarenak direlarik, enpresa edo lanbide ihardueraren kontabilitatean edo erregistro ofizialetan agertzen ez direnak.

**Hiru.** Ihardueraren xedepean, zati batez bakarrik, dauden ondare elementuak direnean, lotura harako ihardueran benetan erabiltzen den zatiari mugatzen zaiola ulertzen da. Honetara, aparteko aprobetxamendua edo gainerakoetatik kanpokoa har dezaketen ondare elementuen zatiak bakarrik hartuko dira lotutzat. Ondare elementu zatietatik ezin dira inoiz zati batez lotu.

**Lau.** Norbere beharizanetarako eranskin gisa eta beren beregiko garrantzirik gabe erabiltzat hartuko dira, eskuratuak izan eta enpresa edo lanbide iharduera egiteko erabiltzen diren ibilgetuko ondasunak, baldin eta subjektu pasiboaren beraren erabilerarako edo ez-orduetan erabiltzen badira, bitartean iharduera horren erabilera geldierazita dagoenean.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa ez zaie aplikatuko turismo automobilerari eta berauen atoei, motozikletei, kirolerako aireuntzi nahiz itsasuntziei edota jolaserakoak, abenduaren 31ko 151/1985 Foru Dekretuan, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Araudia onetsi bait zuen, 62. artikuluko 1. zenbakiko 1go. ataleko a)tik f)ra bitarteko letretan adierazitakoak izan ezik, bai eta ohiki eta kostu bidez erabiltzeko lagapengai bakarrik izateko direnei ere.

#### **7. artikulua. Etekinen zenbatespena**

Bat. Lan pertsonalaren prestazioek eta ondasun zein eskubideen lagapenek, euren modalitate guztietan, merkatuko balio normalaren arabera ordainketa jasotzen dutela ulertuko da.

Bi. Merkatuko balio normaltzat, subjektu lokabeen artean hitzartuko litzatekeen kontraprestazioa hartuko da.

Hala ere, maileguak eta, orohar, besteren kapitalak erakarri edota erabiltzeko eragiketak izatekotan, kontraprestazioa zergaldiko azken egunean indarrean dagoen diruaren legezko korrituaren tasa aplikatuz zenbatetsiko da.

#### **8. artikulua. Eragiketa loteraziak**

Sozietate baten eta beraren bazkideen edota kontseilarien artean, talde bereko beste sozietateko batekoen artean eta beraietarik ezkontide, aurreko edota ondorengoan artean egiten diren eragiketak euren merkatuko balio normalean balioztatuko dira, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Araueko 12. artikuluan aurrikusitakoaren arabera.

#### **9. artikulua. Errenta salbuetsiak**

Hurrengo errentak salbuetsita egongo dira:

a) Terrorismo ekintzen zioz ematen diren aparteko prestazio publikoak.

b) Gizarte Segurantzak edo bere ordezkari entitateek subjektu pasiboari aintzatesten dizkioten prestazioak, beti ere erabateko ezgaitasun iraunkorren edo elbarri larriaren ondoriozkoak direnean.

c) Administrazio Publikoetako funtzionarioen jarduteko elbarritasun edo ezintasunaren ziozko pentsioak, **haien zioa izan den eritasun edo gaixotasunak pentsioaren jasotzaileari lanbide nahiz ogibide guztietarako elbarritasuna sortarazi dionean.**

d) Langilea kalera bota edo lanari utzi erazi behar izan zaiolako, ematen zaizkion kalteordainak, Langileen Estatutuan, berau garatzen duten erregelamenduetan edo, bestela, epaien beterazpena arautzen duen arautegian nahitaez ezarritako zenbatekoan, baina ezin izango da horretatik hartu hizarmen, itun edota kontratu bitartez ezartzen dena.

e) Pertsonen egiten zaizkien gorputzezko nahiz buruzko gai-tzen ziozko kalteordainak, legez edo judizio bidez aintzatesteko zenbatekoan, bai eta gaitz mota berberen zioz egin eta hogeita bost milioi pezetarainoko aseguru kontratuetatik eratortzen diren prestazioak ere.

f) Estatuko Loteria eta Apostuen Erakunde Nazionalaren loteria, joko eta posturetatik edota Autonomi Elkarteek antolatzen dituztenetatiko sariak.

g) Gurutze Gorriak antolatzen dituen zozketetako sariak.

h) Itsuen Erakunde Nazionalaren zozketetako sariak.

i) Literatur, arte edota zientzi sari garrantzitsuak, arau bidez zehaztuko diren baldintzekin.

j) Ikasketak, hezkuntz sistemako maila eta gradu guztietan, harik eta lizentziatura edo baliokidera heldu arte, egiteko hartzen diren beka publikoak.

k) Epailearen erabaki bat dela bide, gurasoei mantenerako hartzen zaizkien urtekoak.

l) Minusbaliodunak edota 65 urtekoak baino nagusiagoak har-tzeagatik, erakunde publikoei hartzen zaizkien kopuruak.

m) 1936/1939ko gerra zibilaren zioz edo ondorioz kalteak edo mozketak jasan zituztenen alde, Estatuko Klase Pasiboen araubidearen edo berariz emandako legeriaren babesean, aitorturiko pentsioak.

n) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko ekainaren 6ko 18/1991 Legeko 9. artikuluko bigarren atalean xedatutakoaren arabera, salbuetsita daudela adierazten direnak.

ñ) Ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzazko Erret Dekretuaren bidez onetsi zen Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren Testu Bateginaren II. tituluko IX. kapituluaren araupetutako kargurako seme-alabaren ziozko familia prestazioak.<sup>1</sup>

o) Erakunde kudeatzaileak aintzatetsitako langabeziaren ziozko prestazioak, ordainketa bakarreko langabeziaren ziozko prestazioaren ordainketa araupetu zuen ekainaren 19ko 1.044/1985 Erret Dekretuan ezarritako ordainketa bakarrean jasotzen direnean, 500.000 pezetako muga izanik, beti ere jasotako kopuruak arau horretan xedatutako egoeretan eta xedeetarako erabiltzen direnean.

Aurreko lerroaldean xedatutako salbuespena ekintzari bost urtez jasan edo bost urteko epean zehar partehartzearen baldintzapean izango da, subjektu pasiboa lan sozietate edo lan elkartuko kooperatibaren batean sartu bada eta, langile autonomia bada, epe berean zehar jarduerari eustea.

p) Kanarietako Zerga eta Ekonomi Araubidea aldarazi zuen uztailaren 6ko 19/1994 Legeko 75. artikulua aipatu unti eta itsas enpresen erregistro berezian izena emana izana eta ondasunen edo norberaren betebeharraren zioz Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergapekoak diren untzietako lagunei dagokienez, horiek erregistro horretan izena emandako untzietan egin izandako nabegazioaren zioz sortutako norberaren lanaren ondoriozko etekinen 100eko 50a zergatik salbuetsitakotzat joko da.

## **2. artikulua. Iraizpenaren nahiz lanari uztearen ziozko langilearentzako kalteordainak.**

<sup>1</sup> Sarrera hauetatik gorakoak ez dituztenean: 1997ko urtarrilaren 1etik aurrera, 12/1996 Legearen 5. Gehigarriak 1.157.414 pzt/urteko finkatzen du.

*Tributuei dagokienez, langilea iraitzi ez dela edo lanari utzi ez zaiola ulertuko da, Zergari buruzko Foru Araueko 9. artikuluko lehen ataleko d) letrak aipatzen dituen kalteordain salbuetsien inguruan, subjektu pasiboa enpresak berak edo, eskumendeko eta jatorrizkoaren arteko harremanak direla bide, edo alderantziz, hari loturiko beste enpresa batek, irazpenaren edo lanari uztearen ondorengo egutegiko hiru urteetan, berriro kontratatzen duenean.*

*Entitate jatorrizkoaren eta eskumendekoaren arteko harremanak daudela ulertuko da, lehenengoak, zuzenean edo zeharka, bigarrenaren sozietate kapitalaren ehuneko hogeitabosteko partaidetza duenean edo, horrelakorik eduki gabe, entitate batak bestean erabakitzeko ahalmenaren eginkizun beterazleak erabiltzen dituenean.*

*Harreman horiek ere badaude, aurreko arauaren arabera, jatorrizko beraren eskumendekoak diren entitateen artean.*

## **3. artikulua. Literatur, arte eta zientzi sari zenbaiten salbuespena.**

**Bat.** *Literatur, arte nahiz zientzi sari garrantzitsuak Zergatik salbuetsita egongo dira, baldin eta artikulua honetan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte.*

*Honi dagokionez, sarizat, ondasun edota eskubideak pertsona bati edo batzuri ematea hartuko da, kontraprestaziorik gabe, haren edo haien literatur, arte nahiz zientzi lanen balioaren eta hark edo haiek arlo horietan orohar duen/duten iharduera edo lanaren donari edo aintzatespen gisa.*

**Bi.** *1. Sari emaileak ezin izango du saridun lanen ekonomi ustiapenean ezer egin, ez eta hartan interesik eduki ere.*

*Bereziki, sariak ezin eska dezake lagapenik edo mugapenik lanen gaineko jabetza eskubideen gainean, ez eta jabetza intelektual nahiz industrialetik eratortzen direnen gainean ere.*

*Beharkizun hau ez da betegabetzat hartuko, lana jendaurrean zabaltzeagatik, baldin eta irabazteko asmorik ez badago eta sei hilabetekoa baino luzeagoa ez den epealdian egiten bada.*

*2. Nolanahi ere den, saria eman behar izango zaie deialdiaz aurretik burutuak diren lanei edo eginak diren iharduerei.*

*Ez dira sari salbuetsizat hartuko bekak, ez eta, orohar, aurreko lehenengo atalean aipatutako*



*alorrei buruzko obra edo lanak aurretiaz edo aldi berean finantzatzeko diren kopuruak ere.*

*3. Deialdiak honako beharkizun hauek eduki behar izango ditu:*

*a) Naziokoa edo nazioartekoa izatea.*

*b) Lehiaketariei sariaren berezko funtsaz landako arrazoiengatik ezein mugapenik ez ezartzea.*

*c) Haren iragarpena Estatuko Boletin Ofizialean edo Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta, gutxienez, Estatuan hedapen handia duen egunkari batetan argitaratzea.*

*Atzerriko deialdiko sariak nahiz nazioarteko organismoen deialdietakoek aurreko b) letran dagoen beharkizuna bete behar izango dute, salbuespena lortzeko.*

*4. Egoitza Espainian duten pertsona juridiko pribatuen nahiz pertsona fisikoek deialdietako sariak izatera, haien deialdiak, aurreko zenbakian adierazitako beharkizunak ezezik, lantzean behin egin behar izango dira.*

*5. Salbuespena tributu administrazioaren eskudun organoak adierazi behar izango du.*

*Aurreko adierazpena eskatu behar izango da, behar diren agiriekin, eskatzaileak honakook direlarik:*

*a) Sariaren deialdia egiten duen pertsona edo entitate, orohar.*

*b) Saridun pertsona, atzerriko nahiz nazioarteko organismoen deialdietako sariak direnean.*

*Eskabidea eskatu behar izango da, saria eman aurretik edo, aurreko b) letrako balizkoan, lortua den ekitaldiko aitortpenaren araubidezko epealdiari hasiera eman aurretik.*

*Adierazpenak balio izango du ondorengo deialdietarako, baldin eta espedientea sorterazia duenaren edukina aldarzten ez badute.*

***Hiru.** Tributu administrazioak saria salbuetsita dagoela adierazita duenean, aurreko ataleko 5. zenbakiko a) letrak aipatzen dituen pertsonak jakin erazi behar izango dizkiote tributu administrazioari, eman eta ondorengo hilabetearen barruan, haren data, emandako saria eta haren onuradun gertatu direnen identifikazio datuak.*

**10. artikulua. Errenten iratxikipena**

Bat. Sozietate zibilei, nortasun juridikodunak izan edo ez, jaraunspen banatugabeei, ondasun erkidegoei eta Foru Tributu Arau Orokorreko 33. artikulua aipatzen dituen gainerako entitateei dagozkien errentak bazkideei, jaraunslerei, erkidegokideei edo partaideei iratxikiko zaizkie, hurrenez hurren, kasuan kasuko aplikagarri diren arau edo itunen arabera, eta berauek Administrazioari sinesgarriro agertzen ez bazaizkio, zati berdinka iratxikiko dira.

Bi. Iratxikitzen diren errentek euren buru den iharduera edo jatorriaren jite berbera izango dute.

Hiru. Errentak iratxikitze erregimena ez zaie Transformakuntzarako Nekazal Sozietateei aplikatuko, Sozietateen gaineko Zerga ordainduko bait dute.

Lau. Errenten iratxikipen erregimeneko entitateek ez dute Sozietateen gaineko Zerga ordainduko.

### III. TITULUA

#### SUBJEKTU PASIBOA

##### I. KAPITULUA

#### ARAU OROKORRAK

##### 11. artikulua. Subjektu pasiboak

Bat. Zergaren subjektu pasiboak honako hauek dira:

a) Betebehar pertsonalaren zioz, ohizko egoitza Bizkaiko Herrialde Historikoan duten pertsona fisikoak.

b) Ondasun-betebeharraren zioz, espainiar lurraldean egoiliarak ez diren pertsona fisikoak, baldin eta euskaldun izate politikoa, Autonomi Estatutuko 7. artikulua araberara, gorde eta beren azkeneko auzotartasun administratiboa Bizkaiko Herrialde Historikoan izan eta Euskal Herrian etekinak edota ondare gehikuntzak ekoizten badituzte.

Aurreko lerroaldean aurrikusitakoari dagokionez, Euskal Herrian lortu edo ekoiztitzat, besteak beste, ondorengo etekinak hartuko dira, baldin eta ordaintzaileak honako hauek badira:

- Euskal Herriaren lurraldean egoiliarak diren norbanako enpresariak zein profesionariak.

- Lurralde horretan egoiliarak diren pertsona juridikoak zein entitate publiko edota pribatuak.

- Lurralde berean dauden establezimendu iraunkorrak.

Bi. Aurreko ataleko a) letrak aipatzen dituen pertsonak famili unitate baten barruan daudenean, Zerga hau batera eta solidario gisa ordaintzeko aukeratu ahal izango dute, Foru Arau honetako VIII. Tituluan aurrikusitako erregimenaren arabera.

Azaroaren 4ko 8/1997 F.D. Arauemailearen indarrez, 1997ko irailaren 1etik aurrera honela idatzita geratzen da:

b) Betebehar errearen zioz, Espainiako lurraldeko egoiliar ez diren pertsona fisikoak, baldin eta errentak Bizkaiko Herrialde Historikoan lortzen badituzte, foru arau honen 16. artikuluan xedaturik dagoenarekin bat etorri.

Bi. Aurreko ataleko a) letran aipatu diren pertsonak famili unitate baten barruan daudenean, zerga hau batera eta solidario gisa ordaintzeko aukeratu ahal izango dute, foru arau honen VIII. izenburuan ezarritako araubidearen arabera.

Famili unitate baten barruan dauden subjektu pasiboetarako bakoitzak bere ohiko egoitza lurralde batean duenean eta Zerga batera ordaintzea hautatzen badute, Bizkaiko Foru Aldundiari ordainduko diote, famili unitatean oinarri likidagarriak handiena duen kidearen ohiko egoitza bertan dagoenean, Zerga banakotzeari buruzko erregelaren arabera.

## 12. artikulua. Ohizko egoitza

Bat. Subjektu pasiboak ohizko egoitza Bizkaiko Herrialde Historikoan duela ulertuko da, egutegiko urteko 183 egun baino gehiagotan dirauenean.

Honi dagokionez, ez dira herrialde horretatik kanpo eginiko ausentziak kontutan hartuko, beti ere egiterakoan izaten diren inguruabarrengatik hiru urtetik goragoko iraupena edukiko ez dutela ulertzen denean.

Bi. Aurreko atalean xedatutakoa gorabehera, subjektu pasibo batek Bizkaiko Herrialde Historikoan zenbat denboratan dirauen zehazteko, baldin eta egoitza atzerrira aldatzen badu, aldibaterako ausentziak ez dira kontutan hartuko, ohizko egoitza beste herrialde batetan egutegiko urteko 183 egunean zehar duela frogatzen duenean izan ezik.

Azaroaren 4ko 8/1997 F.D. Arauemailearen indarrez, 1997ko irailaren 1etik aurrera honela idatzita geratzen da:

Bat. Subjektu pasiboak ohiko egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan duela ulertuko da ondoko erregelak betetzen baditu:

1. Euskal Herrian zergaldia baino luzeago egonik, Bizkaiko Lurralde Historikoan besteetan baino egun kopuru handiagoa igarotzen badu.

Egonaldia zenbatekoa den konputatzeko, aldi baterako ausentziak konputatuko dira.

Aurreko lerrokadan xedatu dena gorabehera, egoitza atzerrira aldatzen duen pertsona fisikoak Bizkaiko Lurralde Historikoan zenbat denbora igaro duen zehazteko, ez dira kontutan hartuko aldi baterako ausentziak, egutegiko urteko 183 egunetan ohiko egoitza beste toki baten duela frogatu ezean.

Besterik frogatu ezean, pertsona fisiko bat Bizkaiko Lurralde Historikoan dagoela pentsatuko da ohiko bizitza bertan daukan artean.

2. Interesik gehienak Bizkaiko Lurralde Historikoan baditu. Hala dela ulertuko da pertsona fisikoak, Zerga honen oinarriaren zatirik handiena Euskal Herrian lortzen duela, zati horren zatirik handiena Bizkaian lortzen duenean, beti ere ondore guztietarako higikorren kapitaletik datozen errentak eta ondare-gehikuntzak eta zerga-gardentasuneko araubidean, profesionalean izan ezik, egozten diren oinarriak bazter geratzen badira.

3. Zerga honen ondoretarako aitortu duen azken egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan badago.

Bi. Espainiako lurraldean egoitza duten pertsona fisikoak, lurralde horretan egutegiko urtean 183 egun baino gehiago igarotzen ez dituztenak, Euskal Herriko egoiliartzat hartuko dira, baldin eta bertan egiten badituzte beren enpresa edo lanbide jarduera gehienak edo bertan badaude beraien ekonomi interes gehienak.

Pertsona fisikoak aurreko lerrokadan ezarritakoarekin bat etorri Euskal Herriko egoiliartzat hartzen direnean, Bizkaiko Lurralde Historikoko egoiliar direla ulertuko da, baldin eta bertan egiten badituzte beren enpresa edo lanbide jarduera gehienak edo bertan badaude beraien ekonomi interes gehienak.

Hiru. Pertsona fisiko bat Espainiako lurralde egoiliarra dela uste bada, beraren ezkontidearen, legez berezita ez badago, eta beraren menpeko seme-alaba adingabeen ohiko egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan duelako, beraren ohiko egoitza Bizkaian dagoela ulertuko da.

Lau. a) Egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan eduki ondoren ohiko egoitza beste lurralde batera, foru lurralde zein lurralde erkide, aldatzen duten subjektu pasiboek edo egoitza beste lurralde batean, foru lurralde zein lurralde erkide, eduki ondoren Bizkaiko Lurralde Historikora aldatzen dutenek egoitza berriaren arabera beteko dituzte beren zerga-betebeherrak, baldin eta hura bada konexiogunea.

Gainera, hurrengo b) letran ezarritakoaren arabera egoitza-aldaketarik ez dela gertatu uste izan behar denean, subjektu pasiboek aitorten gehigarriak aurkeztu beharko dituzte, eta berandutza-korrituak gehitu.

b) Egoitza-aldaketek ez dute ondorenik izango helburua zergengatik gutxiago ordaintzea denean.

Egoitza berrian gutxienez hiru urte igaro ezean, egoitza-aldaketarik ez dela egin ulertuko da ondoko inguruabarrak suertatzen direnean:

1. Egoitza aldatzen den urtean edo hurrengoan zerga-oinarria aurreko urtekoa baino %50 handiagoa izatea.

2. Egoera hori gertatzen den urtean zerga honegatik ordaindutako kopurua aldaketa aurreko

lurraldean aplikatzen den arautegiaren araberako ordainduko zena baino txikiagoa izatea.

3. Ohiko egoitza berriro ere lurralde hori izatea.

Bost. Subjektu pasiboek Zergaren arloko eskumena aldarazten duten egoitza-aldaketak jakinarazi beharko dizkio Administrazioari.

## II. KAPITULUA

### ZERGA ORDAINTEZKO BETEBEHAR PERTSONALA

#### 13. artikulua. Zerga ordaintzeko betebeharrak

Zerga betebeharrak pertsonalaren zioz ordaindu behar duten subjektu pasiboek lortzen duten errenta osoa zergapetuko zaie, non ekoitzi diren eta ordaintzailearen egoitza non dagoen kontutan hartzeke.

#### 14. artikulua. Zerga ordaindu behar diren pertsonen balizko bereziak

Bat. Foru Arau honetako 11. artikuluko lehen ataleko a) letran xedatutakoa gorabehera, betebeharrak pertsonalaren ziozko zerga ordaindu beharra dute espainiar naziotasuna duten pertsonak, euren ezkontideak, baldin eta legez bananduta ez badude, edota adin gutxiko seme-alabek, baldin eta, Zerga honen bizkaitar tributu arautegiaren menpean

#### 15. artikulua. Betebeharrak pertsonalaren salbuespenak

Bat. Nazioarteko Itunbenetatik, zeinetako kide Espainia bait da, eratoritzen diren arau bereziak ezin aplika daitezkeenean, ez dira betebeharrak pertsonalaren zioz zergapean hartuko Bizkaian egoiliarak diren atzerritar menpekoak, elkarrekotasunaren arabera eta Foru Arau honetako III. Tituluko III. Kapituluaren ezarritakoaren kalterik gabe, baldin eta inguruabar hori aurreko artikuluan dauden balizkoetarik baten-baten ondorioa bada.

Bi. Aurreko artikuluan xedatutakoa ez zaie aplikatuko Europako Elkarretarako funtzionario eta beste agenteei, beti ere egoitza Bizkaiko Herrialde Historikoan izantza horrengatik dutenean.

## III. KAPITULUA

### ZERGA ORDAINTEZKO ONDASUN-BETEBEHARRA

#### 16. artikulua. Zerga ordaintzeko ondasun-betebeharrak

Bat. Zerga ondasun-betebeharren zioz ordaindu behar duten subjektu pasiboak Zergaren menpean egongo dira Kapitulu honetan aurrerikotakoaren arabera, espainiar estatuak sinatu eta berretsi edota atxekitzen dituen Nazioarteko Itunben eta Hitzarmenetan xedatutakoaren kalterik gabe.

daudela, euren ohizko helbide edo egoitza atzerrira aldatzen badute, eta zioa honako hauetarik bat bada:

a) Espainiar Mandatualgo diplomatikoetako kideak, direla Mandatualgoburu gisa, direla haren menpeko pertsona diplomatiko, administratibo, tekniko edota zerbitzuetako kide gisa.

b) Espainiar Bulego kontsularretako kideak, direla beraien buru gisa, direla beraiei atxekitako zerbitzuen menpeko funtzionario edo pertsona gisa, salbu eta ohorezko kontsulordeak zein ohorezko agente kontsularrak eta berauen menpeko pertsonala.

c) Espainiar estatuko kargu edo enplegu ofizialen tituluak, bai Nazioarteko Erakundeetan benetakotuta dauden Eskuordetza eta Ordezkaritza iraunkorretako kide gisa, bai atzerrian dauden Sogileen Eskuordetza edota Mandatualgoetako kide gisa.

d) Iharduneko funtzionarioak, zeinek atzerrian diplomazia edo kontsulizaerarik gabeko kargu edo enplegu ofizialean diharduten.

e) Euskal Administrazio Publikoaren zerbitzurako eta Euskadik atzerrian dituen Ordezkaritzetan destinaturik dauden funtzionarioak edo lan-kontratupeko langileak

Bi. Aurreko atalean xedatutakoa ez da aplikagarria izango, aipatutako pertsonak funtzionario publikoak edo kargu edo enplegu ofizialaren tituluak ez direnean, baina ohizko egoitza atzerrian hartako zerrendako baldintzetarik adozein eskuratu aurretik.

Bi. Bereziki, ondoko erregelak aplikatuko zaizkie:

1go.) Eragiketarako establezimendu iraunkorren bitartez egiten dituztenean, establezimendu horri egotz dakiokkeen errenta osoagatik ordainduko dute zerga. Establezimendu iraunkorra kalifikatzeko, Foru Arau honetako Xedapen Gehigarrietan 12gn.ean aurrerikotakoari begira egongo da.

2gn.) Eragiketarako establezimendu iraunkorrik gabe egiten dituztenean, banan-banan ordainduko dute zerga kargapean dagoen errentaren sortzapen oso edo partzial bakoitzeko, Kapitulu honetako ondorengo artikuluan aurrerikotakoaren arabera.

Erregela honi dagokionez, errentak sortutzat honelakoetan ulertuko dira:

a) Etekinak badira, ordain eraz daitezkeenean edo, aurrekoa izatekotan, kobrantza datan.

b) Norbere erabilera ondasun higiezinak etekinak direnean, egutegiko urteko azken egunean.

c) Ondare gehikuntzak badira, ondare aldakuntza gertatzen denean.

1997ko irailaren 1etik aurrera, azaroaren 8/1997 F.D. Arauemailearen indarrez, honela idatzita geratzen da

16. artikulua.—Zergapetzeko erak. Bizkaiko lurraldean lortzen diren errentak.

Bat. Zerga betebeharraren errealaren zioz ordaindu behar duten subjektu pasiboak Zergaren menpean egongo dira kapitulu honetan aurrikusitakoaren arabera, Espainiar estatuak sinatu eta berretsi edota atxekitzen zaien nazioarteko itunben eta hitzarmenetan xedatutakoaren kalterik gabe.

Bi. Bereziki, ondoko erregelak aplikatuko zaizkie:

1.) Eragiketarako establezimendu iraunkorraren bitartez egiten dituztenean, establezimendu horri egotz dakiokkeen errenta osoagatik ordainduko dute zerga, lortu den tokia gora-behera.

Establezimendua iraunkor gisa kalifikatzeko, foru arau honetako xedapen gehigarrietatik 12.ean aurrikusitakoa hartuko da kontuan.

2.) Eragiketarako establezimendu iraunkorrik gabe egiten dituztenean, kargapean dagoen errentaren zerga-sortzapen oso edo partzial bakoitza banan-banan ordainduko dute, kapitulu honetako ondorengo artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Erregela honek ondoreak izan ditzan, errentak ondoren adieraziko direnean sortutzat hartuko dira:

a) Etekinak badira, ordainaraz daitezkeenean edo, aurrekoa izatekotan, kobratzen diren egunean.

b) Norberaren erabilerako ondasun higiezinaren etekinak direnean, egutegiko urteko azken egunean.

c) Ondare-gehikuntzak badira, ondare-aldakuntza gertatzen denean.

Hiru. Betebeharraren errealaren zioz zerga honegatik Bizkaiko Lurralde Historikoan ordaindu behar dena zehazteko, jarraiko erregelak aplikatuko dira:

1. Bizkaian lortu edo sortutako errentak izango dira:

a) Zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan duten establezimendu iraunkorraren bitartez lortzen diren etekinak.

b) Ekonomi ustiapenetan establezimendu iraunkorrik gabe lortzen diren etekinak, jarduerak Bizkaian egiten direnean.

Hala ere, ez dira Bizkaiko Lurralde Historikoan lortu edo sortutzat joko lurralde horretan inportaturiko makinak edo instalazioak instalatu edo muntatzetik datozen etekinak, baldin eta makina edo instalazioa hornitzen duenak berak instalatu edo muntatzen baditu eta jarduketa horien zenbatekoa inportaturiko elementuen eskuraketa-prezioaren %20 baino gehiago ez badago.

c) Zerbitzugintzek sortzen dituzten etekinak, esaterako azterlanak eta proiektuak egiteak, aholkularitza teknikoak eta kudeaketarako laguntzak sortzen dituztenak, eta lanbide-zerbitzuak eginez

sortzen direnak, zerbitzuak Bizkaian egin edo egiten direnean. Bizkaiko Lurralde Historikoan erabiltzat hartuko dira zerbitzugintzak lurralde horretan egiten diren jardueretarako direnean edo bertan dauden ondasunak ukitzen dituztenean.

Zerbitzua egiten den tokia hura erabiltzen den bera ez denean, egiten dena hartuko da aintzat.

d) Besteren menpean egiten den lanaren etekinak, lana Bizkaian egiten denean.

e) Artistek eta kirolariek Bizkaian pertsonalki jarduteak zuzen edo zeharka dakartzan etekinak, edo jarduketa horiekin zerikusia duen beste edozein jarduerak dakartzanak, nahiz eta artista edo kirolaria ez beste pertsona bati egotzi.

f) Zerga-egoitza Bizkaian duten euskal erakunde publikoen fondoetan partaidetza izatetik datozen dibidenduak eta bestelako etekinak, bai eta erakunde pribatuaren beraien fondoetan partaidetza izatetik datozenak ere, atal honetako 2. erregelaren ezarri den zenbatekoaren arabera.

g) Higikorren kapitalaren korrituak, kanonak eta bestelako etekinak:

–Egoitza Bizkaian duten euskal pertsonen edo erakunde publikoen ordainduak eta Espainian kokaturiko erakunde pribatuen edo establezimendu iraunkorrek ordainduak, atal honetako 2. erregelaren ezarri den zenbatekoaren arabera.

–Bizkaiko lurraldean erabilitako kapital-prestazioak ordaintzen direnean.

Irizpide horiek bat ez datozenean, ordaintzen den prestazioaren kapitala erabili den tokia hartuko da kontuan.

h) Bizkaiko lurraldean dauden ondasun higiezinetatik edo haiei dagozkien eskubideetatik zuzen zein zeharka datozen etekinak.

i) Egoitza Bizkaian duten euskal pertsonen edo erakunde publikoen luzatzen dituzten baloreetatik datozen ondare-gehikuntzak, bai eta erakunde pribatuen luzatutakoetatik datozenak ere, atal honetako 2. erregelaren ezarri den zenbatekoaren arabera.

j) Bizkaiko lurraldean dauden ondasun higiezinetatik edo lurralde horretan haietaz bete edo egikaritu behar diren eskubideetatik datozen ondare-gehikuntzak.

Bereziki, letra honetakotzat hartuko dira:

1. Egoiliarra izatea gora-behera, erakunde bateko eskubide edo partaidetzatik datozen ondare-gehikuntzak, ondoko inguruabarrak suertatuz gero:

–Haien aktiboaren gehiena euskal lurraldean dauden ondasun higiezinak izatea

–Bizkaian kokaturiko ondasun higiezinaren kontabilitate-balioa gainerako lurralde historikoetako ondasunen kontabilitate-balioa baino handiagoa izatea.

2. Egoiliarra izatea gora-behera, erakunde bateko eskubide edo partaidetzak besterenganatetik datozen ondare-gehikuntzak, baldin eta haien titularrei egozten bazaie Bizkaian soilik dauden ondasun higiezinaren gaineko gozamenerako eskubidea.

Ondasun higiezinak Bizkaian eta beste lurralde batean daudenean, ondare-gehikuntzak Bizkaian lortuzat joko dira, atal honetako 3. erregelaren ezarritakoarekin bat etorritik.

k) Bizkaiko lurraldean dauden ondasun higiezinetatik edo lurralde horretan haietaz bete edo egikaritu behar diren eskubideetatik datozen ondare-gehikuntzak.

2. Aurreko 1. erregelako f), g) eta i) letretan aipatu diren balizkoetan, erakunde pribatuek edo establezimendu iraunkorrek ordaintzen dituzten errentetarik ondokoak joko dira Bizkaiko lurraldean lortuzat:

a) Erakundeek edo establezimenduek beren zergak Bizkaian soilik ordaintzen badituzte, ordaintzen dituzten errenta guztiak.

b) Erakundeek edo establezimenduek beren zergak Bizkaiko Zerga Administrazioari eta beste zerga administrazio batzuei ordaintzen dizkietenean, Bizkaian egiten dituzten eragiketen bolumenaren arabera errenta-zatia.

Letra honetan aipatu diren balizkoetan, Bizkaiko Zerga Administrazioak egoiliar ez direnei etekin guztiengatik ordainarazteko eta bidezko itzulkinak emateko gaitasuna izango du, haien ordez likidazioa aurkezten duen pertsonak, erakundeak edo establezimendu iraunkorrak bere ohiko egoitza edo zerga-egoitza Bizkaian badu; hori gora-behera, beste administrazio batzuek beren konpentsazioa egin ahal izango dute ordaintzen duen erakundeak beraien lurraldean egindako eragiketen bolumenari dagokion zatiaren arabera.

3. Aurreko 1. erregelarekin bat etorritik errentak Bizkaian eta beste lurralde batean aldi berean lortuzat jo ahal denean, zerga Bizkaiko Lurralde Historikoan ordainduko da hura ordaindu behar duenak, pertsona fisikoa izaki, sozietate-egoitza Bizkaian badauka; pertsona juridikoa edo establezimendu iraunkorra bada, aldiz, aurreko 2. erregelaren xedatutakoa beteko da.

## 69. artikulua. Eremua.

Honako Titulu honetan xedatutakoa Zergari buruzko Foru Araueko 11.1.b) artikulua aipatu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren subjektu pasiboei aplikatuko zaie.

## 70. artikulua. Egoitza Euskal Herrian ez dutenek lortutako errentak. *Indargabeturik???*

**Bat.** Jarraiko hauek joko dira Euskal Herrian lortu edo sortutako errentatzat:

a) *Euskal Herriko lurraldean kokaturiko establezimendu iraunkorren bitartez lortutako enpresa edo lanbide ihardueren etekinak. Establezimendu iraunkorren kalifikazioa zerga honi buruzko Foru Araueko hamabigarren xedapen gehigarrian aurrikusitakoaren arabera egingo da.*

b) *Establezimendu iraunkorren bitartekaritza gabe lortutako enpresa ihardueren etekinak, iharduerak Euskal Herrian egiten direnean.*

*Hala ere, Euskal Herrian inportatutako makineria edo instalazioen muntaia edo instalazioaren ziozko etekinak ez dira hartuko Euskal Herrian lortu edo ekoitzizat, instalazioa edo muntaia makineria edo instalazioen hornitzaileak berak egin eta haren zenbatekoa inportatutako elementuen eskuraketa prezioaren ehuneko hogeia baino gehiagokoa ez bada.*

c) *Azterlan eta proiektuen burutzapena, urgazpen teknikoa eta kudeaketarekiko laguntza bezalako zerbitzugintzaren zioz etortzen diren etekinak, bai eta lanbidezko zerbitzuen ziozkoak ere, haien prestazioa Euskal Herrian egin edo erabiltzen bada. Euskal Herrian egindako edo bertan kokaturiko ondasunei doazkien enpresa edo lanbide ihardueretarako prestazioak hartuko dira Euskal Herrian erabilitakotzat.*

d) *Menpeko lanaren etekinak, lana Euskal Herrian egiten denean.*

e) *Artista eta kirolariek Euskal Herrian egiten duten iharduketa pertsonala dela eta, lortutako etekinak, beraiek artista edo kirolaria bera ez den bestelako pertsona edo entitateari iratxikitzen bazaizkio ere.*

f) *Egoitza Euskal Herrian duten entitateek, publiko nahiz pribatuek, eurenak dituzten fondoetako partaidetzaren zioz etortzen diren dibidendu eta bestelako etekinak.*

g) *Egoitza Euskal Herrian duten pertsona nahiz entitateek, publiko nahiz pribatuek, edo Euskal Herrian kokatu nahiz Euskal Herrian erabiltako kapital prestazioak ordaintzen dituzten establezimendu iraunkorrek betetako korrituak, kanonak eta higigarrien kapitalaren bestelako etekinak.*

*Hala ere, atzerriko monetan antzeko eginkizunak betetzen dituzten gordailuen eta eragiketen etekinak eta egoitza Espainian ez duten pertsona nahiz entitateei ordaintzen zaizkien atzerriko kontuen etekinak ez dira hartuko Euskal Herrian lortutako errentatzat, salbu eta ordainketa establezimendu iraunkor bati, Espainiako Bankuak eta bankuek, aurrezki kutxek, baserriarren kutxek eta kreditu kooperatibek eta haren*

ordezko eginkizunak dituzten gainerako establezimenduek egiten badiote.

h) Euskal Herrian kokaturiko ondasun higiezinaren edo haiei doazkien eskubideen zioz, zuzen nahiz zeharka, etortzen diren etekinak.

i) Egoitza Euskal Herrian duten pertsona nahiz entitateek, publiko nahiz pribatuak, jaulkitako baloreen ziozko ondare gehikuntzak.

j) Euskal Herrian kokaturiko ondasun higiezinaren edo haiei doazkien eskubideen zioz, zuzen nahiz zeharka, etortzen diren ondare gehikuntzak.

Jarraian agertaraziko direnak dira, bereziki, letra honen barruan sartutakotzat hartuko direnak:

1. Aktiboa nagusiki Euskal Herrian kokaturiko ondasun higiezinenez eratuta duen sozietate edo entitatearen eskubide edo partaidetzen zioz etortzen diren ondare gehikuntzak.

2. Titularrari Euskal Herrian kokaturiko ondasun higiezinaren gaineko luperketa eskubidea iraxkitzen dion sozietate edo entitatearen, egoiliarra nahiz ez-egoiliarra, eskubideen edo partaidetzen besterenganaketaren zioz etortzen diren ondare gehikuntzak.

k) Euskal Herrian kokaturiko bestelako ondasun higigarrien edo lurralde horretan bete behar izan nahiz erabiltzen diren eskubideen zioz etortzen diren ondare gehikuntzak.

**Bi.** Artikulu honetako aurreko atalean xedatutakoaren kaltetan jo gabe, jarraian agertaraziko direnak ere Euskal Herrian lortu edo sortutakotzat hartuko dira:

a) Etekinen ordaintzaileak honako hauek badira:

- Egoitza Euskal Herrian duten gizabanakako enpresariak edo profesionariak.

- Egoitza lurralde horretan duten pertsona juridikoak edo entitateak, publiko nahiz pribatuak.

- Euskal Herrian kokaturiko establezimendu iragankorrak.

b) Aurreko letran xedatutakoa ez zaie aplikatuko etekin hauei doakienean:

1. Hurrengo zenbakian aipatutakoak ez diren enpresa iharduereen zioz ordaindutakoei, oso-osoan atzerrian eginak direnean. Bereziki, merkataritzako

gaien nazioarteko salerosketen zioz ordaindutakoak hartuko dira zenbaki honen barruan sartutakotzat, haietako bitartekaritza-komisioak, haiei lotutako gastuak eta gastu gehigarriak barne direlarik.

2. Artikulu honetako lehen ataleko c) letrak aipatu zerbitzu edo prestazioen zioz ordaindutakoei, zerbitzu edo prestazio horiek oso-osoan espainiar lurraldetik kanpo eginak izan eta ordaintzaileak atzerrian egindako enpresa edo lanbide iharduerei zuzenean loturik daudenean, salbu eta Euskal Herrian kokaturiko ondasunei badagozkie.

3. Atzerrian kokaturiko establezimendu iraunkorrek egoiliarra ez diren pertsona nahiz entitateei, haien pentsutan, ordaindutakoei, berauei dagozkien prestazioak establezimendu iraunkorren atzerriko iharduerari zuzenean loturik daudenean.

## **17. artikulua. Salbuesteko balizko bereziak: Euskal Herrian lortzen ez diren errentak**

Foru Arau honetako 11. artikuluko lehen ataleko b) letran xedatutakoa gorabehera, salbuestita egongo dira honako errenta hauek:

a) Ondasun higigarrietatik datozen ondare-korritu eta gehikuntzak, baldin eta establezimendu iraunkorren bitartekotzarik gabe lortuak izan eta subjektu pasiboak Europar Batasuneko Espainiaz beste Estatu kide batean egoitza badu.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa ez zaie aplikatuko entitate baten akzio, partaidetza edota beste eskubideen eskualdaketatik datozen ondare gehikuntzei, honako kasuotan:

a') Entitate horren aktiboa, neurri handi batean, zuzenean edo zeharka, espainiar lurraldean dauden ondasun higiezinenez osatuta dagoenean.

b') Eskualdaketaz aurreko hamabi hilabeteko epealdiko uneren batean, subjektu pasiboak, bere ezkontideak edo harekin bigarren gradurainoko, hau barne, senidetanaz loturiko pertsonak, zuzenean edo zeharka, gutxienez, entitate horren kapital edo ondarean 100eko 25eko partaidetza izan dutenean.

b) Zor Publikotik datozen ondare-korritu edota gehikuntzak, establezimendu iraunkorren bitartekotzarik gabe lortuak.

Aurreko a) eta b) letratan xedatutakoa ez zaie inoiz ere aplikatuko arau bidez paradisu fiskaltzat jotako herri edo lurraldeetan lortutako ondare-korritu edota gehikuntzei.

c) Higigarrien kapitalaren etekinak eta Espainian, lurralde honetan egoiliarra ez diren pertsona fisiko nahiz juridikoek establezimendu iraunkorrik gabe jaulkitzen dituzten baloreetatiko ondare-gehikuntzak, ordainketa agente gisa jardun edo baloreen jaulkipen edo eskualdaketan bitarteko gisa ari diren finantza erakundeen egoitzaren lekua edozein dela ere.

Hala ere, baloreen titularra Espainiako egoiliarra edo establezimendu iraunkorra denean, aurreko lerroaldeak aipatzen dituen ondare-etekinak edo gehikuntzak Zerga honen menpean geldituko dira eta, hala dagokienez, baloreen gordailuzain gisa diharduen finantza-erakundeak egingo duen konturako atxikipenaren sistemaren menpean.

d)-Ez-egoiliarren kontuen etekinak, ordainketa Banco de Españak, Banketxeek, Aurrezki Kutxek, Baserritarren Kutxek, Aurrezki Kooperatibek eta erregistroan inskribaturiko gainerako erakundeek establezimendu iraunkor bati egiten diotenean izan ezik.

e) Establezimendu iraunkorrik gabe lortuak izan eta nazioarteko itsas nahiz aire nabigazioan erabilitako edukinontzi zein unti eta aireuntziak, kasku hutsean, errentatetik zein lagatetik datozen ondare-etekin edota gehikuntzak.

*Azaroaren 4ko 8/1997 F.D. Arauemailearen indarrez, 1997ko irailaren 1etik aurrera honela idatzita geratzen da*

#### 17. artikulua.—Salbuespen-balizkoak

Ondoko errentak salbuetsita daude:

a) Europar Batasuneko beste estatu kideren bateko egoiliar diren pertsona fisikoek ondasun higikorrek lortzen dituzten korrituak eta ondare-gehikuntzak.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa ez zaie aplikatuko erakunde baten akzio, partaidetza edota beste eskubideen eskualdaketatik datozen ondare-gehikuntzei ondoko kasuetan:

a') Erakundearen aktiboaren gehienak zuzenean edo zeharka euskal lurraldean dauden ondasun higiezinak direnean.

b') Eskualdaketaren aurreko hamabi hilabeteko epealdian zehar, subjektu pasiboak, haren ezkontideak edo berarekin hirugarren gradurainoko ahaidetasuna duen pertsonaren batek zuzenean edo zeharka erakundearen kapitalaren edo ondarearen %25eko partaidetza izan dutenean.

b) Egoiliar ez diren pertsona fisikoek inolako establezimendu iraunkorrik gabe zor publikoarekin lortzen dituzten korrituak eta ondare-gehikuntzak.

a) eta b) letretan xedatutakoa ez zaie inoiz aplikatuko arau bidez paradisu fiskal gisa kalifikaturik dauden herrialde edo lurraldeetan lortzen diren korrituei edo ondare-gehikuntzei.

c) Higikorren kapitalaren etekinak eta Espainian bertako egoiliar ez diren pertsona fisiko nahiz juridikoek establezimendu iraunkorrik gabe jaulkitzen dituzten baloreetatik datozen ondare-gehikuntzak, ordainketa agente gisa edo baloreen jaulkipen edo eskualdaketan bitarteko gisa ari diren finantza erakundearen egoitzaren lekua edozein dela ere.

Hala ere, baloreen titularra erakunde egoiliarra denean edo Espainian establezimendu iraunkorra duenean, aurreko lerrokadan aipatutako etekinak edo ondare-gehikuntzak zerga honen

menpean egongo dira eta, hala denean, konturako atxikipen-sistemaren menpean ere bai; atxikipenak baloreen gordailuzain legez diharduen finantza erakunde egoiliarrek egingo ditu.

d) Espainiako lurraldeko egoiliar ez diren pertsona fisikoek «egoiliar ez diren kontura» ordaintzen zaizkien etekinak, Espainiako Bankuak, bankuek, aurrezki kutxek, baserritarren kutxek, kreditu-kooperatibek eta gainerako erakunde erregistratuek establezimendu iraunkor bati ordaintzen dizkietenak izan ezik.

e) Establezimendu iraunkorrik gabe nazioarteko itsas eta aire nabigazioko edukinontziak, untiak eta aireuntziak, kasku hutsean, errentatu, lagatu edo eskualdatuz lortzen diren etekinak edo ondare-gehikuntzak.

#### 18. artikulua. Zerga oinarria

Bat. Orohar, zergaren menpean ondasun-betebeharraren zioz dauden pertsona fisikoek, establezimendu iraunkorrik gabe, lortzen dituzten etekinei dagokien Zerga honetako zerga oinarria sortutako zenbateko osoak osatuko du.

Bi. Zerbitzugintzak, urgazpen teknikoak, ingeniariak kontratuetatik datozen instalazio zein muntaiaren ziozko gastuak eta, orohar, Euskal Herrian establezimendu iraunkorrik gabe egiten diren ustiapen ekonomikoetatik datozenak direnean, zerga oinarria sarrera osoen eta pertsonalaren gastu eta obra edota lanei erantsitako materialen hornikuntzaren gastuen arteko diferentzia izango da, arau bidez ezarri ahal diren baldintzekin.

Hiru. Ondasun-betebeharraren zioz menpean dauden pertsona fisikoek dagokienez, ez badute establezimendu iraunkorrik gabe, ondare gehikuntzak honelaxe zehaztuko dira: ematen den ondare gehikuntza bakoitzari Foru Arau honetako 44. artikulutik 49.era bitartean dagozkion arauak aplikatuko zaizkio, 44. artikuluko lehen ataleko bigarren lerroaldean eta laugarren atalean aurrikusitakoa izan ezik.

Lau. Ondasun-betebeharraren zioz menpean dauden pertsona fisikoek dagokienez, ez badute establezimendu iraunkorrik, ondasun higiezinaren etekina Foru Arau honetako 34. artikuluko arauen arabera zehaztuko da.

Bost. Ondasun-betebeharraren zioz menpean dauden pertsona fisikoek, errentak establezimendu iraunkorrik gabe lortzen badituzte, ez dute eskubiderik izango inolako harreman motarik beraiekin konpentsatzeko.

Sei. Honako Foru Arau honetako 11.1.b) artikulua aipatzen dituen ez-egoiliarrek lortzen dituzten errentak direnean, baldin eta establezimendu iraunkor baten bidez lortuak badira, Foru Arau honetako V. Tituluko I. Kapituluko 3gn. Sailean dauden erregelak aplikatuko dira.

*Azaroaren 4ko 8/1997 F.D. Arauemailearen indarrez, 1997ko irailaren 1etik aurrera honela idatzita geratzen da*

Sei. Egoiliar ez direnek establezimendu iraunkorraren bidez lortzen dituzten errentak direnean, **enpresa eta profesional jardueren etekin garbiak zehazteko ezarrita dauden** erregelak aplikatuko dira.

**71. artikulua. Ondasun-betebeharraren ziozko partida kengarriak, establezimendu iraunkorrik gabe.**

**Bat.** Orohar, zerga ondasun-betebeharraren zioz ordaindu behar duten subjektu pasiboek, establezimendu iraunkorren bitartekaritzarik gabe, lortzen dituzten etekinei dagokien Zergako zerga oinarria, sortzen den zenbateko osoak osatuko du.

**Bi.** Zerbitzugintza, urgazpen tekniko, ingeniariatza kontratuen zioz etortzen diren instalazio edo muntaia gastuetan eta, orohar, Euskal Herrian, establezimendu iraunkorren bitartekaritzarik gabe, egiten diren enpresa edo lanbide ihardueretan, sortzen den zenbateko osoari partida hauek kendu ahal izango zaizkio:

a) Sarrerak ekoizten dituzten ihardueretan zuzen-zuzenean enplegatu eta Euskal Herrira etorritako edo haren lurraldean kontratatutako pertsonalaren soldata, alokairu eta gizarte-zamak, beti ere Zergaren sarrera edo ordaintzen diren lan etekinei dagozkien konturako ordainketak behar bezala frogatu edo bermatzen direnean.

b) Euskal Herrian egiten diren obra edo lanetara behin betiko lotzeko inportatutako materialak, arantzel-eskubideen edo Balio Erantsiaren gaineko Zergaren likidazioaren ondoretarako aitortutako zenbatekoan.

c) Euskal Herrian egiten diren obra edo lanetara behin betiko lotzeko bertaraten diren gaien homidurak, beti ere fakturak, enpresari eta profesionariei fakturak luzatu eta emateko dagokien betebeharra araupetzen duten arauak eskatzen dituzten erazko beharkizunekin luzatuak direnean.

**72. artikulua. Establezimendu iraunkorraren errenten gaineko ezarpen osagarria.**

**Bat.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araueko 19. artikulua, bigarren ataleko bigarren lerroaldean, aipatu establezimendu iraunkorraren errenten gaineko ezarpen osagarria, haren bidez lortutako errenten pentsutan atzerrian transferitzen diren zenbatekoei doakiela eskatu ahal izango da.

**Bi.** Zerga, establezimendu iraunkorren bitartekaritzarik gabe, egoiliarrek ez direnek lortzen

dituzten errentei aplikagarria zaien tasa orokorrean likidatuko da.

**Hiru.** Horretarako, aitorpena aurkeztu eta Zergako zenbatekoa establezimendu iraunkorren bitartekaritzarik gabe lortzen diren errentetarako ezarritako era, epe eta ereduetan sartu beharko da.

**73. artikulua. Higiezinaren eskuraketako atxekipenak ez-egoiliarrei.**

**Bat.** Establezimendu iraunkorren bitartekaritzarik gabe, egoiliarra ez den subjektu pasiboak Euskal Herrian kokaturiko ondasun higiezinak eskualdatzen dituenetan, eskuratzailerak hitzartutako prezio osoaren gaineko ehuneko hamarra atxeki eta sartu behar izango du, hari dagokion Zergaren konturako ordainketaren zioz.

**Bi.** Eskuratzailerak ez du atxekipenik egin behar izango balizko hauetan:

a) Eskualdatzailerak, tributu administrazioaren eskudun organoak luzatutako ziurtagiriaren bidez, edo mugaeguneratutako aitorpen epearen azken zergaldiari dagokion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpena erakutsiz, Zergari betebeharraren pertsonalaren erregimenean lotuta dagoela benetakotzen duenean.

b) Eskualdaketa dataz aurretik, hogeitau urte baino gehiago igarota eskuratuak izan eta denboraldi horretan zehar hobekuntzarik jaso ez duten higiezinak direnean. Ondore hauetarako, subjektu pasiboak agiri publikoan, beren beregi, aipatu epealdian zehar higiezinak hobekuntzarik jaso ez duela agertarazi beharko du.

**Hiru.** Atxekipena egin behar duenak, tributu administrazioaren eskudun organoari, aitorpena aurkeztu behar izango dio eta eskualdaketa egiten denetik zenbatu beharreko hilabeteko epearen barruan, atxekitako zenbatekoa Foru Ogasunean sartu beharko du.

**Lau.** Subjektu pasiboak behin-betiko Zerga aitortu eta sartu egin beharko du, atxekipena sartzeko ezarritako epea amaitzen denetik zenbatu beharreko hiru hilabetetako epean, eskuratzailerak atxekitako zenbatekoa kuotan konpentsatuko duelarik.

Administrazioak, beharrezkoa izatekotan, beharrezko egiaztapenak egin eta gero, kontura sartutako gaindikina subjektu pasiboari itzuliko dio.

**Bost.** Aurreko bigarren atalera bildutako balizkoak izan ezik, lehen atalak aipatu atxekipena sartu



izan ez denean, eskualdatutako ondasunak Zergaren ordainketaren menpean geratuko dira.

Sei. Ogasun eta Finantzen foru diputatuak, honako artikulua honetan xedatutakoa betetzeko, erabili beharreko aitorpen ereduak ezarriko ditu.

1997ko apirilaren 25etik aurrera idazkera berria ematen zaio ekainaren 10eko 80/1997 FDko 5. artikulua indarrez.

### **73. artikulua. Higiezinaren eskuraketako atxikpenak ez-egoiliarrei.**

**Bat.** Establezimendu iraunkorren bitartekaritza gabe, egoiliarra ez den subjektu pasiboak Euskal Herrian kokaturiko ondasun higiezinak eskualdatzen dituzenean, eskuratzailerak hitzartutako prezio osoaren gaineko ehuneko bosta atxiki eta sartu behar izango du, hari dagokion zergaren konturako ordainketaren zioz.

**Bi.** Eskuratzailerak ez du atxikipenik edo sarrerarik egin behar izango balizko hauetan:

a) Eeskualdatutako ondasunaren titularra pertsona fisikoa izan eta, 1996ko abenduaren 31n, ondasuna hamar urtez gora subjektu pasiboaren ondarea izan denean, aldi horretan hobekuntzarik egin ez zaiola.

b) Eskualdatzailerak, zerga Administrazioaren eskudun organoak luzatutako ziurtagiriaren bidez, zerga ordaintzeko betebeharrak pertsonaleko araubideari lotuta dagoela egiaztatzen duenean.

c) Egoitza espainiar lurraldetik kanpo duten entitateen kapitalaren eraketa eta gehikuntzako ondasun higiezinaren ekarketa dagoenean.

**Hiru.** Atxikipena egin behar duenak, ondasun higiezinak egoitza duen lurralde eremuko zerga Administrazioaren eskudun organoari aurkeratu behar izango dio aitorpena eta atxikitako zenbatekoa eta eskualdaketa egiten denetik zenbatu beharreko hilabeteko epearen barruan atxikitako zenbatekoa Foru Ogasunean sartu beharko du.

**Lau.** Egoitza espainiar lurraldean ez duen subjektu pasiboak behin betiko zergaaitortu eta sartu egin beharko du, atxikipena sartzeko ezarritako epea amaitzen denetik zenbatu beharreko hiru hilabeteko epean, eskuratzailerak atxikitako zenbatekoa kuotan konpentsatuko duelarik.

Administrazioak, beharrezkoa izatekotan, beharrezko egiaztapenak egin eta gero, kontura sartutako gaidikina subjektu pasiboari itzuliko dio.

**Bost.** Arestian aipatutako atxikpena edo konturako sarrera sartu izan ez denean, eskualdatutako ondasunak zergaren ordainketaren menpean geratuko dira.

Sei. Ogasun eta Finantzen foru diputatuak, artikulua honetan xedatutakoa betetzeko, erabili beharreko aitorpen ereduak ezarriko ditu.

### **74. artikulua. Egoiliarrek ez diren entitateen ondasun higiezinaren gaineko zerga berezia.**

**Bat.** Bizkaiko Herrialde Historikoan, edozein titulu dela eta, ondasun higiezinak edo euren gaineko eduki edo luperketako ondasun-eskubideak eduki edo euren jabetzapean dituzten entitate ez-egoiliarrek ondasun higiezinaren gaineko zerga bereziari lotuta egongo dira, ondasun higiezinaren katastroko balioaren gainekoa bait da, urtean urteko abenduaren hogeitamaikan sortera eta hurrengo urtarileko hilabetearen barruan sartu beharko dena.

Aitorpena tributu administrazioaren eskudun organoari aurkeztuko zaio, ondasun bakoitzeko.

**Bi.** Zerga bereziko tasa ehuneko bostekoa izango da eta Bizkaiko Herrialde Historikoko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauetan aldarazi ahal izango da.

**Hiru.** Subjektu pasiboek artikulua honetako lehen atalean ezarritako epearen barruan zerga bereziaren autolikidazioa eta sarrera egiten ez badute, hura, premiamendu bidez, ondasun higiezinaren gainean eskatu ahal izango da, bide honi hasiera emateko behar adinako titulua tributu administrazioak luzatzen duen ziurtagiria delarik, Zerga eta beronen zenbatekoa sartu gabe, sarrera egiteko borondatezko epea mugaeguneratu izan delakoa.

**Lau.** Egoiliarrek ez diren entitateen ondasun higiezinaren gaineko zerga berezia ezin izango zaie eskatu honako hauei:

a) Atzerriko estatu eta erakunde publikoak eta nazioarteko organismoak.

b) 1990.eko abuztuaren laua baino lehenagotik beren titulartasunaren menpean dituzten ondasun higiezinari nahiz eduki edo luperketako ondasun-eskubideei doazkiela, Espainiak data horren aurretik argibideak elkarri trukatzeko klausula duen ezarpen bikoitza ekiditeko hitzarmena sinatuta dueneko herrialdeetako entitate egoiliarrei.

c) Jarraian edo ohizkotasunez, zerga bereziari lotutako higiezinengandik bereiz daitezkeen ekonomi ustiapenak Espainian egiten dituzten entitateak.

d) Tributu administrazioari Bizkaiko Herrialde Historikoan inbertitutako baliabideen jatorria eta sozietatearen kapitalaren zuzeneko nahiz zeharkako titularren nortasuna aski benetakotzen dizkioten entitateei, edozelango aldakuntza edo aldarazpen eta horren kariak eskudun agintariei jakin erazteko konpromezua beren beregi berenganatuz.

**Bost.** Aurreko ataleko c) letran aurrikusitakoaren ondoretarako, hurrengo inguruabarretariko bat, edozein, gertatzen denean hartuko da ekonomi ustiapen bereizgarritzat:

a) Egoiliarra ez den entitatearen jabetzapeko edo edukitzapeko izan nahiz eduki edo luperketako ondasun-eskubideak gainean dituen/dituzten higiezinaren edo higiezinaren benetako balioak ekonomi ustiapenari lotutako ondare elementuen benetako balioa bost bider ez gainditzea. Ondore hauetarako, ustiapenaren xederako zati batetan erabiltzen diren higiezinetan, horretan benetan erabiltzen den higiezinaren zatia hartuko da kontutan.

Letra honetan xedatutakoarekin bat etorritik, ekonomi ustiapen bereizgarririk dagoela ezin har daitekeenean, zerga bereziko zerga oinarria ekonomi ustiapenean erabiltzen ez diren ondasun higiezinaren zatiari dagokion katastroko balioak bakarrik osatutakoa izango da.

b) Ekonomi ustiapenaren eragiketen urteko kopurua higiezinaren katrastoko balioaren lau bider edo gehiago denean.

c) Ekonomi ustiapenaren eragiketen urteko kopurua ehun milioi pezetakoa edo gehiagokoa denean.

**Sei.** Artikulu honetako laugarren ataleko d) letran aurrikusitakoaren ondoretarako, Bizkaiko Herrialde Historikoan inbertitutako baliabideen jatorria aski benetakotzat hartuko dira, euren dagokien inbertsioa, atzerriko inbertsioei buruzko gaietan indarrean dagoen arautegiarekin bat etorritik, egin eta gauzatu dela frogatzen denean, aurkeztu behar diren argibide osagarrien kaltetan jo gabe.

Entitatearen sozietate kapitalaren zuzeneko edo zeharkako titularren nortasuna, egoiliarra ez den entitatearen legezko ordezkariak tributu administrazioari zuzendutako jakinerazpen kautoarene bidez benetakotuko da, non zuzenean edo zeharka sozietate kapitalaren titularren diren edo haren gehiengoaren duten pertsona fisikoak identifikatzen diren, haien nazionaltasuna, egungo egoitzazko herrialdea eta egoitza iraunkorra adieraziz. Egoiliarra ez den entitatearen sozietate kapitalaren gehiengoaren berrogeitamar pertsona fisiko akziodun dituzten pertsona juridikoena edo ofizialki aintzatetsitako baloreen bigarren mailako merkatuetan

kotizatutako sozietateena denean, entitate horien erabakiak hartzen dituen zentro gorena eta lege bidez haien zuzendaritzaz arduratzen den/diren pertsona fisiko arduraduna edo arduradunak identifikatuko da/dira.

Egoiliarra ez den entitateak zerga bereziarekiko salbuespenaren adierazpena eskatuko dio tributu administrazioari, Bizkaiko Herrialde Historikoan kokaturik egon eta tributuaren sortzapena erakar dezaketene bere jabetzako higiezinak identifikatuz, beraien zioz ordaindutako Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren azken ordainagirikin batera. Eskabide horri behin egindako inbertsioaren legezko burutzapenaren tresna publikoen eta frogagiriaren aldaki kautotua batuko zaio, bai eta haren sozietate kapitalaren zuzeneko edo zeharkako titularren identifikazio egokia ere, aurreko leerroaldean ezarritakoaren arabera, eta Administrazioari, gertatu eta ondorengo hiru hilabeteen barruan, edozelango aldakuntza edo aldarazpen eta horren kariak jakin erazteko konpromezua beren beregi berenganatuz.

Eskabidea tributu administrazioaren eskudun organoan izapidetuko da, eta honek, bidezkoesten dituen egiaztapenak edo txostenak egin eta gero, ebazpena emango du, zerga bereziarekiko salbuespena aintzatesteko ala ukatzeko.

Ebazpen horren aurka indarreko arautegian aurrikusitako errekurtsoak jarri ahal izango dira.

Aitorpenak ez du ondorerik izango bera aurkeztu baino lehenago sortezatiko Zergari dagokionez.

**Zazpi.** Egoiliarrak ez diren sozietateen zerga bereziko kuota, higiezinaren ustiapenaren zioz etortzen diren etekinak, horrelakorik baldin badago, zergapetzen dituen Sozietateen gaineko Zergako zerga oinarritzat hartuko dira.

## 19. artikulua. Tributu zorra

Bat. Aurreko artikuluaaren arabera zehazten den zerga oinarriari honako karga tasa hauek aplikatuko zaizkio:

a) Orohar, 100eko 25a.

b) Ondare gehikuntzetan, 100eko 35a.

Egoitza espainiar lurraldean eduki ez eta eta establezimendu iraunkorrik gabe diharduten subjektu pasiboek egindako Espainian kokatutako ondasun higiezinaren eskualdaketak izanik, eskuratzailak 100eko 5aren zioz ordaindu beharko du, bestela, haiei dagokien zergaren konturako ordainketa kontzeptuan, erabakitako kontraprestazioaren konturako sarrera egokia egin beharko dute.

Aurreko leerroaldean ezarritakoa ez zaie ezarriko 1996ko abenduaren 31n subjektu pasiboaren

ondarearen barruan 10 urtez gora egon diren ondasunei, epe horretan hobekuntzarik egin ez denean.

Letra honetan aipatutako konturako sarrera ez da zertan egin behar egoitza espainiar lurraldearen barruan duten sozietateen eraketetan edo kapital gehikuntzetan.

c) 1.600.000 pezetako urteko zenbatekoa gainditzen ez duten pentsioak eta hartzeko pasiboak, honako Foru Arau honetako 11.1.b) artikulua aipatzen dituen pertsona ez-egoiliarrek hartutakoak, alegia, edozein dela eurak hartzeko eskubidea sortu duen pertsona, 100eko 8ko tasapean zergapetuko dira.

d) Honako Foru Arau honetako 11.1.b) artikulua aipatzen dituen pertsona fisiko ez-egoiliarren lan etekinak 100eko 8ko tasapean zergapetuko dira, beti ere zerga betebeharraren pertsonalaren zioz ordaindu beharrik ez duten subjektu pasiboak izan eta euren zerbitzuak Espainiak atzerrian dituen Mandatalgo Diplomatiko eta Eskuordetza Kontsularretan egiten dituztenean, baldin eta Espainia kide den Nazioarteko Itunbenetarik datozen arau bereziak ezin aplikatu badaitez.

Bi. Honako Foru Arau honetako 11.1.b) artikulua aipatzen dituen ez-egoiliarrek establezimendu iraunkorraren bidez lortzen dituzten ondare-etekin edota gehikuntzak direnean, 100eko 35eko tasa aplikatuko da.

Lortzen diren etekinak atzerrira transferitzen direnean, transferitutako zenbatekoari aurreko ataleko a) letran aurrikusitako tasa ere aplikatuko zaio, aurrekoaz gainera.

Hiru. Nolanahi ere, Honako Foru Arau honetako 11.1.b) artikulua aipatu eta establezimendu iraunkorrik gabe diharduten ez-egoiliarren ondasun nahiz eskubideen gordailuzainak edo kudea?tzaileak edo etekinen ordaintzaileak solidario gisa erantzungo du gordailatu edo kudeatu behar dituen ondasun nahiz eskubideen errentei nahiz ordainduta dituen errentei dagozkien tributu zorren sarreraz.

Artikulu honetako lehen ataleko b) letran aipatu **konturako sarrera** edo atxikipena egin ez denean, eskualdatutako ondasunek zerga ordaindu beharko dute.

## 20. artikulua. Kenkariak

Bat. Honako Foru Arau honetako 11.1.b) artikulua aipatu eta establezimendu iraunkorrik gabe diharduten ez-egoiliarrei dagokien Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako kuotatik, benetan egin zaizkien atxikipenak eta kontura egindako beste sarrerak, Zenbait Finantz Aktiboren Erregimen Fiskalari buruzko urriaren 24eko 7/1985 Foru Arauean ezarritakoaren kalterik gabe, eta emarien ziozko kenkariak, ondorengo atalaren arabera, kenduko dira.

Bi. Honako Foru Arau honetako 11.1.b) atal aipatu eta zerga ondasun-betebeharraren zioz ordaindu behar duten subjektu pasiboek, eragiketarik establezimendu iraunkorraren bidez egiten badituzte, ondoko kenkariak egin ahal izango dituzte, zerga

betebeharraren zioz ordaindu behar duten subjektu pasiboentzat aurrikusitakoaren arabera eta eurentzako baldintza berberetan:

a) Enpresa inbertsiorako pizgarri eta bultzagarrien ziozkoak.

b) Emarien ziozkoak.

c) Sozietateei hartzen zaizkien dibidenduen ziozkoak.

d) Atxikipenen ziozkoak edota kontura egindako beste ordainketen ziozkoak, Zenbait Finantz Aktiboren Erregimen Fiskalari buruzko urriaren 24eko 7/1985 Foru Arauean ezarritakoaren arabera.

*Azaroaren 4ko 8/1997 F.D. Arauemailearen indarrez, 1997ko irailaren 1etik aurrera honela idatzita geratzen da*

## 20. artikulua.—Kenkariak

Bat. Establezimendu iraunkorrik gabe diharduten ez-egoiliarrei Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik dagokien kuotatik benetan egin zaizkien atxikipenak eta kontura egindako bestelako sarrerak soilik kenduko dira, bai eta dohaintzen ziozko kenkariak ere, ondorengo atalean azalduko den bezala.

Bi. Betebeharraren zioz zerga hau ordaindu behar duten subjektu pasiboek, baldin eta eragiketarik establezimendu iraunkorraren bidez egiten badituzte, ondoko kenkariak egin ahal izango dituzte, zerga betebeharraren zioz ordaindu behar duten subjektu pasiboentzat aurrikusitakoaren arabera eta eurentzako baldintza berberetan:

a) Enpresa inbertsiorako eta enplegu-sorkuntzarako ematen diren pizgarri eta bultzagarrien ziozkoak.

b) Dohaintzen ziozkoak

c) Sozietateek ematen dituzten dibidenduen ziozkoak.

d) Atxikipenen edota konturako ordainketen ziozkoak.

## 21. artikulua. Eraren aldetiko betebeharrak eta eginbeharrak

Honako Foru Arau honetako 11.1.b) artikulua aipatzen dituen pertsona fisiko ez-egoiliarrek, ondasun-betebeharraren zioz menpean dauden errentak lortzen badituzte, Foru Arau honetako X. Tituluan ezarritako betebeharrak bete behar izango dituzte.

## 75. artikulua. Betebeharrak.

*Establezimendu iraunkorren bitartekaritzarik gabe, Zergari loturiko errentak dituzten ondasun-betebeharraren ziozko subjektu pasiboek Ogasun eta Finantzen foru diputatuak ezarritako era, epe eta ereduaren aurkeztu behar izango dute*

*aitorpena, hark ordenagailuz irakurri ahal diren euskarrien erabilpena baimendu ahal izango duelarik.*

*Subjektu pasiboek, Zergaren aitorpena aurkeztean, bakoitzari dagokion tributu zorra zehaztu eta Ogasun eta Finantzen foru diputatuak zehaztutako toki, era eta epeetan sartu behar izango dute.*

## **22. artikulua. Ez-egoiliarren ordezkariak eta egoitza fiskala**

1. Zerga honen Foru Arauaren 11.1.b) artikulua aipatzen dituen subjektu pasibo ez-egoiliarrek pertsona fisiko edo juridikoa izendatu behar izango dute, Bizkaian egoitza duena, zerga honen zioz dituzten betebeharrei dagokienez, zerga-Administrazioaren aurrean ordezkari ditzan, Foru Arau honetako 18.2 artikuluan aipatzen diren izakizunetan establezimendu iraunkorraren bitartez dihardutenean zein, subjektu pasiboak Euskal Herrian lortutako errentaren kopuru eta izaeragatik, zerga Administrazioak horrela eskatzen duenean.

Subjektu pasiboak edo bere ordezkariak jainarazi beharko dio zerga-Administrazioari izendapena, behar bezala benetakotua, izendapenaren dataz ondoko bi hilabeteko epearen barruan.

2. Establezimendu iraunkorren ordezkariak, horren gisa Merkatal Erregistroan agertzen direnak edo, beraien ezean, beraien izenean kontratatuko ahalmendun gisa agertzen direnak hartuko dira. Pertsona horiek espainiar lurraldeko egoiliar ez direnean, aurreko atalean xedatutakoa aplikatuko da.

3. Lehen atalak aipatzen dituen beharkizunak ez betetzea tributu urratze soila izango da, 25.000 pezetatik 1.000.000 pezetarainoko isunaz zeha daitekeena.

4. Honako Foru Arau honetako 11.1.b) artikuluan aipatu eta atzerrian egotiar diren subjektu pasiboek, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-beharkizunak betetzeari dagokionez, beren egoitza fiskala izango dute:

a) Beren negozioen benetako administrazio-kudeaketa eta zuzendaritza dagoen lekuan, Euskal Herrian establezimendu iraunkorraren bitartez dihardutenean, espainiar lurraldeko izakunde egoiliarrei buruzko arauak aplikatzen zaizkiela dagozkien.

b) Higiezinen errentak direnean, ordezkariaren egoitza fiskalean edo, honen ezean, dagokion higiezina dagoen lekuan.

c) Gainerakoetan, ordezkariaren egoitza fiskalean edo, honen ezean, erantzule solidarioarenean.

*Azaroaren 4ko 8/1997 F.D. Arauemailearen indarrez, 1997ko irailaren 1etik aurrera honela idatzita geratzen da*

22. artikulua.—Ez-egoiliarren ordezkariak eta zerga-egoitza

Bat. **Espainiako lurraldeko** egoiliar ez diren subjektu pasiboek egoitza Bizkaian duen pertsona fisikoa edo juridikoa izendatu beharko dute, Administrazioaren aurrean beraien ordezkari gisa jardun dezan zerga honekiko betebeharren inguruan, establezimendu iraunkorraren bitartez dihardutenean, foru arau honetako 18.2. artikuluan aipatutako balizkoetan edo, subjektu pasiboak **Bizkaian** eskuratzen duen errentaren zenbatekoagatik eta beraren ezaugarriengatik, Zerga Administrazioak hala eskatzen duenean.

Subjektu pasiboak edo beraren ordezkariak Administrazioari jakinarazi beharko dio izendapena, eta behar bezala frogatu, eta horretarako bi hilabete izango ditu izendapen-egunetik.

Izendapena Ogasun eta Finantza Saileko Ogasunaren **Zuzendaritza Nagusiari** jakinaraziko zaio, eta jakinarazpenarekin batera izendatuak bere onarpena aurkeztu beharko du.

Bi. Establezimendu iraunkorren ordezkariak hartuko dira Merkataritzako Erregistroan hala ageri direnak edo, halakorik ezean, haien izenean kontratatuko ahalmena dutela ageri direnak. Pertsona hauek Bizkaiko lurraldeko egoiliar ez direnean, aurreko atalean xedatutakoa aplikatuko da.

Hiru. Lehen atalean aipatu diren betebeharrak ez betetzea zergen arloko urratze arina izango da, eta horregatik 25.000-1.000.000 pezeta bitarteko isuna ezarriko da.

Lau. Egoitza atzerrian duten subjektu pasiboen zerga-egoitza toki hauetan egongo da, Bizkaiko zerga-betebeharrak betetzeari dagokionez:

a) **Establezimendu iraunkorren dihardutenean, negozioen administrazio-kudeaketa eta zuzendaritza kokaturik dauden tokian, eta horrelakoetan Espainiako lurraldeko egoiliar diren erakundeei buruzko arauak aplikatuko dira, egokiak diren heinean. Baldin eta aurreko irizpidearen arabera zerga-egoitza non dagoen ezin zehaztu bada, ibilgetuaren baliorik handiena dagoen tokia hartuko da aintzat.**

b) Higiezinen errentei dagokienez, **ordezkariaren zerga-egoitza izango da; halakorik ezean, higiezina dagoen tokia.**

c) Gainerako kasuetan, **ordezkariaren edo, halakorik ezean, erantzule solidarioaren zerga-egoitza.**

## **IV. TITULUA**

### **ZERGA OINARRIA**

#### **23. artikulua. Zerga oinarria. Arau orokorra**

Bat. Zerga oinarria zergaldiko errentaren zenbatekoak osatuko du, ondorengo Tituluetan dauden arauen arabera zehaztuta.

Bi. Zerga oinarria, behar izanez gero, zenbait karga tasa aplikatzeko behar beste zatitan banatuko da.

## V. TITULUA

### ERRENTAREN ZEHAZTAPENA

#### I. KAPITULUA

##### ARAU OROKORRAK

##### 1go. SAILA

##### Lan etekinak

##### 24. artikulua. Lan etekin osoak

Bat. Lan etekin osotzat, kontraprestazio edo onura guztiak hartuko dira, edozein dela euren izendura edo jitea, zeintzu subjektu pasiboaren lan pertsonaletik zuzenean edo zeharka sortu baina enpresa nahiz lanbide etekinak ez diren.

Bi. Aurreko atalak aipatzen dituen kontraprestazio edo onurek diruzkoak nola gauzaz lortutakoak eskuhartuko dituzte, beti ere subjektu pasiboaren lan pertsonaletik ordaindu edo sortzen direnean, edo lan harremanen ondoriozkoak direnean.

##### 25. artikulua. Kontraprestazio edo onurak

Lan etekinen artean, bereziki honako hauek sartuko dira:

- a) Soldatak eta euren osakinak.
- b) Lantsari eta alokairuak.
- c) Haborokinak, pizgarriak, plusak eta aparteko ordainketak.
- d) Foru Arau honetako 9. artikuluan ez dauden sari eta kalteordainak.
- e) Langabeziaren ziozko prestazioak.
- f) Ordezkaritza gastu gisa egiten diren ordainketak.
- g) Pentsioak eta hartzeko pasiboak, edozein dela eurak har-tzeko eskubidea sortu duen pertsona, Foru Arau honetako 9. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.
- h) Familientzako laguntza edo sorospenak eta beka, Foru Arau honetako 9. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.
- i) Bidai gastuetarako sari eta esleipenak, salbu eta lokomoziokoak eta ostalaritza estabzimenduetako mantenu eta egonaldiaren normalak, arau bidez ezartzen diren mugekin.
- j) Sozietate baten fundatzaile edota sustatzaileek euren zerbitzuen ordainketa gisa gordetzen dituzten diruzko eskubide bereziak.
- k) Ekainaren 30eko 6/1988 Foru Arauak eta tributu erregimena araupetzen duten gainerakoek aipatzen dituzten Borondatezko Gizarte Aurrikuspenerako Entitateen onuradunek hartzen dituzten prestazioak, bai eta Pentsio Plan eta ekainaren 8ko 8/1987 Legeak araupetzen dituen

hautabidezko sistemenean ere, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga ordaindu behar dutenean izan ezik.

l) Izaera bereziko lan-harremanetatik eratorritako ordainketak.

m) Gorte Orokoretako Diputatu eta Senatoreei, Autonomia Legegintz Batzarreetako kideei, Batzar Nagusietako ahaldunei, Foru Diputatuei, Udaletako Alkate nahiz Zinegotzietatik eta Probintzietako Diputazioetako nahiz beste Udal Enteteetako kideei, euren kargu dela eta, ordaintzen zaizkien kopuruak; nolana ere den, Erakunde horiek kopuru horietatik bidai eta lekualdaketa gastuetarako esleitzen duten zatia alde batera utziko da.

n) Europako Legebiltzarreko espainiar diputatuei, euren kargua dela eta ordaintzen zaizkien kopuruak; Erakunde horiek kopuru horietatik bidai eta lekualdaketa gastuetarako esleitzen duen zatia alde batera utziko da, Nazioarteko Hitzarmen nahiz Itunbenetan aurrikusitakoaren kalterik gabe.

ñ) Espainiar funtzionarioek nazioarteko organismoetan hartzen dituzten ordainketak, Nazioarteko Hitzarmen nahiz Itunbenetan aurrikusitakoaren kalterik gabe.

o) Legez aintzatsita dauden erlijio sinesbideetako ministro edo apaizarenak egiteagatik lortzen diren kopuruak.

p) Administrazio Kontseiluetako edo beraien ordezkari Batzetako kideen ordainketak.

q) Ezkontidearentzako konpentsazio pentsioak eta mantenerako urtekoak, Foru Arau honetako 9. artikuluan xedaturikoaren kalterik gabe.

#### 4. artikulua. Joan-etorri eta bidai gastuen ziozko dietak.

*Bat. Lanaren etekintzat, bidai gastuetarako dieta eta esleipenak hartuko dira, lokomozio gastuei, eta ostalaritzako estabzimenduetako hazkurri eta egonaldiaren ziozko gastu arruntei dagozkienak izan ezik.*

##### *Bi. Lokomozio gastuak.*

*Fabrika, lantegi, bulego etabarretik kanpora, lana beste edonon egiteko, joan-etorriren bat egiten duen enplegatu edo langilearen lokomozio gastuak konpentsatzeko erabiltzen diren kopuruak egongo dira zergapetik kanpo honako baldintza eta zenbateko hauetan:*

*a) Baldin eta enpresak egiten den gastua bera ordaintzen bada.*

*1. Enplegatu edo langileak garraiobide publikoak erabiltzen dituzenean, faktura edo agiri baliokide baten bitartez frogatzen denean.*

2. Bestela, gastuaren zenbatekoa, enplegatu edo langileak joan-etorriak eginak dituela frogatzen duenean. Gastuaren zenbatekoa ezin frogatu bada, ibilitako kilometro bakoitzeko 24 pezeta konputatuz sortuko den kopurua kenduko da.

b) Enpresak langile edo enplegatuari ordainketa oso berezi baten bitartez medeapena eman badiezaio, beti ere joan-etorriak benetan eginak direla agiri bidez frogatu eta ordainketaren zenbatekoa urtero, gutxi gorabehera, joan-etorrien ziozko gastu osoekin bat datorrenean. Gastuaren zenbatekoa frogatzen ez denean, muga aurreko letrako 2. zenbakian adierazitako zenbatekoa izango da.

Horago adierazitako zenbatekoen gaindikina zergapean egongo da.

**Hiru.** Hazkurri eta egonaldiaren ziozko gastuak.

1. Zergapetik salbuetsizat daudela ulertuko da, jatetxe, hotel eta ostalaritzako gainerako establezimenduetako hazkurri eta egonaldiaren ziozko gastu arruntei dagozkien bidai gastuetarako dieta eta esleipenak, baldin eta hartzailerearen ohizko lanlekua ez beste lekuetako gastuen zioz sortuak badira.

Ondorengo 4 eta 5. zenbakietan aurrikusiko diren kasuetan izan ezik, ohizko lanlekua ez beste udalerrri batetara joan eta beronetan ehun eta laurogeitahiru eguneko baina luzeagoa den epealdi etengabe irauten denean, bertako hazkurri eta egonaldiaren ziozko gastuei dagozkien bidai gastuetarako dieta eta esleipenak ez dira zergapetik kanpo egongo. Honi dagokionez, opor, eritasun nahiz destinoa aldatzera jotzen ez duten beste inguruabarren ziozko denbora ez da kenduko.

2. Atal honi dagokionez, hotel, jatetxe eta ostalaritzako gainerako establezimenduetako hazkurri eta egonaldiaren ziozko gastu arrunten legez, eguneroko hogeitamahiru mila eta bostehun pezetako kopuru finkoa gainditzen ez dutenak, espainiar lurraldearen barruko joan-etorriengatik sortzen badira, edo eguneroko berrogeitamabost mila eta lauhun pezetakoa, atzerritar lurralderako joan-etorriengatik badira, hartuko dira.

3. Aurreko atalak aipatzen dituen hazkurri eta egonaldi gastuak ez dira frogatu behar izango, euren zenbatekoari dagozkionez, eguneroko hamaika mila eta berrehun eta berrogeitamar pezetako kopurua gainditzen ez dutenean, espainiar lurraldearen barruko joan-etorriengatik sortzen badira, edo eguneroko hoge mila eta bostehun pezetakoa, atzerritar lurralderako joan-etorriengatik badira.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa gorabehera, gaua ohizko lantokiko udalerrian ez beste batetan eta hartzailerearen egoitza denetik kanpo eman denean, kopuru horiek, hurrenez hurren, eguneroko hiru mila eta berrehun eta berrogeitamar eta zazpi mila pezetan finkatzen dira.

Aurreko lerroaldeetan adierazitakoari dagokionez, ordaintzaileak joan-etorrien eguna eta lekua benetakotu behar izango ditu, bai eta haien arrazoi edo zioa ere.

4. Funtzionario izan eta destinoa atzerrian dutenek, destinoa Espainian badute, soldata, hirurteko, osakin nahiz pizgarrien zioz lortzen dituzten ordainketa osoetatik hartzen duten gaindikina zergapean ez dagoen dietatzat hartuko da, moduluak aplikatu eta destinoa atzerrian duten funtzionarioen ordainketen errigimena araupetzen duen maiatzaren 23ko 1404/1986 Erret Dekretuan, urriaren 14eko 1239/1988 Erret Dekretuak aldarazi bait zuen, 3, 4 eta 5gn. artikuluetan aurrikusitako kalteordainak hartzearen ondorioz.

Baldin eta zerga betebeharrak pertsonalaren zioz ordaindu beharra badago, destinoa atzerrian duen Administrazio Publikoaren zerbitzupeko pertsonalak soldata, hirurteko osakin nahiz pizgarrien zioz, destinoa Espainian balu, lortuko lituzkeen ordainketa osoen gainean hartzen duen gaindikina berdin hartuko da. Honi dagokionez, Ekonomia eta Ogasun Ministraritzak, pertsonal horri, destinoa Espainian balu, legozkioketen ordainketen parekaketak erabakiko ditu.

5. Baldin eta zerga betebeharrak pertsonalaren zioz ordaindu beharra badago, destinoa atzerrian duten enpresetako enplegatuak, destinoa Espainian balute, soldata, lansari, aintzinasun, aparteko ordainketengatik, mozkinen ziozkoengatik ere, famili laguntza edo kargu, enplegu, kategoria edo lanbidearen ziozko beste edozergatik lortuko lituzketen ordainketa osoetatik lortzen duten gaindikina ere hartuko da zergatik kanpo dagoen dietatzat.

6. Aire bazkunetako hegaldaketako pertsonalak, egonaldi eta ostatu gastuak frogatu ondoren, hazkurri gastuak ez ditu frogatu behar izango, espainiar lurraldearen barneko joan-etorriengatik sortzen badira, eguneroko sei mila eta bostehun pezetako kopurua gainditzen ez dutenean edo eguneroko hamaika mila eta bederatziehun pezetakoa, atzerritar lurraldera egin beharreko joan-etorriengatik sortzen badira.

7. Parlamentari, Batzar Nagusietako ahaldun, diputatu, alkate eta zinegotziek, kide diren erakundeen bilkura nahiz bileretara joateagatik, hartzen dituzten dietak direnean, hartzen diren dietei honako portzentaia

hauek aplikatzen aterako diren kopuruak zergatik kanpo dauden gastuz hartuko dira:

- Ehuneko hirurogeia, joaten den bilera edo bilkura parlamentari, diputatu, alkate edo zinegotzi denaren egoitzaren udalerraren barnean izaten denean.

- Ehuneko hirurogeitamarra, joaten den bilera edo bilkura egoitzaren udalerriaz ez beste batetan baina probintzia berberaren barruan izaten denean.

- Ehuneko laurogeia, joaten den bilera edo bilkura beste probintzia batetan izaten denean.

8. Gorago adierazitako muga gaindikina zergapean egongo da.

9. Kanarien Ekonomia eta Zergen Araubidea aldarazi duen uztailaren 6ko 19/1994 Legearen 73. artikulua Untzi eta Itsas Enpresen Erregistro Berezia aipatu du; bada, erregistro horretan inskribaturik dauden untzietako lagunentzat, beraiek zergaren menpean norbere betebeharraren zioz badaude, kargatik salbuetsita dagoen saria izango da norbere lanaren etekin osoen 100eko 25, noiz eta etekinok untzi horietan egindako nabigazioaren zioz sortzen direnean.

**Lau.** Aurreko ataletan aurrikusitako erregimena lokomozio, hazkurri eta egonaldien ziozko gastuetarako esleipenei ere aplikatuko zaie, zeintzuk hauek zerbitzugintza lantoki higikor edo ibiltariak dituzten enpresetan bereziki emateko kontraturik dauden langileek hartzen bait dituzte, baldin eta esleipen horiek langilearen ohizko egoitza den udalerrira ez beste batetara egin beharreko joan-etorriei badagozkie.

**Bost.** Subjektu pasiboak, beren zerbitzuak ematen dituzten enpresek lokomozio, hazkurri eta egonaldien gastuen medeapena bereziki eman ez diezaizkion, inoren menpeko lan harreman berezietatik etortzen diren lan etekinak lortzen dituzten subjektu pasiboak, beren sarrerak gutxitu ahal izango dituzte, artikulua honetako bigarren ataleko a) letrak eta hirugarren ataleko hirugarren zenbakiak aipatzen dituzten kopuruetan, etekin garbiak zehazteko, baldin eta joan-etorriak eginak direla frogatzen bada.

**Sei.** Zergapetik salbuetsita dauden bidai gastuetarako esleipentzat hartuko dira, subjektu pasiboari lanpostua beste udalerrira batetara aldatzeagatik ordaintzen zaizkion kopuruak, baldin eta lekualdaketa horrek egoitzaren aldaketa eragin eta kopuruak, bakar-bakarrik, lekualdaketa bitartean subjektu pasiboak eta bere senideak dituzten lokomozio eta hazkurri gastuei, eta haien altzari eta tresnen lekualdaketa gastuei badagozkie.

**Zazpi.** Artikulu honetako bigarren ataleko a) letrak bigarren zenbakian eta hirugarren ataleko bi, hiru eta seigarren zenbakietan adierazi diren kopuruak funtzionari publikoen dietak berrikusten diren uanean bertan eta proportzio berean berrikusi ahal izango dira.

**Zortzi.** Epaimahaikidegaiek eta epaimahakide titularrek eta ordezkoez bere zereginak betetzearan zioz jasotako kopuruak kargatik salbuetsita egongo dira

## 26. artikulua. Gauzako ordainketak

Gauzako ordainketak honako hauek dira: nor bere xedeetarako ondasun, eskubide nahiz zerbitzuak dohainik edota merkatuko prezio arrunta baino gutxiagokoan erabiltzea, kontsumitza zioz lortzea dira, emailearentzat benetako gastua ez bada ere.

Besteak beste, honako hauek hartuko dira gauzako ordainketatzat:

a) Etxebizitzaren erabilpena, karguaren zioz, edo enplegatu publiko edo pribatua izateagatik.

b) Ibilgailu automobilen erabilpena edo ematea.

c) Diruaren legezko korritua baino txikiagoa duten maileguak.

d) Mantenu, ostatu, turismo bidaiak eta antzekoetarako ematen diren prestazioak.

e) Enpresak, aseguru kontratuagatik edo beste antzeko batengatik, ordaintzen dituen sariak edo kuota, lan istripuko aseguruarenak nahiz erantzunkizun zibilekoak izan ezik.

f) Borondatezko Gizarte Aurrikuspenerako Entitateen bazkide babesleek eta Pentsio Planen sustatzaileek ordaintzen dituzten kontribuzioak, bai eta enpresari Pentsio Planen ordezkotako gizarte aurrikuspenerako sistemarako ordaintzen dituzten kopuruak ere, beti ere beraiek prestazioak lotuta dituzten pertsonen egozten zaizkionean.

g) Subjektu pasiboaren edo beroni senidetasunaz lotuta dauden beste pertsonen ikasketak eta mantenuen gastuak ordaintzeko diren kopuruak.

Salbuetsita gelditzen dira erakundeak, enpresek nahiz enplegatzaileek eurek antolatuta eta finantzatzen dituzten ikasketak.

Honako hauek ez dira sekula ere gauzako ordainketatzat joko:

a) Enpresa kantina edo jantokietan edo gizarte izaerazko ekonomatuetan egin izandako prezio beheratuak produktuen emateak. Arau bidez xedatutako den zenbatekoa gainditzen ez duten zerbitzu prestazioen zeharkako formulak enpresa jantokietan egindako prezio beheratutako produktuen emateatzat joko dira.

b) Langileen gizarte eta kultur zerbitzuetarako diren ondasunen erabilpena.

c) Sozietateenak berenak edo taldean nagusi den sozietatearen akzioak edo partaidetzak direla eta, urteko 500.000 pezetako kopurua edo 1.000.000 pezetako kopurua azken bost urteetan zehar gaintzen ez duen zatian lanean diharduten langileei sozietateek egindako emateak, beti ere hurrengo baldintzok betetzen badira:

1. Eskaintza enpresako langile guztientzat baldintza berberetan egiten dela.

2. Langile horiek, beren ezkontideek edo bigarren gradurainoko senideek ez dutela 100eko 5a baino gehiagoko baterako partaidetza enpresan.

3. Tituluak gutxienez hiru urtez jasan direla.

Aurreko 3. zenbakian aipatu epea ez betetzeak berez aitorpen-likidazio osagarri bat aurkeztu behar izatea erakarriko luke, berandutzaren ziozko korritu egokiak eta guzti, beharkizuna betetzeari utzi zaion unetik eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko hurrengo urteko aitorpena egiteko epea amaitu arteko tarte horretan.

#### **5. artikulua. Gauzako ordainteketei buruzko erregela bereziak.**

*Bat. Ez dira gauzako ordainsaritzat joko, zerga honi buruzko foru arauko 26. artikuluko g) letrako bigarren lerroaldearen ondoreetarako, erakunde, enpresa nahiz enplegatzaileek antolatu eta beraiek zuzen-zuzenean ordaintzen dituzten ikasketak, ikasketon helburua haien pertsonalaren egunerapen, gaikuntza edo birziklapena bada eta jardueren garapenak edo lanpostuen ezaugarriek horrela eskatzen dutenean, benetan bestelako pertsona edo erakunde berezituak ematen dituztenak barne. Horrelakoetan, egonaldi eta mantenu gastuak araudi honetako 4. art. an aurrikusitakoaren arabera ordainduko dira.*

*Bi. Sozietate baten fundatzaileek edo sustatzaileek, norberaren zerbitzuen ordaintekete gisa, beraientzat gordetzen dituzten ekonomi izaerazko eskubide bereziak, erakundearen mozkinen gaineko portzentaia direnean, gutxienez, eskubide horiei aintzatetsitako mozkinetako partaidetzaren balioidea den balioaren 100eko 35ean baloratuko dira.*

*Hiru. 1. Zerga honi buruzko foru arauko 26. artikuluko azken lerroaldean aurrikusitako ondoreetarako, enpresa jantokietan burutzen diren prezio murriztuetak produktuak ematez joko dira lan legeriak onartu eta hurrengo beharkizunok betetzen dituzten zuzen nahiz zeharkako zerbitzu prestazioen formulak:*

*1go. Haien zenbatekoa eguneko 900 pezetakoa baino gehiagokoa ez denean. Eguneko*

*zenbatekoa kopuru hori baino handiagoa denean, gaitzaren ziozko gauzako ordaintekete egingo dira.*

*2gn. Zerbitzuaren prestazioa enplegatu edo langilearentzako lanegunen barruan burutzen denean.*

*3gn. Zerbitzuaren prestazioa enplegatu edo langileak mantenuaren ziozko saririk sortarazten duten egunen barruan burutzen ez direnean, araudi honetako 4. artikuluan xedatutakoaren arabera, kargazkoak direnak salbu.*

*2. Enplegatu edo langileari, zerbitzuaren prestazioa egiteko, janari-txartelik edo antzeko agiririk ematen bazaio, aurreko zenbakian adierazitako beharkizunetz gain, jaulkitzailea edonor izanik ere, baldintza hauek beteko dira:*

*- Zenbakituta egon beharko dute, bertan izena, jabearentzako zenbatekoa eta enpresa jaulkitzailea agertu beharko direlarik.*

*- Ezin izango zaizkio utzi beste inori.*

*- Ezin izango da lortu enpresarengandik edo beste inorengandik zenbatekoaren itzulketarik.*

*- Ostalaritzako establezimenduetan bakarrik erabili ahal izango dira.*

*- Horrelakoak ematen dituen enpresak bere enplegatu edo langileetarako bakoitzari emandako zerrenda egin eta gorde egin beharko du, agiri zenbakia eta emate eguna agertaraziz.*

*3. Aurreko ataleko 1go. zenbakian aipatutako zenbatekoa Ogasun eta Finantzen foru diputatuak berraztertu ahal izango du.*

#### **27. artikulua. Gauzako ordainteketen balioztapena**

*Bat. Aurreko artikulua aipatzen dituen prestazioak honelaxe balioztatuko dira:*

*a) Lehengo a) letrari dagokionean:*

*- Subjektu pasiboaren esku jarritako etxebizitza errentatua bada, ordaindutako alojeraren zenbatekoan.*

*- Gainerako kasuetan, Foru Arau honetako 34. artikuluko b) letran xedaturikoaren arabera. Honela zehazten den ordainteketen goingo muga subjektu pasiboak, kargua edo enplegua dela eta, hartzen dituen lan pertsonalaren gainerako kontraprestazioen 100eko 10a izango da.*

*b) Lehengo b) letrari dagokionean:*



- Entrega denean, enplegatzailearentzako eskuraketa kostua, eragiketa kargatzen duten tributuak barne.

- Erabilera denean, aurreko atalak aipatzen duen kostuaren urteko 100eko 15a, ibilgailua enplegatzailearena bada edo, bestelakoetan, enpresak erabiltzeko ordaintzen duen zenbatekoan.

- Erabilera eta ondorengo entrega direnean, entrega atal honetako f) letran xedatutakoaren arabera balioztatuko da.

c) Lehengo c) letrari dagokionean, ordaintzen den korrituaren eta epealdian indarrean dirauen diruaren legezko korrituaren arteko kendura.

d) Lehengo d), e) eta g) letrei dagokienean, enplegatzailearentzako kostuan, eragiketa kargatzen duten tributuak barne.

e) Lehengo f) letrari dagokionean, haren zenbatekoan.

f) Gainerako kasuetan, merkatuan duten balio normalean.

Bi. Gauzazko ordainketen gainean ezar daitekeen konturako sarrera, Foru Arau honetako 98. artikuluan aurrikusitakoaren arabera, aurreko atalak aipatzen dituen balioen gainean kalkulatu da.

Hiru. Gauzazko ordainketei dagokienetan, lan pertsonalaren etekin garbitzat, artikulua honetako lehen atalean dauden arauetatik ateratzen den balioztapena sartuko da eta, beharrezko denean, zerga honela ordaintzen duenak kontura egiten duen sarrera ere.

## **28. artikulua. Gastu kengarriak**

Honako hauek bakarrik hartuko dira gastu kengarritzat:

1. Gizarte Segurantzari edota funtzionarien nahitaezko Mutualitate Orokorrei egiten zaizkien kotizazioak eta eskubide pasiboan ziozko murrizpenak eta Zurtzen Erakundeei nahiz antzeko Erakundeei egiten zaizkien kotizazioak, bai eta sindikatuei ordaintzen zaizkien kuotak ere.

2. Bestelako gastu gisa, 100eko 5a sarrera osoen zenbatekoaren gainean aplikatuz ateratzen den kopurua, Borondatezko Gizarte Aurrikuspenerako Entitateen bazkide babesleek eta Pen-tzio Planen sustatzaileek partaideei egozten dizkieten kontribuzioak kanpoan utzita, gehienez 250.000 pezeta direlarik. Portzentaia hori 100eko 15ekoa izango da, 600.000 pezetako muga dagoela, itsuak, mutilatuak edo elbarriak, gorputzezkoak nola burukoak, jatorrizkoak nola gertaerabidezkoak, diren subjektu pasiboentzat, arauz ezarritako graduan eta euren minusbalioa Bizkaiko Foru Aldundiko eskudun organoak luzatutako ziurtagiriaren bitartez egiaztatu behar dutela.

Bizkaiko Foru Aldundiak portzentaia horiek moldatu ahal izango ditu, bai eta euren muga ere, lan harreman jakin batzuren ezaugarrien arabera, baldin

eta ageri-agerian nahikoa ez badira gastu bereziak berberetan sartzeko.

Bizkaiko Foru Aldundiak portzentaia horiek moldatu ahal izango ditu, bai eta euren muga ere, lan harreman jakin batzuren ezaugarrien arabera, baldin eta ageri-agerian nahikoa ez badira gastu bereziak berberetan sartzeko.

## **29. artikulua. Lan etekin garbia**

Lan etekin garbia etekin osoetatik gastu kengarrien zenbatekoa kentzetik ateratzen den emaitza izango da.

## **30. artikulua. Lan etekinen bakoiztapena**

Lan etekinak, eurak hartzeko eskubidea sortzen duenari bakarrik dagozkie.

Hala ere, pentsioak eta hartzeko pasiboak aintzatetsita dituzten pertsonari dagozkie.

## **2gn. SAILA**

### **Kapitalaren etekinak**

#### **1go. AZPISAILA**

#### **Arau orokorrak**

## **31. artikulua. Kapitalaren etekin osoak**

Bat. Kapitalaren etekin osotzat, onura nahiz kontraprestazio osoak hartuko dira, edozein direla euren izendura edo jitea, baldin eta zuzenean edo zeharka subjektu pasiboaren titulartasunpeko ondare elementu, ondasun nahiz eskubideetatik badatoz eta hark egiten dituen enpresa edo lanbide iharduerei loturik ez badaude.

Bi. Nolanahi ere, honako hauek sartuko dira kapitalaren etekintzat:

a) Ondasun higiezinetatik, landarretatik nola hiritarretatik datozenak, beti ere beraiek subjektu pasiboak egiten dituen enpresa edo lanbide iharduerei lotuta ez daudenean.

b) Higigarrien kapitaletik eta, orohar, subjektu paiboaren titulartasunpeko gainerako ondasun nahiz eskubideetatik datozenak, hark egiten dituen enpresa edo lanbide iharduerei lotuta ez daudenean.

Ondare elementu, ondasun nahiz eskubideei, zeintzu subjektu pasiboak egiten dituen enpresa edo lanbide iharduerei bakarrik lotuta dauden, dagozkien etekin osoak iharduera horien sarreratzat hartuko dira.

## **32. artikulua. Kapitalaren etekin garbia**

Kapitalaren etekin garbia sarrera osoetatik gastu kengarrien zenbatekoa kentzetik ateratzen den emaitza izango da.

## **33. artikulua. Kapitalaren etekinen bakoiztapena**

Kapitalaren etekinak, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Araueko 7. artikuluan aurrikusitakoaren arabera etekin horiek sorterazten dituzten ondare elementu, ondasun nahiz eskubideen titularrak diren subjektu pasiboek lortutakotzat hartzen dira.

## 2gn. AZPISAILA

### Higiezinaren kapitalaren etekinak

#### 34. artikulua. Higiezinaren kapitalaren etekin osoak

Landa eta hiri- ondasun higiezinaren nahiz berauen gaineko ondasun-eskubideen titulartasunetik datozen etekin osotzat, honako hauek hartuko dira:

a) Errentatu edota azpierreentaturiko higieziinei dagokienez, errentariari edo azpierreentariari kontzeptu guztiengatik har?tzen zaion zenbatekoa; higiezinarekin batera lagatako ondasun guztiak dagokiena barne, eta Balio Erantsiaren gaineko Zerga kanpo.

Jabeak edo ondasun-eskubidearen titularrak beretzat aprobetxamenduren bat gorde badeza, beroni dagozkion sarrerak ere konputatuko dira, beti ere aprobetxamendu hori berez enpresa iharduera ez bada, orduan iharduera horren sarreren artean sartuko bait da.

b) b) Gainerako hiri ondasun higieziinei dagokienez, eraikitako lurzorua alde batera utzita, katastroko balioari hurrengo portzentaiak ezartzearen ondorioz ateratako kopurua:

- Oro har, 100eko 2a.

- Toki Ogasunen araupetzaila den abenduaren 28ko 39/1988 Legeko 70 eta 71. artikuluetan araupetutako prozedurekin bat etorriz, beren katastroko balioak berraztertu edo aldaraziak izan diren higieziinei dagokienez, beti ere balio horiek indarrean 1994ko urtarrilaren 1az gero jarri direnean, 100eko 1,10a.

Zerga sortzeko datan, letra honetan aipatu higieziinek katastroko baliorik ez badute edo balio hori titularrari jakinarazi ez bazaio, Ondarearen gaineko Zergaren ondoretarako konputatu behar duten balioaren 100eko 50a joko da higiezinaren balioetatik. Horrelakoetan ezar daitekeen portzentaia 100eko 1,10ekoa izango da.

Luperketako eskubide errealik baldin badago, eskubidearen titularraren ondoretarako konputa daitekeen etekina berez jabeari dagokiona izango da.

Eraikitzen ari diren higiezinak direnean, eta hirigintzako arazoak direla eta, higieziina erabiltzeko gai ez denean, horrelakoetan iritziko da ez dela etekin garbirik, bat ere.

#### 6. artikulua. Hiri-ondasun higiezinak.

**Bat. Zergari buruzko Foru Araueko 34. artikuluko b) letran xedatutakoari dagokionez, hiri-higieziintzat hartuko dira, eraikuntzak eta, egotekotan, berauen lurzati erantsiak, baldin eta haien jabearenak edo jabeenak izan eta berdegune, lorategi, parke, kiroldegi edo antzekoetarako erabiltzen badira, jabeek eurek bakarrik erabiltzera, beti ere lurzati edo instalazio horiek eurenak direnean, banaka nahiz taldeka, kasuan kasu.**

**Bi. Subjektu pasiboa hiri-higiezinaren edo beronen gaineko luperketako ondasun-eskubidearen titularrak izana ez denean, edo, hirigintza dela kari, hura eraikitzen egon denean, edo ezin erabili izan denean, higiezinaren kapitalaren etekina hartua den egunen kopuruaren arabera zehaztuko da.**

#### 35. artikulua. Gastu kengarriak

Aurreko artikulua aipatzen dituen ondare-ondasun eta eskubideen etekin garbia zehazteko, honako hauek hartuko dira gastu kengarritzat:

a) Lehengo a) letraren barruko ondasun eta eskubideei dagokienez:

- Eurak lortzeko behar diren gastuak. Ondasun nahiz eskubide horiek eskuratu edota hobetzeko inbertitzen diren besteren kapitalen korrituen eta finantzaketarako gainerako gastuen kenkaria ezin da higieziina edo eskubidea lagatzeagatik lortzen diren etekin osoen zenbatekoa baino handiagoa izan. Korrituen eta finantzaketarako gainerako gastuak kendu ahal izateko, euren frogagiriak ekarri beharko dira Zerga honen aitorpenarekin batera.

- Etekinak sorterazten dituzten ondasunetako erabileragatik edo denbora igaroteagatik jasaten den narriaduraren zenbatekoa, beti ere arau bidez zehazten diren baldintzekin.

b) Lehengo b) letraren barruko ondasun eta eskubideei dagokienez, honako hauek bakarrik:

- Ondasun Higiezinaren gaineko Zergarengatik sortzen diren kuota eta errekariguak, premiamenduzkoa ezik.

- Ohizko etxebizitza eskuratu edo hobetzeko inbertitzen diren besteren kapitalen korrituak, gehienez, 800.000 pezeta daudela, beti ere euren frogagiriak Zerga honen aitorpenarekin batera ekar?tzen direnean.

#### 7. artikulua. Gastu kengarrien bereizkuntza.

**Bat. Zergari buruzko Foru Araueko 34. artikulua aipatzen dituen ondasun eta ondare-eskubideen etekin garbia zehazteko, honako hauek hartuko dira gastu kengarritzat:**

A) Zergari buruzko Foru Araueko 34. artikuluko a) letraren barruan dauden ondasun eta eskubideak direnean, beraiek lortzeko behar diren gastuak, eta etekinen jatorri diren ondasunetan erabilerak edo denboraren igaroak sorterazten duen narriaduraren zenbatekoa.

Bereziki, aurreko lerroaldeak aipatzen dituen gastuen artean honako hauek hartuko dira sartutzat:

a) Ondasun edota eskubideen eskuraketan edo hobekuntzan inbertitzen diren besteren kapitalen korrituak eta finantzaketarako gainerako gastuak, baldin eta benetan jabearen edo ondasun-eskubidearen titularraren pentsutan badira.

Hala ere, letra honetan aurrikusitako gastuen kenkaria ezin da, ondasun edo eskubide bakoitzeko, haren lagapenarengatik lortzen diren etekin osoen zenbatekoa baino handiagoa izan.

b) Estatuarenak ez diren tributu eta errekarquak, bai eta Estatuaren tasa, errekarqu eta kontribuzio bereziak ere, lege bidez ezin jasan eraz daitezkeenean, euren izendura edozein delarik ere, baldin eta zenbatzen diren etekinen gainekoak edo berauen ondasun edo eskubide ekoizleen gainekoak izan, baina zehapenak ez badira.

c) Gainontzekoek, zuzeneko nahiz zeharkako kontraprestazio gisa, edo norbere zerbitzuen ondorioz, sortzen dituzten kopuruak, hala nola, administrazio, jagotza, atezaintzakoak zein antzekoak.

d) Errentamendua, azpierreantamendua edo lagapena formalizatzeo sorterazten direnak, eta ondasun edota etekinei doazkien izaera juridikoko defentsaren ziozkoak ere.

e) Zalantzako kobrantzako saldoak, baldin eta zalantza hori behar bezala frogatzen bada.

Zalantza behar bezala frogatuta dagoela ulertuko da:

- zorduna ordainketa etendura, porrotean edo antzeko egoera batetan dagoenean.

- Subjektu pasiboak kobratzeo egiten duen lehenengo kudeaketaren unearen eta zergaldiaren amaierakoaren artean, urtebete baino gehiago igarota izan, baina kreditua eraberritua ez denean.

Zalantzako kobrantzako saldoa kendu eta gero kobratua denean, kobrantza hori egiten den ekitaldiko sarrera gisa zenbatuko da.

f) Artapen eta konponketako gastuak.

Honen zioz, ezin izango dira kendu ondasun horien zabalkuntza edo hobekuntzarako jartzen diren kopuruak, hala nola, segurantzazko ate, kontraleihoetarako edo burdinesirako erabiltzen direnak.

g) Etekinak ekoizten dituzten ondasun edota eskubideen gaineko aseguru kontratuen primen zenbatekoa, kontratuok erantzunkizun zibilekoak, sutekoak, lapurretakoak, beiren hausturakoak edo antzeko jitekoak direlarik.

h) Zerbitzu nahiz homiduretarako jartzen diren kopuruak.

i) Amortizaziorako jartzen diren kopuruak, araudi honetako ondorengo artikuluan ezarriko diren baldintzetan.

B) Zergari buruzko Foru Araueko 34. artikuluko b) letraren barruan dauden ondasun eta eskubideak direnean, ondorengo hauek bakar-bakarrik:

a) Ondasun Higiezinaren gaineko Zergarengatik sortzen diren kuota eta errekarquak, premiamenduzkoak ezik.

b) Ohizko etxebizitza eskuratu edo hobetzeko inbertitzen diren besteren kapitalen korrituak, gehienez, zortziehun mila pezeta daudela.

Zerga batera ordaintzen denean, gehienezko hori milioia pezetakoa izango da.

**Bi.** Honako hauek ez dira gastu gisa kengarriak izango:

a) Errentari edo maizterrari jasan erazten zaizkionak.

b) Subjektu pasiboaren ondarearen balioan urripenak sorterazten dituzten ezbeharren zioz egiten diren ordainketak.

## **8. artikulua. Errentaturiko higiezinaren amortizazioa.**

**Bat.** Errentaturiko higiezinetatik datorren etekin garbia zehazteko, gastu kengarritzat hartuko dira higiezinaren eta beronekin batera lagatzen diren gainerako ondasunen amortizaziorako jartzen diren kopuruak, baldin eta haien benetako balio galerarako badira.

**Bi.** Amortizazioek eraginkortasun beharkizuna betetzen dute, baldin eta:

a) higiezinak izatekotan: urtean-urtean, ehuneko bat eta bosta Ondarearen gaineko Zergari dagozkionez, zenbatuta dauden edo egon beharko

luketen balioaren gainean aplikatuz ateratzen den emaitza gaintzen ez badute, lurzorua balioa zenbatu gabe.

b) Higigarrien izaerako ondasunak izatera, urtebete baino gehiagoko epealdian erabili eta higiezinarekin batera erabili ahal direnak: urtean-urtean, eskuraketa balioei, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak orohar zehazten dituen amortizazio koefizienteak aplikatuz ateratzen den emaitza gaintzen ez badute.

**Hiru.** Etekinak erabilera edo luperketako ondasun-eskubideen titulartasunetik etortzen direnean, eskubide hori amortizatu ahal izango da, baldin eta haien eskuraketak subjektu pasiboarentzat kostua ekartzen badu.

Honela izatekotan, amortizazioa ondorengo erregelen emaitza izango da:

a) Eskubidearen iraupena epe finkokoa denean, eskubidearen eskuraketa kostua haren iraupeneko urteen kopuruaz zatituz ateratzen dena.

b) Eskubidea biziartekoa denean, eskuraketa kostuari ehuneko bat eta bosta aplikatuz ateratzen den emaitza.

**Lau.** Egiten diren amortizazioen batura ezin izango da inoiz harako ondasun edo eskubidearen eskuraketa balioa baino handiagoa.

Ez dira onartuko zergaldi batetan gastu kengarritzat, beste zergaldi batetan zenbatzen diren amortizazioak.

Ez dira onartuko artikuluko honetan xedatutakotik ateratzen den amortizazioaren eperik luzeenaren ondoren egiten diren amortizazioak ere, gastu kengarri gisa.

**Bost.** Zergari buruzko Foru Arauko 46. artikuluko lehen ataleko azken lerroaldian aurrikusitakoari dagokionez, elementu guztiak urtean-urtean amortizatuz hartuko dira aurreko erregelen arabera zenbatu ahal izango ziratekeeneko amortizazioaren zenbatekoan gutxienez, gastu kengarritzat hartzen direnentz kontutan hartu gabe.

Higiezinarekin batera lagatzen diren ondasunak direnean, gutxienezko amortizazio gisa, aurreko atalaren arabera finkatutako amortizazioaren epealdirik luzeenean elementuak duen eskuraketa balioa betetzeko behar den kuota lineala hartuko da.

**36. artikulua. Etekinaren senidetasuna dagoenean**

Errentatu edota azpierrenerako higieziari dagokienez, baldin eta errentatzaile eta errentariaren artean edo azpierreneratzaile eta azpierrenerariaren artean senidetasuna badago, hirugarren mailaraino, berau barne, etekin garbia ezin da 34. artikuluko b) letran aurrikusitakoaren arabera konputa daitekeena baino txikiagoa izan.

### 3gn. AZPISAILA

#### Higigarrien kapitalaren etekinak

#### 37. artikulua. Higigarrien kapitalaren etekin osoak.

Higigarrien kapitalaren etekintzat, honako hauek hartuko dira:

#### 1) Edozein entitate motaren beraren fondoetan parte hartzeagatik lortzen diren etekinak.

Kategoria honen barruan, dibidenduak, batzetera joateagatik primak eta sozietate edota elkartearen mozkinetako partaidetzak sartuko dira, bai eta bazkide, akziodun edo elkartua izateagatik, entitateari hartzen zaion beste edozein onura. Halaber, edozein aktibo motatik datozen etekinak sartzen dira, salbu eta akzio askatuak ematen direnean, zeintzuk, esatutu bidez edo sozietateko organoen erabaki baten bidez, ahalmena ematen duten, sozietate edota elkarte baten mozkin, salmenta, eragiketa, sarrera edota antzeko kontzeptuetako partaidetza izateko, beti ere lan pertsonalaren ordainketaren karia ez beste batengatik denean.

Zerga oinarrian sartzeari dagokionean, aurreko lerroaldeetan aipatzen diren etekinak, espainiar lurraldeko sozietate, elkarte edo entitate egoiliarrengandik datozenean, honako portzentaia hauekin biderkatuko dira:

a) 100eko 140, oro har.

b) 100eko 125, Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauaren 29. artikuluko 2. atalean aipatzen diren entitateengandik datozenean.

c) 100eko 100, Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauaren 29. artikuluko 5 eta 6. ataletan aipatzen diren entitateengandik eta abenduaren 17ko 9/1991 Foru Arauaren araupetzen diren babespeko eta babes berezipeko kooperatibengandik eta ekarpenak itzulizko kapital-urripenetatik datozenean."

#### 2) Nork bere kapitalak gainontzekoei lagatzeagatik lortzen diren etekinak.

Honetakotzat, mota guztietako kontraprestazioak hartuko dira, edozein dela euren izendura, direla diruzkoak direla gauzakkoak, beti ere nork bere kapitalak gainontzekoei lagatzeagatik lortzen direnean.

Kategoria honen barruan, honako kontzeptu hauek geldituko dira:

a) **Etekin implizituak.** Horrelakotzat, jaulkipen, lehen ezarpen edo endosuan ordaindutako zenbatekoaren eta, euren etekina besteren baliabideak lortzeko erabili ohi diren balore higigarrietarik edozeinen bidez osotero edo zati batez implizituki ezarria duten harako eragiketen amaieran berreskuratzeko hitz emandakoaren arteko diferentziaren bidez sortutakoak jotzen dira.

Etekin implizitu gisa, jaulkipen, amortizazio eta itzulketa primak sartzen dira.

Aktiboak mailegu-emaielaren edo inbertitzailearen karteran egiten duen denbora haren indarraldi osoa baino laburragoa denean, etekintzat eskuraketako edo harpidetzako zenbatekoaren eta besterenganaketakoaren, amortizaziokoaren edo itzulketakoaren arteko diferentzia positiboa konputatuko da.

Etekin implizitudun finantz aktibotzat hartuko da igorpenerako edozein tresna, bai eta merkatal eragiketetan sortarazitakoak ere, endosatu edo eskualdatzen den uneaz geroztik, salbu eta endosua edo lagapena errekaitatzaile edo hornitzaileen kreditua ordaintzeko egiten denean.

Letra honetan xedaturikoa gorabehera, zenbaki berberonetakoa c) letrak etekin mistodun aktiboei buruz ezartzen duenak indarrean dirau.

Etekin implizituen konputu, integrazio eta konpensazioa honako arauoi jarraituz egingo da:

1. Etekin bakoitzaren konputua banan-banan egingo da titulu edo aktibo bakoitzeko.

2. Etekin implizitu positiboak zergaren zerga-inarrarian integratuko dira.

3. Ez da etekin implizitu negatiboen integrazioerik egiterik egingo.

4. Eskuraketa eta besterenganaketaren gehigarriko gastuak etekinaren hainbaketarako konputatuko dira, behar bezala frogatzen badira."

b) **Etekin esplizituak.** Kategoria honen barruan, korrituak eta ituntzen diren bestelako ordainketak sartzen dira, nork bere kapitalak gainontzekoei lagatzeagatik egiten den kontraprestazio gisa, baldin eta etekin implizituen kontzeptuaren barruan aurreko letrak ezartzen duenaren arabera ez badago.

c) **Etekin mistoak.** Nork bere kapitalekin gainontzekoei egindako lagapena ordezkatzan duten baloreetatiko etekinak etekin esplizituen erregimeari jarraituko zaizkio, urtean ekoizten duten jite honetako efektiboa, jaulkipena egiten den ekitaldiari dagokion Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauean honetarako finkatzen den korritu tasa edo, beronen ezean, egun horretan indarrean dirauen diruaren legezko korritu tasa aplikatuz gertatuko litzatekeena bezain handia edo haindiagoa denean, nahiz eta jaulkipen, amortizazio edo itzulketa baldintzetan osotero edo zati batez, implizituki, beste etekin gehigarri bat finkatu.

Letra honetan xedatutakoari dagokionez, etekin aldakor edo flotakorra duten finantza aktiboen jaulkipenez, eragiketaren benetako korritu gisa barne etekinaren tasa hartuko da, jite esplizituko etekinak bakarrik hartuko dira kontutan eta tasa, behar izanez gero, sortzen diren etekinen behin-betiko zenbatekoa aldiari-aldiari finkatzeko dagoen parametroaren hasierako balioztapenaren arabera kalkulatu.

3) Higigarrien kapitalaren bestelako etekinak.

Epigrafe honen barruan, besteak beste, honakoak daude:

a) Jabetza intelektualetikoak, subjektu pasiboa egilea ez denean.

b) Subjektu pasiboak egiten dituen enpresa edo lanbide iharduerei loturik ez dagoen jabetza industrialetikoak.

c) Urgazpen teknikoak emaketikoak, salbu eta enpresa ihardueraren baten barruan ematen denean.

d) Sorburutzat kapitalen ezarpena duten **biziarreko errentak edota aldibaterako beste batzuk**, beti ere beraien eraketa Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren menpean ez dagoenean.

Zerga honen menpeko **biziarreko errentei dagokienean**, higigarrien kapitalaren etekintzat, urteko bakoitzari honako portzentaia hauek aplikatuz ateratzen den emaitza hartuko da:

- 100eko 70a, hartzailea 50 urtekoa baino gazteagoa denean.
- 100eko 50a, hartzailea 50 urtetik 59 urtera bitartekoa denean.
- 100eko 40a, hartzailea 60 urtetik 69 urtera bitartekoa denean.
- 100eko 30a, hartzailea 69 urtekoa baino nagusiagoa denean.

Portzentaia hauek errentadunaren adinari dagozkio, errenta eratzen den unean, eta errentaren indarraldian zehar iraungo dute.

Zerga honen menpeko **aldibaterako errentei dagokienean**, higigarrien kapitalaren etekintzat, haren zenbatekoaren 100eko 60a hartuko da.

f) Kapitalizazio eragiketetatikoak eta arriskuaren gutxienezko osakina erantsi ez baina arau bidez zehazten den iraupena duten aseguru kontratuetatik.

### **9. artikulua. Aseguru kontratuetatik eta kapitalizazio eragiketetatik etortzen diren higigarrien kapitalaren etekinak.**

*Higigarrien kapitalaren etekin osotzat, aurrerabizirako prestazio aseguratua, heriotzarako edo elbarritasunerako beste edozeinekin konbinatzen duten aseguru kontratuetatik datozenak hartuko dira, baldin eta ondorengo ezaugarrietarik baten bat badute:*

a) Urtebete baino gutxiagoko iraupena.

b) Urtebeteko iraupena edo luzeagokoa, zinetan heriotzarako lehenengo hiru urteetan zehar aurrirakosten den prestazio osoa epealdi berean aurrerabizirako aurrirakosten denaren ehuneko ehun eta berrogeitamarrekoa bait da.

c) Urtebeteko iraupena edo luzeagokoa, zinetan lehen urtearen barruan jazokizun honetarako aurrirakosten prestazioen ehuneko berrogeitamarra baino gehiagoko zenbatekoa duen aurrerabizirako aseguratutako prestazioen zatietarik bat ordaintzen bait da, elbarritasunaren ziozko kapitalak edo errentak direnean izan ezik.

d) Urtebeteko iraupena edo luzeagokoa, aldiaren aldiko kopuruak eskudiruz edota gauzak ematen direnean, lehenengo hiru urtearen barruan, korrituengatik, mozkinetako partaidetzarengatik edo aurrekoen beste balioekide batengatik, hartzen duten itxura kontutan hartu gabe.

Higigarrien kapitalaren etekin osotzat, kapitalizazio eragiketetatik etortzen direnak ere hartuko dira.

### 38. artikulua. Higigarrien kapitalaren etekintzat hartzen ez diren balizkoak

Ez da higigarrien kapitalaren etekintzat hartuko, dagozkion kontzeptuengatik zerga ordaindu behar badu ere, subjektu pasiboak enpresa edo lanbidezko ohizko ihardueran egiten dituen eragiketen prezioa geroratzegatik edo zatitzeagatik lortzen duen kontraprestazioa.

### 39. artikulua. Gastu kengarriak eta beste txikiak batzuz

Bat. Higigarrien kapitalaren etekin garbia zehazteko, administrazio eta zaintzaren ziozko gastuak bakarrik hartuko dira gastu kengarritzat.

Bi. Urgazpen tekniko eman eta ondasun higigarri, negozio zein meatzak errentatetik datozen etekinei dagokienez, etekin osoetatik beraiek lortzeko behar diren gastuak eta sarrerak sortarazten dituzten ondasunek jasaten duten narriaduraren zenbatekoa kenduko dira.

Hiru. Higikorren kapitalaren etekinak, aurreko atal bietan aipatu gastuak kendu ondoren, 29.000 pezetan urteko txikituko dira, baina urripen horren ondoriozko etekin garbiak ezin izango du negatiboa izan.

### 3gn. SAILA

#### Enpresa nahiz lanbide ihardueren etekinak

### 40. artikulua. Enpresa nahiz lanbide ihardueren etekin osoak

Bat. Enpresa nahiz lanbide ihardueren etekintzat, lan per?sonaletik eta kapitaletik batera, edo bietarik batetik bakarrik datozenak hartuko dira, subjektu pasiboak bere kontura ekoizpide eta giza baliabideak edo berauetatik bata bakarrik antolatzea bait dakarte, ondasun nahiz zerbitzuen ekoizpenean edota banaketan esku hartzeko.

Bereziki, honetaketat hartuko dira erauzkintza, fabrikagintza, merkataritza nahiz zerbitzugintzako etekinak hartuko dira, artisaugintza, nekazaritza, basogintza, abeltzantza, arrantza, eraikintza, meatzaritza eta lanbide liberal, artistiko eta kirolezkoak barne direlarik.

Bi. Aurreko atalean xedaturikoari dagokionez, higiezinen errentamendua edo salerosketa enpresa iharduera gisa egiten dela ulertzen da, baldin eta honako inguruabar hauek batera ematen badira:

a) Iharduera egitean, gutxienez, bere kudeaketa egiteko bakarrik dagoen lokal bat edukitzea.

b) Hura egiteko, gutxienez, lan kontratadun pertsona enplegatu bat edukitzea.

### 41. artikulua. Etekin garbia

Bat. Enpresa nahiz lanbide ihardueren etekin garbia, zenbatespen objektiborako aurrirakosten gorabehera, honelaxe zehaztuko da: sarrera guztietatik, burukontsumoa, dirulaguntzak eta gainerako transferentziak barruan direla, eta eurak lortzeko beharrezko gastuak eta sarrerak sortarazten dituzten ondasunek jasaten duten narriaduraren zenbatekoa kenduz.

Bi. Enpresa nahiz lanbide ihardueren etekin garbia zehazteko, beraiei loturiko edozein ondare elementutatik datozen gehikuntza eta urripenak sartuko dira, bai eta, behar izanez gero, subjektu pasiboaren enpresa nahiz lanbide ondare osoaren "inter vivos" eskualdetatik ateratzen dena ere.

Hiru. Subjektu pasiboak ondare elementuak lotu edo aktibo finakoak jaregin arren, ez da ondare aldakuntzarik suertatuko, beti ere ondasun edota eskubideek haren ondarearen zati izaten dirautenean.

Aurreko lerroaldean xedatutako gorabehera, enpresa nahiz lanbide elementuak jaregin eta subjektu pasiboaren beraren ondareerako jartzen badira, beraien eskuraketa balioa, ondarean etorkizunean gerta litezkeen aldakuntzei dagokienez, orduan zuen kontabilitate balio garbia izango da.

Jaregitea ez da gauzatutzat emango, iharduera egiteari uzten zaionean izan ezik, ondasun edota eskubideak jaregin eta hiru urte igaro baino lehen besterengatzen badira.

Aitzitik, norbere ondareko ondasun edota eskubideen enpresa nahiz lanbide iharduerari lotzekotan, subjektu pasiboaren kontabilitateari Ondarearen gaineko Zergari buruzko arauetan ezarritako erizpideetatik ateratzen den beraien balioan erantsiko zaizkio.

Lotura ez da gauzatzat emango, ondore gutziatarako, kontabilitatean sartu eta hiru urte igaro baino lehen ondasun edota eskubideak besterenganatzekotan, besterenganaketaren zenbatekoa ondorengo atalean aurrikusiko den bezala berrinbertitzen ez bada.

Lau. Enpresa nahiz lanbide ihardueren loturiko aktibo finkoko elementu materialak, beraiek egiteko beharrezkoak bait dira, eskualdatueran agertzen diren ondare gehikuntzak ez dira zergapetuko, baldin eta besterenganaketaren zenbateko osoa subjektu pasiboak berak egiten dituen enpresa zein lanbide ihardueren loturiko aktibo finkoko elementu materialetan berrinbertitzen bada, Sozietateen gaineko Zergari dagokionez ezarritako baldintza berberetan.

Egiten den berrinbertsioaren zenbatekoa besterenganaketaren osokoa baino txikiagoa denean, ez da kargapean egongo inbertitzen den kopuruari dagokion ondare gehikuntzaren proportziozko zatia.

Bost. Iharduerapeko ondasun edota zerbitzuek, subjektu pasiboak gainontzekoei dohainik laga edo utzi edo berak erabili edo kontsumitzeko jartzen bait ditu, merkatuan duten balio normalari begira egongo da.

Halaber, kontraprestazio egon eta berau ondasun eta eskubideek merkatuan duten balio normala baino askozaz txikiagoa denean, azken balio honi begira egongo da.

#### **42. artikulua. Etekin garbia zehazteko arauak**

Enpresa eta lanbide ihardueren etekin garbia zehaztueran, zenbatespen objektiborako aurrikusitakoa gorabehera, Sozietateen gaineko Zergari buruzko arauak aplikatuko dira eta, hauezaz gainera, honako xedapen berezi hauek hartuko dira kontutan:

1go. Honako hauek ez dira gastu kengarritzat hartuko:

a) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 11/1984 Foru Araueko 9. artikuluko m) eta ñ) letrek aipatzen dituzten kontzeptuak.

b) Euskal Kulturaren Ondare edota Espainiako Historiaren Ondarekoak diren ondasunen dohaintza huts eta soilak, Foru Arau honetako 78. artikuluan aurrikusitako kuotatikako kenkarirako eskubideak indarra badu ere.

c) Lan Montepio eta Mutualitateei nahitaez ordaintzen zaizkien kopuruak, besteak beste, heriotz arriskua babesten dutenean, Foru Arau honetan oinarri likidagarri erregularra zehazteko ezarritakoa gorabehera.

2gn. Honako hauek hartuko dira gastu kengarritzat:

a) Korporazio, Lanbide Elkargo eta legez eratuta dauden enpresarien edota ugazaben Ganbara eta Elkarteei ordaintzen zaizkien kuotak, bai eta Foru Arau honetako 28. artikuluan adierazi ez beste

funtzionarioen nahitaezko Mutualitateentzako kotizazioak eta Zurtz Erakunde edota antzeko Erakundeentzakoak ere.

b) 100eko 1a, beharrezko gastu frogagaitzen ziozko etekin osoen zenbatekoaren gainean, lanbide ihardueren dagokienean.

Bizkaiko Foru Aldundiak portzentaia hau lanbidezko zenbait ihardueraren ezaugarrien arabera moldatu ahal izango du, beraien gastu bereziak sartzeko nahikoa ez dela argi dagoenean.

#### **43. artikulua. Enpresa nahiz lanbide ihardueren etekinen bakoitzapena**

Bat. Enpresa nahiz lanbide ihardueren etekinen lortzaile?tzat, ihardueren loturiko ekoizpide eta giza baliabideak ohikoro bere kasa, zuzenean eta bere kontura antolatzen dituen hartuko da.

Aurkako froga dagoenean izan ezik, beharkizun horiek enpresa nahiz lanbide ihardueren titular gisa agertzen direnengan daudela uste izango da.

Bi. Beharrezko lan kontratua eta bakoitzari dagokion Gizarte Segurantzako erregimeneko afiliazioa egonaz, ezkontideak edo subjektu pasiboarekin bizi diren adin gutxiako seme-alabek, ohiz eta iraunkortasunez haren enpresa edo lanbide ihardueretan lan egiten dutela behar bezala benetakotzen denean, etekinak zehazteko, beraietarik bakoitzarekin hizpatutako ordaintetako kenduko dira, beti ere berauek beren lanbide kualifikazioari eta egindako lanari dagozkien merkatukoak baino handiagoak ez direnean, tributu ondore gutziatarako.

Hiru. Ezkontideak edo subjektu pasiboarekin bizi diren adin gutxiako seme-alabek harako enpresa edo lanbide ihardueraren xederako balio duten ondasun edota eskubideak lagatzen dituztenean, ihardueraren titularraren etekinak zehazteko, hizpatutako kontraprestazioa kenduko da, beti ere merkatuko balioa baino handiagoa ez denean, eta haren ezean, azken balio hau kendu ahal izango da. Kontraprestazioa edo merkatuko balioa ezkontidearen edo adin gutxiako seme-alaben etekintzat hartuko dira, tributu ondore gutziatarako.

Atal honetan xedaturikoa ez da aplikatuko, ezkontide bien ondasun eta eskubideak direnean.

Lau. Artikulu honetan xedaturikoaz landa, etekin garbia zenbatespen objektiboaren erregimenean zehazteko erregela bereziki indarrean diraute.

### **Zenbatespen objektiboa**

#### **I. KAPITULUA**

#### **Arau orokorrak**

#### **17. artikulua. Helburua.**

Zenbatespen objektiboaren erregimenaren xedea enpresa txiki eta ertainen eta profesionariaren etekin garbiak zehaztea da, aplikazio eremuaren barruan dauden iharduerei buruz, eta hura aplikagarri duten zergaldietan barrena.

#### **18. artikulua. Aplikazio eremua.**

Zenbatespen objektiboaren erregimena modalitate ezberdinetarik bakoitza araupetzen duten araudi honetako artikuluetan ezarritako beharkizunak betetzen dituzten enpresa eta lanbide iharduerei aplikatuko zaie, subjektu pasiboek hari uko egiten diotenean izan ezik, bertako 20. artikuluan aurrikusitakoaren arabera.

#### **19. artikulua. Modalitateak.**

Zenbatespen objektiboaren metodoak bi modalitate izango ditu:

- a) Zeinuak, indizeak edo moduluak.
- b) Koefizienteak.

#### **20. artikulua. Ukoa zenbatespen objektiboaren erregimenari.**

Bat. Zenbatespen objektiboaren metodoaren koefizienteen modalitateari uko egitekotan, uko horrek ondoreak izango dituen berezko urtea hasi aurretiko abenduan zehar egin beharko da.

Zenbatespen objektiboaren metodoaren zeinu, indize edo moduluen modalitateari uko egitekotan, zeinu, indize edo modulu horiek finkatuko dituzten foru aginduak argitaratu ondoko bi hilabeteko epearen barruan egin beharko da.

Bi. Koefizienteen modalitateari egindako ukoa isilbidez luzatutzat joko da zenbatespen objektiboaren metodoa ezar daitekeen urteetarako bakoitzerako, salbu eta aurreko ataleko lehen lerrokadan ezarritako epearen barruan hura ezeztatu egiten bada.

Zeinu, signo edo moduluen modalitateari egindako ukoak gutxienez hiru urterako ondoreak izango ditu. Egindako ukoa isilbidez luzatutzat joko da zenbatespen objektiboaren metodoa ezar daitekeen hurrengo urteetarako bakoitzerako, salbu eta aurreko lehen ataleko bigarren lerrokadan ezarritako epearen barruan hura ezeztatu egiten bada.

Hiru. Ogasun eta Finantzen foru diputatuak uko nahiz ezeztapena egiteko eredu bereziak onetsi ahal izango ditu.

Lau. Jardueraren bat hastean, zenbatespen objektiboaren araubideari uko egitekotan, uko hori jarduera burutzen hasi eta hurrengo hilabetearen barruan egingo da.

Bost. Koefizienteen modalitatean, zenbatespen objektiboarekiko ukoa eta, horrela denean, ukoaren ezeztapena enpresa edo lanbide jardueren multzorako bereizirik egin ahal izango da.

#### **21. artikulua. Zenbatespen objektiboaren metodoaren bazterketa.**

Zenbatespen objektiboaren metodoa baztertu egingo da, baldin eta ondorengo artikuluetan modalitate bakoitzaren arabera ezartzen diren mugak gainditzen badira.

Bazterketak ondoreak sorteraziko ditu inguruabar hori gertatzen den urtearen ondorengoan.

#### **22. artikulua. Ondare-gehikuntza eta urripenak.**

Bat. Zenbatespen objektiboaren metodoaren bidez kalkulaturako etekin garbiari dagokionez, enpresa nahiz lanbide jardueri lotutako osagaien ondoriozko ondare gehikuntza eta murrizketak, ondasun higiezin, unti eta aktibo finko ez-materialietatik etorritakoak izan ezik, hartan barruan sartuta daudelakoan joko da.

Aurreko lerroaldean esan dena gora-behera, zeinu, indize edo moduluen modalitatearen bidez kalkulaturako etekin garbiari dagokionez, zergak Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren tarifetako 1. ataleko 721.2. epigrafearen bidez ordaintzen dituzten subjektu pasiboek burututako jarduerari lotutako aktibo finko ez-materialen eskualdatzearen ondoriozko ondare gehikuntzak eta murrizketak haren bartuan sartuko dira, baldin eta eskualdaketa heriotzak, ezgaitasun iraunkorrak, jubilazioak edo sektorearen berregituraketa dela-eta jarduera uzteak bultzatua dagoenean.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa, bertan adierazitakoak ez diren bestelako zioek bultzatuta, aktibo ez-materialak bigarren mailarainoko senideei eskualdatu zaizkienean ere ezarri ahal izango da.

Aurreko bi lerroaldeetan adierazitakoak ez diren bestelako aldaketen ondorioz azaldutako ondare gehikuntzek eta murrizketek atal honetako lehen lerroaldean ezarritako araubideari jarraituko diote.

Bi. Zenbatespen objektiboaren metodoa ezarri behar zaien enpresa edo lanbide jardueren garapena lapurreta, sute, uholde, amiltze edo aparteko bestelako inguruabarren batek kalteturik gertatu denean, aurreko lehen lerroaldean salbuetsitako jarduera-osagaietako ondare murrizketarik eraginez, horrelakoetan



interesatuek murrizketetako zenbatekoaren etekin garbia murriztu ahal izango dute. Horretarako, subjeto pasiboek inguruabar horren berri eman behar izango diote zergen Administrazioako eskudun organoari, inguruabarra gertatuz geroko hogeita hamar eguneko epearen barruan, zelan-eta frogaren bat aurkeztuz. Zergen Administrazioak etekinaren murrizketa eragin duen zioa benetakoa ote den egiztatuko du.

Hiru. Zergari buruzko foru arauko 41. artikuluko laugarren atalean aipatu inbertsioaren ziozko salbuespena ondasun higiezinaren edo untzien besterenganaketetan ere ezarri ahal izango da.

### **23. artikulua. Iratxikipen erregimeneko entitateak.**

**Bat.** Zenbatespen objektiboaren metodoa aplikatuko da, Zergari buruzko Foru Arauko 10. artikulua aipatzen dituen enteek egiten dituzten enpresa edo lanbide iharduereen etekin garbia zehazteko, baldin eta haien bazkide, jaraunsle, erkide edo partaide guztiak pertsona fisikoak badira.

**Bi.** Metodoari egiten zaion ukoa, aurreko 20. artikuluan xedatutakoaren arabera egin behar izango bait da, bazkide, jaraunsle, erkide edota partaideek azalduko dute.

**Hiru.** Zenbatespen objektiboaren metodoa aplikatu egingo da, bazkide, jaraunsle, erkide edota partaideengan banan-banan dauden inguruabarrak kontutan hartu gabe.

**Lau.** Etekin garbia bazkide, jaraunsle, erkide edota partaideei iratxikiko zaie, kasuan kasu aplikagarri diren arau edota itunen arabera, eta Administrazioak sinesgarriro honelakoan berririk ez badauka, erdibana iratxikiko zaie.

### **24. artikulua. Bateragarritasuna.**

**Bat.** Zeinu, indize edo moduluko modalitatea aplikagarri duten enpresa iharduerak egiten dituzten subjeto pasiboek, hari uko egiten badiote, euren enpresa edo lanbide iharduera guztien etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren metodoaren bidez zehaztuko dute.

**Bi.** Koefizientekako modalitatea ez da bidezko izango, baldin eta iharduera hauek badaude:

- Subjektu pasibo berak egiten dituen enpresa iharduerak, berauetarik baten etekina zuzeneko zenbatespenean zehazten bada.

- Subjektu pasibo berak egiten dituen lanbide iharduerak, berauetarik baten etekina zuzeneko zenbatespenean zehazten bada.

### **25. artikulua. Koordinazioa Balio Erantsiaren gaineko Zergako erregimen erraztuarekin.**

**Bat.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako zenbatespen objektiboaren metodoko zeinu, indize edo moduluko modalitateari uko egitera, Balio Erantsiaren gaineko Zergako erregimen berezi erraztuari uko egitea da, subjeto pasiboak egiten dituen enpresa iharduera guztietarako.

**Bi.** Balio Erantsiaren gaineko Zergako erregimen berezi erraztuari uko egiten bazaio enpresa ihardueretarako, zeintzuei Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako zenbatespen objektiboaren metodoko zeinu, indize edo moduluko modalitatea aplikatzen zaien, metodo horri uko egitea da, subjeto pasiboaren enpresa edo lanbide iharduera guztietarako.

### **26. artikulua. Iharduera lokabeak.**

**Bat.** Zenbatespen objektiboaren metodoa aplikatzeari dagokionez, honako hauek hartuko dira iharduera lokabetzat:

a) Zeinu, indize edo moduluak onesten dituzten foru aginduetan bereziki agertzen direnak.

b) Koefizientekako modalitateari dagokionez, gastu portzentaia ezberdina aplikatu behar dutenak, zenbatespen objektiboaren modalitateetarik edozeini heldu ahal izatea erakartzen duten mugak iharduera guzti horien arabera kalkulatzen badira ere, enpresazkoak eta lanbidezkoak banan-banan hartuta.

**Bi.** Iharduera bakoitzaren barruan dauden ekonomi eragiketak, Ekonomi Ihardueren gaineko Zergari buruzko arauen arabera, zehaztuko dira, haiek aplikatu daitezkeen neurrian.

## **II. KAPITULUA**

### **Zeinu, indize edo moduluko zenbatespen objektiboa**

#### **27. artikulua. Objektuaren eremua.**

**Bat.** Zeinu, indize edo moduluko zenbatespen objektiboa aplikatuko den bakarra izango da, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak zehazten dituen enpresa ihardueretarako.

**Bi.** Modalitate hau, horretarako ematen den foru aginduan behatzen den iharduera bakoitzari, banan-banan hartuta, aplikatuko zaio.

#### **28. artikulua. Edukina.**

**Bat.** Subjektu pasiboek, modalitate hauek aplikagarri dituzten ihardueretarik bakoitzari dagokionez, euren dagokien etekin garbia zehaztuko dute.

**Bi.** Aurreko atalak aipatzen duen etekin garbia subjektu pasiboak berak zehaztuko du, bere iharduerari, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak finkatuta dituen zeinu, indize edo moduluak egotziz.

**¡Error!No se encuentra el origen de la referencia.**Jarduera bakoitzari ezar litezkiekeen zeinu, indize edo moduluak finkatuko dituen foru aginduak konputo egokia egiteko beharrezko jarraibideak jasoko ditu eta ezartzeko aldia hasi aurretiko abenduaren 31 baino lehen argitaratu beharko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Foru agindu hori urtebete baino aldi luzeago baterako izan daiteke, orduan aldi horren barruko urtetariko bakoitzari dagokion etekina kalkulatzeko metodoa banan-banan zehaztuko delarik.

**Hiru.** Modalitate honi heltzen dion iharduerako eragiketei hasiera urtarillaren batz ondoren ematen zaionetan, edo abenduaren hogeitamaikaz aurretik uzten zaionetan, zeinu, indize edo moduluak, behar izanez gero, iharduera hori subjektu pasiboak egutegiko urtean zehar egiten duen deboraldiaren arabera aplikatuko dira.

Atal honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko denboraldiko iharduerari, euren foru aginduan ezarritakoak eraenduko bait ditu.

**Lau.** 1. Modalitate hau aplikagarri duten enpresa ihardueren eginera sute, uholdeek edo aparteko beste inguruabarren batzuk ukitzen dutenean, baldin eta berauek alor edo alde jakin bat ukitzen badute, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak eskuespena eman ahal izango du, salbuespen gisa, zeinu, indize edo moduluak txikitzeko.

2. Modalitate hau aplikagarri duten enpresa ihardueren eginera sute, uholde, amiltzeek edo industri ekipoaren matxura handiek ukitzen dutenean, ihardueraren egineran aldakuntza astunak ekartzen bait dituzte, interesatuek tributu administrazioaren eskudun organoari emango diote horren berri, gertatzen diren egunetik zenbait beharrek hogeitamar eguneko epearen barruan, egokiesten dituzten frogak ekartzen dituztelarik. Aldakuntza horiek gertatuak direla benetakotu ondoren, baimena emango da zeinu, indize edo moduluak egokiro txikitzeko.

3. Modalitate hau aplikagarri duten enpresa ihardueren eginera sute, uholde, amiltzeek edo haren egineraren prozesu arruntaz besteko aparteko gastuak sortertzen dituzten salbuespenezko beste inguruabar

batzuk ukitzen dutenean, interesatuek ateratzen den etekin garbia gutxitu ahal izango dute, gastu horien zenbatekoan. Horretarako, subjektu pasiboek inguruabar horren berri eman behar izango diote tributu administrazioaren eskudun organoari, hura gertatzen den egunetik zenbait beharrek hogeitamar eguneko epearen barruan, horretarako behar diren frogagiriak ekartzen dituztelarik. Tributu administrazioak begiztatuko du etekinaren txikipena sortzen duen karia egiazkoa denentz. Zenbaki honetan aurrikusitako gutxipena bateraezina da, ondare elementu berberetarako, aurreko 22. artikuluko bigarren atalera bildutakoarekin.

### III. KAPITULUA

#### Koefizientekako zenbatespen objektiboa

#### 29. artikulua. Objektuaren eremua.

**Bat.** Koefizientekako zenbatespen objektiboaren modalitatea subjektu pasiboari aplikatuko zaie, baldin eta plantilaren eta salmenta edota sarreraren urteko kopuruaren beharrezko hauek betetzen dituzten enpresa edo lanbide iharduerak egiten badituzte:

A) Zeinu, indize edo moduluak onesten dituzten foru aginduak aplikagarri ez dituzten enpresa iharduerak, non plantilako langileen kopurua ekitaldiko edozein egunetan hamabikoa baino handiagoa ez bait da, eta eragiketen urteko kopurua berrogeitamar milioi pezetakoa baino handiagoa ez bait da.

B) Lanbide iharduerak, zeinen sarreraren kopurua bost milioi pezetakoa baino handiagoa ez bait da, eta alokairupeko pertsonalik ez bait du.

**Bi.** Aurreko atalean aurrikusitakoari dagokionez, aurre-aurreko ekitaldiko sarrera guztiak edota eragiketen kopuru osoa eta langileen kopurua hartuko dira kontutan. Ekitaldia ihardueraren hasierakoa bada, egon diren eragiketen kopuruaren zenbatekoa, iharduera urte osoan zehar izan bailitzan egokituko da.

Ihardueraren egineraren lehenengo urtean, haren hasieran zeuden langileen kopurua bakarrik hartuko da kontutan.

Ez dira plantilako langiletzat hartuko, euren hartukizunak gizalanka edo eguneko lansarika jasotzen dituztenak, subjektu pasiboarekin lan harreman iraunkorrik izan gabe, ez eta untzien jabeen untzialdeetakoak, itsasbaterreko eta itsasertzeko arrantzan egon eta zatiaren araberrako ordainketak badituzte, eta ihardueraren titularra ere.

**Hiru.** Subjektu pasiboak zenbait iharduera egiten duenean, mugak honelaxe zenbatuko dira:

a) Enpresa ihardueratarik zenbaiten eginerak zeinu, indize edo moduluen modalitateari heldua dionean, haiek ez dira kontutan hartuko, plantila eta salmenten urteko kopurua zenbatzeko.

b) Enpresa iharduera batzu egiten badira, eragiketen kopuruaren eta langileen kopuruaren mugak adierazitako iharduera guztiei dagozkienak izango dira.

c) Lanbide iharduera batzu egiten badira, sarreren muga iharduera guzti horiei dagokiena izango da.

d) Subjektu pasiboak enpresa eta lanbidezko iharduerak egiten baditu, sarrera mugak, banan-banan, enpresa edo lanbide iharduera guztiei aplikatuko zaizkie.

### 30. artikulua. Edukina.

**Bat.** Etekin garbia honelaxe lortuko da: salmenta, eragiketa edota sarreren kopuruaren zenbateko osotik, ekitaldiko ondorengo gastuak bakarrik kenduz:

a) Pertsonalaren kostua, ihardueren titularraren gizarte segurantzaren barne delarik.

Lan kontratu egokia eta Gizarte Segurantzako erregimen egokiko afiliazioa daudelarik, subjektu pasiboaren ezkontideak edota harekin bizi diren adin gutxiko seme-alabek hark egiten dituen enpresa edo lanbide ihardueretan lana ohikero eta iraunkortasunez egiten dutela behar bezala benetakotuta, a) letra honetan aurrikusitako kontzeptuarengatik, haietarik bakoitzarekin hizpatzen diren ordainketak kendu ahal izango dira, baldin eta haien lanbide kualifikazioari eta egiten duten lanari dagozkien merkatukoak baino handiagoak ez badira.

b) Merkataritzako gaien eta berriro saltzeko eskuratutako gainerako ondasunen erosketak, haien itxura eta funtsa aldatu gabe bezala moldaketa edo transformakuntzarako prozesuen menpean jarri ondoren. Egotekotan, erosketak eta salmentaren gastu gehigarriak ere zenbatuko dira, hala nola, garraio eta pleitak, aseguruak eta agente bitartekariaren ordainketak.

Erosketak, beharrezko denean, deskontuen zenbatekoan gutxituko dira.

Ez da gastu gisa zenbatuko zergaldiko azken egunean subjektu pasiboaren aktiboan egon behar duten edo egon behar izango luketen ondasunen erosketako zenbatekoa.

c) Indar eta uraren kontsumoa, bai instalazioetan erabiltzeko, bai iharduerari loturiko garraibideena.

d) Iharduera egiten deneko lokalei dagozkien alojerak, bai eta nekazaritza, baso, abel edo meatze-ustiatzietako errentamendu kanona ere.

Ondasunaren kostua berreskuratzeari dagokion finantza errentamenduko kuotaren zatia ez da inoiz kengarritzat hartuko.

e) Besteren kapitalen korrituak eta iharduerari aplikatzen zaizkion finantzazko gainerako gastuak, bai eta ustiapeneko ondasun edota ekoizkinen kuota edo primak ere.

f) Iharduera egiteagatik, edo hari loturiko ondare elementuen titulartasunarengatik, ordaintzen diren tributu ez-estatalak.

g) Artapen-konponketak, bai eta ihardueraren eginera arruntarekin harreman zuzenak dituzten beste lanak ere, beste enpresa batzuk egiten bait dituzte.

Aurreko gastuak kendu ondoren ateratzen den kopuru positibotik, hari ondorengo portzentaiak aplikatuz ateratzen den emaitza kenduko da:

- Ehuneko hogeia, fabrikazio, meatzaritza, arrantza eta eraikintzan.

- Ehuneko hamabosta, merkataritza, zerbitzugintza, nekazaritza, abeltzantza eta basogintzan.

- Ehuneko hamarra, lanbide ihardueretan.

**Bi.** Modalitate hau aplikagarri duten enpresa edo lanbide ihardueren eginera sute, uholde, amiltzeak edo haren egineraren prozesu arruntaz besteko aparteko gastuak sortzerazten dituzten salbuespenezko beste inguruabar batzuk ukitzen dutenean, interesatuek ateratzen den etekin garbia gutxitu ahal izango dute, gastu horien zenbatekoan. Horretarako, subjektu pasiboek inguruabar horren berri eman behar izango diote tributu administrazioaren eskudun organoari, hura gertatzen den egunetik zenbatu beharreko hogeitamar eguneko epearen barruan, horretarako behar diren frogagiriak ekartzen dituztelarik. Tributu administrazioak begiztatuko du etekinaren txikipena sortzen duen karia egiazkoa denentz. Atal honetan aurrikusitako gutxipena bateraezina da, ondare elementu berberetarako, aurreko 22. artikuluko bigarren atalera bildutakoarekin.

#### 4gn. SAILA

#### Ondare-gehikuntza eta urripenak

#### 44. artikulua. Kontzeptua

Bat. Ondare-gehikuntza zein urripenak subjektu pasiboaren ondarearen balioan, haren osaketan gertatzen den edozein aldakuntza dela bide,

agertzen diren aldaketak dira, ondorengo ataletan xedatuko dena izan ezik.

Kostubidezko eskualdeketen ondorioz agertzen diren ondare gehikuntza garbiak ez dira zergapean egongo, beraien kostu osoa egutegiko urtean zehar 500.000 pezetakoa baino handiagoa ez denean.

Aurreko lerroaldean aipatzen den zenbateko osoa, guztiz edo zati batez, Talde-Inbertsiozko Erakundeen kapital soziala edo ondarea ordezkatzuko akzio edo partaidetzen eskualdaketa edo itzulketetatik datorrenean, hauen ondorioz agertaraz daitezten ondare-gehikuntza garbiak ez dira zergapean egongo

Bi. Subjektu pasiboaren ondarearen balioan Zerga honen menpeko beste kontzeptu batzutatik datozen aldaketak ez dira ondare-gehikuntza nahiz urripentzat hartuko.

Hiru. Frogatzen ez direnez gainera, honako hauek ere ez dira ondare urripentzat hartuko:

- a) Kontsumoarenak.
- b) Emari edota eskuzabaltasunenak.
- c) Jokoan galdutakoak.

Lau. Honako hauetan **ez da ondare-gehikuntzarik edo urripenik egongo**:

- a) Gauza amankomuna zatitzen denetan.
- b) Irabazpidezko sozietatea desegiten denean edo ezkontzaren partaidetzazko erregimen ekonomikoa iraungitzen denean.
- c) Ondasun erkidegoak desegiten direnean edo erkidegokideak banatzen direnean.
- d) Kapitala txikitzen denetan. Nolanahi ere den, kapitalaren txikiaren helburua ekarpenen itzulketa denean, beronen zenbatekoak loturiko balioen eskuraketa balioa gutxituko du, harik eta deuseztatu arte. Atera daitekeen gairik higitzeko kapitalaren etekin gisa ordainduko du zerga.

Atal honek aipatzen dituen balizkoek ez dituzte inoiz jasotako ondasun edota eskubideen balioak eguneratuko.

Bost. Ondare-gehikuntza eta urripenak **ez dira Zergapean egongo**, baldin eta honelakoengatik agertzen badira:

- a) Subjektu pasiboaren heriotzaren ziozko dohainezko eskualdaketatik.
- b) Foru Arau honetako 78. artikuluko seigarren ataleko a), b) eta d) letretan aipatutako entitateei egiten zaizkien dohaintzengatik.
- c) 65 urtekoak baino nagusiagoak diren pertsonak, biziarteko errentaren truk, ohizko etxebizitza eskualdeatzagatik.
- d) Foru Arau honetako 97. artikuluko 3. atalean aurrikusitako ordainketarengatik.

Sei. Artikulu honetan xedaturikoa gorabehera, Tasa eta Prezio Publikoari buruzko apirilaren 13ko 8/1989 Legeko Xedapen Gehigarrietan Laugarrena, bidezko denean, aplikatu daiteke.

#### 45. artikulua. Gehikuntza nahiz urripenen zenbatekoa. Arau orokorra.

1. Ondoko hau izango da ondare-gehikuntza nahiz urripenen zenbatekoa:

a) Kostubidezko nahiz dohainezko eskualdaketak daudenetan, ondare elementuen eskuraketako eta eskualdaketak balioen arteko diferentzia.

b) Gainerako balizkoetan, ondare elementuen eskuraketa balioa edo proportziozko zatiak, kasuan kasuko.

2. Akzio guztiz askatuak direnetan, beren antzinatasuna jatorri duten akzioei dagokiena izango da.

#### 46. artikulua. Eskuraketako eta eskualdaketak balioak

1. Eskuraketa balioa ondoko hauek batuz lortuko da:

a) Eskuraketa egiteko benetako balioa edo, bestela, ondorengo artikulua aipatuko duen balioa.

b) Eskuratzen diren ondasunetan egiten diren inbertsio eta hobekuntzen kostua eta eskualdaketa datzekion gastu eta tributuak, eskuratzailerak ordaindu baititu, salbu eta korrituak.

Balio hau, beharrezko denean, arau bidez egiten diren amortizazioen zenbatekoan gutxituko da, edonola ere, gutxienezko amortizazioa konputatuko da.

2. Aurreko atalean aipatzen den eskuraketa balioa Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorreari buruzko Foru Arauan ezar daitezten koefizienteak aplikatuz eguneratuko dira<sup>2</sup>.

Era honetan aplikatuko dira koefizienteak:

a) Aurreko ataleko a) leturan aipatzen den zenbateko edo balioaren gainean, eskuraketa-urtea kontuan hartuta.

<sup>2</sup> 1997rako eguneratze koefizienteak: (1997rako aurrekontuei buruzko abenduaren 26ko 7/96 FAren 10. Xed. Gehig.)

Eskuraketa urteak

Koefizienteak

1994 eta aurrekoak	1,000
1995	1,083
1996	1,035

Eskualdatutako elementua subjektu pasiboaren ondarean gutxienez urte bete egon ez bada, koefizientea 1,000koa izango da.

b) Aurreko ataleko b) letran aipatzen diren inbertsio edo hobekuntzen gainean, egin diren urtea kontuan hartuta.

c) Aurreko ataleko b) letran aipatzen diren gastu eta tributuen gainean, gertatu ziren urtea kontuan hartuta.

d) Amortizazioen gainean, dagozkion urtea kontuan hartuta.

3. Eskualdaketa balioa besterenganaketa egiteko benetako balioa izango da edo, bestela, Foru Arau honetako ondorengo artikulua aipatuko duen balioa. Balio honetatik, artikuluko 1. ataleko b) letrak aipatzen dituen gastu eta tributua kenduko dira, eskualdatzaileak ordaintzen dituztenean, salbu eta Foru Arau honetako 78. artikuluko zazpigarren ataleko b) letrak aipatzen duen zenbatekoa.

4. Besterenganaketa balioaren benetako zenbatekotzat, benetan ordaintzen dena hartuko da, beti ere merkatuko normalaz ezberdina ez denean, bestela bera izango baita nagusi.

#### **47. artikulua. Dohainezko eskuraketa nahiz eskualdaketa**

Eskuraketa edo eskualdaketa dohainik egiten denean, bakoitzaren balioak Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko arauak aplikatzeagatik dagozkionak izango dira.

#### **48. artikulua. Arau bereziak**

Bat. Aldakuntza ondarearen balioan:

a) Baloreen Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legean aurrikusitako baloreen bigarren mailako merkatu ofizialetarik baten batean negoziatzera onartu eta sozietate edo entitateen euren fondoetako partaidetza ordezkatzeko duten baloreen kostubidezko eskualdaketatik datorrenean, gehikuntza edo urripena beraien eskuraketa balioaren eta eskualdaketa balioaren arteko diferentzian konputatuko da, eskualdaketa balioak, hark merkatu ofizialean bera gertatzen denean duen kotizazioaz zehaztuta, ala ituntzen den prezioan, kotizazioa baino handiagoa denean.

Aurreko lerroaldean xedatzen denaren ondorioetarako, baloreen bigarren mailako merkatu ofizial iritzi behar zaie Balore-Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legean oharrekin direnei nahiz apiriararen 4ko 710/1986 Erret Dekretuan xedatutakoaren arabera bigarren balore-merkatuei.

Eskuraketa balioa zehazteko, besterenganatzen diren harpidetza eskubideen zenbatekoa kenduko da.

Aurreko lerroaldean xedaturikoa gorabehera, harpidetza eskubideak eskualdatueran lortzen den zenbatekoa eskubide horiek sortarazten dituzten baloreen eskuraketa balioa baino handiagoa bada, diferentzia ondare gehikuntzat hartuko da eskualdatzaileari begira, eskualdaketa gertatzen den zergaldian.

Zati batez askatzen diren akzioak direnean, euren eskuraketa balioa subjektu pasiboak benetan ordaintzen duen zenbatekoa izango da. Erabat askatzen diren akzioak direnean, hauen eta dagozkien eskuraketa balioa guztirako kostua dagozkien tituluen kopuruaz, zaharren nahiz askatuenaz, banatzen ateratzen dena izango da.

b) Aurreko letrak aipatu dituen merkatuetan negoziatzera onartu ez baina sozietate edo entitateen euren fondoetako partaidetza ordezkatzeko duten baloreen kostubidezko eskualdaketatik datorrenean, gehikuntza edo urripena beraien eskuraketa balioaren eta eskualdaketa balioaren arteko diferentzian konputatuko da.

Benetan ordaindutakoa eta alderdi burujabeek merkatuko baldintza normaletan hitzartuko zutena bat datozela frogatu ezean, eskualdaketa balioetat, ondoko biotarik handiena hartuko da:

- Onetsitako azken balantzetik ateratzen den emaitza teorikoa.

- Zergaren sortzapen datoren aurretik itxikako sozietatearen hiru ekitaldietako mozkinen batezbestekoaren 100eko 12,5eko tasan kapitalizatzen ateratzen dena. Azken ondorio honetarako, mozkinetat banatutako dibidenduak eta erreserbetarako esleipenak hartuko dira, balantzeen erregularizazioarenak edo egunerapenarenak salbuetsiz.

Balore hauetatik datozen harpidetza eskubideak eskualdatzeagatik lortzen den zenbatekoa ondare gehikuntzat hartuko da eskualdatzaileari begira, eskualdaketa hori gertatzen den zergaldian.

Zati batez askatzen diren akzioak direnean, euren eskuraketa balioa subjektu pasiboak benetan ordaintzen duen zenbatekoa izango da. Erabat askatzen diren akzioak direnean, hauen eta dagozkien eskuraketa balioa guztirako kostua dagozkien tituluen kopuruaz, zaharren nahiz askatuenaz, banatzen ateratzen dena izango da.

c) Sozietate gardenen akzioak eta kapitaleko beste partaidetzak eskualdatzetik datorrenean, gehikuntza edo urripena eskuraketa eta titulartasuneko balioaren eta beraien eskualdaketa balio edo, bestela, aurreko artikuluan adierazitakoaren arteko diferentzian konputatuko da.

Honi dagokionez, eskuraketa eta titulartasuneko balioaren osagaiak honako hauek dira:

Lehenengoa: eskuratzeko ordaintzen den prezio edo kopurua edo, bestela, aurreko artikuluan adierazitako balioa.

Bigarrena: benetan banatzeke, bazkideei, euren akzioek edo partaidetek eskuraketa eta besterenganaketaren arteko denboraldian dituzten etekin gisa, egozten zaizkien sozietatearen mozkinen zenbatekoa.

Ondasunen ukantza soileko sozietateak direnean, konputatu beharreko eskualdaketa balioa, gutxienez, onetsitako azken balantzetik ateratzen den

teorikoa izango da, higiezin kontabilitateko balio garbiaren orde, Ondarearen gaineko Zergari dagokionez, izango luketen balioa jarri ondoren.

Letra honetan xedaturikoa gorabehera, beharra dagoenean, aurreko letra bietan harpidetza eskubideei buruz aurrikusitakoa aplikatuko da.

d) Sozietateei egiten zaizkien ez-diruzko ekarpenetatik datorrenean, gehikuntza edo urripena ekartzen diren ondasun edota eskubideen eskuraketa balioaren eta ondoko kopuruetarik handienaren arteko diferentziak zehaztuko du:

Lehenengoa: ekarpenaren truk jasotzen diren sozietateen akzio edo partaidetzen balio izendatua edo, bestela, berari dagokion zatia. Balio honi jaulkipen primen zenbatekoa erantsiko zaio.

Bigarrena: Merkatal Erregistroan inskribatzeko, sozietatearen kapitala eratu edo igoteko eskritura egokiei eranskin gisa batutako txostenetatik ateratzen den balioa.

Hirugarrena: ekarpena egiten den egunean edo bezperan, hartzen diren tituluek duten kotizazio balioa.

Laugarrena: ekartzen den ondasunaren balioztapena, Ondarearen gaineko Zergari buruzko arauetan ezarritako erizpideen arabera.

e) Bazkideak banatu edo sozietateak desegitetik datorrenean, ondare- gehikuntza edo urripentzat, sozietateari dagozkion kalterik gabe, sozietatearen likidazioaren kuotaren balio edo banaketaren ondorioz hartzen diren ondasunen balioaren eta titulu edo kapital-partaidetzaren eskuraketa balioaren arteko diferentzia hartuko da.

Sozietateak zatitu, bat egin edo irensten direnetan, subjektu pasiboaren ondare- gehikuntza edo urripena bazkidearen partaidetza ordezkatzan duten titulu, eskubide edota baloreen eskuraketa balioaren eta tituluen, eskudiruaren edo hartzen diren eskubideen balioaren arteko diferentzian zenbatuko da.

f) Etekin esplizituztat hartuak izan eta nork bere kapitalekin gainontzekoei egiten dien lagapena ordezkatzan duten baloreak eskualdatu, amortizatu, trukatu edo bihurtzetik datorrenean, ondare-gehikuntza edo urripentzat, beraien eskualdaketa, amortizazio, truke edo bihurketako balioaren eta beraien eskuraketa balioaren arteko diferentzia hartuko da.

Truke edo bihurketa baliotzat, hartzen diren baloreei dagokiena hartuko da.

g) Intsuldaketa batetik datorrenean, ondare gehikuntza lagatzaileari konputatuko zaio, intsuldaketan dagokion zenbatekoan.

Intsuldaketa eskubidea prezio bidez eskuratua denean, prezio hori eskuraketa baliotzat hartuko da.

h) Ondare elementuetan gertatzen diren galera nahiz ezbeharren ziozko kalteordain eta kapital

aseguratuetatik datorrenean, ondare-gehikuntza edo urripentzat, hartzen den kopuruaren eta gaitzari dagokion eskuraketa balioaren proportziozko zatiaren arteko diferentzia hartuko da.

Ezbeharra jasaten duen elementua subjektu pasiboaren ohizko etxebizitza izatera, Foru Arau honetako 50. artikuluan xedaturikoari begira egongo da.

i) Bizitza edota elbarritasuneko, batera nahiz banaka, aseguru kontratuetatik datorrenean, kapitala geroratua dutela, ondare-gehikuntza edo urripena hartzen den kopuruaren eta ordaintzen diren primen zenbatekoaren arteko diferentziak zehaztuko du, Foru Arau honetako 9. artikuluko lehen ataleko e) letran eta 37.eko lehen ataleko 3. zenbakiko f) letran aurrikusitakoak indarra badu ere.

j) Ondasunak edota eskubideak trukatzetik datorrenean, aurreko f) letran jasotakoa izan ezik, ondare- gehikuntza edo urripena lagatzen den ondasun edo eskubidearen eskuraketa balioaren eta horren truk hartzen den ondasun edo eskubidearen merkatuko balioaren arteko diferentziak zehaztuko du.

k) Biziarako errentak edo aldibaterakoak iraungitzetik datorrenean, ondare- gehikuntza edo urripena, beraiek ordaindu behar dituenarentzat, hartzen den kapitalaren eskuraketa balioaren eta benetan ordaintzen diren errenten baturaren arteko diferentziak zehaztuko du.

Bi. Aurreko ataleko a), b) eta c) letretan xedaturikoari dagokionez, balore homogenoak egotekotan, subjektu pasiboak eskualdatzen dituenak aurrenekoz eskuratuta dituenak direla ulertuko da.

Hiru. Artikulu honetako lehenengo ataleko d) eta e) letretan xedaturikoa gorabehera, enpresen bategite eta zatiketen erregimen fiskalari buruzko legeria berezian ezarritakoak indarra dauka.

## 11. artikulua. Aseguru kontratuak.

*Ondarearen balioaren aldakuntza Zergari buruzko Foru Araueko 48. artikuluko lehen ataleko i) letrak aipatzen dituen aseguru kontratuetatik datorrenean, iraunalditzat, foru arau horretako 45. artikuluko bigarren ataleko a) letran aurrikusitakoari dagokionez, prima bakoitza ordaintzen den egunetik prestazio egunera bitarteko urteen kopurua hartuko da, gehiagoz biribilduz.*

*Zergari buruzko Foru Araueko 45. artikuluko hirugarren atalean aurrikusitakoari dagokionez, entitate aseguratzaileak egiten diren ordainketetarik bakoitzari dagokion zatia desglosatuko du, prestazio uanean ordaintzen dituen kopuruen artetik.*

*Hala ere, urteko zenbaketaren bitarteko prima iraunkorreko edo hazkorreko primadun aseguru kontratuak direnean, kontratuaren iraunaldi osoan zehar, orduan ehuneko bosta progresio geometrikoan*

*gainditu gabe, iraunaldi gisa, foru arau horretako 45. artikuluko bigarren ataleko a) letran aurrikusitakoari dagokionez, lehenengo prima ordaintzen den egunaren eta prestazioaren sortzapen egunaren bitarteko urteen kopurua bat eta lauez zatitzetik ateratzen den zatidura hartu ahal izango da, gehiagoz biribilduz.*

#### **49. artikulua. Gehikuntza frogatugabeak**

Ondasun edota eskubideak ondare gehikuntza frogatugabe?tzat hartuko dira, baldin eta eurak ukan, aitortu edo eskuratzea subjektu pasiboak aitortzen duen errenta edo ondarearekin bat ez badator.

Ondare gehikuntza frogatugabeak, aurkitzen diren zergaldiko errentatzat hartuko dira eta oinarri likidagarri erregularra osatuko.

Aurreko lerroaldean xedaturikoa gorabehera, ondasun edota eskubide horiek subjektu pasiboaren beste etekin batzutatik edo beraren ondareko beste aktibo batzuren berrinbertsioetik datozela frogatu ahal denean, zerga egitate hauen jiteari dagokion tributuo egoera erregularizatu egingo da, preskripzioaren kalterik gabe.

#### **50. artikulua. Berrinbertsioaren ziozko salbuespena**

Subjektu pasiboaren ohizko etxebizitza eskualdatzeagatik lortzen diren ondare gehikuntzak kargatik kanpo egongo dira, baldin eta haren zenbateko osoa ohizko beste etxebizitza bat eskuratzeko berrinbertitzen denean, arau bidez ezarriko diren baldintzetan.

Berrinbertitzen den zenbatekoa eskualdaketa hartzen dena baino gutxiago denean, zergapetik kanpo berrinbertitzen den kopuruari dagokion ondare lortuaren gehikuntzaren proportziozko zatia bakarrik egongo da.

#### **10. artikulua. Ohizko etxebizitzako berrinbertsioaren ziozko salbuespena**

**Bat.** *Subjektu pasiboaren ohizko etxebizitza eskualdatzeagatik agertzen diren ondare gehikuntzak salbuetsita egongo dira, baldin eta haren zenbateko osoa ohizko beste etxebizitza bat eskuratzeko berrinbertitzen bada, artikulua honetan ezarriko diren baldintzetan.*

Honi dagokionez, etxebizitzaren eskuraketaren baliokide gisa jartzen da haren birgaikuntza, ondare urbanizatu eta eraikindunaren birgaikuntzako iharduketa babestuei buruzko Eusko Jauriaritzaren uztailaren 17ko 189/1990 Dekretuak edo, bestela, egoitza- eta hiri-ondarearen birgaikuntzaren babesari buruzko uztailaren 28ko 2329/1983 Erret Dekretuak aipatzen dituen baldintzetan.

*Halaber, eta atal honetan aurrikusitakoari dagokionez, etxebizitzaren eskuraketaren baliokidetzat jartzen da etxebizitzak eraikitzeo paratzen diren obren eginera, baldin eta egitura, fatxada edo gainalde eta beste antzeko batzuren sendoketa edo tratamenduaren bitartez egiten bada, baina aurre-aurreko urte bietan egin denean, birgaikuntza eragiketen kostu osoa eskuraketa prezioaren edo, bestela, birgaikuntzaren aurretik eraikuntzak edo bere zatiak zuen benetako balioaren ehuneko hogeitabosta baino handiagoa izan behar da.*

*Etxebizitza ohizkotzat hartzeko, araudi honetako 34. artikuluan xedatutakoari begira egongo da.*

**Bi.** *Besterenganaketa lortzen den zenbatekoaren berrinbertsioa behin bakarrik egin behar izango da, edo aldian-aldian, urte bikoia baino luzeagoa ez den epealdian.*

*Berrinbertsioa ez da epetik kanpo egindakotzat hartuko, salmenta epeka edo prezio geroratuarekin egin denean, baldin eta epeetako zenbatekoa helburu horretarako jartzen bada, eurak hartzen joaten den zergaldiaren barruan.*

*Aurreko lerroaldeetan xedatutakoaren arabera, berrinbertsioa besterenganaketa urtean bertan egiten ez denean, subjektu pasiboak, ondare gehikuntza lortzen duen ekitaldiko Zergaren aitortzean, agertarazi behar izango du adierazitako baldintza eta epeetan berrinbertsioa egiteko asmoa duela.*

*Besterenganaketa lortzen diren kopuruek ere emango dute salbuespenerako eskubidea, baldin eta erabiltzen badira eskuratzen den ohizko beste etxebizitzaren prezioa ordaintzeko, hartaz aurreko bi urteetako epearen barruan.*

**Hiru.** *Berrinbertsioaren zenbatekoa besterenganaketa lortzen den osoa baino txikiagoa denean, zergapetik kanpo, artikulua honetako baldintzetan benetan inbertitzen den kopuruari dagokion ondare gehikuntzaren proportziozko zatia bakarrik egongo da.*

**Lau.** *Artikulua honetako ezarritako baldintzetarik edozein betetzen ez bada, norberari dagokion ondare gehikuntzaren zatia zergapean jarriko da.*

*Orduan, subjektu pasiboak salbuetsi gabe duen ondare gehikuntzaren zatia lorpen urtean egotziko du, aitortze-likidazio osagarria eginaz, berandutza korrituak sartzen dituelarik, zein baldintzak betetzen ez diren egunaren eta Zergaren ziozko aitortzean aurkezteko ondorengo epearen amaieraren arteko epean aurkeztuko bait da.*

**Bost.** Ondare gehikuntzaren salbuespena ezin batera daiteke, ondasun berberetarako eta berrinbertsioa gauzatzeko deneko zenbatekoetan, etxebizitzaren eskuraketaren ziozko kuotatikako kenkariarekin.

*Etxebizitza berria eskuratzeko inbertitzen den zenbatekoa aurreko besterenganaketaren ondorioz berrinbertitzen dena baino handiagoa denean, hala badagokio, kenkari horri heldu ahal izango zaio.*

**51. artikulua. Ondare-gehikuntza eta urripenen bakoiztapena**

Ondare-gehikuntza eta urripenak, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Araueko 7. artikuluan aurrikusitakoaren arabera, eurak sortertzatzen dituzten ondasun, eskubide eta ondareko gainerako elementuen titularrak diren subjektu pasiboek lortutakotzat hartuko dira. Ondare gehikuntza frogatugabeak agertzen diren ondasun edota eskubideen titulartasunaren arabera egotziko dira.

Aurretiazko eskualdaketatik ez datozen ondasun eta eskubideen eskuraketak, hala nola, jokoko irabaziak eta antzeko balizkoak, lortzeko eskubidea izan edo zuzenean irabazten dituen pertsonaren ondareko gehikuntzat hartuko dira.

**5gn. SAILA**

**Errenten egozketa**

**52. artikulua. Gardentasun araubidea**

Bizkaian egoiliar diren bazkideek beren zerga oinarrian sartuko dute Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauaren 66. artikulua aipatzen dituen sozietate gardenek egotzitako zerga oinarria.

Aipatu Foru Arauaren 66. artikuluko 3. atalean xedatzen dena gorabehera, egotzitako zerga oinarritik, espainiar lurraldeko nolanhiko Entitate egoiliarren beraren fondoetako partaidetzagatik lortutako etekinei dagokien zatiak aplikagarri izango du Foru Arau honetako 37. artikuluko lehen ataleko hirugarren letraldean xedatzen dena.

**53. artikulua. Beste kontzeptu batzuren egozketa**

Sozietate gardenetako bazkideetarik Bizkaian egoiliar direnek honako hauek egozteko eskubidea izango dute:

a) Sozietatearen eskubidepeko kuotatikako kenkari eta hobariak. Kenkari eta hobarien oinarriak bazkideen likidazioan sartuko dira, kuota gutxituz, horrela badagokie, Zerga honi buruzko arau berezien arabera.

Kenkariak eta hobariak zerga oinarri positiboarekin batera egotziko dira.

b) Sozietate gardenari dagozkion zatikako ordainketak, atxikipenak eta konturako ordainketak.

c) Sozietate gardenak Sozietateen gaineko Zergaren zioz ordaindutako kuota.

*1997ko apirilaren 25etik aurrera indargabeturik geratzen dira ekainaren 10eko 80/1997 FDaren indarrez.*

**12. artikulua. Balioen zenbaketa, errenten egozketari dagokionez.**

*Zergari buruzko Foru Araueko 52. artikuluko lehen ataleko A) letrako azken letraldean aurrikusitakoari dagokionez, sozietateen kapitalaren gaineko eskubideak ordezkatzeko dituzten balioen inguruan, sozietateekin lotura iraunkorra ezartzen badute, sozietatearen enpresa edo lanbide iharduerak egiteko, enpresa edo lanbide ihardueren egiletzat, sozietate batzu hartuko dira, zeintzuk beste batzuetan hautespide eskubideen ehuneko berrogeitamara, gutxienez, zuzenean izan, eta haien enpresa iharduera guztia zuzendu eta kudeatzen duten, eskuarte pertsonal eta materialak antolatuz.*

**13. artikulua. Bazkide egoiliarrei egozketak egiteko erizpideak.**

*Bat.* Zergari buruzko Foru Araueko 52. artikuluan aurrikusitakoari dagokionez, bazkide bakoitzaren zerga oinarri positiboaren egozketa sozietatearen estatutuen arabera ateratzen den proportzioan egingo da eta, haren ezean, sozietatearen kapitalean duen partaidetzaren arabera.

*Bi.* Bazkideei, Zergako kuotan legozkiekeen kenkariak egozten zaizkienean, zerga oinarri positiboak egozteko erabilia den proportzio berean egingo da.

**54. artikulua. Partaideen identifikazioa**

Errenten gardentasun fiskaleko erregimenak ukitzen dituen sozietateek euren kapitaleko partaidetzak ordezkatzeko dituzten baloreak izendun legez mantendu edo bihurtu behar izango dituzte.

Beharkizun hau ez betetzera, tributu urratze soiltzat hartuko da, 500.000 pezetatik 5.000.000ra bitarteko isunaz zehatuko bait da, betetzen ez den zergaldi bakoitzeko, eta erantzule solidarioak sozietateko administratzaileak izango dira, salbu eta aurreko letraldean xedatutakoa betetzeko behar diren neurriak beren beregi proposatzen dituztenak, baldin eta gainerakoek onartzen ez badizkiete.

Artikulu honetako lehen letraldean ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik, ezin ezagutu badira bazkideak, oso-osorik edo zatika, ezin egotz daitekeen zerga oinarriaren zatiak Sozietateen gaineko Zerga ordainduko du, Pertsona Fisikoen



Errentaren gaineko Zergako eskalako gehienezko tartekoa adinako tasan.

#### **55. artikulua. Errenten bakoiztapena**

Bat. Sozietateen gaineko Zergari buruzko 3/1996 Foru Arauaren 66. artikuluko lehen ataleko a) eta c) letrak aipatzen dituzten sozietateen zerga oinarri positiboak, Foru Arau honetan kapitalaren etekinen bakoiztapenerako ezarritako erregela berberen arabera egotziko dira.

Bi. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 66. artikuluko lehen ataleko b) letrak aipatzen dituen sozietateen zerga oinarri positiboak beraien bazkide direnei egotziko zaizkie, baloreen titulartasuna amankomuna bada ere.

## **II. KAPITULUA**

### **SARRERA ETA GASTUEN ALDIBATERAKO EGOKETA**

#### **56. artikulua. Aldibaterako egozketa**

Bat. Zergaren oinarria zehazten duten sarrera eta gastuak, batzuek sortu eta besteak ekoizkiak diren epealdian egotziko dira, kobrantza eta ordainketa egokiak noiz egiten diren kontutan hartzeke.

Bi. Edonola ere, subjektu pasiboek bestelako egozketa erizpideak erabili ahal ziango dituzte, baina sarrera edo gastuen kalifikazio fiskalari inolako aldakuntzarik ekarri gabe, beti ere honako beharkizun hauek betetzen dituztenean:

a) Ondoreak sorterazi behar dituzten lehen ekitaldiari dagokion aitortpena aurkeztueran agertu eta frogatzea.

b) Aplikatzeko epea zehaztea. Epe honen barruan, zeinen gutxienezko iraunaldia hiru urtekoa izango den, subjektu pasiboak berak aukeratzeko dituen erizpideak gorde beharko ditu nahi eta nahi ez.

Hiru. Erizpide aldaketak ez du inoiz sorteraziko sarrera edo gasturen bat konputatzeko gelditzerik.

Lau. Epekako edo prezio geroratudun eragiketei dagokienean, errentak proportzioz egotziko dira, beraiei dagozkien kobrantzak egin ahala, subjektu pasiboak eskubidea sortzen den unean egozteko erabakitzen duenean izan ezik.

Biziarako nahiz aldibaterako errentetako kontratuetatik sortzen diren eragiketak ez dira honelakotzat hartuko inoiz ere, eskualdatzaileari begira.

Bost. Dibisetako edo atzerriko monetako saldoak ordezkatzeko dituzten kontuetan gertatzen diren diferentzia positibo zein negatiboak, euren kotizazioetan jasaten den aldarazpenaren ondorio bait dira, kobrantza edo ordainketa egokia egiten denean konputatuko dira.

Sei. Aurreko ataletan xedaturikoa gorabehera, Foru Arau honetako 42. artikuluan aurrikusitakoak indarrean dirau, enpresa eta lanbide ihardueren etekin garbia zehazteko.

Zazpi. Aurreko bat atalean aurrikusitako gora-behera, ekainaren 19ko 1044/1985 Erret Dekretuan oharrematen denaren arabera ordainketa bakarreko modalitatean jasotako langabeziaren ziozko prestazioa lan-errenta erregular gisa egotzi ahal izango zaio, ordainketa bakarragatik ez balitz, prestaziorako eskubidea egon zatekeen zergaldietako bakoitzari. Egozketa hori zergaldi bakoitzean, ordainketa bakarragatik ez balitz, prestaziorako eskubidea egon zatekeen denboraldiaren heinean egingo da.

#### **14. artikulua. Sarrera eta gastuen aldibaterako egozketa. Arau orokorra.**

**Bat.** Ondorengo artikuluan xedatutakoa gorabehera, Zergaren oinarria zehazten duten sarrera eta gastuak, batzuek sortu eta besteak ekoizkiak diren epealdian egotziko dira, kobrantza eta ordainketa egokiak noiz egiten diren kontutan hartzeke.

Aurreko lerroaldean aurrikusitakoari dagokionez, ondare-gehikuntza eta urripenak ondarearen aldakuntza gertatzen den unean sortutakotzat hartuko dira.

**Bi.** Aurreko atalean aurrikusitakoari dagokionez, sarrerak, hartzekodunak eska ditzakeen unean, sortzen direla ulertuko da.

**Hiru.** Gardentasun fiskaleko erregimeneko sozietateen zerga oinarri positiboak bazkide egoiliarrei egotzen zaizkienean, bakoitzari dagozkion urteko kontuak onesten direneko zergaldian egingo da, sozietateen ekitaldiak ixten diren egunei dagozkien zergaldietan egozteko aukeratzeko denean izan ezik.

Aukera ondoreak sorterazi behar dituen Zergako lehenengo aitortpenean adieraziko da, hiru urtez eutsi behar izango zaio eta ezin izango du ondore gisa sortu bazkideen aitortpenetan zerga oinarririk zenbatu gabe geratzerik.

**Lau.** Epekako edo prezio geroratudun eragiketei dagokienean, eragiketa horietan lortzen diren etekin osoak bezala ondare-gehikuntza edota urripenak proportzioz egotziko dira, bakoitzaren kobrantza eskagarri bihurtu ahala, subjektu pasiboak oso-osoan eskubidearen sorkunean egozteko erabakitzen duenean izan ezik.

Epekako edo prezio geroratudun eragiketatzat hartuko dira, prezioa guztiz edo zati batez aldiari aldiko ordainketa bitartez jasotzen dutenekoak, entregaren

eta azken epearen mugaegunaren arteko epea urtebetekoa baino luzeagoa denean.

Epekako edo prezio geroratudun eragiketa baten ordainketa, guztiz edo zati batez, ganbio-efektuen jaulkipenaz bideratua izan eta berauek mugaeguna baino lehen irmo eskualdatuak direnean, sarrera eskualdaketa unean egotziko da.

Biziarako nahiz aldibaterako errentetako kontratuetatik sortzen diren eragiketak ez dira honelakorik hartuko inoiz ere, eskualdatzaileari begira. Ondasun eta eskubideak biziarako edo aldibaterako errenta baten truk eskualdatzen direnean, errentadunarentzako ondare gehikuntza errenta eratzten den epealdian egotziko da.

**Bost.** Dibisetako edo atzerriko monetako saldoak ordezkatzeko dituzten kontuetan gertatzen diren diferentzia positibo zein negatiboak, euren kotizazioetan jasaten den aldarazpenaren ondorio bait dira, kobrantza edo ordainketa egokia egiten denean konputatuko dira.

**Sei.** Frogatuak izan baina subjektu pasiboari ezin egotz dakizkiokkeen inguruabarrengatik, lanetiko sarrerak sortuak diren zergaldietan ez beste batzuetan hartzen direnean, berauetan egotziko dira eta, beharrezkoa denean, aitorten-likidazio osagarria egingo da, zehapenik gabe, berandutza korriturik gabe, ez eta ezein errekararekin ere. Aitorpena harrera egunaren eta Zergaren ziozko aitortenak aurkezteko ondorengo epearen amaieraren arteko epean aurkeztuko da.

**Zazpi.** Gastuak hartu behar dituenak eska ditzakeen unetik ekoiztitzat hartuko dira.

**Zortzi.** Aurreko ataletan xedaturikoa gorabehera, Zergari buruzko Foru Araueko 42. artikuluan aurrikusitakoak indarrean dirau, enpresa eta lanbide ihardueren etekin garbia zehazteko.

**15. artikulua. Subjektu pasiboak proposatzen duen aldibaterako egozketa.**

**Bat.** Subjektu pasiboek erabili ahal izango dituzte aurreko artikuluan adierazitako egozketa erizpideak ez beste batzu, baldin eta ondorengo beharrezkoak hauek betetzen badituzte:

a) Sarrera eta gastuen kalifikazio fiskalari inolako aldakuntzarik ez ekartzea eta, bereziki, bien artean behar den lotura ez hutsaltzea.

b) Ondoreak sorterazi behar dituzten lehen ekitaldiari dagokion aitorpena aurkeztueran agertu eta frogatzea.

c) Aplikatzeko epea zehaztea. Epe honen barruan, zeinen gutxienezko iraunaldia hiru urtekoa izango den, subjektu pasiboak berak aukeratzen dituen erizpideak gorde beharko ditu nahi eta nahi ez.

**Bi.** Honi dagokionez, subjektu pasiboek euren zergako aitortenean sarrera eta gastuen aldibaterako egozketa egiteko proposamena eta haren funtsaren azalpena sartuko dituzte. Tributu administrazioak proposamen hori aurreko atalak xedatu duenari lotzen ez zaiola dela uste badu, subjektu pasiboak egindako autolikidazioa ofizios zuzenduko du, eta likidazioa jakin eraziko dio interesatuari, zeinek haren aurka bidezko diren errekurtsioak jarri ahal izango dituen.

**Hiru.** Aldibaterako egozketa egiteko erizpide aldaketek ez dute inoiz sorteraziko sarrera edo gasturen bat konputatzeko gelditzerik.

**Lau.** Aukeratu eta onartzen diren egozketako epe-erizpideak berdinak izan behar dira ekitaldi bakoitzeko zerga oinarrian sartu behar diren errenta guztientzat.

**16. artikulua. Egozketa erizpidea, zerga ordaintzeko beharra aldatzen denean.**

Subjektu pasiboak zerga betebeharraren pertsonalarengatik ordaindu beharretik urteten duenean, berak azaldu eta tributu administrazioak onartzen duen proposamenaren onorioz egozkizun gelditzen diren sarrera nahiz gastuak betebeharraren pertsonalarengatik aitortu behar den azken zergaldian aplikatu behar izango dira.

### III. KAPITULUA

#### ERRENTA MOTAK

##### 57. artikulua. Errenta motak

Foru Arau honi dagokionez, subjektu pasibo bakoitzaren errentak bi zati izango ditu:

- Errenta erregularra.
- Errenta irregularra.

##### 58. artikulua. Errenta erregularra

Errenta erregularra Foru Arau honetako 64. artikuluan eta ondorengoan aurrikusitakoaren arabera errenta irregularizat hartu behar ez dena izango da.

##### 59. artikulua. Errenta irregularra

Bat. Honako hauek izango dira errenta irregularrak:

- Ondare elementuen eskualdaketa direla eta, agertzen diren ondare-gehikuntza eta urripenak, baldin eta beraiek eskuratzen direnetik gehikuntza edo urripena lortu arte urtebete baino gehiago pasatzen

bada, edo aurrerakuntza berarekin eskuratzen diren baloreetatik datozen harpidetza eskubideenak.

Letra honetan bildutakotzat joko dira sute, uholde, amiltze edo antzerako gorabehera ezohizkoen eraginez ukituak gerta daitezen ondasunak besterendu edo saltzearen ondoriozko ondare-gehikuntza edo urripenak.

b) Subjektu pasiboak denboran zehar irregulartasun handiarekin lortzen dituen etekinak edota, nahiz eta lorpen erregularra izan, ekoizpen zikloa urtebetetik goragokoa dutenak.

Bi. Honako hauek ez dira inoiz errenta irregulartzat hartuko:

a) Enpresa edota lanbide iharduerei lorturiko ondare elementuetatik datozen ondare-gehikuntza eta urripenak, Foru Arau honetako 41. artikuluko bigarren atalean xedaturikoak eraenduak izango bait dira.

b) Enpresa edota lanbide ihardueretatik datozen etekin irregularrak negatiboak.

#### IV. KAPITULUA

#### OSAKETA ETA KONPENTSAZIOA

##### 1go. SAILA

##### Orokorra

#### 60. artikulua. Osaketa eta konpentsazioa

Zerga oinarria kalkulatzeko, aurreko Kapituluak aipatzen dituen errenten kopuru positiboak edo negatiboak ondorengo artikuluetan egon eta aplikagarri diren erregelen arabera osatu eta konpentsatuko dira.

Errenten osaketa eta konpentsaziotik datorren zerga oinarriak, berriz, zati bi izango ditu:

a) Ateratzen den errenta erregularraren dagokiona.

b) Errenta irregularraren positiboak dagokiena.

##### 2gn. SAILA

#### Errenta erregularren osaketa eta konpentsazioa

#### 61. artikulua. Etekin erregularrak

Etekin erregularrak eta Foru Arau honetako 52. artikuluko aipatzen dituen zerga oinarri positiboak euren artean osatu eta konpentsatuko dira inolako mugarik gabe.

#### 62. artikulua. Ondare-gehikuntza eta urripen erregularrak

Bat. Ondare-gehikuntza eta urripen erregularrak euren artean bakarrik konpentsatuko dira zergaldian zergaldi.

Bi. Emaizta saldo negatiboa izatera, zenbatekoa zergaldian bertan edo ondorengo bost urteetan agertzen diren ondare gehikuntza irregularrarekin konpentsatuko da.

#### 63. artikulua. Errenta erregularra

Foru Arau honetako 61. artikuluan aurrikusitako eragiketen emaitza, gehi aurreko artikuluko lehen atalean aurrikusitakoa, gehi ondorengo artikuluko bigarren lerroaldeak aipatzen duen zatidura, ken 59. artikuluko bigarren ataleko b) letrak aipatzen dituen etekin irregularrak negatiboaren zenbatekoa eginez gero ateratzen dena izango da subjektu pasiboaren errenta erregularraren zenbatekoa.

Aurreko lerroaldean ezarritako errenta erregularraren zenbatekoa Zergako zerga oinarriaren zati erregularra izango da.

##### 3gn. SAILA

#### Errenta irregularraren osaketa eta konpentsazioa

#### 64. artikulua. Etekin irregularrak. Arau orokorra

Lan pertsonaletik edota kapitaletik datozen etekin irregularrak, bai eta enpresa edota lanbide ihardueren etekin irregularrak positiboak ere, eurak sortertzeko epealdiaren barruko urteen kopuruaz zatituko da, urteak datatik datara kontatuta. Epealdi hori ezin zehaz daitekeenean, bost urtekoa hartuko da.

Honela lortzen den zatidura subjektu pasiboaren etekin erregularrekin osatuko da, haren errenta erregularra zehazteko.

#### 65. artikulua. Etekin irregularrak. Osaketa eta konpentsazioa

Bat. Etekin irregularrak, aurreko artikuluko bigarren lerroaldean aurrikusitakoa izan ezik, euren artean bakarrik osatu eta konpentsatuko dira.

Bi. Emaizta saldo negatiboa izatera, zenbatekoa ondorengo bost urteetan zehar gertatzen diren etekin irregularrarekin konpentsatuko da.

Kompentsazioa etekin irregularrak ahalbidezten duten gehienezko zenbatekoraino egingo da, aurreko lerroaldeak aipatzen duen etekin kanpo ezin egin daitekeelarik, beti ere ondorengo ekitaldietako etekin irregularrak negatiboak metatuz.

#### 66. artikulua. Ondare-gehikuntza eta urripen erregularrak

1. Ondare-gehikuntza eta urripen erregularrak bitan banatuko dira:

a) Ondarearen osaeraren aldaketa gertatu baino bi urte edo gutxiago lehenago eskuratutako ondare-elementuen eskualdaketa ondoriozko gehikuntzak eta urripenak.

b) Ondarearen osaeraren aldaketa gertatu baino bi urtetik gora lehenago eskuratutako ondare-elementuen eskualdaketa ondoriozko gehikuntzak eta urripenak.

2. Ondare-gehikuntza eta urripen irregularrak aurreko atalean adierazitako multzoetako bakoitzean integratu eta elkarrekin soilik konpentsatuko dira.

3. Aurreko atalean aipatzen den integrazio eta konpentsazioaren emaitzak bi multzoetan saldo negatiboa izanez gero, bere zenbatekoa hurrengo bost urteetan, multzo berean, agerian jar daitezen gehikuntza irregularrekin konpentsatuko da.

4. Bigarren atalean aipatzen den integrazio eta konpentsazioaren emaitzak multzo batean saldo negatiboa eta bestean positiboa izanez gero, hura honekin konpentsatu ahal izango da bere zenbatekoaren mugaraino.

Aurreko lerroaldean aipatzen den konpentsazioa egin ondoren, multzo batean saldo negatiboa geratzen bada, honen zenbatekoa hurrengo bost urteetan, multzo berean, agerian jar daitezen gehikuntza eta urripen irregularrekin integratuko da, konpentsaziorako soil-soilik.

Atal honetan aipatzen diren konpentsazioak egin ondoren, multzo batean saldo positiboa geratzen bada, gutxitu egingo da, bere zenbatekoaren mugarekin, Foru Arau honetako 62. artikuluko 2. atalak aipatzen dituen ondare-urripen erregularren zenbatekoaz.

5. Aurreko 2. atalean aipatzen den integrazio eta konpentsazioaren emaitzak bi multzoetan saldo positiboa izanez gero, a) multzokoa gutxituko da, bere zenbatekoaren mugarekin, Foru Arau honetako 62. artikuluko 2. atalak aipatzen dituen ondare-urripen erregularren zenbatekoaz.

Aurreko atalean aipatzen den eragiketa egin ondoren, Foru Arau honetako 62. artikuluko 2. atalean aipatzen direnetako ondare-urripen erregularren konpentsatzeko geratuz gero, b) multzoko saldo positiboa gutxituko da, bere zenbatekoaren mugarekin, ondare-urripen erregular haien zenbatekoaz.

6. Aurreko hiru ataletan aipatzen den konpentsazioa ez da inoiz ere, geroko ekitaldietako ondare-urripen irregularrei metatuz, bost urteko epeaz kanpo egingo.

#### **67. artikulua. Errenta irregularra**

Foru Arau honetako 65. artikuluko lehen atalean aurrikusitako eragiketen emaitza positiboa, aurreko artikuluko 4 eta 5. ataletan aurrikusitakoa aplikatu ondoren atera dadin saldo positiboari batuz gero ateratzen dena izango da errenta irregularren zenbatekoa.

Aurreko lerroaldean ezarritako errenta irregularren zenbatekoa Zergaren zerga-oinarriaren zati irregularra izango da.

## **VI. TITULUA**

### **ZERGA OINARRIAREN ZEHAZTAPENA**

#### **68. artikulua. Zerga oinarria zehazteko erregimenak**

Zerga oinarriaren osagaien zenbatekoa honako metodo hauetarik baten bidez zehaztuko da:

a) Zuzeneko zenbatespena, zein erregimen orokor gisa aplikatuko bait da.

b) Enpresari eta profesionarien zenbait etekineterako zenbatespen objektiboa, Foru Arau honetan eta berau garatzen duten xedapenetan aurrikusitakoaren arabera.

Erregimen honi buruzko arategian aurrikusitako inguruabarrak betetzen dituzten subjektu pasiboek euren etekinak haren arabera zehaztuko dituzte, zergaldia hasi aurretik aplikazioari uko egiten diotenean izan ezik, arau bidez ezartzen den bezala.

c) Zeharkako zenbatespena, Bizkaiko Herrialde Historikoko Foru Tributu Arau Orokorrean xedaturikoarekin bat etorritz.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan dagoen zeharkako zenbatespenean, batez ere, zenbatespen objektiborako ezarritako ezaugarri, indize, modulu edota koefizienteak hartuko dira gogoan, zerga oinarria zehazteko azken erregimen honi uko egiten dioten subjektu pasiboak direnean.

#### **69. artikulua. Zenbatespen objektiboa**

Bat. Enpresa txiki eta ertainen etekinen eta profesionarienen zenbatespen objektiborako prozedurak arau bidez erregulatuko dira, honako erizpide hauen arabera:

a) Zenbatespen objektiboko sistemak Balio Erantsiaren gaineko Zergan ezarritako erregimen bereziki batera aplikatu ahal izango dira, arau bidez honelaxe zehazten denean.

b) Zenbatespen objektiboko erregimenak aplikatzeko eremua honelaxe zehaztuko da: bai iharduera eta lugintzen jiteagatik, bai modulu objektiboengatik, hala nola, eragiketen bolumena, langileen kopurua, erosketen zenbatekoa, ustategien luze-zabala, erabiltzen diren aktibo finkoak edota harako ihardueraren arabera adierazgarria den beste edozein.

c) Sistema honen bitartez kalkulatu diren etekinek ez dituzte inoiz ondare aldakuntzen emaitzak sartuko, beti ere aldakuntza enpresa edota lanbide iharduerari loturiko ondasun higiezin edota untzietatik sortzen direnean, ihardueraren etekinekin zehaztu eta osatuko bait dira, Foru Arau honetako 41. artikuluko bigarren ataleko erregelen arabera.

d) Enpresa edota lanbide ihardueren etekin garbia zenbatespen objektiboan kalkulatzeko, ezaugarri, indize, modulu edota koefiziente orokorrak zein zenbait iharduera-alorri dagozkionak erabiliiko dira, Ogasun eta Finantzen Foru Diputatuak zehaztuko bait ditu.

e) Subjektu pasiboek zenbatespen objektiboko erregimenean dituzten erazko betebeharrak beronen ezaugarriari doituko zaizkie.

Bi. Arau bidez, zenbatespen objektiboko sistemen aplikazioa zenbait iharduera edo alor zehatzetarako araupetu ahal izango da, eta sistema horien bitartez, subjektu pasiboek onartu ondoren, zenbait zergalditarako etekin garbien zifra bakoiztuak ezarriko dira.

Hiru. Etekinen zenbatespen objektiboko erregimenak lurralde eremu mugatueta aplikatu ahal izango dira.

Lau. Arau bidez adierazten diren zenbatespen objektiboko erregimenetan, ihardueraren etekin garbia zehazteko, famili unitatekideen artean hizpatzen diren ordainketak ez dira konputatuko.

Bost. Zenbatespen objektiboko erregimenak aplikatzen badira ere, ihardueraren benetako etekinen eta erregimen hauen zuzeneko aplikaziotik ateratzen diren arteko diferentziengatik sor litezkeen ondare gehikuntzak ez dira kargapean egongo, artikulua honetako lehen ataleko c) letran aurrikusitakoa gorabehera.

Sei. Zenbatespen objektiboko erregimenak errenten iratxikipeneko erregimenean dauden entitateei aplikatu ahal izango zaizkie, arau bidez ezartzen diren moldaketekin.

## VII. TITULUA

### TRIBUTU ZORRA

#### I. KAPITULUA

#### OINARRI LIKIDAGARRIA

##### 70. artikulua. Oinarri likidagarri erregularra

Oinarri likidagarri erregularra, zerga oinarriaren zati erregularrean ondorengo artikuluan aurrikusiko diren txikipek egitetik ateratzen den emaitza izango da.

##### 71. artikulua. Txikipek zerga oinarri erregularrean

Zerga oinarriaren zati erregularra ondorengo partiden zenbatekoan bakarrik txikituko da:

1. 1go. Gizarte Segurantzaren Araubideetakoren batean integraturik ez dauden profesionariek Gizarte Aurrikuspenerako Mutualitateei ordaindutako kopuruak, heriotza, alarguntasun, zurtasun, jubilazio, istripu, gaixotasun edo lanerako ezintasuna babesteko edo ezkontza, amatasun, seme-alaba edo heriotzaren ziozko prestazioak emateko zatian.

2gn. Gizarte Segurantzaren Araubideetako edozeinetan integraturiko profesionari edo enpresari banakoek Gizarte Aurrikuspenerako Mutualitateei ordaindutako kopuruak, aurreko 1go. zenbakian aipatzen diren gertakizunetakoren bat babesten badute.

3gn. Besteren konturako langileek edo bazkide langileek Pentsio Planen ordeko gizarte

aurrikuspenerako sistema gisa diharduten Gizarte Aurrikuspenerako Mutualitateei ordaindutako kopuruak, aipatu bazkide langileei aurreko 1go. zenbakian aipatutako gertakizunak eta langabezia babesteko den zatian.

4gn. Borondatezko Gizarte Aurrikuspenerako Erakundeetako bazkideek, aurreko 1go. zenbakian aipatutako gertakizunak eta langabezia babesteko, egindako ekarpenak, edo Pentsio Planetako partaideek egindakoak, bazkide babeslearen zein sustatzailearen kontribuzioak barne, baldin eta menpeko lanaren etekin gisa egotzi bazaizkie.

Txikipek hauen gorenako muga gisa, ondoko kopuruetarik txikiena aplikatuko da:

a) Lan, enpresa eta lanbidean, ekitaldian banan-banan hartu diren etekin garbien baturaren 100eko 15a.

Ondore hauetarako Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 66. artikuluan, lehen ataleko b) eta c) letretan, araupetutako sozietate gardenek benetan bere jardura profesional, artista edo kirolari legez sozietate horien bidez egiten duten sozietatearen bazkideei egotzitakoak joko dira lanbide jardueren etekintzat

b) 1.000.000 pezeta urteko.

2. Ezkontidearentzako konpentsazio pentsioak eta mantenurako urtekoak, biak epai-erabakiz ordaintzen badira, salbu eta subjektu pasiboaren seme-alabentzat finkatzen direnak."

Artikulu honetan oharrekin diren txikipek zerga oinarriaren zati erregularrean egin ahal izateko, beharrezkoa izango da, beti ere, Zerga honen aitortpenarekin batera txikipek horiek agiri bidez frogatzea, arauz ezar dadin moduan.

##### 72. artikulua. Oinarri likidagarri irregularra

Oinarri likidagarri irregularra zerga oinarriaren zati irregularra izango da.

Oinarri likidagarri irregularra lau zatitan banatuko da:

a) Etekin irregularrak

b) Ondarearen osaeraren aldaketa gertatu baino bi urte edo gutxiago lehenago eskuratutako ondare-elementuen eskualdaketa onoriozko ondare gehikuntzak.

c) Ondarearen osaeraren aldaketa gertatu baino bi urtetik gora lehenago eskuratutako Talde-Inbertsioko Erakundeen kapitala edo ondare ordazkatzen duten akzio edo partaidetzen edo finantza-aktiboaren eskualdaketa edo itzulketa onoriozko gehikuntzak eta urripenak.

d) Aurreko letran adierazitakoez bestelakoak izan eta ondarearen osaeraren aldaketa gertatu baino

bi urtetik gora lehenago eskuratutako ondare-elementuen eskualdaketa onoriozko gehikuntzak eta urripenak.

## **II. KAPITULUA**

### **OINARRI LIKIDAGARRI ERREGULAR NEGATIBOEN KONPENTSAZIOA**

#### **73. artikulua.      Konpentsazioa**

Bat. Foru Arau honetako 70. artikuluan definitzen den oinarri likidagarria kalkulatzeko aplikagarri diren neurriak direla bide, hura negatiboa izatera, haren zenbatekoa ondorengo bost urteetan lortzen diren oinarri likidagarri erregular positiboekin konpentsatu ahal izango da.

Bi. Konpentsazioa subjektu pasiboak komeniesten duen zenbatekoan egin ahal izango da, aurreko atalak aipatzen duen epetik kanpo ezin eginaz, ondorengo urteetako oinarri likidagarri erregular negatiboei metatuz.

## **III. KAPITULUA**

### **KUOTA OSOA**

#### **1go. SAILA**

#### **Oinarri likidagarri erregularraren karga**

#### **74. artikulua.      Zergako eskala**

Bat. Oinarri likidagarri erregularra ondorengo eskalan adieraziko diren tasetan kargatuko da:

Oinarri likidakorra hurrengo pezeta kopururaino	Kuota osoa --- pezetatan	Gainerako oinarri likidakorra hurrengo pezeta kopururaino	Esar daitekeen tasa --- Portzentaia
442.000	0	694.000	20,00
1.136.000	138.800	1.169.000	23,00
2.305.000	407.671	1.169.000	28,00
3.474.000	734.991	1.169.000	32,00
4.643.000	1.109.071	1.169.000	36,00
5.812.000	1.529.911	1.169.000	40,00
6.981.000	1.997.511	1.169.000	45,00
8.150.000	2.523.560	1.169.000	49,00
9.319.000	3.096.371	1.169.000	53,00
10.488.000	3.715.940	hortik gora	56,00

Bi. Eskala ezarri eta ondorioz sortutako kuota hurrengo kopurutan gutxituko da:

- 1.700.000 pezetako edo gutxiagoko oinarri likidakorra duten subjektu pasiboek: 3.000 pezetan.

- 1.700.001 eta 2.000.000 pezeta kopuruaren arteko oinarri likidakorra duten subjektu pasiboek: 3.000 pezetari oinarri likidakor erregularraren eta 1.700.000 kopuruaren arteko diferentzia 0,01 kopuruaz biderkatzearen emaitza kendu osteko kopuruan.

- 2.000.000 pezetatik gorako oinarri likidakor erregularra duten subjektu pasiboek: berauei ez dagokie gutxitze egiterik.

Hiru. Aurreko leerroaldean aipatu kuota gutxiagotua oinarri likidakor erregularraz zatitzearen ondorioz lortutako koefizientea 100 zenbakiaz biderkatzearen eragiketaren emaitza joko da batez besteko karga tasatzat. Batez besteko karga tasa adieraztean bi dezimal jarriko dira.

## 2gn. SAILA

### Oinarri likidagarri irregularraren karga

#### 75. artikulua. Karga tasa

1. Etekinaz osatutako oinarri likidagarri irregularraren zatiak honako karga tasa hauetako handiena izango du:

a) Karga eskala etekinaz osatutako oinarri likidagarri irregularraren zatiaren 100eko 50ari aplikatzen den batezbesteko tasa.

b) Aurreko artikuluko 2. atalean definitzen den batezbesteko karga tasa.

2. Ondarearen osaeraren aldaketa gertatu baino bi urte edo gutxiago lehenago eskuratutako ondare-elementuen eskualdaketa onoriozko ondare gehikuntzez osatutako oinarri likidagarri irregularraren zatiak honako karga tasa hauetako handiena izango du:

a) Karga eskala oinarri likidagarri erregularraren zati honen 100eko 50ari aplikatzen den batezbesteko tasa.

b) Aurreko artikuluko 2. atalean definitzen den batezbesteko karga tasa.

3. Ondarearen osaeraren aldaketa gertatu baino bi urte edo gutxiago lehenago eskuratutako ondare-elementuen eskualdaketa onoriozko ondare gehikuntzez osatutako oinarri likidagarri irregularraren zatiak ondorengo eskalan adierazten diren karga tasak izango ditu:

Oinarri likidagarriaren zatia	Tasa aplikagarria Portzentaia
200.000 pezetaraino	0
200.001 pezetatik aurrera	20

Aurreko leerroaldean adierazitakoa gorabehera, Talde-Inbertsioko Erakundearen kapitala edo ondarea ordezkatzeko duten akzio edo partaidetzen edo finantza-aktiboaren eskualdaketa edo itzulketaren ondoriozko gehikuntzez osatutako oinarri likidagarri irregularraren zatiak 100eko 20ko karga tasa izango du beti.

4. Aurreko atalean aipatzen den ondare-gehikuntzez osaturiko oinarri likidagarri irregularraren zatia hainbatzerakoan, Talde-Inbertsioko Erakundearen kapitala edo ondarea ordezkatzeko duten akzio edo partaidetzen, finantza-aktiboaren eta beste elementu batzuen eskualdaketa edo itzulketaren ondoriozko gehikuntzak eta urripenak konputatu badira, aurreko atalean xedatzen denaren aplikazioa era honetan egingo da:

a) Talde-Inbertsioko Erakundearen kapitala edo ondarea ordezkatzeko duten akzio edo partaidetzen eta finantza-aktiboaren eskualdaketa edo itzulketatik datozenen saldo garbia kalkulatu da.

b) Gainerako elementuetatik datorren saldo garbia kalkulatu da.

c) Atal honetako a) letran aipatzen den saldo garbia negatiboa izanez gero, ondare-gehikuntzez osaturiko oinarri likidagarri irregularraren zatiak artikuluko 3. atalean jasotako eskalaren arabera ordainduko du zerga.

d) Atal honetako b) letran aipatzen den saldo garbia negatiboa izanez gero, ondare-gehikuntzez osaturiko oinarri likidagarri irregularraren zatiak 100eko 20ko zerga-ordainketa izango du.

e) Aurreko a) eta b) letratan aipatzen diren saldo garbiak positiboak izanez gero, a) letrakoak 100eko 20ko zerga-ordainketa izango du eta b) letrakoak artikuluko honetako 3. atalean jasotako eskalaren arabera.

### 3gn. SAILA

#### Kuota osoa

#### 76. artikulua. Kuota osoa

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako kuota osoa Foru Arau honetako 74 eta 75. artikuluetan xedatutakoa aplikatuz ateratzen diren kuotak batuz lortuko da.

74. artikuluko bigarren atalak aipatzen duen subjektu pasiboaren batezbesteko karga tasa Sozietateen gaineko Zergako tasa orokorra baino handiagoa denean, kuota osoa, batezbesteko tasa horren eta Sozietateen gaineko Zergako tasa orokorraren arteko diferentzia enpresa edota lanbide ihardueren etekin garbi positiboa osatzen duten ondare elementuen zenbatekoari aplikatuz ateratzen den zenbatekoan txikituko da.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa aplikatzeko, ondare gehikuntzen zenbatekotik, behar izanez gero, ihardueraren etekin garbia zehazteko kontutan hartzen diren ondare urripenena kenduko da.

## IV. KAPITULUA

### KUOTA LIKIDOA

#### 77. artikulua. Kuota likidua

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako kuota likidua, kuota osotik ondorengo artikuluan aurrikusiko diren kenkarietarik bidezkoak direnak eginez lortuko da.

#### 78. artikulua. Kenkariak

##### Bat. Famili kenkariak

a) Subjektu pasiboarekin bizi den ondorengo ezkongabe bakoitzeko:

- **22.100** pezeta lehenengo biengatik.

- **26.700** pezeta hirugarrenengatik.

- **31.800** pezeta laugarrenengatik eta hurrengoengatik.

Hurrengo ondorengoengatik ez da horrelako kenkaririk egingo:

- Zerga sortu baino lehen hogeita hamar urte bete dituztenengatik, lehen atal honetako d) **lerroaldean** jasotako salbuespena gordeko delarik.

- Zergaldiaren barruan hamazortzi urte baino zaharragoentzat bermatutako lanbidearteko gutxieneko soldatik gorako errentak lortzen dituztenengatik<sup>3</sup>.

Ondorengoak gradu bereko goranzko batekin baino gehiagorekin bizi direnean, kenkaria bakoitzaren aitopenean egingo da, guztiei kenkari berbera eginez.

Ahaidetasun gradu ezberdineko aurrekoenekin bizi diren ondorengoak izanik, gradu hurbileneko aurrekoek bakarrik izango dute kenkarirako eskubidea, salbu eta zergaldi horretan hamazortzi urtetik gorakoentzat bermatutako lanbide arteko gutxieneko soldata baino gehiagoko urteko errentak lortzen badituzte, orduan kenkarirako eskubidea urrunagoko graduako aurrekoek lortuko lukete eta. Letran honetan xedatutakoaren ondoretarako, **tutoretza** edo harrera ordaingabea dela eta, subjektu pasiboarekin loturaren bat duten pertsonak ondorengoekin berdinetako dira.

Kode Zibilean ezarritakoarekin bat etorritik deuseztasuna, banaketa edo dibortzioa adierazi den egoeretan, ondorengo ziozko kenkariak guraso bakoitzaren aitopenean zati berdinetan egingo dira, beti ere judizio bidez onetsitako hitzarmenean seme-alaben elikadurarentzako urtekoak itundu badira eta urteko horiek seme-alabekin bizi ez den gurasoetarikoa ordaindu behar dituzten. Horrelakoetan aipatu den ekonomi mantentimendua badela eta benetan ordaindu dela egiaztatu behar izango da.

b) Subjektu pasiboarekin bizi eta, aldi berean, zergaldi horretan hamazortzi urtetik gorakoentzat bermatutako lanbide arteko gutxieneko soldata baino gehiagoko urteko errentak lortzen dituen **gorengo** bakoitzeko: **16.500** pezeta.

Kenkari hori **32.900** pezetakoa izango da **gorengo hirurogeita hamabost urtekoa** edo zaharragoa bada.

Gorengoak ezkontide biek bizi direnean, erdiaren ziozko kenkaria egin ahal izango da. Seme-alabeek ezin izango dute kenkari hau egin gurasoek kenkari berberarako eskubidea dutenean.

c) **Hirurogeita hamabost urtekoa edo zaharragoa den subjektu pasibo bakoitzeko: 16.000 pezeta.**

d) Subjektu pasibo bakoitzeko eta, horrela denean, subjektu pasiboaren menpean dagoen ondorengo ezkongabe nahiz gorengo bakoitzeko, edozein adinekoak izanda ere, beti ere azken horiek, **itsuak**, arau bidez ezarritako graduako **elbarri edo mutilatuak**, fisikoak nahiz psikikoak, jaiotzez nahiz geroago sortutakoak izan, eta zergaldi horretan zehar hamazortzi urtetik gorakoentzat bermatutako lanbide arteko gutxieneko soldata baino gehiagoko urteko errentak ez badituzte, aurreko zenbakietan xedatutakoaren arabera bidezkoak diren kenkariet gain: 56.000 pezeta.

<sup>3</sup> 1997rako Lanb. Gutx. Sold.: 932.820



Aldi berean, minusbalioak ukituriko pertsonak, tutoretza edo harrera ordaingabea dela eta, subjektu pasiboarekin loturaren bat duenean, eta aurreko lerroaldean adierazi diren errenta-maila eta elbarritasun gradua gertatzen direnean, bidezkoa izango da kenkari hau ezartzea.

Kenkari honetarako eskubidea duten pertsonak subjektu pasibo baten baino gehiagoren menpean daudenean, kenkaria bakoitzaren aitortpenean lainduko da zati berdinetan.

Letra honetan aipatu gaigabezi egoeren ondorioz, prestazioen bat jaso eta prestazio hori, foru arau honetako 9. artikulua dela bide, salbuetsita dagoenean, ez da kenkaririk ezarriko.

### **31. artikulua. Kuotatikako kenkarirako eskubidea ematen duen elbarritasun maila.**

**Bat.** Zergari buruzko foru arauaren 28. artikuluko 2. zenbakiak eta 78. artikulua 1. ataleko d) letrak buru zein gorputzaren aldetiko urripen maila aldatu dute; bada, maila hori dagokio, nori eta legearen ikuspegitik 100eko 33ko edo hori baino gehiagoko minusbalio maila duen pertsonari, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuaren 148.1 artikulua aipatu duen baremoaren arabera.

**Bi.** Kenkari hau edukitzeko, subjektu pasiboak benetakotu beharko du, minusbalioa sorterazten duten inguruabarrak zergaren sortzapen datan daudela.

**Hiru.** Artikulu honetako lehen atalak aipatzen duen minusbaliodun izaera tributu administrazioari benetakotu ahal izango zaio zuzenbidean onartzen diren frogabideetarik edozeinen bidez.

Hala ere, minusbaliodun pertsonaren legezko izaera benetakotuztat hartuko da:

a) Bizkaiko Foru Aldundiko eskudun organoak, Gizarte Zerbitzuen Nazio Institutuak edo autonomi elkarteetako eskudun organoak ziurtatzen duenean.

b) Gizarte Segurantzak, Mota Pasiboan Erregimen Bereziak, Udal Administrazioiko Aurrikuspeneko Nazio Mutualitateak edo haien ordeztu entitateek aintzatesten duten prestazioa hartzen denean, ezgaitasun iraunkorraren ondorioz, baldin eta hura aintzatesteko artikulua honetako lehen atalak aipatzen duen ehuneko hogeitamarreko edo gehiagoko minusbalio maila eskatzen bada.

c) Izen oneko mediku erakundeek edo mediku batek baino gehiagok, alorrean espezialistak bait dira, ziurtatzen duenean, azken kasu honetan, ziurtagirian espezialitatea agertu behar delarik. Ziurtagiri hauetan, minusbalio maila beren beregi agertu behar izango da,

*abenduaren 20ko 26/1990 Legeko xedapen gehigarrietarik bigarrena agerian aipatuz.*

### **Bi. Gaixotasun gastuen ziozko kenkaria.**

Norberaren nahiz kuotan kenkarirako eskubidea sortzen duten pertsonen gaixotasun, istripu edo elbarritasuna direla, medikuen lanbide ogibidesariak direla, eta subjektu pasiboaren seme-alaben jaiotzak direla eta, subjektu pasiboak zergaldiaren barruan ordaindu dituen gastuen eta mediku aseguruaren mutualitateei edo sozietateei ordaindutako kuoten 100eko 15a.

### **32. artikulua. Gaisotaun gastuen ziozko kenkaria.**

**Bat.** Gaisotasun gastuen zioz, subjektu pasiboak zergaldian zehar bere edota kuotan kenkaria egiteko eskubidea duten pertsonen gaisotasunaren, istripuen edo elbarritasunaren zioz ordaintzen dituen gastuen ehuneko hamabosta kenduko da, bai eta subjektu pasiboaren seme-alaben jaiotzaren zioz mediku eta klinikei ordaintzen dizkien lanbide ordainsariengatikoa gastuena eta aseguru medikuen mutualitate edo sozietateei ordaintzen dizkien kuotena ere.

Gaisotasunaren, istripuen edo elbarritasunaren ziozko gastutzat, besteak beste, honako hauek hartuko dira:

- 1) Odontologiakoak, hortz protesiak barru.
- 2) Oftalmologiakoak, betaurreko eta lentetxo graduatuak barru.
- 3) Birgaitzeko sendabideak.
- 4) Aparatu ortopedikoak.
- 5) Gaisoaren laguntzaileari, holakorik dagoenean, dagozkion klinikakoak.
- 6) Sanitate pertsonalak gaisoak zaintzeko egiten dituen zerbitzuak.
- 7) Itsuengan, eta araudi honetako 31. artikuluan ezarritako maila duten gorputz zein buru-minusbaliodunengan sortutakoak, haien zainketarako eta balizko bizitza arrunterako behar diren pertsonen zain eskuaratei bait dagozkie.
- 8) Gaisoaren kontsulta medikuen eta laguntzailearen joan-etorriak eta egonaldiak.
- 9) Medikuek aginduta duela behar bezala benetakotuta, bainuetxe eta urberoetako sendabideetakoak.

*Kirurgia estetikoarengatik sortzen diren gastuak ez dira kontzeptu honengatik kengarri izango, beti ere gaisotasun, istripu edo lanbide eskakizunengatik sortzen ez denean.*

*Bi. Kenkari honek badu baldintza bat, enpresari eta profesionaleri fakturak luzatu eta emateko dagokien eginbeharra araupetzen duten arauak eskatzen dituzten beharkizunen arabera agiri bidez frogatzearena, alegia.*

**Hiru. Norberaren gastuen ziozko kenkariak.**

a) Alogeraren ziozko kenkaria.

Subjektu pasiboaren ohizko etxebizitzaren alojera dela eta, zergaldi horretan ordaindutako kopuruen 100eko 15a, gehienez 100.000 pezeta urtean, eta beti hurrengo baldintzok gertatzen badira:

-- Subjektu pasiboaren zerga-oinarrria urtean 3.500.000 pezetatik gorakoa ez izatea.

-- Alogera kontzeptuaren ordaindutako kopuruak subjektu pasiboaren etekin garbien 100eko 10etik gorakoa izatea.

b) Umeak zaintzeagatik gastuen ziozko kenkaria.

Hiru urtetik beherako seme-alabak zaintzeagatik zergaldi horretan ordaindutako kopuruen 100eko 15a, gehienez 25.000 pezeta urtean, gurasoek familiaren ohizko egoitzatik kanpo lan egiten dutenean eta beti ere subjektu pasiboak urtean 2.000.000 pezetatik gorako etekin garbirik ez badu.

c) Pentsiodunen ziozko kenkaria.

Jubilazio, zahartasun, elbarritasun, alarguntasun edo zurtasunaren ziozko pentsiodunek 15.000 pezetako kenkarirako eskubidea izango dute, beti ere subjektu pasiboak jasotzen duen pentsioaren edo jasotzen dituen pentsioen zenbatekoa urtean 1.250.000 pezetatik gorakoa ez denean/direnean eta bere etekin garbiek urtean 1.800.000 pezetako kopurua gainditzen ez dutenean.

**Lau. Inbertsioen ziozko kenkaria.**

a) Espainian jarduteko legezko baimena duten entitateekin sinatutako bizitza, heriotza edo elbarritasun aseguruen, batera nahiz banatuta, kontratuen zioz ordaindutako primen 100eko 10a, onuraduna subjektu pasiboa bera denean edo, kasuan kasuan, haren ezkontidea, gorengoak edo ondorengoak..

**Kenkari hau ez zaie honako hauei ezarriko:**

1. Hamar urte baino laburragoko aseguru mixto, kapital diferitu, errenta diferitu edo bizitza osoko kontratuei.

2. Berehalako errenta-aseguruen kontratuei.

3. Foru arau honetako 71. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, zergaren zerga-oinarrian oso-osoa edo zati batean txikitu ahal izango diren primak eskaintzen dituzten mutualitateekin hitzartutako aseguru-kontratuei.

1go. puntuaren arabera, kenkarirako eskubidea duten aseguru mixto, kapital diferitu, errenta diferitu edo bizitza osoko kontratuen ziozko kenkariaren zenbatekoak ezin izango du urtean 50.000 pezetako zenbatekoa gainditu.

Ordaindutako zenbatekoak aurreko 1go. zenbakian ezarritako hamar urteko epea igaro baino lehen berriro eskuratuz gero, horretarako edozein bide erabiliz, berreskuraketa horrek egindako kenkari guztiak galdu izatea erakarriko luke.

Egindako kenkarietarako eskubidea galduko balitz, horrelakoetan epea bete ez den ekitaldian sortutako zergaren kuotari honako hauek gehitu beharko lizkioket zergadunak: kendutako kopuruak, batetik, eta, bestetik, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 58.2.c) artikuluan aipatutako berandutza korrituak.

Borondatezko Gizarte Aurreikuspenezko Erakunde baten bazkide zenbakidun edo arruntari egotzitako edo berak egindako ekarpenek Foru Arau honen 71. artikuluko 1 atalean arreikusitakoaren arabera zerga oinarrian kendutako kopuruak gainditzen dituztenean, gaindikinarekin zenbatekoak 100eko 10eko kenkaria izango du aseguru-sarien kontzeptuan.

b) Subjektu pasiboaren ohizko egoitza den edo izango den etxebizitzaren eskuraketa edo zaharberriketa dela eta, ekitaldi horretan ordaindutako kopuruen 100eko 15a.

Ondore horietarako, zaharberriketak ondare urbanizatu eta eraikia zaharberriketako jarduketak babestuei buruzko Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 17ko 189/1990 Dekretuan aipatu baldintzak bete beharko ditu, bestela zaharberriketa, abenduaren 20ko 1.932/1991 Erret Dekretuarekin eta maiatzaren 14ko 726/1993 Erret Dekretuarekin edo horien ordezkio arauarekin bat etorritik, babesteko gai den jarduketatzat jo beharko da

Subjektu pasiboa bertan hiru urtez jarraian bizi izandako etxebizitza joko da ohizko etxebizitzatzat. Hala ere, epe hori igaro gabe ere, etxebizitzaren aldaketa nahitaez eskatzen duten inguruabarrak gertatzen direnean, ezkontideen banaketa, lanpostua lekuz aldatzea, lehen lanpostua lortzea, lan abantailatsuagoa lortzea edo antzekoak esaterako, horrelakoetan etxebizitzak ohizko etxebizitzaren izaera izan duela ulertuko da.

Kreditu etxeetan, arau bidez ezarriko diren eraketa eta gordailaketa beharkizunak betetzen dituzten kontuetan, gordailaketan utzitako kopuruak ohizko egoitza den edo izango den etxebizitzaren eskuraketarako edo zaharberriketarako erabili direla joko da.

Etxebizitza eskuratu edo zaharberriketako ordaindutako kopuruek, eskuratzailaren kontura joan diren sortutako gastuak -korrituak alde batera utzita-

barne, osatuko dute kenkari honen oinarria. Ondore horietarako, kargarik ez duten ondare gehikuntzak diren kopuruak, ohizko etxebizitza berri baten eskuraketan berriro inbertitzeko direnez gero, ez dira konputatuko.

### 33. artikulua. Etxebizitza kontuak.

**Bat.** Subjektu pasiboaren ohizko etxebizitza den edo izateko den etxebizitza eskuratzeko edo birgaitzeko jarritakotzat hartuko dira, kreditu entitateetan, beste edozein ezarpen motatako aparteko kontuetan, gordailatzen diren kopuruak, baldin eta haietako saldoak subjektu pasiboaren ohizko etxebizitza eskuratzeko edo birgaitzeko bakarrik erabiltzen badira.

**Bi.** Kenkarirako eskubidea galdu egingo da:

a) Subjektu pasiboak, etxebizitza-kontuan ohizko etxebizitza eskuratu edo birgaitzeko ez bestelako xedeetarako kopuruak dituenean. Zati batean horrelakorik izango balu, berez horiek kontuan utzitako lehenengo kopuruak lirateke.

b) Kontua ireki zeneko dataz gero bost urteko epea igaro eta oraindik ere etxebizitza eskuratu edo birgaitu izan ez denean.

c) Etxebizitzaren ondorengo eskuraketak edo birgaitzuntzak, zergari buruzko araudiko 78. artikuluko laugarren ataleko b) letran xedatu bezalaxe, kontzeptu horren ziozko kenkarirako eskubidea sortarazten duten beharkizunak betetzen ez dituenean.

**Hiru.** Subjektu pasibo bakoitzak etxebizitza kontu bana bakarrik eduki ahal izango du.

**Lau.** Etxebizitza kontuak banan-banan identifikatu behar izango dira zerga aitortzen denean, aitopen motaren arabera, bertan eskatzen diren datuak jarri.

Atal honetan xedatutakoa betetzen ez bada, kenkari eskubidea galdu egingo da.

**Bost.** Egindako kenkarietarako eskubidea galtzen denean, zergadunak, beharkizunak betetzen ez diren ekitaldian sortzen den Zergako kuotan, kenduak dituen kopuruak batu beharra izango du, gehi Tributuei buruzko Foru Arau Orokorreko 58. artikuluko bigarren ataleko b) letrak aipatzen dituen berandutza korrituak.

### 34. artikulua. Ohizko etxebizitza zer den.

Ohizko etxebizitza hartzen da, hala ere, etxebizitza ohizkotzat

hartuko da, epe hori igaro arren, egoitza aldaketa nahitaez eskatzen duten inguruabarrak daudenean.

Etxebizitza ez da subjektu pasiboaren egoitzat hartuko, hamabi hilabeteko epean, eskuraketa datatik edo obrak amaitzen direnetik zenbatzen hasita, subjektu pasiboa benetan eta iraunkortasunez bertan bizi ez bada, hark kargu edo lanbidearen zioz ohizko etxebizitza eduki eta eskuratzeko den etxebizitza bestetarako erabiltzen ez denean ezik, orduan lehen aipatutako epea amaiera dataz gero zenbatzen hasiko bait da.

### 35. artikulua. Etxebizitzaren eskuraketa.

**¡Error!No se encuentra el origen de la referencia.**Bat. Etxebizitzaren eraikuntza edo zabalkundea etxebizitzaren eskuraketaren parekoak izango dira, zehaztaperen hauekin:

- Estalki gabeko zatia itxiz nahiz bestelako edozein bide erabiliz, bizitzeko gai den gainazalaren gehikuntzan, iraunkorki eta urteko aro guztietan zehar, gertatu denean.

- Eraikuntza: subjektu pasiboak obren burutzapenaren ondorioz sortutako gastuak berak zuzenean ordaintzen dituenean, beti ere obrak inbertsioa hasi eta hurrengo lau urteetako epea baino lehenago amaituz gero.

**Bi.** Ez dira joko, ordea, etxebizitza eskuraketatzat:

a) Artapena nahiz konponketa. Ondorio horietarako honako hauek joko dira artapen eta konponketa gastutzat:

- Ondasun materialen erabilera arruntaren mantenurako, pintaketa, hormen konponketa eta antzekoak, esaterako, egin izaten direnak.

- Osatzen dituzten ondasunen funtzionamendu edo erabilera arruntaren ondoriozko erabilera-eza jasan duten elementuak aldatzekoak, besteak beste, berogailu edo igogailuen konponketa, ur-jetsierak, iturgintza eta antzekoak.

b) Hobekuntzak, Altzariena eta seguritatezko ateak, esaterako, eta kontraleihoen eta antzekoen instalazioa.

c) Garaje, lorategi, parke, igerileku eta kirol instalazioak eta, oro har, etxebizitzaren eraskinak edo etxebizitza bera osatzeko ez duen bestelako edozein elementu, beti ere etxetik aparte eskuratzeko direnean.

Hiru. Ohizko etxebizitza, aurretik beste etxebizitza baten ziozko kenkaririk egin izan denean, eskuratzean, kalkulua egiteko oinarria berriaren balioaren eta kenkaririk izan duten aurrekoen balioaren artekoa izango da.

Lau. Artikulu honetako lehen ataleko eraikuntzazko balizkoak aipatu epea ez-betetzeagatik, egindako kenkarietarako eskubidea galduko balitz, zergadunak epea bete izan ez den ekitaldian sortarazitako zergaren koutari eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 58.2.b) artikulua aipatu berandutza korrituak gehitu beharko dizkio eta batuketa egin.

Bost. Sustatzaileak, porrot egin edo ordainketak etetzeagatik, biak judizio bidez adieraziak, artikulu honetako lehen ataleko eraikuntzazko balizkoak aipatu lau urteko epea igaro baino lehenago ezin izan dituen obrak amaitu edo epe berean etxebizitzak eman ezin izan dituen, epe hori beste lau urtez luzatuko da.

Horrelakoetan, araudi honetako 34. artikulua bigarren lerroaldeak aipatu hamabi hilabeteko epea ematea gertatuz gero zenbatu beharko da.

Subjektu pasiboak, atal honetan aurrikusitako luzamendua benetan gerta dadin, hasierako epea bete ez den zergaldiari dagokion zergaren aitortpena aurkeztu beharko du, eta, horrekin batera, etxebizitzan egin dituen inbertsioak benetakotzen dituzten frogagiriak eta aipatu balizko egoetarikoren bat gertatu bada, horrelakorik frogatzen duen edozein agiri.

Subjektu pasiboak, atal honek aipatu balizkoetan, ez du eraikuntza lanak amaituz geroko lau urteko epe orokorra ez betetzearen ziozko inolako sarrerarik egin behar izango.

Sei. Obre geldiarazpena erakarri eta subjektu pasiboari ezin eragotzi izan zaizkion aparteko bestelako inguruabarrak direla eta, obrak artikulu honetako lehen ataleko eraikuntzazko balioak aipatu lau urteko epea igaro baino lehenago ezin direnean amaitu, subjektu pasiboak epearen luzamendua eskatu ahal izango dio Administrazioari.

Eskabidea Ogasun eta Finantza Sailera aurkeztuko dira, epearen ez betetzea hasi eta hurrengo hogeita hamar egunetako epearen barruan.

Eskabideak epea bete ez izatea sortarazi duten zioak eta eraikuntza obrak amaitzeko beharrezko aldia, lau urtez goragokoa ezin izango dena, agertarazi beharko dira.

Aurreko lerroaldean adierazitakoaren ondoretarako, subjektu pasiboak frogagiri egokia aurkeztu beharko du.

Ogasuneko zuzendari nagusiak, aurkeztutako agiriak ikusi ondoren, eskatutako luzamendua bidezkoa den ala ez eta zein luzamendu epe erabaki beharko ditu, luzamendu epeak, nahitanahiez subjektu pasiboak eskatutakoari egokitu behar izango ez delarik.

Hiru hilabeteko epearen barruan beren beregiko erantzunik jaso ez duten eskabideak gaitzerizitatotzat joko dira.

Emandako luzamendua ez betetzea sortu eta biharamunaz gero zenbatu beharko da.

Administrazioak epea luzatuko ez balu eta, ondorioz, egindako kenkarietarako eskubidea galdu izango balu, zergadunak, epea bete ez den ekitaldian sortarazitako zergaren koutari, kenkari bidez kendutako kopuruak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 58.2.b) artikulua aipatu berandutza korrituak gehitu beharko dizkio.

c) Hurrenez hurren, Euskal Herriko Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko 14. artikuluan eta Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legeko 69.2. artikuluan xedatutakoaren arabera, Kultur Ondasuntzat Jotako Ondasunen Erregistroan edo Kultur Interesekotzat Jotako Ondasunen Erregistro Orokorrean inskribatutako ondasunen eskuraketan egindako inbertsioen 100eko 15a, beti ere ondasunak titularraren ondarearen barruan gutxienez hiru urtez jarraitzen badu eta lekualdaketaren jakinarazpena aipatu erregistro horiei bidaltzen denean.

d) Aurreko letran ezarritako beharkizunak betetzen dituzten ondasunak artatu, konpondu, zaharberritu, hedatu eta erakusteko gastuen zenbatekoaren 100eko 15a, gastu horiek, kasuan kasuan bidezkoa litzatekeen etekin garbia zehazteko orduan, zerga ondoretarako onartzeko modukoak ez diren neurrian kenkari legez erabili ezin direlako.

**Bost. Enpresa edo lanbide jardueretako kenkariak.**

Zerga hau dela bide, enpresa edo lanbide jarduerak egiten dituzten subjektu pasiboak, Sozietateen gaineko Zergari buruzko arautegian gaur artean ezarritako nahiz etorkizunean xedatutako diren enpresarioen inbertsiorako eta lanaren sorkuntzarako pizgarri eta bultzagarriak ezarri ahal izango, portzentaia eta kenkari-muga berberak erabiliz.

Pizgarri horiek, hala ere, zerga-oinarrien zenbatespen objektiboaren araubideko subjektu pasiboak bakarrik ezarriko zaizkie, beti ere, araubide horren ezaugarriak eta betebeharrak formalak kontutan izanik, arau bidez horrelaxe ezartzen denean.

**Sei. Emarien ziozko kenkariak.**

a) Onura Publikoko Elkarte eta Fundazioen Araubide Fiskalari eta Interes Orokorreko Jardueretako Partaidetza Pribatuarenganako Zerga-Pizgarri buruzko abenduaren 5eko 9/1995 Foru Arauan ezarritakoak

b) Fundazioei eta Interes Orokorreko Jardueretako Partaidetza Pribatuarenganako Zerga-Pizgarri buruzko azaroaren 24ko 30/1994 Legean ezarritakoak.

c) Legez aintzatetsita eta kontuak babesgo-organo egokiari aurkezten dizkioten fundazioei eta aurreko letretan sartuta ez dauden onura publikokoak direlako adierazpena jaso duten elkarteei emari legez emandako kopuruen 100eko 10a.

**Zazpi. Beste kenkari batzuk.**

a) 37. artikuluko lehen ataleko laugarren lerroaldean aipatu etekinak eta, bestetik, sozietate garden baten etekin horiei dagokion zerga-oinarri egotziaren zatia izanik, honako portzentaia hauek:

-- Oro har, 100eko 40a.

-- Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 29. artikuluko bigarren atalean aipatutako entitateetatik datozenean, 100eko 25a.

-- Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 29. artikuluko bost eta seigarren ataletan aipatutako entitateetatik edo abenduaren 17ko 9/1991 Foru Arauaren bidez araupetuta dauden babestutako eta bereziki babestutako kooperatibetatik, edo erakarpenen itzulketa egin duten kapital txikipenetatik datozenean, 100eko 0a.

Kenkari honen oinarria jasotako zenbateko osoa izango da..

Abenduaren 17ko 9/1991 Foru Arauaren bidez araupetuta dauden babestutako eta bereziki babestutako kooperatiben itzulkinei dagokien ezarpen bikoitzaren ziozko kenkarirako, foru arau honetako 31. artikuluan xedatutakoa izango da aginduzkoa.

1997ko apirilaren 25etik aurrera indargabeturik geratzen da ekainaren 10eko 80/1997 FDko 4. artikulua indarrez.

**36. artikulua. Dibidenduen ziozko kenkaria.**

**Bat.** Zerga honetako kuotatik, subjektu pasiboak sozietateei hartzen dizkien dibidenduen ehuneko hamarra kenduko da, baldin eta dibidendu horren jatorria den mozkinak, Sozietateen gaineko Zergaren zioz, inolako txikipenik gabe, eta hobaririk gabe, tributua benetan ordainduta badu.

Honi dagokionez, Sozietateen gaineko Zergan, honakook ez dira txikipen edo hobarizat hartuko:

a) Sozietateak atzerrian ordainduta dituen zergen ondorio diren kuotatikako kenkariak.

b) Lurraldearen ziozko erregimen berezietatik bakarrik etortzen direnak.

c) Sozietateen gaineko Zergari buruzko arautegian ezarritako inbertsio eta enplegurako pizgarrien erregimenetik etortzen diren kuotatikako kenkariak.

d) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 61/1978 Legeko 25. artikuluko c) letrak eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 11/1984 Foru Arauko 30. artikuluko c) letrak aipatzen duten hobaria.

e) Espainiar sozietateek atzerrian lortzen dituzten errentetatik, hitzarmenetan nazioarteko ezarpen bikoitza ekiditeko ezarritakoaren arabera espainiar zergatik salbuetsita gelditu behar bait dira, datozen hobarien zatia.

**Bi.** Aurreko atalak aipatzen dituen dibidendu hartuen ziozko kenkaria bakar-bakarrik aplikatuko da, mozkinetako partaidetzak edo dibidenduak direnean, baldin eta banatzaileak honakook badira:

a) Egoitza espainiar lurraldean duten sozietateak.

b) Sozietateak, baldin eta aurreko atalean aurrikusitakoaren arabera, Sozietateen gaineko Zergan inolako hobaririk edo txikipenik ez duten mozkinak badituzte.

**Hiru.** Aurreko ataletan xedatutakoa, egotzitako zerga oinarriaren zatia aplikatuko zaio, baldin eta gardentasun fiskaleko erregimeneko sozietate batek hartzen dituen dibidenduei edo mozkinetako partaidetzei badagokie.

**Lau.** Kenkaria partaidetzaren edo dibidenduaren hartzaileak egingo du, oinarritzat zenbateko osoa hartuz.

**Bost.** Artikulu honetan aurrikusitakoari dagokionez, dibidendutzat ere hartuko dira, batzetera joateagatik primak eta, orohar, subjektu pasiboak jasotzen dituen hartukizunak, zurrin dibidenduak izan gabe, harentzat edozein entitate motaren beraren fondoetako partaidetzatiko etekin bait dira.

**Sei.** Sozietateak desegiten direnetan, dibidendutzat hartuko da, artikulu honetan araupetzen den kenkariari dagokionez, Persona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren menpean benetan dagoen likidazio kuotarena izan eta mozkin banatugabea

*dagokien zatia, baldin eta mozkinok Sozietaten gaineko Zergaren zioz, artikuluko honetako lehen atalean aurrikusitako moduan tributua ordainduta badute.*

**Zazpi.** *Tributuei buruzko indarreko arautegian aurrikusi eta aplikagarri duten erregimen fiskal bereziaren menpean dauden talde inbertsioko erakundeen sozietate kapitalean partaidetzetik lortzen diren ondare- etekin edo gehikuntzek ez dute inoiz eskubiderik izango kenkari hau egiteko.*

**Zortzi.** *Babes berezia duten kooperatibetako bazkideek, haien etekinak Kooperatiben Erregimen Fiskalari buruzko abenduaren 17ko 9/1991 Foru Araueko 34. artikuluko bigarren zenbakian aurrikusitako hobariaren onura duenean, kenkari hau ehuneko bostean egingo dute.*

b) Subjektu pasiboek ekitaldiaren barruan ordaindu duten Hiri Lurren Balioaren Gehikuntzari buruzko udal zergaren kuotaren 100eko 75a, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari benetan lotutako ondare gehikuntzak erakarri dituzten ondare aldakuntzei dagokienean.

c) Menpeko lanaren etekinen jasoketaren zioz, 27.000 pezeta kenduko dira.

Jarraian adieraziko diren kasuetan ezartzeko den menpeko lanaren etekin garbien ziozko kenkariaren zenbatekoa hauxe izango da:

-- 1.071.000 pezetako edo gutxiagoko etekin garbiak dituzten subjektu pasiboek: 72.000 pezeta.

-- 1.071.001 eta 1.971.000 pezeta kopuruaren arteko lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboek: 72.000 pezeta ken lanaren etekin garbiaren eta 1.071.000 pezetaren arteko tartea 0,05 kopuruaz biderkatzearen ondoriozko emaitza.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa ez zaie ezarriko menpeko lanarenak ez diren 2.000.000 pezetako edo gehiagoko etekin garbiak dituzten subjektu pasiboek.

d) Zerga-oinarri likidakorrak zehazteko konputatu diren etekin edo gehikuntzen artean, egoitza Ceutan, Melillan eta berauen menpekoetan eduki eta sozietatearen xedea horietan bakar-bakarririk duten entitate juridikoen sozietatearen kapitala ordezkatzeko duten edo toki horietan iraunkorki kokatutako establezimenduek lortutako baloreetatik eratorritako baten bat egonez gero, etekin edo gehikuntza horiei proportzioz dagokien kuota osoaren zatiaren 100eko 50eko kenkaria ezarriko da.

**37. artikulua. Ceuta eta Melillan lortzen diren sarrerak.**

*Oinarri likidagarri positiboak zehazteko konputatzen diren etekin edota gehikuntzen artean, egoitza Ceuta, Melilla eta berauen dependentsietan izan eta sozietate xedea beraietan bakarrik duten entitate*

*juridikoen sozietate kapitala ordezkatzeko duten baloreetatik datorren bat agertzekotan, edo plaza horietan dauden establezimendu iraunkorren bitartez lortutakoak egotzekotan, 100eko 50a kenduko da, etekin edota gehikuntza horiei proportzioaren arabera dagokien kuota osoaren zatitik.*

*Honi dagokionez, egoitza lurralde horietatik kanpo eduki baina beraietan establezimendu iraunkorra duten sozietateak badira, edo alderantziz, Ceuta, Melilla edo berauen dependentsietan lortutako etekintzat hartuko da sozietatearen etekin osoaren zatia, haren kapital fiskal osoa lurralde horien barruan edo beraietatik kanpora dagoen establezimendu iraunkorari begira dagoen proportzioaren arabera dena, alegia.*

**79. artikulua. Frogagiriak**

Bat. Aurreko artikuluan araupetu diren kenkariak egiteko badago baldintza bat, kasuan kasuko, Zergaren aitopenearekin batera, eurak frogatzen dituzten agiriak ekarri beharra, alegia.

Bi. Bidezko denetan, frogagiriak, enpresari eta profesionaliek fakturak luzatu eta emateko duten eginbeharra araupetzen duten arauak eskatzen dituzten beharkizunei lotuko zaizkie.

**80. artikulua. Zenbait kenkariaren mugak**

Bat. Foru Arau honetako 78. artikuluko lau eta seigarren ataletan dauden kenkariaren baterako oinarria ezin da subjektu pasiboaren oinarri likidagarriaren 100eko 30a baino handiagoa izan.

Bi. Foru Arau honetako 78. artikuluko 5. ataleko lehen lerroaldeak aipatzen dituen kenkari mugak artikuluko bereko lehen ataletik laugarrenera bitartekoetan, biak barne, adierazten diren kenkarietatik osoa gutxitzetik ateratzen den kuotaren gainean aplikatuko da.

**81. artikulua. Ondare egoeraren egiaztapena**

78. artikuluko laugarren atalean aipatzen diren kenkariak aplikatzeko, a) eta d) letretan aurrikusitakoak izan ezik, zergaldia amaitueran subjektu pasiboaren ondarearen zenbateko egiaztatua zergaldiaren hasieran egiaztapenak emandakoaren balioa baino handiagoa izan behar da, gutxienez, eginak diren inbertsioen zenbatekoan. Honi dagokionez, ez dira balioaren gehikuntza edota urripenak konputatuko, baldin eta zergaldian zehar beronen amaieran zergadunaren ondarea osatzen dirauten ondasunengatik gertatzen badira.

**V. KAPITULUA**

**DIFERENTZIAZKO KUOTA**

**82. artikulua. Nazioarteko ezarpen bikoitzaren ziozko kenkaria**

Bat. Zerga betebeharraren pertsonalaren zioz ordaindu beharra dagoenean, subjektu pasiboaren sarreraren artean atzerrian lortu edota zergapetzen diren

etekinak edo ondare gehikuntzak agertzen direnean, kuota likidotik ondoko kopuruotarik txikiena kenduko da:

a) Etekin edo ondare gehikuntza horien gainean, karga per?sonalaren zioz, atzerrian ordaintzen denaren benetako zenbatekoa.

b) Benetako batezbesteko karga tasa atzerrian zergapetzen den oinarri likidagarriaren zatiari aplikatuz ateratzen den emai?tza.

Bi. Honi dagokionez, benetako batezbesteko karga tasa kuota likidua oinarri likidagarriaz zatituz ateratzen den zatidura 100ez biderkatuz ateratzen den amaizta izango da. Benetako batezbesteko karga tasa dezimal birekin adieraziko

### 83. artikulua. Diferentziazko kuota

Diferentziazko kuota, kuota likidotik aurreko artikuluan ezarritako kenkariaren zenbatekoa, foru arau honetan ezarritako konturako beste ordainketa batzuk eta gardentasun fiskaleko araubidearen menpeko sozietateek ordaindutako kuotaren kontzeptuan egotzitako kopuruak gutxitzetik ateratzen den emaitza izango da.

Atxikipenen eta konturako beste ordainketa horien kenkaria egin ahal izateko, dena dela, horiek agiri bidez frogatu egin behar izango dira zerga honen aitorpenarekin batera.

## VI. KAPITULUA

### TRIBUTU ZORRA

#### 84. artikulua. Tributu zorra

Bat. Tributu zorraren osagaiak, tributu kuota eta, egotekotan, Bizkaiko Herrialde Historikoko Foru Tributu Arau Orokorreko 58. artikuluaen barruan dauden gainerako kontzeptuak izango dira.

Bi. Subjektu pasiboek ordaindu beharra izango dute tributu zorra.

#### 85. artikulua. Subjektu pasiboaren ondare erantzunkizuna

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ziozko tributu zorrak Kode Zibileko 1365. artikulua aipatzen dituen beste horien izaera bera izango dute eta, honenbestez, irabazpidezko ondasunek zuzenean erantzungo dute Foru Ogasunari begira, zor hauek direla eta, baldin eta ezkontideetarik batek hartzen baditu, Foru Arau honetako 89. artikuluko laugarren atalean zerga batera ordaintzen denerako aurrakusten denaren kalterik gabe.

## VIII. TITULUA

### BATERAKO ZERGA ORDAINKETA

#### 86. artikulua. Zerga batera ordaintzea aukera daiteke

Famili unitate baten barruan dauden pertsona fisikoek, edozein zergalditan, aukeratu ahal izango dute Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko

Zerga batera ordaintzen, Zergari buruzko arau orokorren eta honako Titulu honetako xedapenen arabera.

Zerga batera ordaintzeko aukerak ez du ondorengo epealdietarako lotzen.

#### 87. artikulua. Famili unitatea

Famili unitateak dituen modalitateak hauexek dira:

1) Legez bananduta ez dauden ezkontideek eta hurrengoek, baldin eta horrelakorik badago, osatzen dutena:

a) Adingabeko seme-alabek, salbu eta gurasoen baimenaz hauengandik aske bizi direnak.

b) Legez gurasoen ahalgo luzatuari lotuta dauden adin nagusiko seme-alaba ezinduek.

2) Aitak edo amak eta aurreko erregelan aipatu beharkizunak betetzen dituzten seme-alabek osatzen dutena.

Inork ezin izango du aldi berean famili unitate biren kidea izan.

#### 88. artikulua. Aukeraren erabilera

Zerga batera ordaintzeko aukerak famili unitateko kide guztiak eskuhartu behar izango ditu. Beraietarik batek bere aitorpena aurkeztekotan, gainerakoek erregimen bera erabili behar izango dute.

Hasiera batetan zergaldi baterako erabilia den aukera ezin aldarazi izango da ondoren, zergaldi berari begira.

Aitorpenik ezean, subjektu pasiboek banan-banan ordainduko dute zerga, salbu eta aurkakoa beren beregi 10 eguneko epean zehar adierazten badute, Administrazioaren agindeitik zenbatu behar izanaz.

#### 89. artikulua. Baterako zerga ordainketaren elementuak

Bat. Zerga batera ordaintzen denean, subjektu pasiboaren errenta zehazteko, zerga oinarria eta likidagarria zehazteko eta tributu zorra zehazteko dauden Zergari buruzko erregela orokorrak aplikatuko dira, ondorengo artikuluetan ezartzen diren berezitasunekin.

Bi. Foru Arau honetako 92. artikuluan ezartzen denaren kalterik gabe, zerga banaka ordaintzeko ezarri diren zenbatekoak eta kopurumugak zenbateko berean aplikatuko dira baterako zerga ordainketan, famili unitatekideen kopuruaren arabera, ezin handitu edo biderkatuz.

Hiru. Famili unitatearen barruko pertsona fisikoek lortzen dituzten errentetarik edozein, zerga batera ordaintzen aukeratu badute, bata bestearen gainean zergapetuko dira.

Lau. Pertsona horiek batera eta solidario gisa geldituko dira Zergaren menpean, subjektu

pasibo gisa, tributu zorra euren artean laintzeko duten eskubidearen kalterik gabe, beraietarik bakoitzari dagokion zergapeko errentaren zatiaren arabera.

**90. artikulua. Partida negatiboan konpentsazioa**

Bat. Zerga batera ordaintzen denean, Zergari buruzko arau orokorren arabera, etekin irregular negatiboak, ondare urripenak eta oinarri likidagarri negatiboak konpentsatu ahal izango dira, baldin eta famili unitatekide diren subjektu pasiboak egin arren, zerga banaka ordaindu duten zergaldietan konpentsatu ez badute.

Bi. Baterako zerga ordainketan zehaztutako kontzeptu berdinak bakarrik konpentsatu ahal izango dituzte subjektu pasiboek zerga ondoren banaka ordaintzen dutenean, baldin eta Foru Arau honetan errentak bakoitzari esleitzeko dauden erregelen arabera badagokie.

**91. artikulua. Zergako eskala**

Zerga batera ordaintzen denean, ezar daitekeen karga tasen eskala honako hau izango da:

Oinarri likidakorra hurrengo pezeta kopururaino	Kuota osoa pezetatan	Gainerako oinarri likidakorra hurrengo pezeta kopururaino	Ezar daitekeen tasa Portzentaia
882.000	0	1.316.000	20,00
2.198.000	263.200	902.000	24,50
3.100.000	484.190	1.200.000	29,00
4.300.000	832.190	1.250.000	33,00
5.550.000	1.244.690	1.300.000	37,00
6.850.000	1.725.690	1.300.000	41,00
8.150.000	2.258.690	1.300.000	45,00
9.450.000	2.843.690	1.300.000	50,00
10.750.000	3.493.690	1.350.000	53,00
12.100.000	4.209.190	hortik gora	56,00



**92. artikulua. Erregela bereziak zerga batera ordaintzekotan**

Bat. Honako Foru Arau honetako 35. artikuluko B) letran aurrikusten den gehienezko muga, ohizko etxebizitza eskuratzeko edo hobetzeko inbertitzen diren besteren kapitalen korrituak ken?tzeari dagokionez, 1.000.000 pezetakoa izango da urtean.

Bi. 78. artikulua hiru hiru ataleko a) letrak aipatzen duen zerga oinarriaren muga urteko 5.000.000 pezetakoa izango da.

Hiru. Foru Arau honetako 78. artikuluko hiru hiru ataleko b) letrak aipatutako etekin garbien muga 3.000.000 pezetakoa izango da urtean.

Lau. Menpeko lan etekinak hartzearen ziozko kenkaria 27.000 pezetakoa izango da famili unitatean etekin mota hau duen hartzaile bakoitzeko.

Bost. Foru Arau honetako 78. artikuluko hiru hiru ataleko c) letrak aipatutako etekin garbien muga 3.600.000 pezetakoa izango da urtean.

Sei. 71. artikuluko 1. zenbakiaren b) letran oharrematen den zerga oinarriaren txikipeanaren gorenko muga, famili unitatean integraturiko partaide bakoitzak aplikatuko du.

**IX. TITULUA**

**ZERGALDIA ETA ZERGAREN SORTZAPENA**

**93. artikulua. Zergaldia eta zergaren sortzapena**

Zergaldia egutegiko urtekoa izango da eta Zerga urtean urteko abenduaren hogeitamaikan sortuko da, ondorengo artikuluan aurrikusten denaren kalterik gabe.

**94. artikulua. Egutegiko urtekoa baino laburragoa den zergaldia**

Bat. Zergaldia egutegiko urtekoa baino laburragoa honako kasuetan izango da:

a) Subjektu pasiboak zerga banaka ordaintzen badu, bera abenduaren hogeitamaikan ez beste edonoiz hiltzeagatik.

b) Subjektu pasiboek zerga batera ordaintzen badute, ezkontza desegin edo deuseztatzeagatik, ezkontza judizioko epaiaren bidez banantzeagatik, edo banandutako edo ezkondu gabeko aita edo ama hiltzeagatik.

c) Subjektu pasiboa Kode Zibileko xedapenen arabera ezkontzen denean. Orduan, zergaldia geldierazteko, beharrezkoa izango da senar-emazteek zerga batera ordain dezatela ezkonduakoa.

Bi. Aurreko atalean aurrikusitako balizkoetan, zergaldia, Zerga sortuta, berean adierazten diren inguruabarrak gertatzen direnean amaituko da. Une horretan hasiko da beste zergaldi

bat, subjektu pasiboek dituzten baldintza berrien arabera, abenduaren 31n amaituko bait da, baldin eta egun hori baino lehen gorago aipaturiko inguruabarretarik baten bat berriro gertatzen ez bada.

Hiru. Foru Arau honetako 78. artikuluko lehen atalean, hirugarreneko c) letran eta zazpigarreneko c) letran araupetutako kuotatikako kenkariak, aplikagarriak direnean, zergaldia osatzen duten egutegiko urteko egunen kopuruaren proportzioaren arabera txikituko dira.

Lau. Zerga batera ordaintzekotan, jaraunselek eta legatu-hartzaileek solidario gisa erantzungo dute famili unitateko subjektu pasibo aurrerabizitarrakin, Foru Ogasunari begira, eta berauekin kausatzailearen lekua beteko dute, Foru Arau honetako 89. artikuluan araupetutako lainketari dagokionez.

**95. artikulua. Familiaren egoeraren zehaztapena**

Famili unitateko kideak eta, Foru Arau honetako 78. artikuluan ezarritakoari dagokionez, kontutan hartu behar diren inguruabar pertsonal eta familiarak zehazteko, Zergaren sortzapen datan dagoen egoerari begira egingo da.

**X. TITULUA**

**ZERGAREN KUDEAKETA**

**96. artikulua. Aitortu beharra**

Bat. Zerga honen aitortzea aurkeztu eta sinatu behar dutenak, arau bidez ezartzen diren muga eta baldintzekin, honako hauek izango dira:

a) Betebehar pertsonalaren ziozko subjektu pasiboak.

b) Ondasun-betebeharraren ziozko subjektu pasiboak.

Bi. Hala ere, zerga betebehar pertsonalaren zioz ordaindu behar duten subjektu pasiboek, urteko 1.200.000 pezeta gordin baino gutxiagoko errentak lortzen dituztenean, ez dute aitortzen egin behar izango, beti ere hurrengo iturrietakoak bakar-bakarrik direnean:

a) Lan etekinak eta berdinetsitakoak, enpresa edo lanbide etekinak ez badira.

b) Zergaren menpeko higikorren kapitalaren etekin eta ondare gehikuntzak, biek batera urteko 250.000 pezeta gordin gainditzen ez badute.

Aitortzeko betebeharraren mugari dagokionez, subjektu pasiboaren edo, kasuan kasuko, famili unitatearen ohizko egoitza den etxebizitzaren etekinak ez dira kontutan hartuko.

Pentsioak edo hartzeko pasiboak direnean, atal honetako lehen lerroaldeak aipatzen duen muga **1.250.000** pezetakoa izango da.

Hiru. Zerga batera ordaintzen denean, aurreko ataleko lehen lerroaldean aipatu den aitortu beharraren **1.250.000** pezetakoa izango da.

Lau. Ogasun eta Finantzen Foru Diputatuak aitortzeko modalitate erraztuak edo bereziak erabil daitezzen onetsi ahal izango du.

Aitorpena Ogasun eta Finantzen Foru Diputatuak ezarriko dituen era, epe eta inprimaketan egingo da.

Subjektu pasiboek aitorpenetan egon eta eurei dagozkien datu guztiak bete behar izango dituzte, ezarritako edo ezar daitezkeen agiri eta frogagiriak erantsi eta Ogasun eta Finantzen Foru Diputatuak ezartzen dituen tokietan aurkeztu.

Bost. Zerga batera aitortzen denean, adin nagusiko famili unitatekideek sinatu eta aurkeztuko dute, beraren barruko adin guztxikoen ordezkari gisa ihardungo bait dute, Foru Tributuei Arau Orokorreko 44. artikuluan araberako.

### **38. artikulua. Aitortu beharra.**

**Bat.** Zerga honen aitorpena aurkeztu eta sinatu behar dutenak honako hauek izango dira:

a) Betebehar pertsonalaren ziozko subjektu pasiboak.

b) Ondasun-betebeharraren ziozko subjektu pasiboak.

**Bi.** Hala ere, zerga betebehar pertsonalaren zioz ordaindu behar duten subjektu pasiboek, urteko milioia pezeta gordin baino gutxiagoko errentak lortzen dituztenean, ez dute aitorpenik egin behar, beti ere hurrengo iturburuetakoak bakar-bakarrik direnean:

a) Lan etekinak eta berdinetsitakoak, berauek enpresa edota lanbide etekinak ez badira.

b) Zergaren menpeko higagarrien kapitalaren etekin eta ondare gehikuntzak, biek batera urteko berrehun eta berrogeitamar mila pezeta gordin gainditzen ez badituzte.

Aitortzeko betebeharraren mugari dagokionez, subjektu pasiboaren edo, kasuan kasuko, famili unitatearen ohizko egoitza den etxebizitzaren etekinak ez dira kontutan hartuko.

Pentsioak eta hartzeko pasiboak direnean, atal honetako lehen lerroaldeak aipatzen duen muga milioia eta berrehun mila pezetakoa izango da.

Aurrekoa gorabehera, aitorpena aurkeztu behar izango da, kontura egindako ordainketen ziozko itzulketak lortzeko.

**Hiru.** Zerga batera ordaintzen denean, aurreko ataleko lehen lerroaldeak aipatzen duen aitortu beharraren milioia eta berrehun mila pezetakoa izango da.

**Lau.** Ogasun eta Finantzen foru diputatuak aitortzeko modalitate erraztuak edo bereziak erabil daitezzen onetsi ahal izango du.

Aitorpena Ogasun eta Finantzen foru diputatuak ezarriko dituen era, epe eta inprimaketan egingo da, eta hark ordenagailuz irakur daitezkeen euskarrien erabilpenerako eskuespena eman ahal izango du.

Ogasun eta Finantzen foru diputatuak, bidezko arrazoiak daudenean, aitorpena egiteko epe bereziak ezarri ahal izango ditu, zergadunetarik zati batentzat, edo adierazten dituen lurraldeetarako.

Subjektu pasiboek aitorpenetan egon eta eurei dagozkien datu guztiak bete behar izango dituzte, ezar daitezkeen agiri eta frogagiriak erantsi eta Ogasun eta Finantzen foru diputatuak ezartzen dituen tokietan aurkeztu.

**Bost.** Zerga batera aitortzen denean, adin nagusiko famili unitatekideek sinatu eta aurkeztuko dute, beraren barruko adin gutxiagoko ordezkari gisa ihardungo bait dute, Tributuei buruzko Foru Arau Orokorreko 44. artikuluan araberako.

### **97. artikulua. Autolikidazioa**

**Bat.** Subjektu pasiboek, euren Zerga aitorpena aurkeztueran, euren tributuei zorra zehaztu behar dute eta Ogasun eta Finantzen Foru Diputatuak zehazten dituen toki, era eta epeetan sartu.

**Bi.** Autolikidaziotik ateratzen den zenbatekoaren sarrera zatitu ahal izango da, arau bidez zehazten den bezala.

**Hiru.** Tributuei zorra ordaindu edota eskubideak emanez ordaindu ahal izango da, Foru Tributuei Arau Orokorreko 59. artikuluko 1. ataleko bigarren lerroaldean aurrikusi bezala.

### **39. artikulua. Autolikidazio eta sarrera.**

**Bat.** Subjektu pasiboek, euren Zerga aitorpena aurkeztueran, euren tributuei zorra zehaztu behar dute eta Ogasun eta Finantzen foru diputatuak zehazten dituen toki, era eta epeetan sartu.

**Bi.** Autolikidaziotik ateratzen den zenbatekoaren sarrera bi zatitan banatu ahal izango da inolako korritu edo errekargurik gabe: lehenengoan, haren zenbatekoaren ehuneko hirurogeikoa, aitorpena

*aurkeztueran, eta bigarreanean, gainerako ehuneko berrogeia, aurreko atalean ezarritakoaren arabera zehazten den epean.*

*Onura hau edukitzeko, aitorpena ezarritako epearen barruan aurkeztu behar izango da.*

*Hiru. Tributu zorra ondasun edota eskubideak emanaz ordaindu ahal izango da, Tributuei buruzko Foru Arau Orokorreko 59. artikuluko 1. ataleko bigarren lerroaldean aurrikusi bezala.*

#### **98. artikulua. Atxekipenak eta kontura egiten diren beste ordainketak**

Bat. Pertsona juridiko eta entitateek, ondasun erkidegoak eta jabeenak barne, Zerga honen menpeko errentak ordaindu edo abonatzen dituztenean, atxeki beharra izango dute, kontura egiten den ordainketa gisa, arau bidez zehazten den kopurua, bai eta haren zenbatekoa Foru Ogasunean sartu beharra ere, Kontzertu Ekonomikoan aurrikusten diren kasuetan eta arau bidez ezartzen den bezala. Enpresari gizabanakoek eta profesionaliek ere dute atxeki eta sartu beharra, euren enpresa eta lanbide iharduerak egitean ordaindu edo abonatzen dituzten errentei dagokienez, bai eta pertsona fisiko, juridikoek eta egoitza espainiar lurraldean ez duten gainerako entitateek ere, euren eragiketak bertan establezimendu iraunkor baten bitartez egiten badituzte.

**Bi. Zerga honen konturako atxikipenak egin behar zaizkien kopuruen jasotzaileak, sortutako kontraprestazio osoaren zioz konputatuko ditu kopuru horiek.**

**Atxikipena egin ez denean edo behar zen zenbatekoko atxikipena baino gutxiagoa egin denean, jasotzaileak berez atxiki behar zitzaion kopurua kenduko du kuotatik.**

**Sektore publikoak ordaindutako legez ezarritako kenkariak direnean, horrelakoetan benetan atxikitako kopuruak bakarrik kendu ahal izango ditu jasotzaileak.**

**Sortutako kontraprestazio osoa ezin denean frogatu, zerga-administrazioak kopuru bat hartu eta horri bidezko atxikipena kendu ostean benetan jasotako kopurua gertatzen dela ikusirik, kopuru hori zenbateko oso legez konputatu ahal izango du. Horrelakoetan, benetan jasotakoaren eta zenbateko osoaren arteko diferentzia kenduko da kuotatik, konturako atxikipen legez.**

Hiru. Zerga zenbait alditan ordaindu ahal izango da, bai eta zatitu ere, beharrezko denean, ordaindu beharra dutenak subjektu pasiboak edo artikulua honetako lehen atalak aipatzen dituen pertsona edo entitate horiek egongo dira; gainera, haren zenbatekoa autolikidatu eta sartu beharko dute, arau bidez zehazten den bezala.

#### **Kontura egiten diren ordainketak**

#### **40. artikulua. Kontura egiten diren ordainketak.**

*Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, kontura egiten diren ordainketak honako hauek izango dira:*

- a) Atxekipenak.
- b) Kontura egiten diren sarrerak.
- c) Zatikako ordainketak.

#### **1go. saila. Atxekipenak eta kontura egiten diren sarrerak. Arau orokorrak.**

#### **41. artikulua. Atxikipenak eta kontura egiten diren sarrerak**

*Bat. Pertsonak edota araudi honetako 42. artikuluan ageri diren entitateek, 43. artikuluan ezarritako errentak ordaindu edo abonatzen dituztenean, kapitulu honetako arauen arabera bidezko den zenbatekoa atxiki eta Foru Ogasunean sartu beharra dute, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kontura egiten den ordainketa gisa.*

*Etekin inplizitudun finantza aktiboek eskualdaketa eragiketetan ere atxiki beharra dago, arau honetan ezarritako baldintzetan.*

*Bi. Errenta horiek gauzaz ordaindu edo abonatzen direnean, aurreko atalean aipatutako pertsona nahiz entitateek sarrera egin beharra dute, hartzaileari dagokion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kontura egiten den ordainketa gisa, kapitulu honetako arauen arabera.*

*1997ko apirilaren 25etik aurrera indargabeturik geratzen dira ekainaren 10eko 80/1997 FDaren indarrez.*

*Zergari buruzko Foru Araueko 7 eta 8. artikuluetan aurrikusitako balizkoetan ere egin behar izango da konturako sarrera.*

*Hiru. Araudi honetan ezarritakoari dagokionez, atxikitzailea aipatzen denean, konturako sarrera egin beharra duena ere aipatuzat joko da, konturako ordainketak batera araupetzen direnean.*

#### **42. artikulua. Atxeki eta kontura sartu beharra dutenak.**

*Bat. Atxikipenak edo konturako sarrerak egin beharko dituztenak hauexek dira:*

a) *Pertsona juridikoak eta gainerako erakundeak, jabeen erkidegoak eta errenta-eratzikipeneko araubideko erakundeak barne izanik.*

b) *Gizabanako enpresariak eta profesionariak, errentak euren jardueren egineran ordaindu edo abonatzen dituztenean.*

c) *Egoitza espainiar lurraldetik kanpo duten pertsona fisiko, juridiko eta gainerako erakundeak, hartan establezimendu iraunkorraren bitartez eragiten badute.*

d) *Ondasun-betebeharraren ziozko subjeto pasiboak, Espainian, ordaintzen dituzten lan etekinak direla eta, establezimendu iraunkorrik gabe eragiten badute.*

*Bi. Pertsona edo erakunde bat ez da ordaintzailatzat joko, ordainketa egiteko bitartekaritza hutsa baino egiten ez duenean.*

*Ordainketa bitartekaritza hutsa, izatez, abonamendua gainontzeko baten kontura eta aginduz egitea izango da.*

*Ez dira ordainketa bitartekaritza hutsa izango jarraian zehaztuko diren eragiketak. Honenbestez, aurreko atalean adierazitako pertsona eta erakundeek hurrengo balizkoetarikoren bat gertatzen denean atxikipena edo konturako sarrera egin beharra izango dute:*

*- Espainiar lurraldeko egoiliarren jabetzako baloreen gordailuzainak direnean edo euren ardurapean balore horiek sortutako korrituen kobrantza-kudeaketa dutenean, beti ere errenta horiek aurretik Espainian atxikipenik jaso ez badute.*

*- Euren langileei Gizarte Segurantzaren konturako prestazioak ordaintzen dizkietenean.*

*- Euren langileei gainontzekoren batek, eskupeko, zerbitzuaren ziozko ordainketa edo antzekoen kontzeptuan emandako kopuruak ordaintzen dizkietenean.*

*- Nekazaritzako kooperatibak izanik, bazkideen ustategietatik etorritako produktuak banatu edo merkaturatzen dituztenean.*

#### **43. artikulua. Atxikipenpeko edo konturako sarrerapeko errentak.**

*Bat. Atxikipenean edo konturako sarrerapean, kasuan kasu, ondoko errenta hauek egongo dira:*

a) *Lan etekinak.*

b) *Higiezinaren kapitalaren etekinak, enpresa jardueretik loturagatik eratorritakoak barne.*

c) *Lanbide jardueren etekinak.*

d) *Joko, lehiaketa, zozketa edota ausazko konbinazioetan parte hartzearen zioz ematen diren sariak, zenbait ondasun, ekoizkin edo zerbitzuren eskaintza, sustapen edo salmentari loturik egon edo ez, aurreko b) letra dela bide, atxikipenean edo konturako sarrerapean dauden higiezinaren kapitalaren etekinak direnean izan ezik.*

e) *Nekazaritza edo abeltzaintza jardueren etekinak.*

*1997ko apirilaren 25etik aurrera leerroalde hauek gaineratzen dira ekainaren 10eko 80/1997 FDaren indarrez.*

*f) Finantza entitate batek, bere titulartasuneko kreditu bat eskualdatu, laga edo guztiz nahiz zati batean transferentzia egiteagatik, gainontzeko bati ordaindutako higiezinaren kapitalaren etekinak.*

*g) Zergari buruzko foru arauko hamargarren xedapen gehigarrian aipatu Estatuaren Zorren baloreen gaineko eragiketarako kupoi korrituaren pareko prezioaren zatia.*

*h) Zergari buruzko foru arauko 1996rako Premiazko Zerga Neurriei buruzko otsailaren 8ko 1/1994 Foru Dekretu Arauemailearen xedapen gahigarri bakarrean aipatu balore eskualdaketatako kupoi korrituaren pareko prezioaren zatia.*

*i) Egoitza espainiar lurraldean duten pertsona fisikoek Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 9. artikuluan eta abenduaren 27ko 43/1995 Legeko 9. artikuluan aipatu entitateei egindako etekin esplizitudun Estatuaren Zorren baloreen eskualdaketatik, kupioa mugaeguneratu baino lehenagoko berehalaxeko hogeita hamar eguneko epearen barruan eginda direnean eta eskualdaketa Espainiako Banketxeak egin ez badu, kupoi korrituaren pareko prezioaren zatia. Eskualdaketa parte hartu duen Idaztoharretako Zor Publikoaren merkatuko entitate kudeatzaileak egingo du konturako atxikipena.*

*Bi. Jarraiko egoeretan ez da zertan ere atxikipenik edo konturako sarrerarik egin behar izango:*

a) *Zergari buruzko foru arauko 9. artikulua aipatu errentsa salbuetsiak.*

b) *Altxorrek nahiz Espainiako Bankuak jaulki eta moneta merkaturatu esku hartzeko tresna araupetzailerik diren baloreen etekinak, ez-egoiliarrentzako harpidetza eskubideen eta Altxorren letren zerga*

tratamendua araupetu zuen martxoaren 22ko 1/1989 Erret Dekretu-legeko 2. artikuluan ezarritakoa izan ezik.

c) Espainiako Bankuak eta bankuek, aurrezki kutxek, baseritarren kutxek eta kreditu kooperatibek egoitza Espainian ez dutenei ordaintzen dizkieten atzerriko moneten gordailuen etekinak, ordainketa establezimendu iraunkorraren bitartez, edo horrek eskuordetutako eginkizunak dituen gainerako establezimendu baten bitartez egiten denean izan ezik.

d) Sozietatearen kapitala ordezkatzan duten baloreak balore burtsan negoziatzeko onartuta dauden higikorretako inbertsio sozietateek banatutako dibidendoak, baldin eta egoitza Europako Elkartearen barruko beste herrialde batean dutenenek jasotzen dituztenean.

e) Inbertsio fondoetako partaideei banatutako emaitzak, aurreko letrako baldintza berekin.

f) Zerga ondasun-betebeharraren zioz ordaindu behar izan eta establezimendu iraunkorrik gabe eragiten duten subjektu pasiboei ordaindu edo abonatuak etekinak zerga ordainduta dagoela benetkatzen denean.

g) Zori, enbido edo adur jokoak eta apostuen zigor, administrazio eta zerga mailako arazoak araupetu zituen otsailaren 25eko 16/1977 Erret Dekretu-legean xedatutakoaren itzalpean antolatutako jokoan ondorioz emandako sariak. Ez da zertan ere atxikipenik edo konturako sarrerarik egin behar izango aurreko ataleko d) letran aipatu sarien gainean, sari horren zenbatekoa 100.000 pezetakoa baino gehiagokoa ez denean, baldin eta eskudiruz ematen bada edo, gauzaz ematen bada, eskuraketa edo kostuaren balioak adierazitako zenbatekoa gainditzen ez badu.

h) Zerga hori buruzko foru arauko 44. artikuluko laugarren ataleko d) letrak aipatu higikorren kapitalaren etekinak.

i) Obligazioak akzio bihurtzearen ziozko primak, higikorren kapitalaren etekintzat jotzen direnean.

1997ko apirilaren 25etik aurrera idazkera berria ematen da ekainaren 10eko 80/1997 FDaren indarrez.

Bi. Ez da zertan ere atxikipenik edo konturako sarrerarik egin behar ondoko errentak direnean:

a) Zergari buruzko foru arauko 9. artikuluan aipatu errenta salbuetsiak.

b) Espainiako Banketxeak jaulkitako baloreen etekinak, moneta merkatuan kontu hartzeko tresna araupetzailea direnean, *Altxorren Letren etekinak eta*

*Foru Aldundiak jaulkitako bestelako tituluen etekinak, Foru Aldundiak beren beregi horrelakotzat adierazi baditu.*

c) Egoitza espainiar lurraldean ez duten pertsona fisikoei ordaindutako ez-egoiliarren kontuen etekinak, ordainketa Espainiako Banketxeak, eta kanpoarekiko ekonomi transakzioei buruzko arautegian aipatu gainerako entitate erregistratuek, Espainian iraunkorki kokatutako establezimendu bati egin dizkietenak izan ezik.

d) Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko abenduaren 26ko 46/1984 Legean araupetutako Inbertsio Kolektiboko Erakundeek banatutako errentak, egoitza Europar Batasuneko kideak diren beste Estatu batzuetan duten pertsonak jaso dituztenean karga tasa bereziaren ziozko zergen ordainketa egin behar dutenak.

e) Zerga ondasun-betebeharraren zioz ordaindu behar izan eta establezimendu iraunkorrik gabe eragiten duten subjektu pasiboei ordaindu edo abonatuak zaizkien etekinak, zerga ordainduta dagoela egiaztatzen denean.

f) Otsailaren 25eko 16/1977 Errete Dekretu-legean, zeinek zori, enbido edo adur eta apostu joko eta apostuen alderdi penal, administratibo eta fiskalak araupetu baizituen, ezarritakoaren itzalpean antolatutako jokoan ondorioz ematen diren sariak. Ez da ezertan ere atxikipenik edo konturako sarrerarik egin behar aurreko d) letran aipatu sarien gainean, berauen zenbatekoa ehun mila pezeta baino gehiagokoa ez denean, baldin eta eskudiruz eman bada, edo eskuraketa edo kosuaren balioa zenbateko hori baino handiagoa ez bada, gauzaz egiten denean.

g) Zergari buruzko foru arauko 44. artikuluko laugarren ataleko d) letran aipatu higikorren kapitalaren etekinak.

h) Obligazioak akzio bihurtzearen ziozko primak, higigarrien kapitalaren etekintzat jotzen direnean.

i) Egoitza Espainian duten finantzetako kreditu etxe eta finantza-establezimenduen atzerriko establezimendu iraunkorrek ordaindu edo abonatuak kanpoko kontuetako etekinak.

j) Entitate batek gardentasun fiskaleko araubidearen barruko zergaldietan zegoela lortutako mozkinetako dibidendu edo partaidetzak, egoitza espainiar lurraldean ez duten bazkideenak direnak izan ezik.

#### 44. artikulua. Atzekipenaren edo konturako sarreraren zenbatekoa.

**Bat.** Ordaindu edo abonatzen den zenbateko osoari ondorengo sailean aurrikusiko denaren arabera egokia den portzentaia aplikatetik ateratzen den emaitza izango da atzekipenaren zenbatekoa.

**Bi.** Gauzazko ordainketen zioz kontura egin behar den ordainketaren zenbatekoa haien balioari, araudi honetan dauden arauen arabera zehaztuta, ondorengo 3gn. saileko 1go. azpisailean aurrikusitakoaren arabera egokia den portzentaia aplikatetik ateratzen den emaitza izango da.

1997ko apirilaren 25etik aurrera indargabeturik geratzen da ekainaren 10eko 80/1997 FDaren 4. artikulua indarrez.

**Hiru.** Zergari buruzko Foru Araueko 7 eta 8. artikuluetan xedatutakoa aplikatu beharra dagoenean, atzekipena edo konturako sarrera ezin da aipatutako artikuluen arabera finkatzen den etekinaren gainean kalkulaturik baino txikiagoa izan.

Aurrekoaren ondorioz, teoriarik sartu behar den zenbatekoa benetako etekina baino handiagoa denean, zordunak benetako etekinaren gaineko atzekipena egingo du.

Gehigarri gisa, zordunak kontura sarrera bat egingo du, gutxienezko etekinaren eta benetako etekinaren arteko diferentziaren gainean kalkulaturik.

Sarrera hau ez da ordaintzailearentzat fiskoaren aldetik kengarri den gastua izango.

Benetako etekinik ezean, gutxienezko etekinaren gainean bakarrik egin ahal izango da sarrera kontura.

#### 2gn. saila. Atzekipenak

##### 1go. azpisaia. Lan etekinak

#### 45. artikulua. Lan etekinen gaineko atzekipenak.

Lan etekinen gainean egin behar den atzekipena emaitza bat izango da, zein ordaintzen den etekin osoari ondokoetarik egokia den portzentaia aplikatetikoa den:

1. Orohar, subjektu pasiboaren etekinen eta beraren inguruabarren zenbatekoaren arabera ondorengo artikuluan dauden taula eta jarraipideen arabera aplikagarri dena.

2. Administrazio kontseiluetako edo haien ordezkari batzuetako kideen ordainketak direnean, atzekipenaren portzentaia ehuneko hogeitamarrekoa da.

#### 46. artikulua. Atzekipen portzentaia taula eta hura aplikatzeko erregelak.

**Bat.** Atzekipen portzentaia taula.

Urteko atzekipenaren zenbatekoa	Seme-alaba eta ondorengo kopurua									
	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9
Pezeta	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1.071.300 artekoa	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
1.071.300dik gora	2	0	0	0	0	0	0	0	0	0
1.178.430etik gora	3	1	1	0	0	0	0	0	0	0
1.285.560tik gora	6	4	3	1	0	0	0	0	0	0
1.392.690etik gora	7	6	4	3	1	1	1	0	0	0
1.499.820tik gora	8	7	5	3	3	2	1	1	0	0
1.714.080tik gora	10	9	7	6	5	4	3	1	1	1
1.928.340tik gora	12	11	10	9	8	6	5	4	3	3
2.142.600dik gora	14	13	12	11	10	8	7	6	5	5
2.356.860tik gora	15	14	13	12	11	10	8	7	7	7
2.678.250etik gora	17	15	15	14	13	12	11	9	9	9
2.999.640tik gora	18	17	16	15	14	13	13	12	10	10
3.428.160tik gora	19	18	17	17	16	15	14	14	13	13
3.856.680tik gora	20	19	19	18	17	17	16	15	15	15
4.285.200dik gora	21	20	20	20	19	19	18	17	16	16
4.927.980tik gora	23	22	22	21	21	20	19	18	18	18
5.570.760tik gora	25	24	24	23	23	22	21	20	19	19
6.427.800dik gora	26	25	25	24	24	24	23	22	22	22
7.499.100dik gora	28	27	27	26	25	25	25	25	24	24
8.570.400dik gora	31	30	30	29	28	28	28	27	26	26
9.641.700dik gora	33	32	32	31	31	30	30	29	28	28

10.713.000tik gora	35	34	34	34	33	33	32	32	32
12.855.600dik gora	38	37	37	37	37	36	36	36	35
14.998.200dik gora	41	40	40	40	40	39	38	38	37
17.140.800dik gora	44	42	42	42	42	41	40	40	39
19.283.400dik gora	46	45	45	45	44	44	44	44	43
21.426.000tik gora	47	46	46	46	46	46	46	45	45

1997ko otsailaren 1etik aurrera

<b>Urteko atxikipenaren zenbatekoa</b>	<b>Seme-alaba eta ondorengoen kopurua</b>								
	<b>0</b>	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>	<b>6</b>	<b>7</b>	<b>8</b>
<b>Pezetatan</b>									
1.210.000 artekoa	0	0	0	0	0	0	0	0	0
1.210.000tik gora	3	1	1	0	0	0	0	0	0
1.320.000tik gora	6	4	3	1	0	0	0	0	0
1.430.000tik gora	7	6	4	3	1	1	1	0	0
1.540.000tik gora	8	7	5	3	3	2	1	1	0
1.760.000tik gora	10	9	7	6	5	4	3	1	0
1.980.000tik gora	12	11	10	9	8	6	5	4	0
2.200.000tik gora	14	13	12	11	10	8	7	6	1
2.420.000tik gora	15	14	13	12	11	10	8	7	3
2.750.000tik gora	17	15	15	14	13	12	11	9	5
3.080.000tik gora	18	17	16	15	14	13	13	12	7
3.520.000tik gora	19	18	17	17	16	15	14	14	9
3.960.000tik gora	20	19	19	18	17	17	16	15	11
4.400.000tik gora	21	20	20	20	19	19	18	17	11
5.060.000tik gora	23	22	22	21	21	20	19	18	14
5.720.000tik gora	25	24	24	23	23	22	21	20	16
6.600.000tik gora	26	25	25	24	24	24	23	22	19
7.700.000 tik gora	28	27	27	26	25	25	25	25	22
8.800.000tik gora	31	30	30	29	28	28	28	27	23
9.900.000tik gora	33	32	32	31	31	30	30	29	25
11.000.000tik gora	35	34	34	34	33	33	32	32	31
13.200.000tik gora	38	37	37	37	37	36	36	36	34
15.400.000tik gora	41	40	40	40	40	39	38	38	36
17.600.000tik gora	44	42	42	42	42	41	40	40	38
19.800.000tik gora	46	45	45	45	44	44	44	44	43
22.000.000tik gora	47	46	46	46	46	46	46	45	45

**Bi.** Taula aplikatzeko erregela orokorrak.

1. Taula aplikatzeko kontutan hartu beharreko seme-alaben eta bestelako ondorengoen kopurua, Zergari buruzko Foru Araueko 78. artikuluko lehen ataleko a) letran aurrikusitako kenkari eskubidea dutenena izango da. Honi dagokionez, familiaren egoera egutegiko urte bakoitzaren lehenengo egunean, edo harremanak hasten direnean, hauek orduz gero hasiak badira, dagoena izango da.

2. Taula aplikatzeko kontutan hartu beharreko ordainketen kopurua subjektu pasiboak egutegiko urtean zehar, arauen edo kontratuetako hizpaketen eta aurrikus daitezkeen gainerako inguruabarren arabera, hartu ohi duen hartukizun osoaren arabera zehaztuko da.

Urteko hartukizun osoak ordainketa finkoak bezala aurrikus daitezkeen aldagarriak hartuko ditu, zeinen zenbatekoa aurreko urtean zehar lortutakoena baino txikiagoa ezin bait da izan, baldin eta haien txikiak nabaria egongo dela agertarazten duten inguruabarrak ez badaude.

Urteko hartukizun osoa zehazteko, ez dira gauzako ordainketak kontutan hartuko, araudi honetako 53. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

Aurreko ordainketen barruan, etekin irregulartzat har daitezkeen baten bat badago, atxikipen portzentaia kalkulatzeko, haren zenbatekoa sorterazpen urteen kopuruaz zatitzetik ateratzen den zatidura bakarrik zenbatuko da.

3. Honela zehazten den atxikipen portzentaia abonatu edo ordaintzen diren ordainketa guztiei aplikatuko zaie, berauek zehaztutako oinarri izan zirenak ez bezalakoak badira ere.

Hala ere, urtebetekoa baino laburragoa den kontratuan edo harremanetan hasieran aurrikusitako epealdia amaitzean, langilea bere zerbitzuak enplegatzaile berari ematen jarraitzen bazaio, edo egutegiko urtearen barruan egiteari berriro ekiten bazaio, beste portzentaia bat kalkulatu da, lehenago ordaindutako ordainketak bezala hartu ohi dituenak kontutan hartuta, baina beti egutegiko urte berberaren barruan.

Salbuespen gisa, izaera orokorreko arauak edo talde hitzarmenak direla bide, urtean zehar



ordainketen zenbatekoan aldakuntzak gertatzen direnean, beste portzentaia bat kalkulatu da, gertatuak diren aldakuntzak kontutan hartuta. Beste portzentaia hau aldakuntza horiek gertatzen diren egunaz gero bakarrik aplikatuko dira.

4. Aurreko ataletan xedatutakoaren ondorioz gertatu atzekipen-portzentaia, izakera askeko lan harremanen ondoriozko etekinak direnean, ezin izango da 100eko 15ekoa baino txikiagoa izan, ezta 100eko 2koa baino txikiagoa ere urtebete baino laburragoko kontratu edo harremanak direnean.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa ez zaie ezarriko zigorra presondegietan betetzen ari direnek bertan lortutako etekinei.

**Hiru.** Taula aplikatzeko erregela bereziak.

1. Pentsioak eta hartzeko pasiboak direnean, seme-alaba bakarra duten zergadunei dagokien taulako zutabeko atzekipen portzentaia aplikatuko dira.

Aplikatu behar den atzekipen portzentaia zehazteko bakar-bakarrik, pentsiodun edo hartzeko pasiboen titular gisa, izaera hori ekitaldian zehar lortzen dutenek hartzen dituzten kopuruak urte osoan zehar izan bailiran egokituko lirateke.

Hala ere, subjektu pasiboak atzekipenen taula orokorra aplikatzeko aukeratu ahal izango du, bere inguruabarrak zelakoak diren kontutan hartuta, urte osokoak bailiran hartu behar ez direlarik.

2. Esku-langileek euren ordainketak gizalanka edo eguneko lansarika, enplegatzailearekin dituzten harremanak noizean behingoak eta eguneangoak dituztelako, hartzen dituztenean, taula egokia aplikatzeko kontutan hartu beharreko ordainketen kopurua, hartzen den gizalan edo eguneko lansariaren zenbatekoa ehunez biderkatuz, ateratzen den emaitza izango da.

3. Arrantzuntzietako alokairupekoek jasotzen dituzten hartukizunetarako, berauek, osorik edo zati batez, harrapatutako arrantzaren balioko partaidetza direnean, atzekipenaren portzentaia honako erregela hauen arabera finkatuko da:

1go. Gutxienezko alokairu bermatuak ezezik, harrapatutako arrantzaren balioaren gainean partaidetza ere hartzen bada, ordenantzetan eta talde hitzarmenetan aurrikusitako gutxienezko alokairu bermatuaren urteko zenbatekoaren arabera. Arrantza portu ezberdinetan uanean une indarrean dauden gutxienezko alokairu bermatuak koefiziente batzuz biderkatuko dira, honako taula honetan dauden kategorien arabera:

Kontzeptuak

Koefizienteak

Titulua duela nahiz ez duela, arrantzako praktikari eginkizuna betetzen duena, arrantzako patroire deitua: 4,00

Untzia erabili nahiz berean iharduki edo agintzeko nahikoa den titulazioa izan eta makinaren ardura duen pertsona (itsasoko makinari-burua edo burutza duen itsasoko mekanikari nagusia): 3,00

Untziak erabiltzeko beharrezko den titulazioa duten gainerako ofizialak: 2,00

Untzi barruko gainerako lagunak: 1,50

2gn. Alokairu egitura harrapatutako arrantzaren balioko partaidetzak bakarrik osatzen badu, Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzaren Erregimen Bereziaren testu bategina den abuztuaren 30eko 2864/1974 Dekretuan ezarritakoari dagokionez, zenbatetsitako urteko ordainketen arabera.

3gn. Emaitzako atzekipen portzentaia ezin da, inolaz ere, ehuneko biko baino txikiagoa izan.

4. Lan etekin hartzailerak, epaitza dela bide, bere ezkontideari konpentsazio pentsioa ordaindu behar dionean, beronen zenbatekoak atzekipen portzentaia kalkulatzeko kontutan hartu beharreko ordainketen kopurua urritu ahal izango du.

Horretarako, subjektu pasiboak ordaintzaileari, ondorengo artikuluan aurrikusten den bezala, inguruabar horren berri eman behar izango dio, pentsioa sortzerazten duen epaitzaren hitzez-hitzezko lekuko-agiria erantsen duelarik.

Atal honetan aurrikusitako txikipena bakarrik aplikatuko da, langileak berez zerbitzuak iraupen mugagabeko kontratuaren indarraldian zehar egiten dituztenean, eta epaileak pentsioa finkatu eta ondorengo zergaldiaz gero eskatu ahal izango da.

Atal honetan dauden balizkoetan, atzekipen tasa ehuneko biko baino txikiagoa bada, azken hau aplikatuko da.

5. Zergari buruzko Foru Arauko 28. artikuluko bigarren zenbakian aurrikusitakoaren arabera ehuneko hamabosteko kenkarirako eskubidea duten subjektu pasiboek ordaintzen zaizkien etekinak direnean, taula aplikatzeko kontutan hartu beharreko ordainketen kopurua ordainketa horiei zero eta laurogeitabosteko koefizientea aplikatuz ateratzen den emaitza izango da. Kasu hauetan ez da aplikatuko aurreko bigarren

ataleko laugarren zenbakian xedatutakoa, nahiz eta bidezko izan.

6. Erakunde kudeatzaile eskudunak aintzatsitako langabezi prestazioei ondorengo atxikipen portzentaia ezarriko zaizkie:

Urteko prestazioaren zenbatekoa	Portzentaia
1.178.430 artekoa	0
1.178.430etik gorakoa	1
1.285.560tik gorakoa	4
1.392.690etik gorakoa	6
1.499.820tik gorakoa	7
1.714.080tik gorakoa	9
1.928.340tik gorakoa	11

Otsailaren 1etik aurrera

Urteko prestazioaren zenbatekoa	Portzentaia
1.210.000 artekoa	0
1.210.000tik gorakoa	1
1.320.000tik gorakoa	4
1.430.000tik gorakoa	6
1.540.000tik gorakoa	7
1.760.000tik gorakoa	9
1.980.000tik gorakoa	11

Prestazioa jasotzeko eskubidea galdu eta urtearen barruan berriro eskuratzen bada, erabili beharreko portzentaia etenaldiaren hasierakoa izango da.

Egutegiko urtearen barruan langabezi prestazioa hartzeari utzi eta sorospena hartzen hasten bada, sorospenari ezarri beharreko atxikipen portzentaia prestazioarena bestekoa izango da.

#### 47. artikulua. Berriemateak.

**Bat.** Subjektu pasiboek beren egoera ordaintzaileari benetakotu behar izango diote, aplikatu behar den atxekipen portzentaia kalkulatzeko.

Subjektuen egoerak eragina duenean, atxekipen portzentaia zehazteko, oraintzaileak gorde behar izango ditu subjektu pasiboak ekarri eta egoera hori benetakotzen duten frogagiriak.

**Bi.** Pentsiodunek atxekipen taula orokorra aukeratu nahi badute, idatziz egin behar zaio ordaintzaileari edo entitate kudeatzaile eskudunari, urtean urteko edo pentsioduna izaera eskuratzen den urtearen aurre-aurreko abenduko hilean.

**Hiru.** Subjektu pasiboek euren ordaintzaileei eskatu ahal izango diete, aurreko artikuluetan aurrikusitako atxekipen tasak baino handiagoak aplikatu dakizkien, ondoko arauen arabera:

a) Eskabidea idatziz egingo zaie ordaintzaileei, zeinek nominak gertutu baino behar beste denbora lehenago eskatzen zaizkien eskabideei jaramon egin behar izango bait diete.

b) Eskatzen den beste atxekipen tasa ezin aldarazi izango da, eskabidearen eta urtearen amaieraren arteko denboraldian zehar, eta subjektu pasiboari aplikatuko zaio, portzentaia horri idatziz uko egiten ez dion bitartean, edo atxekipen tasa handiagoa eskatzen ez duen bitartean, tasa handiagoa sorterazten duten inguruabarretan aldaketarik gertatzen ez denean, atxekipen taulen arabera.

Atal honek aipatzen duen atxekipen tasa handiagoa diruzko ordaintzetei bakarrik aplikatuko zaie.

#### 2gn. azpisaila. Higigarrien kapitalaren etekinak

#### 48. artikulua. Higigarrien kapitalaren etekinen gaineko atxekipenak.

**Bat.** Higigarrien kapitalaren etekinen gainean aplikagarri den atxekipen portzentaia ehuneko hogeitabostekoa izango da.

**Bi.** Zergari buruzko Foru Araueko 37. artikuluko bigarren atalak aipatzen dituen nomahirentzako aurrezki planetatik etortzen diren etekinen salbuespena galtzen denean, egin behar den atxekipena inbertituriko kopuruak xedatzen diren ulean indarrean dirauen tasan egingo da.

#### 49. artikulua. Etekin esplizituen gaineko atxekipenaren arau bereziak.

**Bat.** Atxeki beharra sortuko da hartzaileak atxekipenpeko etekinak eska ditzakeen ulean.

Bereziki, korrituak eskrituran edo kontratuan likidatu edo kobratzeko adierazitako mugaegun datetan eska daitezkeela ulertuko da, edo beste edozelan kontuan aintzatesten denean, hartzaileak kobrantza eskatzen ez badu ere, edo etekinak eragiketaren printzipalari metatzen zaizkionean.

**Bi.** Etekin esplizituen likidazioen maiztasuna hamabi hilabetekoa baino luzeagoa denean, araudi honetako 57. artikuluan aurrikusitako moduan egin behar izango da konturako sarrera.

Behin-betiko atxekipena eska daitekeen ulean indarrean dirauen tasan egingo da, eta kontura eginak diren sarrerei begira erregularizatuko da.

#### 50. artikulua. Etekin implizituen gaineko atxekipenaren arau bereziak.

**Bat.** Atxeki beharra sortuko da etekin inplizitua hartzailearentzat den uanean.

Honi dagokionez, etekina lortuzat hartuko da aktiboaren edozein eskualdaketa dagoenean, aktiboaren barruan amortizazioa edo itzulketa sartzen delarik.

**Bi.** Atxekipena eskualdaketa, amortizazio edo itzulketan lortzen den zenbatekoaren eta eskuraketa edo harpidetzakoaren arteko diferentzia positiboaren gainean egingo da.

**Hiru.** Atxekipena eskualdaketa formalizatzen den egunean egingo da, kobratzeko ituntzen diren baldintzak edozeintzu direlarik.

**Lau.** Etekin inplizituak dituzten finantza-aktiboaren eskualdaketa eragiketetan, atxeki eta Foru Ogasunean sarrera egin beharra duten subjektuak honako hauek dira:

a) Pertsona edo entitate jaulkitzailea, finantza-aktibo hauen amortizazio edo itzulketan lortzen diren etekinak daudenean. Orduan, pertsona edo entitate jaulkitzailerik ez dagoenean, amortizazio edo itzulketa egin behar dutenek izango dute atxeki beharra.

Eragiketa hau gauza dadin, ardura finantza entitate bati ematen zaionean, berau izango da egin behar den atxekipena egin eta sartu behar dutenak.

Igorpen tresnak direnean, baldin eta euren jaulkipenaren ondoren finantza-aktibo bihurtuak badira, haien mugaegunean edo eskualdaketan, eragiketan esku hartzen duen fedemaileak edo finantza erakundeak egin behar izango du atxekipena, otsailaren 7ko 12/1986 Foru Dekretuan, zeinek Zenbait Finantza-aktiboren Erregimen Fiskalari buruzko 7/1985 Foru Araua garatzen bait du, 7. artikuluko hirugarrean artikuluan xedatutakoaren arabera.

b) Eskualdatzailearen kontura diharduen bankua, kutxa edo finantza entitatea, aktibo hauei dagozkien eskualdaketatik lortzen diren etekinak daudenean, baldin eta eskualdaketa horiek finantzazko erakunde baten edo batzuren bitartez bideratzen badira.

Kasu honen barruan tituluz dokumentatzen ez diren eragiketak sartuko dira.

Letra honetan xedatutakoari dagokionez, eskualdatzailearen konturako iharduletzat, hari etekin inplizitudun finantza-aktiboaren salmentarako agindua hartzen dion bankua, kutxa edo finantza entitatea hartuko da.

c) Aurretiko letretan ez dauden gainerako kasuetan nahitaez esku hartu behar duen fedemaile publikoa.

1997ko apirilaren 25etik aurrera idazkera berria ematen zaio ekainaren 10eko 80/1997 FDaren 3. artikulua indarrez.

**Bat.** Atxeki beharra sortuko da etekin inplizitua hartzailearentzat gauzatzen den uanean.

Honi dagokionean, etekina lortuzat hartuko da aktiboaren edozein eskualdaketa gertatzen denean, amortizazioa edo itzulketa barne.

**Bi.** Atxikipena eskualdaketa, amortizazio edo itzulketan lortzen den zenbatekoaren eta eskuraketa edo harpidetzakoaren arteko diferentzia positiboaren gainean egingo da. **Horretarako eragiketaren inguruko gastuak ez dira gutxituko.**

**Pertsona jaulkitzaile batek berak jaulkitako finantz aktibo bat eskuratzen duenean, eskualdatzaileari dagokion atxikipena alde batera utzirik, tituluaren ondorengo edozein eskualdaketa motaren bidez, amortizazioa salbu, lor dezakeen etekinaren gaineko atxikipen edo sarrera, kasuan kasu, egingo da amortizazio edo berreskurapeneko data baino lehen.**

**Hiru.** Atxikipena eskualdaketa egiten den datan egingo da, kobratzeko itundutako baldintzak edozelangoak izanik ere.

**Lau.** Etekin inplizituak dituzten finantza aktiboaren gaineko eragiketetan, honako hauek dira atxikipena egin behar dutenak:

a) **Entitate jaulkitzailea edo eragiketaz arduratu diren finantza erakundeeak, finantza-aktiboaren eskualdaketa, amortizazio edo itzulketan lortutako etekinak daudenean.**

Igorpen tresnak direnean, baldin eta jaulkipenaren ondoren finantza-aktibo bihurtu badira, haien mugaegunean edo eskualdaketan, haiek kobratzera aurkeztu dituen fedemaileak edo finantza erakundeak egin behar izango du atxikipena.

b) **Eskualdatzailearen kontura diharduen banketxea, aurrezki kutxa edo entitatea, tituluz dokumentatzen ez diren eragiketei dagozkien eskualdetetan lortutako etekinak, baita finantza erakunde bati agindutako eskualdaketatik ere, daudenean.**

Letra honetan xedatutakoaren ondoretarako, banketxe, aurrezki kutxa edo entitate batek eskualdatzailearen kontura diharduela joko da

eskualdatzailearengandik etekin inplizitudun finantza-aktiboen salmentarako agindua jaso duenean.

c) Aurreko letretan jaso ez diren balizkoetan, fedemaile publikoaren kontuhartzaitza nahitaezkoa izango da, berez dagokion atxikipena egingo duena.

Bost. Atxikipena egin behar zaien etekin inplizitudun aktibo edo tituluen itzulketa besterenganatu edo lortzeko, haiek eskuratu izan direla egiaztatu beharko da, horretarako aurreko atalean aipatu fedemaile edo finantza erakundeen kontu hartzea behar izanik.

Igorpen tresna mota guztiak, behin endosatu edo eskualdatu eta gero, joko dira finantza-aktibotzat, merkataritzako eragiketetan sortutakoak barne, salbu eta endosatze edo lagapena hornitzaile edo hornidura emaileen kreituaren ordainketa legez egin bada.

Igorpen tresna bat, behin zirkulazioan jarri ondoren, finantza-aktibo bihurtzen denean, lehendabiziko endosatze edo lagapena fedemaile publiko edo finantza erakunde baten bidez egin beharko da, endosatzaile edo eskuratzaillea finantza erakundea ez bada. Fedemaile edo finantza erakundeak finantza-aktiboaren izaera agertarazi beharko dute agirian ez ezabatzeko moduan, haren lehen eskuratzaille edo ukanduna nor izan den adieraziz.

Sei. Pertsona edo entitate jaulkitzaileak, horren kontura diharduen finantza erakundeak eta eskuratzaille edo ukandunaren kontura, kasuan kasu, diharduen fedemaile publiko edo finantza erakundeak hurrengo datuok egiaztatzen dituen ziurtagiria luzatu behako dute:

a) Eragiketaren data eta aktiboaren identifikazioa.

b) Eskuratzaillearen izen-deiturak.

c) Eskuratzaille edo gordailugile horren identifikazio fiskaleko zenbakia.

d) Eskuraketaren prezioa.

Ziurtagiri hori hirukoizturik luzatuko da, ale bi eskuratzaillearentzat eta hirugarrena ziurtagiria egin duen pertsona edo entitatearentzat berarentzat.

Zazpi. Finantza erakundeek edo fedemaile publikoek ez dute bitartekaritza edo kontuhartzaitza lanik egingo mota honetako aktiboen eskualdaketatik eskualdatzaileak eskuraketa artikulua honetan xedatutakoaren arabera bidezkoesten ez duenean.

Zortzi. Etekin inplizitudun finantza-aktiboen pertsona edo entitate jaulkitzaileek ezin izango dituzte haiek berreskuratu ukandunak aurretiazko eskuraketa ziurtagi egoki baten bidez, aurreko seigarren atalean adierazi denaren arabera, egiaztatu ez badu.

Eragiketaz arduratutako jaulkitzaileak edo finantza erakundeek, aurreko lerroaldearekin bat etorritik, titulu edo aktiboaren ukandunari itzulketarik egin behar ez diotenean, kopuru horretako gordailua egin eta epai-agintarien esku utzi beharko dute.

Berrerosketak, ludiketa edo erreskateak, kitapenak edo alde zuzeneko amortizazioak finantza erakunde edo fedemaile publiko baten kontu hartzea eta bitartekaritza beharko ditu, aktiboaren erakunde edo pertsona jaulkitzailea, titulua berriro zirkulazioan jarriz gero, eskuratzaille soiltzat joko delarik.

Bederatzi. Tituluaren ukandunak, egin duen eskuraketaren egiaztagiria galduz gero, ziurtagiria egin zuen pertsona edo entitateari ziurtagiriaren bikoiztua eskatu ahal izango dio.

Pertsona edo entitate horrek agiria bikoiztua dela agertaraziko du eta noiz luzatu den jarriko dio bertan.

Hamar. Irabazizko eskualdaketatik eskuratzaillea eskualdatzailearen eskuraketaren balioan subrogatukotzat joko da, kostu horren bidezkoetasun askia bitarte den artean.

### **3gn. azpisaila. Lanbide ihardueren etekinak**

#### **51. artikulua. Lanbide ihardueren etekinen gaineko atxekipenak.**

Bat. Etekinak lanbide jarduera baten kontraprestazio direnean, 100eko 15eko atxikipen tasa ezarriko da ordaintzen diren sarrera osoen gainean.

Hala ere, "Tabacalera, S.A."ren ordezkari bermatuei ordaindutako etekinak izanez gero, atxikipen tasa 100eko 8koa izango da.

Bi. Honako hauek joko dira lanbide jardueren etekintzat:

1. Oro har, apirilaren 30eko 1/1991 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onetsi zen Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren tarifen bigarren eta hirugarren atalen barruko jarduerak burutzearen ondoriozkoak.

2. Bereziki, hauexek joko dira lanbide jardueren etekintzat:

a) Lanen egile nahiz itzultzaileek lortutakoak, jabetza intelektual nahiz industrialetik etorritakoak. Egileek edo itzultzaileek eurek zuzenean euren lanak argitaratzen dituztenean, haien etekinak enpresa jardueratzen joko dira.

b) Komisioidunek lortutakoak. Komisioiduntzat interesadun alderdiak, kontratu bat egin dezaten, hurbildu edo urreratu baino egiten ez dutenak izango dira.

Aldiz, komisioidunei berezkoak zaizkion eragiketarako burutzerak mugatzen ez direla joko da, aurreko letrak adierazitako eginkizunaz gainera merkataritzako jardueraren horien arriskua eta zoria berenganatzen ez dituztenean, orduan enpresa jardueratzen joko baitira.

c) Irakasleek lortutakoak, irakaskuntzaren izaera edozein izanik ere, eta irakaskuntza jardueraren horien burutzen bada ere, norberaren etxebizitzan, ikastegi edo establezimendu irekian, Ondainketaren jatorri diren harremanak lanezkoak edo estatutuzkoak badira, etekinak lanaren ziozko etekintzat joko dira.

Norberaren ikastegi edo establezimenduetako irakaskuntza enpresa jardueratzen joko da.

d) Hitzaldietan, mintegi edo ikastaroetako txostenetan edo antzeko jarduketan lortutakoak, baldin eta lan harremanen ondorioz ematen ez badira.

Hiru. Enpresa baten alokairupeko pertsonak hartzen dituzten kopuruak ez dira lanbide jardueraren etekintzat joko, baldin eta bertan egiten dituzten eginkizunengatik euren lanbide elkargoetan izena eman behar badute, ez eta, oro har, lanezko edo menpeko harremanetatik etortzen direnak ere. Kopuru horiek lan etekintzat joko dira.

Lau. Etekinei, nekazaritza edo abeltzaintza jardueraren kontraprestazioa direnean, atxikipen portzentaia hauek ezarriko zaizkie:

- Okelarako txerri eta hegaztien nekazaritza jarduerari: 100eko 1.

- Gainerako kasuetan: 100eko 2.

Portzentaia horiek ordaindutako sarrera osoei ezarriko zaizkie, salbu eta subentzio arruntak eta kapital eta kalteordainen ziozko subentzioak direnean.

Ondore horietarako, landare nahiz animalien natur produktuen ustiatzeetatik zuzenean lortzeko direnak joko dira nekazaritza edo abeltzaintza jardueratzen, baldin eta transformakuntza, gertuketa edo manufaktura prozesurik jaso ez badute.

Jardueraren burutu ahal izateko, Ekonomi Jardueraren gainerako Zergaren tarifetan, industri jarduerari dagokien epigrafean alta ematea manuzko duten jardueraren guztiak joko dira transformakuntza, gertuketa edo manufaktura prozesutat.

Honako hauek joko dira nekazaritza edo abeltzaintza jardueratzen:

a) Abeltzaintza lokabea.

b) Nekazari edo abeltzainek, euren ustiatzeetan erabili izaten dituzten eskuartearen bidez burututako nekazaritza edo abeltzaintza lan edo zerbitzuzintza.

c) Ganadua hazi, zaindu eta gizentzeko zerbitzuak.

#### **4gn. azpisaila. Sariak**

#### **52. artikulua. Sarien gainerako atxekipenak.**

Eskudiruzko sarien gainera aplikatu behar den atxekipen portzentaia haien zenbatekoaren ehuneko hogeitabostekoa izango da.

#### **3gn. saila. Kontura egiten diren sarrerak**

#### **1go. azpisaila. Gauzako ordainketak**

#### **53. artikulua. Lanaren gauzako ordainketen gainera kontura egiten diren sarrerak.**

**Bat.** Gauzak ordaintzen diren ordainketengatik kontura egin behar den sarreraren zenbatekoa honelaxe kalkulatu da: haien balioari, Zergari buruzko Foru Arauko 27. artikuluko lehen ataleko erregelaren arabera zehaztuta, araudi honetako 45. artikuluan xedatutakotik ateratzen den portzentaia aplikatuz.

Aurreko leerroaldeak aipatzen duen portzentaia ehuneko hamabosta baino txikiagoa denean, azken hau aplikatuko da.

**Bi.** Ez da zertan kontura sarrerarik egin, borondatezko gizarte aurrikuspeneko entitateetako bazkide babesleei edo pentsio planen sustatzaileek ordaintzen dituzten kontribuzioengatik, ez eta enpresarietako pentsio planen hautabidezko gizarte aurrikuspeneko sistemarako ordaintzen dituzten kopuruengatik ere, baldin eta hauek prestazioak lotuta dituzten pertsonen egotziak bazaizkie.

**Hiru.** Ez da zertan kontura sarrerarik egin, euren balioa, Zergari buruzko Foru Arauko 27. artikuluko lehen atalean xedatutakoarekin bat etorritik.

zehaztutakoa, hartzaile eta urteko 50.000 pezeta gainditzen ez duten lanaren gauzazko ordainketengatik. Zenbateko hau zehazterakoan, urtean zehar ordainduko bide diren gauzazko ordainketen balioa hartuko da kontutan. Balio horrek ezin izango du aurreko urtean zehar lortutakoena baino gutxiagokoa izan, beti ere haien murrizketa nabarmena gertatuko dela aurrakusten duten inguruabarrak suertatzen ez badira.

**54. artikulua. Higigarrien kapitalaren gauzazko ordainketen gainean kontura egiten diren sarrerak.**

**Bat.** Gauzaz ordaintzen diren ordainketengatik kontura egin behar den sarreraren zenbatekoa, haien merkatu balioari aurreko 2gn. saileko 2gn. azpisailean xedatutakotik ateratzen den portzentaia aplikatuz, kalkulatu da.

**Bi.** Aurreko atalean aurrikusitakoari dagokionez, gauzazko ordainketaren merkatu baliozat, hartzailearentzako eskuraketa edo kostu balioa ehuneko hogeitabostean igotearen ondoriozko emaitza hartuko da.

**55. artikulua. Lanbide ihardueren gauzazko ordainketen gainean kontura egiten diren sarrerak.**

**Bat.** Gauzaz egindako ordainketengatik kontura egin behar den sarreraren zenbatekoa, haien balioari aurreko 2. ataleko 3. azpiatalean xedatutakoaren ondorioz ateratako portzentaia ezarritu kalkulatu da.

**Bi.** Aurreko atalean ezarritakoaren ondoreetarako, gauzazko ordainketaren baliozat, zerga honi buruzko foru arauko 27. artikuluko lehen ataleko arauetatik ateratakoa joko da.

**2gn. azpisaila. Kontura egiten diren beste sarrerak**

**56. artikulua. Higigarrien kapitalaren etekin esplizituen likidazioa.**

Higigarrien kapitalaren etekin esplizituen likidazioen maiztasuna hamabi hilabetekoa baino luzeagoa denean, sarrera bat egin behar izango da, behin-betiko atxekipenaren kontura, egutegiko urte bakoitzeko korrituen eta sortzen diren beste errenten gainean.

1997ko apirilaren 25etik aurrera indargabeturik geratzen dira ekainaren 10eko 80/1997 FDaren indarrez.

**57. artikulua. Etekinen balioztapena eta eragiketa lotuen balioztapena.**

Zergari buruzko Foru Araueko 7 eta 8. artikuluetan xedatutakoa aplikatzekoa denean, kasuan

kasu kontura egin behar den sarrera araudi honetako 44. artikuluko hirugarren atalean aurrikusitakoari lotuta egingo da.

**58. artikulua. Sarien gainean kontura egiten diren sarrerak.**

**Bat.** Gauzaz ordaintzen diren sariengatik kontura egin behar den sarreraren zenbatekoa, haien merkatu balioari aurreko 2gn. saileko 4gn. azpisailean xedatutakotik ateratzen den portzentaia aplikatuz, kalkulatu da.

**Bi.** Aurreko atalean aurrikusitakoari dagokionez, merkatu baliozat, hartzailearentzako eskuraketa edo kostu balioa ehuneko hogeitabostean igotearen ondoriozko emaitza hartuko da.

**4gn. saila. Atxekitzailearen eta kontura sartu beharra duenaren betebeharrak**

**59. artikulua. Atxekitzailearen eta kontura sartu beharra duenaren betebeharrak.**

**Bat.** Atxekitzaileak eta kontura sartu beharra duenak, apiril, uztail, urri eta urtarrileko hilabeteetako egutegiko lehenengo hogeitabost egunen barruan, tributu administrazioaren eskudun organoari, aurre-aurreko hiru hilabeteko atxekiak diren kopuruen eta harri dagozkion konturako sarreraren aitortpena aurkeztu behar izango diote, bai eta haien zenbatekoa Foru Ogasunean sartu ere, kontzertu ekonomikoan aurrikusitakoaren arabera.

Hala ere, aurreko leerroaldeak aipatzen dituen aitortpen-sarrerak hilabete bakoitzaren egutegiko lehenengo hogeitabost egunen barruan egingo da, aurre-aurrekoan atxekiak diren kopuruengatik eta kontura egin behar diren sarrerengatik, baldin eta atxekitzaile eta behartuak badira, zeinengan abenduaren 31ko 151/1985 Foru Dekretuan, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Araudia onetsi bait zuen, 172. artikuluko hirugarren zenbakiko lehen atalak aipatzen dituen inguruabarrak dauden.

Aurreko leerroaldean xedatutakoaren kalterik gabe, uztaileko hilabeteari dagokion aitortpen-likidazioa aurkezteko epea abenduko hilean zehar eta ondorengo iraileko hilabeteke egutegiko lehenengo hamar egunetan egongo da irekirik.

Atxekitzaileek edo behartuek aitortpen negatiboa aurkeztuko dute, araudi honetako 43. artikuluan adierazitako errentak ordaindu arren, inolako atxekipenik edo konturako sarrerarik eginda ez duenean.

**Bi.** Atxekitzailleak edo behartuak, epe berberaren barruan, urtean urteko azken aitortpena eta eginda dituen atxekipenen eta konturako sarreraren urteko laburpena aurkeztu behar izango ditu. Laburpen honetan, haren identifikazio datuez gainera, hartzaileen izendun zerrenda egon dadin eskatu ahal izango da, non ondoko datuok ageriko diren:

a) Izen-deiturak.

b) Nortasun-Agiri Nazionala ala Identifikazio Fiskaleko Zenbakia.

c) Egindako atxekipena edo, beharrezkoa denean, kontura egin den sarrera, eta lortua den etekina, adieraziko direlarik kontzeptuen identifikazioa, deskripzioa eta jitea, zergapetik kanpoko dietak eta etekin salbuetsiak barne.

Zerrenda ordenagailuz irakur daitekeen euskarrian aurkezten denean, aurkezteko epea ondorengo urteko urtarilaren batetik otsailaren hogeira bitartekoa izango da.

**Hiru.** Atxekitzailleak edo behartuak, subjektu pasiboari, eginda duen atxekipena, edo kontura eginda dauden sarrerak, eta subjektu pasiboari egon eta aurreko atalak aipatzen duen urteko laburpenaren barruan sartu behar diren gainerako datuak benetakotzen dituen ziurtagiria luzatu behar izango dio.

Ziurtagiri hau subjektu pasiboaren esku jarri behar izango da, zerga hau aitortzeko epea ireki baino lehen.

**Lau.** Ordaintzaileek, subjektu pasiboei, eginda duten atxekipena edo konturako sarrera jakin erazi behar izango diete errentak ordaintzen dituzten unean, aplikatu portzentaia adierazten dutelarik.

**Bost.** Artikulu honek aipatzen dituen aitortpenak Ogasun eta Finantzen foru diputatuak mota bakoitzeko ezartzen dituen ereduetan egingo dira, atxekitzailleak edo sarrera kontura egin behar duenak aitortpenetan egon eta eurei dagozkien datu guztiak bete behar dituztelarik.

Aitortpen-sarrerak Ogasun eta Finantzen foru diputatuak zehazten dituen modu eta lekuan egingo dira.

1997ko apirilaren 25etik aurrera idazkera berria ematen zaio ekainaren 10eko 80/1997 FDaren 4. artikularen indarrez.

**59. artikulua. Atxekitzaillearen eta kontura sartu beharra duenaren betebeharrak.**

**Bat.** Atxekitzailleak eta kontura sartu beharra duenak, apiril, uztail, urri eta urtarileko hilabeteetako egutegiko lehenengo hogeitabost egunen barruan, zerga Administrazioaren eskudun organoari, aurre-aurreko hiru hilabeteetan atxikiak izan diren kopuruak eta epe berari dagozkion konturako sarreraren aitortpena aurkeztu behar izango diote, bai eta haien zenbatekoa Foru Ogasunean sartu ere, kontzertu ekonomikoan ezarritakoaren arabera.

Hala ere, aurreko lerroaldeak aipatu dituen aitortpen-sarrerak hilabete bakoitzaren egutegiko lehenengo hogeita bost egunen barruan egingo da, aurre-aurrekoak atxikiak izan diren konpuruengatik eta kontura egin behar diren sarrerengatik, baldin eta atxekitzailleak eta behartuak badira, beraiengan abenduaren 29ko 1.624/1992 Errege Dekretuko 71. artikuluko 3.1. atalean aipatu inguruabarrak gertatzen badira.

Aurreko lerroaldean xedatutakoaren kalterik gabe, uztaileko hilabeteari dagozkion aitortpen-likidazioa aurkezteko epea abenduko hilean zehar eta ondorengo iraileko hilabeteko egutegiko lehenengo hamar egunetan izango da irekita.

Atxekitzailleak edo kontura sartu beharra duenak aitortpen negatiboa aurkeztuko du, araudi honetako 43. artikuluan adierazitako errentak ordaindu arren, inolako atxikipenik edo konturako sarrerarik eginda ez duenean, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak horrela ezarritako balizkoetan baino ez bada.

**Bi.** Atxekitzailleak edo kontura sartu beharra duenak, urtean urtean azken aitortpenerako epe beraren barruan, eginda dituen atxekipenen eta konturako sarreraren urteko laburpena aurkeztu behar izango ditu. Laburpen horretan, identifikazio datuez gainera, hartzaileen izendun zerrenda egon dadin eskatu ahal izango da, non ondoko datuok ageriko diren:

a) Izen-deiturak.

b) Identifikazio fiskaleko zenbakia.

c) Egindako atxekipena edo, beharrezkoa denean, kontura egin den sarrera, eta lortua den etekina, adieraziko direlarik kontzeptuen identifikazioa, deskripzioa eta izaera, baita ere errenta hori zein ekitalditan sortarazi den, zergapetik kanpoko dietak eta errenta salbuetsiak barne.

Zerrenda zuzen-zuzenean ordenagailuz irakurtzeko moduko euskarrian aurkezten denean, aurkezteko epea ondorengo urteko urtarilaren batetik otsailaren hogeira bitartekoa izango da.

Atal honetan ezarritako betebeharrak berberak izango dituzte helbidea, egoitza edo ordezkariak espainiar lurraldean duten entitateek, beti ere atxikipena egin behar duten errentak besteren kontura ordaintzen badituzte edo balore errenten gordailuzainak izan edo horien kibraketa kudeatzen badituzte.

**Hiru.** Atxikitzaileak edo kontura sartu beharra duenak, subjektu pasiboari, eginda duen atxikipena, edo, kontura eginda dauden sarrerak, eta subjektu pasiboari egon eta aurreko atalak aipatu duen urteko laburpenaren barruan sartu behar diren gainerako datuak, baita hartzailearentzat zerga ondorioak dituztela egindako bestelako deskontuak ere, benetakotzen dituen ziurtagiria luzatu behar izango dio.

Ziurtagiri hori subjektu pasiboaren esku jarri behar izango da, zerga hau aitortzeko epea ireki baino lehen.

Atal honetan ezarritako betebeharrak berberak izango dituzte helbidea, egoitza edo ordezkariak Espainian duten entitateek, beti ere atxikipena egin behar duten errentak besteren kontura ordaintzen badituzte edo balore errenten gordailuzainak izan edo horien kibraketa kudeatzen badituzte.

**Lau.** Ordaintzaileek, subjektu pasiboari, eginda duten atxikipena edo konturako sarrera jakin erazi behar izango diete errentak ordaintzen dituzten unean, aplikatu portzentaia adierazten dutelarik.

**Bost.** Artikulu honek aipatzen dituen aitortpenak Ogasun eta Finantzen foru diputatuak mota bakoitzeko ezartzen dituen ereduetan egingo dira, atxikitzaileak edo sarrera kontura egin behar duenak aitortpenetan egon eta eurei dagozkien datu guztiak bete behar dituztelarik.

Aitortpen-sarrerak Ogasun eta Finantzen foru diputatuak zehazten dituen modu eta lekuan egingo dira.

#### **5gn. saila. Atxikipenen eta konturako sarreren aplikazioa**

#### **60. artikulua. Atxikipenen eta konturako sarreren aplikazioa.**

**Bat.** Atxeki beharra duten subjektuek egoitza espainiar lurraldean duten pertsona fisikoei benetan ordaintzen dizkieten kopuruak, berauei dagokien atxikipenaren zenbatekoa kenduta dutelarik, hartzen direla ulertuko da beti, lege bidez ezartzen diren ordainketak direnean izan ezik.

Atxikipena egin ez denean, edo araudi honetan ezarritako erregeleketatik ateratzen dena baino zenbateko txikiagoan egin denean, hartzaileak, bere

zergaren aitortpenean etekin oso gisa, kopuru bat zenbatuko du, zeinetatik bidezko atxikipena kenduta, benetan hartua dena emango bait du. Halaber, Zergako kuotatik, konturako atxikipen gisa, benetan hartua denaren eta hark aipatutako aitortpenean jarritako kopuruaren arteko diferentzia kenduko du.

Lege bidez ezarritako ordainketak daudenean, hartzaileak, bere aitortpenean etekin oso gisa, lege bidez ezarritakoa zenbatu eta, konturako atxikipen gisa, benetan egin zaiena kenduko du.

**Bi.** Sarrera kontura egin beharra dagoenean, sarrera hori egindakotzat hartuko da. Subjektu pasiboak, zerga oinarri erregularrean edo irregularrean, bidezko den arabera, kapitulu honetako 3gn. sailean dauden arauetatik ateratzen den balioztapena eta konturako sarrera sartuko ditu.

**Hiru.** Atxeki beharra duten subjektuek sarrera Foru Ogasunean egiteko betebeharra berenganatuko dute, hura bete arren, berau ezin bazter daitekeelarik.

Atxikipena eta sarrera, etekina ordaintzen duen entitatea Bizkaiko Foru Aldundia denean, zuzenean egingo dira.

#### **6gn. saila. Zatikako ordainketak**

#### **61. artikulua. Ordainketa zatika egin behar dutenak.**

**Bat.** Enpresa edo lanbide jarduerak egiten dituzten subjektu pasiboek autolikidazioa egin beharra dute, bai eta ondorengo artikuluetan ezarritakotik ateratzen den kopurua Foru Ogasunean sartu ere, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga kontura ordaintzeagatik.

**Bi.** Aurreko atalean xedatutakoa gora-behera, nekazaritza edo abeltzaintza jarduerak egiten dituzten subjektu pasiboek ez dute horien ordainketa zatikatutik egin behar izango, baldin eta egutegiko aurreko urtean zehar ustategietatik etorritako sarreren 100eko 70ari, gutxienez, atxikipen edo konturako sarrerarik jaso ez badu, subentzio arrunt edo kapitalen subentzioak eta kalteordainak izan ezik.

Aurreko lerrokadan xedatutakoaren ondoretarako, jarduera hastekotan, ordainketa zatikatuaren epealdian zehar atxikipen edo konturako sarrera egin zaien sarreren portzentaia hartuko da kontutan.

**Hiru.** Jardueraren sarreren gutzizkoa atxikipenaren pean dagoenean, ez da egin behar izango lanbide jardueren ordainketa zatikatuaren aitortpenik, ezta sarrerarik ere.



**62. artikulua. Zatikapenaren zenbatekoa.**

*Bat.* Aurreko artikulua aipatu subjeto pasiboek, epe bakoitzean, kopuru hauek sartuko dituzte:

a) Oro har.

1. Ordainketa zatikatuei dagokien urtearen azkenurrekoan lortutako enpresa edo lanbide jardueren etekin garbien 100eko 6a, jarduerak koefizienteen arabera zuzeneko zenbatespen edo zenbatespen objetiboaren araubidekoak direnean.

Hala ere, subjeto pasiboek beste bide bat hautatu ahal izango dute, egutegiko hiru hilabete bakoitzean sortarazitako sarrera konputagarrien eta gastu kengarrien arteko diferentziaren 100eko 20ko sartzeara.

2. Ordainketa zatikatuei dagokien urtearen azkenurrekoan lortutako enpresa jardueren etekin garbien 100eko 6a, jarduerak zeinu, indize edo moduluen arabera zenbatespen objetiboaren araubidekoak direnean.

Hala ere, subjeto pasiboek beste bide bat hautatu ahal izango dute, ordainketa zatikatuaren urteko lehen eguneko edo, jarduerak hasi diren lehen eguneko oinarri-datueta oinarrituta, arestian aipatutako metodoa ezarri ondoren gertatutako etekinen 100eko 5a sartzeara.

3. Hiruhileko salmenta nahiz sarreraren bolumenaren 100eko 2a, kanpo kapital subentzioak eta kalteordainak alde batera utzita, nekazaritza, abeltzaintza, basogintza edo arrantza jarduerak direnean, etekin garbiak zehazteko era edozein izanik ere.

b) Ordainketa zatikatuei dagokien urtearen azkenurrekoan, hura egitera behartzen dituzten jarduerak egin ez dituztenen subjeto pasiboek, jardueren etekin garbiak emaitza positiborik eman ez dutenean, edota boladako jarduerak direnean, horrelakoetan ordainketa zatikatuaren zenbatekoa hiruhileko salmenta nahiz sarreraren bolumenaren 100eko 2a ezartzearen ondorioz gertatutakoa izango da, handizkako merkataria badira izan ezik, horrelakoentzat portzentaia 100eko 1ekoa izango baita.

*Bi.* Aurreko artikuluan xedatutakoa ezartzearen ondorioz gertatutako kopurutik hiruhileko horretan, araudi honetako 51 eta 55. artikuluetan xedatutakoaren arabera egindako konturako sarrerak eta atxikipenak kenduko dira.

*Hiru.* Subjeto pasiboek, ordainketa zatikatuetariko bakoitzean, lehenago aipatutakoak baino portzentaia handiagoak ezarri ahal izango dituzte.

**63. artikulua. Aitorpen-sarrerak.**

*Bat.* Enpresari eta profesionalen hiruhilero behin aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera zehaztutako kopuruak aitortu eta Foru Ogasunean sartu behar izango dituzte, apiril, uztail, urri eta urtarrileko hilabeteetako lehenengo eta hogeitabostgarren egunen artean.

Aurreko artikuluan xedatutakoa aplikatzen, ez bada kopururik irteten sarrera egiteko, subjeto pasiboek aitorpen negatiboa aurkeztuko dute, aipatutako artikuluko laugarren atalean aurrikusitako kasuan izan ezik.

*Bi.* Ogasun eta Finantzen foru diputatuak luzatu ahal izango ditu artikulua honetan aipatzen diren epeak, bai eta sarrera seihilabetero behin egiteko ezartzea ere, aurreko artikuluan zehaztutako portzentaia moldatuz, beharrezkoa izanez gero.

*Hiru.* Subjeto pasiboek aitorpenak tributu administrazioaren eskudun organoari aurkeztuko dizkiote, eta haien zenbatekoa Foru Ogasunean sartuko.

**64. artikulua. Errenten iratxikipenaren erregimeneko entitateak.**

Errenten iratxikipenaren erregimeneko entitateek lortzen dituzten enpresa edo lanbide ihardueren etekinei dagokien zatikako ordainketa, bazkide, jaraunsle, erkide edota partaideek egingo dute, araudi honetako 62. artikuluko lehen atalean ezarritakoaren arabera.

Aurreko 62. artikuluko lehen ataleko b) letran aurrikusitako salbuespenezko erregimena aplikatzeko denean, salmenta eta sarreraren kopurua bazkide, jaraunsle, erkide edo partaide bakoitzari iratxikiko zaio, etekin garbia den porportzio berean.

**65. artikulua. Ordain lekua eta ordainkera.**

Aitorpenak beteko ditu Ogasun eta Finantzen foru diputatuak zehazten dituen baldintza eta beharkizunak, eta sarrera hark zehaztutako moduan eta lekuan egingo.

**99. artikulua. Behin-behineko likidazioa**

*Bat.* Tributu kudeaketako organoek bidezko den behin-behineko likidazioa igorri ahal izango dute, aitortzen diren datuen eta berauen frogagiriaren arabera, bai eta aitorpenarekin batera aurkeztu edota organo horiek eskatzen dituztenen arabera. Halaber, behin-behineko likidazioa igorri ahal izango dute, Administrazioak dituen aurrekinetatik aitortu beharra sortzerazten duten errentak daudela edo aurkezten diren aitorpenen barruan daudela ateratzen denean.

Aurreko lerroaldean xedaturikotik, enpresa edota lanbide ihardueren kontabilitateko agirien egiaztapena behar duten behin-behineko likidazioak salbuesten dira.

Bi. Aurreko atalean xedaturikoa gorabehera, Foru Ogasuneko Ikuskaritzak ondoren egiaztapena eta ikerketa egin ditzake.

#### **100. artikulua. Ofiziozko itzulketa**

Bat. Iturrian atxikitako, kontura sartutako eta gardentasun fiskalpeko sozietateek ordaindutako kuota gisa egotzitako kopuruen batura autolikidaziotiko kuotaren zenbatekoa baino handiagoa denean, zerga Administrazioak behin-behineko likidazioa egin beharko du, aitorpena aurkezteko epea amaitu ondorengo sei hilabeteen barruan.

Bi. Behin-behineko likidazioko kuota benetan atxiki diren kopuruen, kontura egin diren ordainketen eta gardentasun fiskalpeko sozietateek ordaindutako kuota gisa egotzitako kopuruen batura baino txikiagoa denean, zerga Administrazioak ofizioz itzuliko du kuota horren gainean sartutako gaidikina, hilabeteko epearen barruan.

Hiru. Behin-behineko likidazioa aurreko lehen atalean ezarritako sei hilabeteko epearen barruan egiten ez bada, Tributu Administrazioak ofizioz itzuliko du, ondorengo hilabetearen barruan, autolikidatutako kuotaren gainean sartutako gaidikina, bidezko litezkeen ondorengo behin-behineko likidazioak egin badaitezke ere.

Lau. Itzulketa egiteko epea igarota, itzulketa eginez gero, subjektu pasiboak idatziz berandutza korrituak ordain dakizkion eskatu ahal izango du, otsailaren 24eko 1/1989 Foru Dekretu Arauemaileak onetsitako aurrekontu arloari buruzko indarreko xedapenen Testu Bategineko 31. artikuluan xedatu bezala.

Bost. Arau bidez, honako artikulua honek aipatzen duen ofiziozko itzulketa egiteko prozedura eta ordainkera zehaztuko dira.

#### **66. artikulua. Ofiziozko itzulketa.**

*Bat. Iturrian atxekitako kopuruen eta konturako sarreraren batura, zatikako ordainketak barne direlarik, autolikidaziotiko kuotaren zenbatekoa baino handiagoa denean, Administrazioak behin-behineko likidazioa igorri beharko du, aitorpena aurkezteko epea amaitu ondorengo sei hilabeteen barruan.*

*Administrazioak ofizioz itzuliko du behin-behineko likidazio horretatik ateratzen den kopurua hilabeteko epearen barruan.*

*Behin-behineko likidazioa sei hilabeteko epearen barruan egiten ez bada, Administrazioak ofizioz itzuliko du, ondorengo hilabetearen barruan, subjektu*

*pasiboak egindako autolikidaziotik atera eta sartua den gaidikina.*

*Atal honetan ezarritakoak indarra du, Zergaren aitorpena eta Tributuei buruzko Foru Arau Orokorreko 110 eta ondorengo artikuluek aipatzen dituzten inguruabarrak geroago egiaztatu ahal badira ere.*

*Dena den, subjektu pasiboak bidezko errekurtsuak jartzeko duen eskubideak indarrean iraungo du.*

*Bi. Itzulketa egiteko, aurreko atalean ezarritako epea igarota, itzulketa egin gabe, subjektu pasiboak eskubidea izango du, idatziz eskatzen duen egunetik, berandutza korrituetarako, otsailaren 24eko 1/1987 Foru Dekretu Arauemaileak onetsitako aurrekontu alorrari buruzko indarreko xedapenen testu bategineko 31. artikulua aipatzen bait ditu.*

*Hiru. Artikulu honek aipatzen dituen ofiziozko itzulketak banka transferentziaz egindakotzat hartzen dira.*

#### **101. artikulua. Subjektu pasiboen erazko betebeharrak**

Bat. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako subjektu pasiboek, preskripzio epean zehar, eragiketa, errenta, gastu, sarrera, txikipen eta edonolako kenkarien frogagiriak eta berauek benetakotzen dituzten agiriak gorde beharko dituzte, baldin eta euren aitorpenetan agertarazi behar badira.

Bi. Foru Arau honi dagokionez, enpresa iharduerak egiten dituzten subjektu pasiboek, beraien etekina zuzeneko zenbatespeneko erregimenean zehazten bada, Merkatal Kodean xedaturikoari loturiko kontabilitatea egin behar izango dute.

Hiru. Halaber, Zergako subjektu pasiboek arau bidez ezarritzen diren liburu edo erregistroak egin beharko dituzte, Ogasun eta Finantzen Foru Diputatuak zehazten duen bezala.

#### **67. artikulua. Subjektu pasiboen erazko betebeharrak.**

*Bat. Enpresa jarduerak egiten dituzten subjektu pasiboek, haien etekinak zuzeneko zenbatespenaren araubidean zehazten direnean, Merkataritza Kodean xedatutakoaren arabeko kontabilitatea egin behar izango dute, bai eta Sozietateen gaineko Zergarako ezarritako edo ezar daitezkeen erregistro laguntzaileak.*

*Bi. Aurreko atalean xedatutakoaren gorabehera, egindako enpresa jarduera merkataritza ez denean, Merkataritza Kodearen arabera, kontabilitate betebeharrak bakarrik erregistro liburu hauetan egingo dira:*

- a) *Salmenta eta sarreren erregistro liburuak.*
- b) *Erosketa eta gastuen erregistro liburuak.*
- c) *Inbertsio ondasunen erregistro liburuak.*

*Hiru. Lanbide jarduerak egiten dituzten subjeto pasiboek, haien etekinak zuzeneko zenbatespenaren araubidean zehazten direnean, liburu hauek eduki eta bete behar izango dituzte:*

- a) *Sarreren liburuak.*
- b) *Gastuen liburuak.*
- c) *Inbertsio ondasunen erregistro liburuak.*
- d) *Fondo-homidura eta gehikinen erregistro liburuak.*

*Lau. Enpresa jarduerak egin eta haien etekin garbiak zenbatespen objektiboaren metodoko zeinu, indize edo moduluko modalitatearen bitartez zehazten duten subjeto pasiboek, enpresari eta profesionariak fakturak luzatu eta emateko betebeharra araupetu zuen urtarrilaren 8ko 3/1986 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera luzatutako fakturak eta jasotako bestelako faktura nahiz frogagiriak gorde behar izango dituzte, data ordenaren arabera zenbakiturik eta hiruhilero pilaturik. Aldi berean, zeinu, indize edo moduluen frogagiriak ere gorde behar izango dituzte, haiek foru agindu onesleak kasuan kasuan ezarritakoarekin bat etorritik aplikatuko direlarik.*

*Modalitate honi heltzen dioten subjeto pasiboek ez dute, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari doazkion jarduerengatik, kontabilitate liburu edo erregistrorik bete behar izango.*

*Bost. Enpresa edo lanbide jarduerak burutu eta haien etekin garbiak zenbatespen objektiboaren metodoaren koefizienteen eredu erabiliz zehazten duten subjeto pasiboek nahitaez aurreko bigarren eta hirugarren ataletan, bidezkoa denaren arabera, adierazitako liburuak eraman behar izango dituzte.*

*Sei. Enpresa nahiz lanbide jarduerak burutzen dituzten errenta-eratzikipeko araubideko erakundeek, egindako jarduerari dagozkion nahitaezko liburu bi eraman beharko dituzte, bazkide, jaraunse, erkide edo partaideei doazkiela egin behar dituzten etekinen eratzikipeak indarrean badirau ere.*

*Zazpi. Aurreko ataletan aipatu erregistro liburu guztiak behin bete eta gero, liburu horiek zergaldia amaitu eta zergaren ziozko aitortpena aurkeztu egin beharko dira, zerga Administrazioaren eskudun organoak diligenzia egin diezaie.*

*Merkataritza Kodeak eskatutako liburuak betebeharrak honetatik salbuetsita daude.*

*Ogasun eta Finantzen foru diputatuak zergadun talde edo sektoreentzako eginbide epe zehatzak ezarri ahal izango ditu. Epe zehatz horiek zergaldia amaitu eta hiru hilabete igarotakoan hasiko dira.*

*Zortzi. Ogasun eta Finantzen foru diputatuari baimena emana zaio:*

- a) *Artikulu honetan aipatu erregistro liburuak zelan bete behar diren zehaz dezan.*
- b) *Zergadun txiketako sektoreei, artikulu honetako erregistro liburuak eduki eta bete nahiz diligenziak egiteko betebeharratik salbuetsi ditzan.*

#### **102. artikulua. Atxekitzailaren erazko betebeharrak**

*Atxeki beharra duen subjektuak, arau bidez ezartzen diren epeetan, era eta tokietan, atxekitzen diren kopuruen aitortpena aurkeztu beharko dute, edo aitortpen negatiboa, beraiek ezin egin daitezkeenean. Halaber, atxekipenen urteko laburpena aurkeztuko da, arau bidez zehazten den edukinarekin.*

*Atxeki beharra duen subjektuak, arau bidez zehazten diren baldintzetan, egiten den atxekipena edo kontura egiten diren beste ordainketak benetakotzen dituen ziurtagiria luzatu beharko du.*

*Aitortpen eredu egokiak Ogasun eta Finantzen Foru Diputatuak onetsiko ditu.*

#### **103. artikulua. Sozietate Gardenen betebeharrak**

*Foru Arau honetako V. Tituluko I. Kapituluko 5gn. Sailak aipatzen dituen Sozietateek, euren Sozietateen gaineko Zerga aitortpenarekin batera, euren bazkideen zerrenda bana aurkeztu beharko dute, arau bidez zehazten diren datuekin.*

*Zerrenda Ogasun eta Finantzen Foru Diputatuak onesten duen ereduaren arabera aurkeztuko da.*

#### **68. artikulua. Sozietate gardenen betebeharrak.**

***Bat.** Sozietate gardenek, Sozietateen gaineko Zergaren zioz duten aitortpenarekin batera, bazkide egoiliarren zerrenda aurkeztu behar izango dute, berauei egin behar zaizkien egozketengatik, honako datu hauek agertzen direlarik:*

- a) *Bazkideen identifikazio, egoitza fiskal eta partaidetza koefizientea.*
- b) *Egotzi beharreko kopuruen zenbateko osoa, kopuruen kontzeptuak ondoko hauek direlarik:*

- 1) *Kontabilitateko emaitza.*
  - 2) *Zerga oinarria.*
  - 3) *Sozietatea gardentasun erregimenean egona ez den ekitaldietako galeren konpentsazioa.*
  - 4) *Ezarpen bikoitzaren ziozko kenkariaren oinarria.*
  - 5) *Nazioarteko ezarpen bikoitzaren ziozko kenkariaren oinarria.*
  - 6) *Hobariak.*
  - 7) *Inbertsioen ziozko kenkariaren oinarria.*
  - 8) *Konturako sarrerak eta atxekipenak.*
- c) *Hitzartzen diren dibidenduak edo erreserben banaketak, sozietatea gardentasun fiskalaren erregimenean ez dagoen ekitaldietakoak bereziki behar direlarik.*

**Bi.** *Aldi berean, euren bazkideei jakin erazi behar izango dizkiete egotzi beharreko kopuru osoak, bai eta bakoitzari egindako egozketa ere.*

**Hiru.** *Ogasun eta Finantzen foru diputatuak eredu bat onetsiko du, zeini artikulua honetan aurrikusitako zerrenda lotu behar zaion.*

#### 104. artikulua. Urratze eta zehapenak

Honako Foru Arau honetan dauden arau berezien kalterik gabe, Zerga honen tributu urratzeak Foru Tributu Arau Orokorrean xedaturikoaren arabera kalifikatu eta zehatuko dira.

## XI. TITULUA

### JURISDIKZIO ORDENA

#### 105. artikulua. Jurisdikzio ordena

Administrazio liskarrazietarako jurisdikzioa, ekonomia-administrazio bidea agortuta, eskudun bakarra izango da, Tributu Administrazioaren eta subjektu pasiboen artean, honako Foru Arau honek aipatzen dituen arazoetarik edozeini buruz, sortzen diren egitatezko eta zuzenbidezko eztabaidak ebazteko.

### XEDAPEN GEHIGARRIAK

#### 1go. Harpidetza eskubideen eskualdaketa Burtsara sartueran

Foru Arau honetako 48. artikuluko lehen ataleko b) letrako hirugarren lerroaldean xedaturikoa ez da aplikatuko, apirilaren 12ko 1/1989 Foru Dekretu Arauemaileak, martxoaren 22ko 1/1989 Erret Dekretu-

Legea bizkaitar arautegi fiskalari moldatu bait zion, bere artikulua bakarreko 2. ataleko bigarren lerroaldean aurrikusitako inguruabarrak gertatzen direnean; Erret Dekretu-Lege horrek harpidetza eskubideen eskualdaketa eta Altxorreko Letren tributu tratamendua egoitza Espainian ez dutenentzat araupetzen du.

#### 2gn. Instituto de Relaciones Europeo-Latinoamericanas-eko pertsonala (IRELA)

Azken Xedapenetan 2gn.ean aurrikusitakoa gorabehera, abenduaren 23ko 22/1986 Legeko 2gn. artikuluan xedaturikoa, Zerga honi dagokionean, dagoen bezala aplikatzen jarraituko da.

#### 3gn. Foru Tributu Arau Orokorren aldarazpena

Martxoaren 26ko 3/1986 Foru Tributu Arau Orokorreko 47. artikulua honelaxe geldituko da idatzirik:

"47. artikulua

1. Tributu bakoitzari dagokion Foru Arauak zerga oinarria zehazteko eskuarteak eta metodoak ezarriko ditu honako erregimen hauetan:

- a) Zuzeneko zenbatespena.
- b) Zenbatespen objektiboa, eta
- c) Zeharkako zenbatespena.

2. Aurreko ataleko a) eta c) letretan zehaztutako oinarriak zergadunak errekurritu ahal izango ditu frogia egokien bitartez."

#### 4gn. Egoitza Espainian ez duten entitateen ondasun higiezinaren gaineko Zerga Berezia

Bat. Egoitza Espainian ez duten entitateak, Bizkaiko Herrialde Historikoan edozein tituluz ondasun higiezinaren jabe edo edukitzaileak badira edo beraien gaineko eduki edo luperketako ondasun-eskubideak badituzte, entitate ez-egoiliarren ondasun higiezinaren gaineko Zerga Bereziaren menpean egongo dira, urtean urteko abenduaren 31n sortu eta ondorengo urtarrilean sartu beharko den ondasun higiezinaren katastro balioaren gainean.

Bi. Zerga Bereziak tasa 100eko 5ekoa izango da eta Bizkaiko Herrialde Historikoko Aurrekontu Orokorre buruzko Foru Arauetan aldarazi ahal izango da.

Hiru. Subjektu pasiboek Zerga Berezia Xedapen Gehigarri honetako lehen atalean ezarritako epearen barruan autolikidatu eta sartzen ez badute, ondasun higiezinaren gaineko premiamendu prozeduraz eskatu ahal izango da, hasiera emateko adina titulu, Tributu Administrazioak luzatzen duen ziurtagiria delarik, non sarrera egiteko borondatezko epea Zerga sartu gabe mugaeguneratu dela eta beraren zenbatekoa zein den esaten den.

Lau. Egoitza Espainian ez duten entitateen ondasun higiezinaren gaineko Zerga Berezia ez zaie honako hauei ordain eraziko:

a) Estatu eta Erakunde publiko atzeritarrei, ez eta Nazioarteko Organismoei ere.

b) Egoitza Espainian 1990.eko abuztuaren 4ean baino lehenagotik duten Entitateei; beti ere euren herrialdeek eta Espainiak Ezarpen Bikoitza ekiditeko Hitzarmena sinatuta badute, informazioa elkarri trukatzeko klausularekin, data hori baino lehen titular diren ondasun higiezinak edota eduki edo luperketako ondasun-eskubideei buruz.

c) Eten gabe eta ohikero, Zerga Bereziaren menpeko higiezinak ez bezalako ekonomi ustiapenak Espainian egiten dituzten Entitateei.

d) Entitateei, zeintzuek Tributu Administrazioarekin behar adinbat, arau bidez ezartzen den prozeduraz, Bizkaiko Herrialde Historikoan inbertitzen diren baliabideen jatorria eta sozietate kapitalaren zuzeneko nahiz zeharkako titularren nortasuna benetako?tzen dituzten, baldin eta edozein aldakuntza edo aldarazpen eta beronen kariak eskudun agintariari jakin erazteko konpromesua hartzen badute.

Bost. Egoitza Espainian ez duten entitateen ondasun higiezinak gaineko Zerga Bereziako kuota gastu kengarritzat hartuko da, Sozietateen gaineko Zergako zerga oinarria zehazteko.

*Azaroaren 4ko 8/1997 F.D. Arauemailearen indarrez, 1997ko irailaren 1etik aurrera indargabeturik geratzen da hurrengo xedapena:*

**5gn. Zenbait Finantz Aktiboren Erregimen Fiskalari buruzko urriaren 24eko 7/1985 Foru Araueko lehen artikulua aldarazpena**

Zenbait Finantz Aktiboren Erregimen Fiskalari buruzko urriaren 24eko 7/1985 Foru Araueko lehen artikuluko 1. atala honelaxe geldituko da idatzirik:

"Lehen artikulua. Higigarrien kapitalaren etekinak, besteren kapitalak erakarri edo erabiltzearen kontraprestazio gisa.

1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga eta Sozietateen gaineko Zergari dagokienez, higigarrien kapitalaren etekin?tzat, mota guztietako kontraprestazioak hartuko dira, diruzkoak nola gauzazkoak, besteren kapitalak erakarri edo erabiltzeko ordaintzen badira, jaulkipen eta amortizazio- primak eta partaidetza kredituez lortzen diren kontraprestazioak

barne.

**7gn. Ekainaren 29ko 4/1990 Legeko Xedapen Gehigarrietan hamazortzigarrenean aurrikusten diren kalteordainen erregimena**

Estatuaren 1990.eraiko Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 29ko 4/1990 Legeko Xedapen Gehigarrietan hamazortzigarrenean aurrikusitako kalteordainak ez dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren menpean egongo.

**8gn. Teknologia edota ekonomiaren karien ziozko amaiera**

Bat. Honako Foru Arau honetako 9. artikuluko lehen ataleko d) letran aurrikusitakoak indarra badu ere, langileek teknologia edota ekonomiaren karien zioz lanari uzteagatik hartzen duten kalteordainaren zatia kargatik kanpo egongo da, baldin eta Langileen Estatutuan bidegabeko botatzerako ezarritako mugak gairitzen ez baditu, beti ere honako inguruabar hauek batera gertatzen direnean:

1go.) Enpleguaren erregulaziorako espediente egokia izapidetu izana, Langileen Estatutuko 51. artikuluan xedaturikoaren arabera.

2gn.) Eskudun agintariak espediente hori honako Foru Arau hau indarrean sartu aurretik baimendu izana.

Bi. Aurreko atalean xedaturikoa preskribatu gabeko zergaldietan aplikatuko da, honako Foru Arau hau indarrean sartu aurretik irmo bihurtu diren administrazio iharduketak izan ezik.

**9gn. Urriaren 26ko 4/1988 Foru Dekretu Arauemaileko lehen artikulua aldarazpena**

Urriaren 26ko 4/1988 Foru Dekretu Arauemaileak, Baloreen Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legean dauden tributu neurriak bizkaitar arautegi fiskalari moldatu bait zizkion, duen lehen artikulua honelaxe geldituko da idatzirik:

"Lehen artikulua

1. Baloreen eskualdaketa, beraiek bigarren mailako merkatu ofizialen batetan negoziaketara onartuak izan edo ez, Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Agiridunen gaineko Zergan eta Balio Erantsiaren gaineko Zergan salbuetsita egongo da.

2. Hurrengoak aurreko atalean xedatutakotik salbuetsita egongo dira eta Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Agiridunen gaineko Zergan "Kostubidezko Ondare Eskualdaketen" zioz ordainduko dituzte tributuak:

1go.) Bigarren mailako merkatuan egiten diren eskualdaketak, bai eta lehenespenezko harpidetza eskubideak eta obligazioak akzio bihurtzekoak erabiltzetik lehen mailako merkatuetan egiten diren eskuraketak, baldin eta sozietate, fondo, elkarte eta beste entitate batzuren sozietate kapitalaren edo ondarearen zati alikuotak ordezkatzan dituzten baloreenak badira, beti ere beraien aktiboak, gu?txienez, 100eko 50ean, nazio lurraldean dauden higiezinak osatuta dagoenean, eta eskualdaketa edo eskuraketa horren emaitza gisa, eskuratzailak ondare horren titulartasun osoa edo, gutxienez, entitate horien gaineko kontrola burutzen errazten dion tokia lortzen duenean.

Merkatal sozietateak direnean, kontrol hori, zuzenean edo zeharka sozietatearen kapitalaren 100eko 50a baino gehiagoko partaidetza lortzen denean, edukitzen dela ulertuko da.

Higiezinak osatzen duten aktiboaren 100eko 50a zenbatzeko, beraiek ez dira gogoan hartuko,

sozietatearen xede bakartzat higiezin-eraikuntza edo sustapenerako iharduerak burutzea duten entitateen aktibo ibilkorraren zati diren lur eta orubeak salbu.

2gn. Sozietateak eratu edo beraien sozietate kapitala zabal?tzeagatik egiten diren ondasun higiezinaren ekarpenen truk jasotzen diren sozietate akzio edo partaidetzen eskualdaketak, beti ere ekarpeneko data eta eskualdaketakoaren artean urtebeteko epea igarota ez denean.

Aurreko kasuetan, ondasun higiezinaren kostubidezko eskualdaketari dagokien tasa Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Agiridunen gaineko Zergari buruzko indarreko arautegian dauden erregelaren arabera kalkulatu den ondasun horien balioaren gainean aplikatuko da."

#### **10gn. Ez-egoiliarrentzako kupoi korritudun baloreen eskualdaketa**

Bat. Etekin esplizitudun Zor Publikoko baloreen eskualdaketetan, balore horiengatik ez-egoiliarrei egiten zaizkien atxikipeanak itzultzeko araubide berezia ezarrita dagoelarik, baldin eta atxikipeanak kupoiaren mugaegunaren aurre-aurreko 30 egunen barruan Bizkaian egoitza duten pertsona fisiko nahiz entitateek Espainian egoitzarik ez establezimendu iraunkorrik ez duten pertsona fisiko nahiz entitateentzat egiten badituzte, higigarrien kapitalaren etekintzat, eskualdatzailearentzat, eskualdatzen den balorearen kupoi korrituaren pareko prezioaren zatia hartuko da. Etekin hori konturako atxikipeanaren gai izango da, eskualdaketan esku hartzen duen Idaztoharretako Zor Publikoaren Merkatuko Entitate Kudeatzaileak egingo duela.

Aurreko lerroaldean xedatutakotik, Idaztoharretako Zor Publikoaren Merkatuko Entitate Kudeatzaileak, ofizialki merkatu sortzaile izaera aintzatetsita baitute, egiten dituzten eskualdaketak salbuesten dira, beti ere euren konturako transakzioak direnean eta, arau bidez zehazten den bezala, beraien zenbatekoa eta izaera eginkizun horien bilakaera arruntari dagozkionean.

Bi. Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauek aurretiko atalean ezarritako araubidearen epea eta salbuespenak murriztu edo zabaldu ahal izango dituzte, bai eta, behar diren moldaketak eginda, beste balore batzuei aplikatu dakizkiekeela adierazi ere

#### **11gn. Gauzako ordainketak**

Korritu tasa diruaren legezkora baino txikiagoa duten maileguak ez dira gauzako ordainketatzat hartuko, beti ere 1992.eko urtarrilaren 1a baino lehen kontzertatzen direnean, eta beraien printzipala mailegu-hartzailearen eskura data hori baino lehenago jarria dagoenean.

*Azaroaren 4ko 8/1997 F.D. Arauemailearen indarrez, 1997ko irailaren 1etik aurrera indargabeturik geratzen da hurrengo xedapena:*

#### **12gn. Establezimendu iraunkorra**

Sozietate batek eragiketarako Euskal Herrian establezimendu iraunkor baten bitartez egiten ditu,

baldin eta zuzenean edo ahaldun baten bidez lurralde horretan zuzendaritzako egoitza, sukurtsala, bulegoak, fabrikak, lantegiak, instalazioak, biltegiak, dendak edo bestelako establezimenduak baditu; eraikuntza, ezarketa edota muntaiako obrak direnean, hamabi hilabete baino gehiagoko iraupena badute, subjektu pasiboaren izenean eta kontura kontratatzeko agentzia edo ordezkariak eskuespendunak badituzte, edo meatzeak, harrobiak, petrolio putzuak edo gasekoak, nekazal, baso, abel ustiategiak edo izadiko baliabideak erazteko beste edozein toki badituzte, bai eta lanbide edota arte iharduerak egin edo iharduera osoa edo beraren zati bat egiten dueneko beste lantoki batzu baditu.

#### **13gn. Ekonomi Ihardueren gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 6/1989 Foru Arauaren aldarazpena**

Bat. Ekonomi Ihardueren gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 6/1989 Foru Araueko 14. artikuluko 3. atalari bigarren lerroaldea erantsiko zaio, honelaxe idatziko dena:

"Hori guztiori gorabehera, egintza hauen berri Udalek edo Foru Aldundiak eman dezakete, tributu zorrak zehaztera jotzen duten likidazioen berri ematez bat."

Bi. Ekonomi Ihardueren gaineko Zergari buruzko ekainaren 30eko 6/1989 Foru Araueko Xedapen Iragakorretan Lehenengoko 1. ataleko bigarren lerroaldea aldaraziko da, abenduaren 21eko 11/1990 Foru Araueko 76.4. artikuluko emandako idazkeran, eta honelaxe geldituko da idatzirik:

"Ondoreak 1992.eko zergaldirako bakarrik izango dituelarik, urte horretako urtarrilaren 1ean sortzen den zerga ordain erazteko, epealdi horretan aplikatu behar diren gehikuntza koefizientea eta kokaera indizeen eskalak finkatzen dituzten Ordenantza fiskalak, Udal Ogasunei buruzko ekainaren 30eko 5/1989 Foru Araueko 16.4. artikuluan aurrikusitakoaren arabera argitaratu behar izango dira, beti ere urte horretako uztailaren 1a baino lehen."

#### **14gn. Kontzertu Ekonomikoaren aldarazpena**

Kontzertu Ekonomikoaren Xedapen Gehigarrietan Bigarrena aplikatzeagatik, hura aldarazten bada, honako Foru Arau honen edukina arautegi berriaren arabera moldatu behar izango da.

#### **15gn. Bizkaiko Jatorrizko Lurraldeko Guztizko Diruegitamuei buruzko Foru-Arauek ondorengooko aldatu litzake, Konstituzioaren 134. atalaren 7. azpiatalak dioanaren arabera eta Ekonomia-Ituneak ezarritako aginpide-eremuaren barruan:**

- Eskala, zerga-ehunekoak eta ordainkizunaren kenkariak.
- Foru-Arauek ezarritako bestelako zenbatekoen mugak eta ehuneko finkoak.
- Zergaren salbuespenak.
- Ondasun-betebeharraren ziozko zerga-ordainketa zehazten duten gora-beherak.

e) Gardentasun fiskaleko jaurpidean dauden baltzuen zerga-erregimena.

f) Europako Ekonomi Elkartearen bateratasun-beharrak eskatutako zenbait errenten tributazioa.

g) Zergaren bideraketazko eta kudeaketazko gora-beherak.

h) Eguneratze koefizienteak

**16gn. Izakunde ez-egoiliarrek lortutako zenbait errenta positibo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga oinarrian sartzea.**

Bat. Zerga ordaintzeko betebeharrak pertsonalaren menpeko pertsona fisikoek espainiar lurraldean egoiliar ez den izakunde batek lortutako errenta positiboa sartuko dute euren zerga oinarrian, errenta hori Xedapen Gehigarri honetako bigarren atalean oharrekin diren motetako batekoa izan eta ondorengo zertzeladak bete-tzen badira:

a) Berenez soilik edo, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 11/1984 Foru Arauaren 16. artikuluan oharrekin diren arabera, lokarria duten izakundeekin, edo zerga ordaintzeko betebeharrak pertsonalaren menpekoak izan eta eurekin bigarren gradurainoko zuzeneko edo zehar ahalidetasunez, odolkidetasunez edo ezkontzahaidetasunez loturiko pertsona fisikoekin batera, espainiar lurraldean egoiliar ez den izakunde, beronen sozietate-ekitaldiaren itxiera egunean, kapitalaren, berezko fondoan, emaitzen edo boto-eskubideen 100eko 50eko edo gorako partaidetza edukitzea.

Lokarriaren izakunde ez-egoiliarren partaidetza espainiar lurraldeko pertsona edo lokarriaren izakunde egoiliarrei zehazten zaizkien zehar-partaidetzaren zenbatekoaren arabera konputatuko da.

Sartzeko errenta positiboaren zenbatekoa emaitzetako partaidetzaren heinean zehaztuko da eta, horren ezean, kapital, berezko fondo edo boto-eskubideetako partaidetzaren heinean.

b) Espainiar lurraldeko izakunde ez-egoiliarrek Sozietateen gaineko Zergaren izaera bereko edo antzerako kargaren zioz ordaindutako zenbatekoa, Xedapen Gehigarri honetako bigarren atalean oharrekin diren motetako bati egozkarria, aipatu Zergari buruzko arauaren arabera ordaindu behar izan zutenaren 100eko 75etik beherakoa izatea.

Bi. Ondorengo iturrietatik datorren errenta positiboa soilik sartuko da zerga oinarrian:

a) Landa eta hiri-ondasun higiezin edo euren gaineko ondasun-eskubideen titulartasuna, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 7/1991 Foru Arauaren 6 eta 40. artikuluek xedatzen dutenaren arabera enpresa iharduera bati atxikita edo, Merkataritzako Kodearen 42. artikuluen zentzuan, titularraren sozietate-multzoz

bereko izakunde ez-egoiliarrei erabiltzeko lagatuta egon ezik.

b) Nolanahiko izakunderen beraren fondoetako partaidetza eta norberaren kapitalak besteei lagatzea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 7/1991 Foru Arauaren 37. artikuluko 1 eta 2 zenbakietan oharrekin diren arabera.

Ez da letra honetan bildutzat joko ondorengo finantza aktiboetarik datorren errenta positiboa:

a) Enpresa ihardueretan aritzearen ondorioz gertarazitako lege eta araudizko beharkizunak betetzeko edukitakoak.

b) Enpresa ihardueretan aritzearen ondorioz ezarritako kontratu-harremanetatik sortutako kreditu-eskubideak daramatzatenak.

c) Balore-merkatu ofizialetan bitartekotza ihardueren ondorioz izandakoak.

d) Kreditu eta aseguru-izakundeek euren enpresa ihardueretan aritzearen ondorioz izandakoak, hurrengo c) letran ezarritakoaren kalteetan gabe.

Besteei norberaren kapitalak lagatzearen ondoriozko errenta positiboa ondorengo c) letran aipatzen diren kreditu eta finantza ihardueretan aritzearen ondoriozko zatitza joko da, lagatzailea eta lagapen-hartzailea Merkataritzako Kodearen 42. artikuluen arabera sozietate-multzoz batekoak direnean eta lagapen-hartzailearen sarreraren 100eko 85a, gutxienez, enpresa ihardueretatik datorrenean.

c) Espainiar lurraldean egoitza izan eta, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 11/1984 Foru Arauaren 12. artikulua dioenaren arabera, lokarria duten pertsona edo izakundeekin, zuzenean edo zeharka, egindako kreditu, finantza, aseguru eta zerbitzugintza iharduerak, esportazio iharduerari zuzenean datzekien zerbitzuak salbu, izakunde egoiliar horiei zergen aldetik gastu kengarriak dakarziketenean.

Errenta positiboa ez da sartuko izakunde ez-egoiliarrek egindako kreditu, finantza, aseguru ihardueretatik eta zerbitzuak, esportazio iharduerari zuzenean datzekienak salbu, ematezkoetatik etorritako sarreraren 100eko 50tik gora, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 11/1984 Foru Arauaren 12. artikulua dioenaren arabera, lokarriak ez duten pertsona edo izakundeekin izandako eragiketetatik datorrenean.

d) Aurreko a) eta b) letratan aipatzen diren ondasun eta eskubideen eskualdaketak, ondare gehikuntza eta urripenak gertarazten dituztenean.

Aurreko a), b) eta d) letratan oharrekin diren izakunde ez-egoiliarrek lortutako errentak ez dira sartuko, 100eko 5etik gorako zuzeneko edo zeharkako partaidetza dueneko izakundeetatik badatoz, ondorengo bi baldintza hauek betetzen direnean:

a) Izakunde ez-egoiliarrek partaidetzen zuzendaritza eta kudeaketa egitea, gauzazko eta gizakizko baliabideen antolakuntzaren bitartez.

b') Errenten iturri diren izakundearen sarrerak, 100eko 85ekoan gutxienez, enpresa ihardueretatik etortzea.

Alde honetatik, enpresa ihardueretan aritzearen ondoriozkotzat joko dira a), b) eta d) letretan oharremananda egon eta aurreko b') letrako baldintza bete eta izakunde ez-egoiliarren zuzeneko edo zeharkako 100eko 5eko partaidetza dueneko izakundeetatik datozenak.

Hiru. Aurreko ataleko a), b) eta d) letretan aipatzen diren errentak ez dira sartuko, euren zenbatekoen batuketan izakunde ez-egoiliarren guztirako errentaren 100eko 15etik edo guztirako sarreraren 100eko 4tik beherakoa denean.

Aurreko lehen atalean ezarritako mugak Merkataritzako Kodearen 42. artikulua dioenaren arabera sozietate-multzoko batekoak diren espainiar lurraldeko izakunde ez-egoiliarren multzoak lortutako errenta zein sarrerekikoak izan daitezke.

Ez da inoiz ere izakunde ez-egoiliarren guztirako errentatik gorako zenbatekorik sartuko.

Ez dira pertsona fisiko egoiliarren zerga oinarrian sartuko sozietate ez-egoiliarren benetan ordaindutako Sozietateen gaineko Zergaren izaera bereko edo antzerako zerga edo zergak, sartu beharreko errentari dagokion zatian.

Aurreko bigarren atalean aipatutako iturrietako bakoitzetik errenta positiboak dagokion Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga oinarrian sartuko dira, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 7/1991 Foru Arauaren 61. artikuluan oharremanatan diren errenten osagarrietako bat denez.

Lau. Euren zerga oinarrian sartzea egitera beharrik egongo dira aurreko bat ataleko a) letran biltzen diren pertsona fisiko egoiliarren, izakunde ez-egoiliarren zuzeneko partaidetza edo beste izakunde ez-egoiliar baten edo batzuen bitartezko zeharkakoa dutenean. Azken kasu honetan, errenta positiboaren zenbatekoa zeharkako partaidetzari dagokion izango da.

Bost. Sartzea espainiar lurraldean egoitzarik ez duen izakundeak bere sozietate-ekitaldia amaitu dueneko eguna biltzen duen zergaldian egingo da, aipatu ekitaldia, alde honetatik, hamabi hilabetetik gorakoa izaterik ez duela, subjektu pasiboak sartze hori aipatu ekitaldiko kontuak onartu daitezkeen eguna biltzen duen zergaldian egitearen aukera hartzen badu salbu, baldin eta ekitaldia amaitu eta sei hilabetetik gorako aldia igaro ez bada.

Aukera hori eragina izan behar dueneko lehenengo zerga-aitorpenean adieraziko da eta hiru urtetan eutsiko zaio.

Sei. Zerga oinarrian sartu beharreko errenta positiboaren zenbatekoa Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 11/1984 Foru Arauean eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko gainerako xedapenetan, zerga oinarria hainbatzeko, ezartzen diren printzipio eta irizpideei atxikiz kalkulatu da.

Guztirako errenta iri-tziko zaio printzipio eta irizpide beroriek aplikatuz gerta dadin zerga oinarriaren zenbatekoari.

Honetarako, espainiar lurraldean egoitzarik ez duen izakundearen sozietate-ekitaldiaren itxieran indarrean dagon truke-tasa erabiliko da. Zazpi. Ez da zerga oinarrian sartuko zerga oinarrian sartua izandako errenta positiboari dagokion dibidendu edo mozkin-parataidetzen zatia. Tratamendu bera erabiliko da konturako dibidenduetan.

Erreserba-banaketaren kasuan sozietate-akordioan bildutako izendapenari egongo zaio, ordaindutako azken kopuruak erreserba horiei aplikatuz jotzen direla.

Errenta positibo bat bera behin bakarrik sartu ahal izango da, zein eratan edo izakundetan ageri den gorabehera.

Zortzi. Kuota osotik kengarria izango da atzerrian dibidenduen edo mozkin-partaidetzen banaketa dela eta benetan ordaindutako zerga edo karga, zergapen bikoitza galerazteko itune baten edo dagokion herri edo lurraldearen barne-legeriaren arabera izanik, zerga oinarrian sartutako errenta positiboari dagokion zatian.

Kenkari hauek are zergak sartzea egin zenekoaz besteko zergaldiei dagozkien ere erabiliko dira.

Araubidez zerga-paradisutzat jotako herri edo lurraldeetan ordaindutako zergak ez dira inoiz ere kengarri izango.

Kenkari honek ez du Espainian zerga oinarrian sartutako errenta positiboarengatik ordaindu behar den kuota osotik gorakoa izaterik izango.

Bederatzi. Zuzeneko edo zeharkako partaidetzaren eskualdeetatik eratorritako errenta hainbatzeko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerari buruzko azaroaren 27ko 7/1991 Foru Arauaren 48. artikuluko 1. ataleko c) letran biltzen diren arauak erabiliko dira, zerga oinarrian sartutako errenta positiboari dagokionez. Aipatu manuan adierazten diren sozietate-mozkinak zerga oinarrian sartutako errenta positiboari dagozkionak izango dira.

Hamar. Xedapen Gehigarri honetan oharremanatan dena aplikagarri zaien subjektu pasiboek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpenarekin batera espainiar lurraldean egoitzarik ez duen izakundeari buruzko honako datuok aurkeztu beharko dituzte:

- a) Izena edo sozietate izena eta sozietate egoitzaren lekua.
- b) Administrazioaren zerrenda.
- c) Balantzea eta galera-irabazien kontua.
- d) Zerga oinarrian sartu beharreko errenta positiboaren zenbatekoa.
- e) Zerga oinarrian sartu beharreko errenta positiboarekiko ordaindutako zergen frogagiria.

Hamaika. Partehartutako izakundea araubidez zerga-paradisutzat jotako herri edo lurraldeetan egoiliar denean, alderantzizko froga egon ezik, zera uste izango da:



a) Aurreko bat ataleko b) letran oharrematen den zertzelada betetzen dela.

b) Partehartutako izakundeak lortutako errenta aurreko bi atalean aipatzen diren errenta-iturrietatik datorrela.

c) Partehartutako izakundeak lortutako errenta partaidetzaren eskurapen-balioaren 100eko 15ekoa dela.

Aurreko letretan biltzen diren usteak ez dira erabiliko partehartutako izakundeak, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan oharrematen denaren arabera, bere kontuak sartzea egitera beharturiko izakundeetarik batekin edo batzuekin bateratzen dituenean.

Hamabi. Xedapen Gehigarri honetan oharrematen dena barne ordenamendura sartuak diren nazioarteko hitzarmen eta ituneetan eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 7/1991 Foru Arauaren 13. artikuluan xedatzen denaren kaltetan gabe ulertuko da.

#### **17gn. Elkarteko Nekazal Politikaren dirulaguntzak.<sup>4</sup>**

Bat. Ondorengoak direla bide gerta daitezen errenta positiboak ez dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarrian sartuko:

a) Elkarteko nekazal politika dela bide jasotako ondorengo laguntza hauek:

1. Mahastizantzari behin-betiko uztekoa.  
2. Sagardien erauzketa eta landaketa-sariak.

3. Bananadien erauzketa-sariak.  
4. Esne-ekoizpenari behin-betiko uztekoa.

b) Elkarteko arrantza-politika dela bide jasotako ondorengo laguntza hauek:

Arrantzari behin-betiko uztekoa.

c) Enpresa iharduerei atxikitako ondare-elementuen sute, uholde edo amiltzearen ondoriozko suntsidura konpontzeko xedez jasotako laguntza publikoak.

Bi. Zerga-oinarrian sartuko ez den errenta hainbatzeko kontutan hartuko dira jasotako laguntzen zenbatekoa nahiz, hala gertatuz gero, iharduerei atxikitako elementuetan gerta daitezen ondare-galerak. Laguntza hauen zenbatekoa aipatu elementuetan gertatutako galerena baino txikiagoa izanez gero, diferentzia negatiboa sartu ahal izango da zerga-oinarrian. Galerarik ez dagoenean, laguntzen zenbatekoa salbuetsiko da soilik kargatik.

#### **18gn. Zerga-paradisuetan egoitza duten per-tsona edo izakundeekin egindako eragiketen balioztapena.**

Araubidez zerga-paradisutzat jotako herri edo lurraldeetan egoi-tza duten pertsona edo izakundeekin egindako eragiketak, Pertsona Fisikoen

<sup>4</sup> Ekainaren 24ko 85/1997 FDak arrantzari behin-betiko uztearen kontzeptua garatzen du.

Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarria zehazteko, alde lokabeen artean merkaturko ohizko baldintzetan hitzartua izan zatekeen prezioan balioztatuko dira.

#### **19gn. Aktibo finko ezmaterialen eskualdaketa jakin batzuen etekina.**

Ekonomi Ihardueren gaineko Zergaren Tarifetako 1. Ataleko 721.2 epigrafean altan dauden subjektu pasiboek, heriotza, ezintasun iraunkor, jubilazio, sektorearen berregituraketaren ziozko iharduera-uzte eta bigarren gradurainoko senideei egindako eskualdaketa kasuetan, aktibo finko ezmaterialen eskualdaketa zioz lortutako etekina Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zenbatespen objektiboaren metodoaren zeinu, indize edo moduluen modalitatea aplikatzearen ondoriozko etekin garbian sartuta geratuko da. Araudiz garatuko da manu honen aplikazioa.

20gn. Atzerritar baloreen edukitzezko entitateengandik hartutako mozkin edo dibidenduen zerga-tratamendua.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauaren 118. artikuluan, Arabako Lurralde Historikoaren Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauan, edo Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 43/1995 Legearen 130. artikuluan xedatzen dena aplikatuz, entitateen zerga oinarrian integratzen ez diren errenten pentzutango mozkinen hartzailea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari loturiko pertsona fisikoa denean, banatutako mozkinak ez du dibidenduen zergapen bikoitzaren ziozko kenkarirako eskubiderik emango, baina pertsona fisiko horrek nazioarteko zergapen bikoitzaren ziozko kenkaria aplikatu ahal izango die, azaroaren 27ko 7/1991 Foru Arauaren 82. artikuluan adierazten denaren arabera, atzerrian ordainduak izan eta hartutako mozkin horiek gertarazten lagundu duten errete dagozkien zergei

#### **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

#### **Lehena. Higigarrien kapitalaren etekinen gaineko atxekipena Sozietateen gaineko Zergan.**

Bat. Araudi honetan ezarritako higigarrien kapitalaren etekinen gaineko atxekipen tasa Sozietateen gaineko Zergaren ondoretarako ere aplikagarria izango da.

Bi. Jarraian adieraziko diren etekinei doakiela, ez da egin behar izango Sozietateen gaineko Zergaren konturako atxekipenik:

a) Altxorraren ordaindukoen etekinak, eta Altxorrek edo

Espainiako Bankuak jaulki eta moneta merkatuan esku hartzeko tresna araupetzaille direnenak, martxoaren 22ko 1/1989 erret dekretu-legean, zeinek

ez-egoiliarrentzako harpidetza eskubideen eta altxorraren letren tributu tratamendua araupetzen baitu, 2gn. artikuluan aurrikusitakoa izan ezik.

b) Altxorarentzako eskubideak diren korrituak, hark kreditu ofizialari egiten dizkion zuzkiduren kontraprestazio legez.

c) Kreditu Ofizialeko institutuak, bankuek, aurrezki kutxek, kreditu kooperatibek eta diru merkaturako sozietate bitartekariak, bai eta Ekonomia eta Ogasun Ministraritzaren menpeko finantza entitateen erregistro berezietan inskribatutako enpresek, egoitza espainiar lurraldean izan eta Sozietateen gaineko Zergaren menpean baitaude, egiten dituzten sarrerak diren etekinak eta mailegu komisioak.

Hala ere, entitate publiko nahiz pribatuek, direla Espainiakoak, direla atzerritarrak, jaulkitzen dituzten obligazio, bonu edota beste titulu batzuren korritu eta etekinak, aurreko lerroaldeak aipatzen dituen entitateen balore kartera osatzen badute, atxekipenaren pean geldituko dira.

d) Egoitza Espainian ez duen finantza entitate baten establezimendu iraunkorraren sarrera diren korritu eta komisioak, establezimendu iraunkor horrek egindako maileguen ondoriozkoak direnean, aurreko letrako bigarren lerroaldean xedatutakoa izan ezik.

e) Industri Nazio Institutuak eta Hidrokarburoen Nazio Institutuak sozietateekin, zeinetan beraiek kapitalean gehiengo partaidetza duten, egiten dituzten mailegu, kreditu edo aurrerakin eragiketarako korrituak, salbuespen hori zedula, obligazio, bonu edo antzeko bestelako tituluen korrituei ezin izango zaielarik hedatu.

f) Ekonomi Intereseko Elkartzei buruzko apirilaren 29ko 12/1991 Legeko xedapen iragankorretan bigarrean aurrikusitako epeak indarrean dirauen bitartean, Enpresen Elkartea eta Batasunei buruzko abenduaren 28ko Legeko 196/1963 Legeko xedapenekin bat etorriz, enpresen sozietateek beren kideei, kreditu eragiketako partaidetza kuoten proportzioaren arabera, transferitutako obligazioen jaulkipenaren zioz etortzen diren korrituak.

g) Espainiako Bankuak eta bankuek, aurrezki kutxek, baseritarren kutxek eta kreditu kooperatibek egoitza Espainian ez dutenei ordaintzen dizkieten atzerriko monetazko gordailuen eta pezetazko atzerri kontuen etekinak, ordainketa establezimendu iraunkorraren bitartez edo beronen eskuordeko eginkizunak dituzten establezimenduetan egiten denean izan ezik.

h) Salerosketan geroratutako prezioaren zioz lortutako kontraprestazioa, hura ohizko negozio edo ihardueraren eragiketa gehigarria denean.

i) Ondasun higigarri, eskubide, negozio, meatze eta zine

filmeen errentamenduaren zioz datozenak; industri jabetza edo jabetza intelektualaren lagapenaren zioz datozenak; eta urgazpen teknikoaren zioz datozenak, Sozietateen gaineko Zergaren menpeko entitateen ohizko ihardueraren sarrerak direnean.

j) Zerga ondasun-betebeharraren zioz ordaindu behar izan eta establezimendu iraunkorrik gabe eragiten duten subjektu pasiboei ordaindu edo abonatzen zaizkienak, zerga ordainduta dagoela benetakotzen denean.

k) Balore Merkaturari buruzko uztailearen 28ko 24/1988 Legeko

71. artikuluko i) letrak aipatu baloreak erosi edo saltzeko eragiketei doakiela, ematen diren kredituen ondorioz balore sozietateek hartzen dituzten korrituak, bai eta balore- sozietate eta agentziek, Balore- Sozietate eta Agentziei buruzko martxoaren 22ko 276/1989 Erret Dekretuko 21. artikuluko 2. atalean aipatu mailegu edo gordailuko eragiketa aktiboetan, hartzen dituzten korrituak ere.

Ez da zertan Sozietateen gaineko Zergaren kontura atxekipenik egin beharrik, Sozietate edo Balore-Agentziek, etorkizun eta aukeren merkatu ofizialak araupetu zituen abenduaren 20ko 1814/1991 Erret Dekretuko III eta IV. kapituluek aipatu terminoetan, finantza-aukera eta etokizunen merkatuetako kide legez iharduteko eraturako bermen kontraprestazioan, jasotako etekinei doakiela.

l) Higigarrietako inbertsio sozietateek, zeinen sozietate kapitalaren balore ordezkagarriak baloreen burtsako negoziaketan onartuta dauden, banatzen dituzten dibidenduak, Europako elkarteko beste herrialdeetako egoiliarrek hartzen dituzten neurrian.

m) Inbertsio fondoetako partaideei banatzen zaizkien emaitzak, aurreko letrako baldintza berekin.

n) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 11/1984 Foru Araueko 11. artikuluko bigarren ataleko hirugarren lerroaldeak aipatzen dituen higigarrien kapitalaren etekinak.

o) Obligazioak akzio bihurtzearen ziozko primak, higigarrien kapitalaren etekintzat hartzen direnean.

### **Bigarrena. Errentak atzerrira transferitzea.**

*Atzerriarekiko Ekonomi Transakzioei buruzko abenduaren 20ko 1816/1991 Erret Dekretuko 8. artikuluan xedatutakoaren kaltetan jo gabe, hura indarrean jartzean ondorerik gabe geratuko da egoiliarrek ez diren pertsonak lortzen dituzten errentak atzerrira transferitu baino lehen, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ordainketa benetakotu behar izatea.*

### **XEDAPEN IRAGANKORRAK**

#### **1go. Subjektu pasibo ez-egoliarrek euren ordezkaria izendatu**

Foru Arau honetako 22. artikulua aipatzen duen ordezkaria 1991.eko abenduaren 31 baino lehen izendatu beharko da.

#### **2gn. Konpentsazioa errenten zain**

Bat. Subjektu pasiboen edo, bestela, famili unitateen etekin negatiboak, ondare urripen garbiak eta kuota negatiboak, 1987.eko zergalditik bait datoz, honako Foru Arau hau indarrean sartueran konpentsatzeko egotekotan, konpentsatu ahal izango dira, bai zerga banaka ordaintzekotan, bai batera ordaintzekotan, baina konpen?tsatzen den zenbateko osoa, famili unitatearen barruko subjektu pasiboentzat, konpentsatu gabe dagoena baino handiagoa ezin izanaz.

Famili unitatekideen artean akordiorik ez badago konpentsazioa egiteko moduz, konpentsazioa eskubidea sorterazten duen subjektu pasiboari dagokio.

Bi. Konpentsatu gabe dauden etekin negatiboak, ondare urripen garbiak eta kuota negatiboak, 1988, 1989, 1990 eta 1991.eko zergaldietatik bait datoz, Zerga bakoitzeko erregelen arabera dagozkion subjektu pasiboak bakarrik konpentsatu ahal izango ditu.

Kompentsazio hau subjektu pasiboak egin ahal izango du, bai zerga batera ordaintzen duenean, bai banaka ordaintzen duenean.

Hiru. Etekin negatiboak oinarri likidagarri erregular edo irregularrekin konpentsatu ahal izango dira, subjektu pasiboak aukeratuta.

Lau. Ondare urripen garbiak ondare gehikuntza irregularrekin bakarrik konpentsatuko dira.

Bost. Konpentsazioa, kuota osoek, oinarri likidagarriek edota ondare gehikuntza irregularrek eskuesten duten gehienezko zenbatekoraino egin ahal izango da, sorterazpen urtetik gehienez bostgarrenerainotik at ezin eginaz, ez zuzenean, ez, etekin negatiboak edo ondare urripen garbiak izatekotan, 1991.eko abenduaren 31 eta gero hasten

diren ekitaldietako etekin negatibo erregularrei eta ondare urripen irregularrei metatuz.

#### **3gn. 1990 baino lehen eskuratutako etxebizitzaren ziozko kuotatikako kenkariak**

Bat. Zergako kuotan 100eko 17ko kenkari eskubidea duten etxebizitzak 1988 baino lehen eskuratzen dituztenek 100eko 15ean utsiko diote horri, ohizko etxebizitzak badira, eta 100eko 10ean, gainerako kasuetan.

Bi. Zergako kuotan 100eko 10eko kenkari eskubidea izan baina ohizkoak ez diren etxebizitzak eskuratzen dituztenek utsiko diote horri, honako Foru Arau hau indarrean sartu eta gero.

Hiru. Aurreko atal bietan aurrikusitako kenkariaren oinarria Foru Arau honetako 78. artikuluko laugarren ataleko b) letrako bostgarren lerroaldean ezarri bezala zehaztuko da.

Lau. Kenkari hauek Foru Arau honetako 80. artikuluko lehen atalean eta 81. artikuluan ezarritako muga eta beharkizunei doituko zaizkie.

#### **4gn. Gardentasun fiskalean galerak egozteko erregimen iragankorra**

Honako Foru Arau honetan xedaturikoak indarra badu ere, bidezko denean, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Eraldaketa Partzialari buruzko apirilaren 16ko 7/1986 Foru Araueko Xedapen Iragankorra aplikatu egingo da.

#### **5gn. Ondare-gehikuntza edo urripen batzuen araubide iragankorra.**

Foru Arau honetako 46. artikuluan aurrikusitakoari dagokionez, 1979.eko urtarrilaren 1a baino lehen eskuratutako ondare elementuen edo data hori baino lehen, halaber, eskuratutako baloreetatik datozen harpidetza eskubideen eskualdaketa dela-eta, agertarazten diren ondare-gehikuntza eta urripenetan, subjektu pasiboak eskuraketa baliozkat 1978.eko abenduaren 31ko merkatukoa hartu ahal izango du, beti ere balio hori eskuraketakoa baino handiagoa denean. Orduan, eskuraketa datatzat 1979.eko urtarrilaren 1a hartuko da.

#### **6gn. Prezioa geroratuta duten ondare-gehikuntzen erregimen iragankorra**

1992.eko urtarrilaren 1a eta gero, kostubidezko eskualdaketen zioz, agertarazten diren ondare gehikuntzak, baldin eta prezioa osorik edo zati batetan geroratuta badute, kobrantzak egin behar direnean, honako Foru Arau honen menpean egongo dira eta, subjektu pasiboak eskubidea sortzen den unean bertan egozten erabaki ezik, honako erregela hauek beteko dira:

1go.) Foru Arau honetako V. Tituluko I. Kapituluko 4gn. Sailean ezarritakoaren arabera gertatzen den ondarearen gehikuntza zehaztuko da.

2gn.) Ateratzen den gehikuntza honako Foru Arau hau indarrean sartu aurretik kargapean dagoen zenbatekoan urrituko da.

3gn.) Aurreko erregelari aurrikusitako eragiketaren emaitza positiboa kobrantzak gertatzen diren ekitaldietan egotziko da, kobrantzen zenbatekoaren proportzioaren arabera.

4gn.) Ekitaldi bakoitzean egozten den gehikuntzaren zenbatekoa zerga oinarri erregular edo irregularrean sartuko da, dagokion arabera, Foru Arau honetako V. Tituluko III eta IV. Kapituluetan ezarritakoaren arabera.

Honi dagokionez, gehikuntza irregularizat, soterazpen epealdia ordainketa zatitzen den urteen kopuruaz zatituz ateratzen den zatidura bat baino handiagoa denekoak hartuko dira.

5gn.) Bigarren erregelari aurrikusitako eragiketaren emaitza zero edo negatiboa denean, ez da kargarik egongo honako Foru Arau honen jatorriaren zatidura den gehikuntzaren zatiengatik.

**7gn. 1996ko ekainaren 9az aurretik eskuratutako ondare-elementuetatik etorritako ondare-gehikuntza eta urripenen zenbatekoaren zehaztapena.**

Subjektu pasiboak burututako enpresa edo lanbide jardura batik atxikita ez egon eta 1996ko ekainaren 9az aurretik eskuratuak diren ondare-elementuetatik etorritako ondare-gehikuntza eta urripenen zenbatekoa era honetan zehaztuko da:

1. 1996ko urtarrilaren 1 eta abenduaren 31 bitartean eskualdatutako ondare-elementuak.

Elementu bakoitzerako eta 1996ko urtarrilaren 1ean indarrean dauden Foru Arau honetako V. tituluko I. kapituluko 4. sekzioko arauak atxikiz zehaztuko da ondare-gehikuntza edo urripena, honako espezialitate hauekin:

1go) 45. artikuluko 2. ataleko b), c) eta d) lehen zatietan oinarritutako diren portzentaia 100eko 14,28a 100eko 25a eta 100eko 11,11a, hurrenez hurren, izango dira.

Lotugabeak izango dira, aurreko lehen zatietan adierazten denaren arabera, hurrenez hurren, zortzi, bost eta hamar urtetik gorako iraunaldia duten ondare-gehikuntzak.

2gn) Akzio guztiz askatuak direnetan, beren antzintasuna jatorri duten akzioei dagokiena izango da.

3gn) Ondare-urripenak ez dira txikiaren gai izango.

2. 1997ko urtarrilaren lehenaz geroztik eskualdatutako ondare-elementuak.

1go) Elementu bakoitzerako Foru Arau honetako V. tituluko I. kapituluko 4. sekzioko arauak atxikiz zehaztuko da ondare-gehikuntza edo urripena.

2gn) Ondare-gehikuntza irregularrik direnetan, beren zenbatekoa era honetan txikituko da:

a) Subjektu pasiboaren ondarean izandako iraunaldiz hartuko da elementua eskuratu zenetik

1996ko abenduaren 31ra bitarteko urte-kopurua, gehiagorik biribildua.

Harpidetza-eskubideen kasuan, iraunaldiz hartuko da jatorri duten baloreei dagokiena.

Eskualdatutako ondare-elementuetan hobekuntzarik egin bada, hobekuntza hauek subjektu pasiboaren ondarean izandako iraunaldiz hartuko da egin direnetik 1996ko abenduaren 31ra bitarteko urte-kopurua, gehiagorik biribildua.

b) Eskualdatutako ondare-elementuak ondasun higiezin, hauen gaineko eskubide edo Balore-Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 108. artikuluan jasotzen diren izakundeetako baloreak izanez gero, Higiezinetako Inbertsio-Sozietate edo Fondoen sozietate-kapital edo ondare ordetkatzen duten akzio edo partaidetzak izan ezik, ondare-gehikuntza 100eko 11,11az txikituko da aurreko lehen zatietan adierazten diren iraunaldi-urteetako bitik gorako bakoitzeko.

c) Eskualdatutako ondare-elementuak Balore-Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legeari aurrikusitako baloreen bigarren mailako merkatu ofizialetakoren batean negoziatzen onarturiko akzioak izanez gero, Higiezinetako Inbertsio-Sozietateen sozietate-kapitala ordetkatzen duten akzioak izan ezik, gehikuntza 100eko 25az txikituko da aurreko a) lehen zatietan adierazten diren iraunaldi-urteetako bitik gorako bakoitzeko.

d) Gainerako gehikuntzak 100eko 14,28az txikituko dira aurreko a) lehen zatietan adierazten diren iraunaldi-urteetako bitik gorako bakoitzeko.

e) Lotugabeak izango dira, 1996ko abenduaren 31n eta aurreko b), c) eta d) lehen zatietan adierazten denaren arabera, hurrenez hurren, hamar, bost eta zortzi urtetik gorako iraunaldia duten ondare-gehikuntzak, iraunaldi hau a) lehen zatietan definitzen den moduari atxikiz.

3gn) Ondare-urripen irregularrik ez dira txikiaren gai izango.

4gn) Eskualdatutako ondare-elementuetan hobekuntzarik egin bada, osagai bakoitzari dagokion besterenganaketa-balioaren zatia bereiziko da, aurreko 2 eta 3gn erregelatan xedatzen dena aplikatzeko.

**8gn. Errenta irregularren karga-tasa 1996an.**

Oinarri likidagarri irregularren 1996an aplikagarri zaion karga-tasa honako hauetarik handiena izango da:

a) Oinarri likidagarri irregularren 100eko 50ari karga-tasa aplikatuz ateratzen den batezbesteko tasa.

b) Zergari buruzko Foru Arauaren 74. artikuluko 2. atalean definitzen den batezbesteko karga-tasa.

Alabaina, ondare-gehikuntzez osaturiko oinarri likidagarri irregularren zatia aplikagarri zaion

karga-tasak ez du 100eko 20tik gorakoa izaterik izango

### **XEDAPEN IRAGANKORRAK**

#### **Lehena. Ezarpen osagarria.**

*Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araueko 19. artikulua, bigarren ataleko bigarren lehen zatian, aipatu estabuzimendu iraunkorraren errenten gaineko zerga osagarria 1992.eko urtarrilaren bataz gero egin eta aipatu errentei dagozkien atzerirako fondo-transferentziei doakiera eskatu ahal izango da.*

#### **Bigarrena. Zenbatespen objektiboari uko egitea.**

*Zenbatespen objektiboaren metodoa aplikagarri izanik, hari uko egin nahi dioten Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek 1992.eko martxoaren hogeitamaikara arteko epea izango dute, aukera hori erabiltzeko.*

#### **Hirugarrena. 1992.eraiko zeinu, indize edo moduluak onesten dituzten foru aginduak argitaratzeko epea.**

#### **Laugarrena. Harpidetza-eskubideen besterenganaketan lortzen den zenbatekoaren tratamendua.**

*Sozietateen kapitala ordezkatzeko duten baloreen eskualdaketa zioz etortzen diren ondare gehikuntzen edo urripenen eskuraketa balioa zehazteko, apirilaren 12ko 1/1989 Foru Dekretu Arauemailea baino lehenagoko arautegiaren ondorioz, Zergaren zioz ordaindu izan ez duten harpidetza-eskubideen zenbatekoa kenduko da.*

### **AZKEN XEDAPENAK**

#### **1go. Noiz jartzen den indarrean eta indargabetzeko duen eraginkortasuna**

Bat. Honako Foru Arau hau mila bederatzehun eta laurogeitamabigarren urteko urtarrilaren batean jarriko da indarrean eta data horretaz gero lortzen diren etekin, egozketa eta ondare-gehikuntza eta urripenei aplikatuko zaie, bai eta beraren ondoren sortzen direnei ere, azaroaren 28ko 8/1984 Foru Araueko eta berau garatzen dutenetako aldibaterako egozketarako erizpideen arabera.

Bi. Data horretaz gero, indarrak gabe geldituko dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 28ko 8/1984 Foru Araua eta honako Foru Arau honekin batera ezin daitezkeen legeko xedapen guztiak, Administrazioak beraien indarraldian zehar sortutako tributu zorrak ordain eraz baditzake ere.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko erregelamendu-arauek indarrean iraungo dute, Foru Arau honetako manuen edo bera garatzen duten xedapenen aurka jotzen ez duten artean.

Hiru. Xedapen Gehigarrietan 10gn. eta Iragakorretan 1go. Foru Arau hau Bizkaiko Egunkari Ofizialean argitaratuko diren egun berean jarriko dira indarrean eta ondoreak 1991.eko ekainaren 8az gero sorteziko dituzte.

2gn. Arauak emateko eskuespena

Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak eta Ogasun eta Finantzen Foru Diputatuak Foru Arau hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emango dituzte.

Bilbon, 1991.eko azaroaren 28an.

### **AZKEN XEDAPENAK**

#### **Lehena. Indargabetzeko eraginkortasuna.**

*Honako araudi hau indarrean jartzean indargabeturik geratuko da urtarrilaren 21eko 2/1991 Foru Dekretua, bai eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudia onetsi zuen apirilaren 1eko 35/1985 Foru Dekretua eta berau garatu zuten arauak ere.*

#### **Bigarrena. Ogasun eta Finantzen foru diputatuarentzako eskuespena.**

*Ogasun eta Finantzen foru diputatuari eskuespena ematen zaio, honako Araudi hau garatu eta aplikatzeko beharrezko xedapen guztiak eman ditzan.*

**PFEZri buruzko FORU ARAUAREN ALDAKETAK**

9/92 FORU ARAUA, 1993ko aurrekontu orokorrak (93.2.10eko BAO) Aldatzen ditu 45.Bi eta 78.lau.b) artikulua

1/95 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA (95.3.13ko BAO) 1995erako zerga neurriak. Normahiren aurrezki planak kentzen dira. Aldatzen ditu 19.1.a), 28.2), 34b), 37, 39.3, 44.1 eta 5, 52.3, 59.1a), 74.1, 78, 81, 92.2.4 eta 96.2 artikulua. Gaineratzen dira 16gn., 17gn., 18gn. eta 19gn. Xed. Geh. 1994rako atzera indarrez aplikatzen da 34. artikulua.

1/94 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA (94.2.22ko BAO). Aldatzen ditu 9, 22.1 eta 25. artikulua.

Otsailaren 16ko 300/1993 FORU AGINDUA (93.3.25eko BAO). Artezko literatur sari salbuetsiak jakinarazi beharra.

Urriaren 13ko 6/1993 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA (93.10.29ko BAO) 45.2c) artikulua aldateta.

Abuztuaren 21eko 145/1991 FORU DEKRETUA (91.9.9ko BAO) Paradisu fiskalen zerranda.

Abenduaren 29ko 2548/1994 ERREGA DEKRETUA (94.12.31ko BOE) 1995erako lanbidearteko gutxienezko soldata.

2/95 FORU ARAUA (95.4.18ko BAO) ZIMetako jardueren etekinen 100eko 8,5eko gutxipena.

61/94 FORU DEKRETUA (94.9.13ko BAO) 1go. Xed. Gehig. Ikastaldiko langileen konputua ondore fiskaletarako, %60-

29/95 FORU DEKRETUA (95.5.26ko BAO) Arrantza jarduerari uztea. 17gn. Xed. Gehi.

1/95 FORU ARAUA (95.3.10eko BAO) Inbertsioari laguntzeko zerga neurriak. Inbertsioen ziozko kenkaria.

1972/95 FORU AGINDUA (95.9.19ko BAO) Gardentasun Fiskalpeko Sozietateen bategitea edo desegitea garatzen ditu.

5/95 FORU ARAUA (95.12.19ko BAO) 7. atala gaineratzen dio 18. artikuluari. Lerroalde berria gaineratzen dio 78. artikuluko 1. ataleko a) letrari.

9/95 FORU ARAUA (95.12.29ko BAO) 78. artikulua aldatzen du. Fundazioentzako ekarpenen ziozko kenkariak.

10/95 FORU ARAUA (95.12.29ko BAO) Idazkera berria ematen zaio 34. artikuluko b) letrari.

1/96 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA (96.2.16ko BAO) Zazpigarren atala gaineratzen zaio 56. artikuluari. 71. artikulua idazkera berria. 1996rako karga eskalak. 6gn. atala gaineratzen zaio 92. artikuluari. %8ko gutxipena moduluetan.

2/96 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA (96.3.14) Bere xedapen gehigarrian 18. artikuluko 7. atalean aipatzen den portzentaia aldatzen du.

3/96 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA (96.10.29ko BAO) Hainbat artikulua aldatzen dira 1996rako: 17, 19.1, 22, 37.1, 37.2.a), 45, 46, 48.1.a), 48.1.b), 52, 53, 55, 66, 67, 71.1, 72, 75, 78.7.1), 100. artikulua, 15gn. Xed. Gehi., 16gn.1.a) Xed. Gehi., 5gn. 7gn. eta 8gn. Xed. Irag.

Martxoaren 11ko 1/1997 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, 1997rako Zerga Neurriei buruzkoa. Hainbat artikulua aldatzen dira 1997rako: 9, 19, 26, 34, 71, 74, 78, 83, 87, 91, 96 eta 98. artikulua.

Ekainaren 26ko 7/97 FORU ARAUA, 1997rako Zerga Neurriei buruzkoa.

Ekainaren 24ko 85/1997 FORU DEKRETUA, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren ondoretarako, arrantza jarduera behin betiko uztea kontzeptua garatu eta Europar Batasunaren arrantzari buruzko politikaren kalteordainetarako zerga mailako tratamendua noraino iristen den zehazten duena

Azaroaren 4ko 8/1997 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA, 7/1991 Foru Araua aldarazten duena. Aldatzen ditu 11, 12, 16, 17, 18, 20 eta 22. artikulua. Indarrean sartzen da 1997ko irailaren 1ean.

PFEZren ARAUDIAREN ALDAKUNTZAK

Martxoaren 10eko 20/1992 FORU DEKRETUA.  
Araudi osoa 92.3.20ko BAOren Eranskina.

Uztailaren 9ko 2036/92 FORU AGINDUA (92.9.5eko BAO) Atxikipenak sozietate zibilei.

Abuztuaren 19ko 99/1992 FORU DEKRETUA (92.9.8ko BAO) 3. atala sartzen du 53. artikuluan. 1.go X.G.

Maiatzaren 13ko 1319/93 FORU AGINDUA (93.6.1eko BAO) Egunsariak 93.5.1etik aurrera.

Maiatzaren 31ko 1546/93 FORU AGINDUA (93.6.11ko BAO) Liburuak diligenziaztea.

Uztailaren 12ko 61/94 FORU DEKRETUA (94.9.13ko BAO) 5, 35 eta 51. artikulua aldatzen ditu. Indarrean sartu zen 94.5.25ean. Ikastaldiko langileen konputua ondore fiskaletarako (%60)

Urtarrilaren 31ko 5/95 FORU DEKRETUA (95.3.13ko BAO) Nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak, atxikipen edo konturako sarrera pean ez dauden errentak. Zatikako ordainketen zenbatekoa. Aldatzen ditu 42, 43, 51, 55, 61, 62 eta 67. artikulua.

16/95 FORU DEKRETUA (95.3.29ko BAO) Moluluei uko egitea. Aldatzen ditu 20 eta 28. artikulua.

29/95 FORU DEKRETUA (95.5.26ko BAO) Idazketa berria ematen zaio 67. artikuluko laugarren ataleko bigarren lerroaldeari.

Abenduaren 20ko 3158/1995 FORU AGINDUA (95.12.28ko BAOren eranskina). 1996rako moduluak onesten ditu. Bizkaitik kanpoko ustiatzietako nekazaritza eta abeltzaintza jardueren moduluak biltzen dira.

Abenduaren 20ko 3157/95 FORU AGINDUA (96.2.6ko BAO) 1996rako moduluak. Bizkaiko nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak.

167/1995 FORU DEKRETUA (96.1.8ko BAO) 9. zenbakia sartzen da 4. artikuluko hirugarren atalean. Aldatzen da 31. artikuluko 1go. atala.

1/96 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA (96.2.16ko BAO) Atxikipena egin behararen salbuespenak.

6/1996 FORU DEKRETUA (96.2.16ko BAO) Aldatzen du 22. artikulua.

7/1996 FORU DEKRETUA (96.2.16ko BAO) Aldatzen du 33. artikuluko bigarren atala. 96.1.1etik aurrerako atxikipen taula. 46. artikuluko bigarren ataleko 4. zenbakia aldatzen du.

2/96 FORU DEKRETU ARAUEMAILEA (96.3.14ko BAO) 4. artikuluko Hiru ataleko 9. zenbakian adierazten den portzentaia %25era aldatzen du bere Xedapen Gehigarrian.

Uztailaren 22ko 98/96 FORU DEKRETUA. Aldatzen du Araudiko 4. artikuluko 8. atala (Egunsariak).

Ekainaren 10eko 80/97 FORU DEKRETUA. Aldatzen ditu 41, 43, 50, 59 eta 73. artikulua (Atxikipenak) Indarrean sartzen da 97.4.25ean. Indargabetzen ditu 12, 13, 36, 44.hiru eta 57. artikulua 97.7.1etik aurrera.

Foru Dekretu hau indarrean sartuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara dadin egunean bertan eta 1992ko urtarrilaren lehenaz gero eragina izango.